



EUSKALEKONOMIA

2017ko Txostena



LABORAL
kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-946432-1-7

1. ESPARRU OROKORRA.....	12
1. EKONOMIA-INGURUNEA (NAZIOARTEAN ETA ESTATUAN).....	13
1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	13
1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA	23
2. IKUSPEGI OROKORRA	34
2.1 EKOIZPENA	37
2.2 ESKARIA.....	41
2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	46
2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA	48
2. INDUSTRIA	56
1. IKUSPEGI OROKORRA	57
2. ENERGIA.....	64
2.1 EAE-KO ENERGIA-BALANTZEA.....	66
2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA.....	70
3. SIDERURGIA.....	73
3.1 EGOERA OROKORRA	73
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	76
3.3 EUSKAL SIDERURGIA	79
4. ONTZIGINTZA	87
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	87
4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN.....	89
4.3 ONTZIGINTZA EUSKADIN.....	91
5. AUTOMOBILGINTZA.....	96
5.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	97
5.2 SEKTOREA ESPAINIAN	101
5.3 AUTOMOZIOAREN INDUSTRIA HORNITZAILEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	107
6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK	109
6.1 MUNDUKO EGOERA.....	109
6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK.....	109
6.3 MAKINA-ERREMINTAK HEGO EUSKAL HERRIAN	112
6.4 ESKU-ERREMINTAK.....	118
7. PAPERA	119
7.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	119
7.2 SEKTOREA ESPAINIAN	121
7.3 SEKTOREA HEGO EUSKAL HERRIAN	124
8. KAUTXUA.....	126
8.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	126
8.2 KAUTXUA ERALDATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAE-N	126
8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUEN AZPISEKTOREA.....	129
9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA	131
9.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	131
9.2 SEKTOREA ESPAINIAN	132
9.3 SEKTOREA EAE-N	133
10. ERAIKUNTZA	136



11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.....	148
11.1 SARRERA.....	148
11.2 METODOLOGIA.....	148
11.3 RATIOEN PIRAMIDEA.....	159
11.4 FUNTSEN ITURRI ETA ERABILEREN EGOERA.....	166
12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....	204
12.1 SARRERA.....	204
12.2 BILAKAERA OROKORRA.....	204
12.3 EKONOMIA-SEKTOREAK.....	207
12.4 SOLDATAKOEN GERUZAK.....	210
3. LEHEN SEKTOREA.....	213
1. IKUSPEGI OROKORRA	214
1.1 BILAKAERA ESTATUAN.....	214
1.2 BILAKAERA HEGO EUSKAL HERRIAN	216
2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA	224
2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK.....	224
2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK	228
3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA.....	229
3.1 AZIENDA-ERROLDA	229
3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK	231
4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA	239
5. ARRANTZA-SEKTOREA	242
5.1 EGOERA OROKORRA	242
5.2 BAXURAKO ARRANTZA.....	243
5.3 ALTURAKO ARRANTZA.....	250
4. ZERBITZUAK.....	252
1. IKUSPEGI OROKORRA	253
2. HEZKUNTZA	254
2.1 UNIBERTSITATEK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA.....	254
2.2 UNIBERTSITATE-IKASLEEN BILAKAERA	264
3. GARRAIOA.....	273
3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	273
3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA	277
3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA.....	282
3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA	292
5. FINANTZA SEKTOREA.....	297
1. IKUSPEGI OROKORRA	298
2. KREDITU-ERAKUNDEAK.....	303
2.1 KREDITUAREN BILAKAERA	303
2.2 GORDAILUEN BILAKAERA	315
3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK.....	321
4. BURTSA-MERKATUA	326
4.1 IKUSPEGI OROKORRA.....	327
4.2 BILBOKO BURTSA.....	332

Taula aurkibidea

1. koadroa	Barne-produktu gordinaren bilakaera.....	13
2. koadroa	Barne-eskari osoaren bilakaera	14
3. koadroa	Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak.....	14
4. koadroa	Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak).....	15
5. koadroa	Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera	15
6. koadroa	Langile bakoitzeko ordainsarien bilakaera.....	16
7. koadroa	Enpleguaren bilakaera.....	17
8. koadroa	Langabezia-tasa.....	17
9. koadroa	Administrazio publikoen finantzaketa-premiak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo premia (-), barne-produktu gordin nominalaren ehunekotan).....	18
10. koadroa	Adierazle nagusiak (EB-28).....	20
11. koadroa	Barne-produktu gordinaren hazkundera (Europar Batasuna).....	21
12. koadroa	Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordin (2017).....	22
13. koadroa	Aurreikuspen ekonomikoak (herrialde industrializatuak).....	23
14. koadroa	Barne-produktu gordin eta haren osagaiak (eskaria eta eskaintza).....	26
15. koadroa	Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta).....	26
16. koadroa	Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI).....	28
17. koadroa	Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak.....	29
18. koadroa	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak.....	30
19. koadroa	Enplegua, egoera profesionalaren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak.....	31
20. koadroa	Defizit publikoa	31
21. koadroa	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2018).....	33
22. koadroa	Bilakaera orokorra.....	34
23. koadroa	Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera	36
24. koadroa	Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera.....	37
25. koadroa	Industria Sektorearen adierazleak.....	38
26. koadroa	Eraikuntza Sektoreko Adierazleak.....	39
27. koadroa	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	40
28. koadroa	Barne-eskariaren adierazleak.....	41
29. koadroa	Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak.....	42
30. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Hego Euskal Herrian	43
31. koadroa	EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta atalen arabera.....	44
32. koadroa	Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera.....	45
33. koadroa	Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan.....	46
34. koadroa	Soldata-adierazleak.....	47
35. koadroa	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia	50
36. koadroa	Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	51
37. koadroa	Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak.....	52
38. koadroa	EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak.....	53
39. koadroa	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	53
40. koadroa	Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2016	54
41. koadroa	Hego Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera	55
42. koadroa	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera	58
43. koadroa	Hego Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoen arabera.....	58
44. koadroa	EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka*.....	59
45. koadroa	Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka	59
46. koadroa	Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako.....	60



47. koadroa	Emaitzen kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	62
48. koadroa	EAEko energia-balantzea, 2016	67
49. koadroa	Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera.....	67
50. koadroa	Azken kontsumoa EAEn, sektoreen arabera.....	69
51. koadroa	Energia elektrikoaren produkzioa eta eskaria Hego Euskal Herrian	71
52. koadroa	Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldeka.....	72
53. koadroa	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	74
54. koadroa	Siderurgia-produktuen kontsumoa.....	76
55. koadroa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*	76
56. koadroa	Inportatutako lehengaiak.....	78
57. koadroa	EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza	80
58. koadroa	Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena	81
59. koadroa	Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera.....	81
60. koadroa	Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*.....	82
61. koadroa	Soldadurarik gabeko hodian ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza	83
62. koadroa	Soldadurarik gabeko hodian esportazioak helmugako herrialdeen arabera.....	84
63. koadroa	Negozio-arloak eta enpresa-unitateak Tubos Reunidos taldea. 2017	86
64. koadroa	Munduko merkataritzako ontzidia	87
65. koadroa	Munduko merkataritzako ontzidia, jatorrizko herrialdearen arabera.....	88
66. koadroa	Munduko merkataritzako ontzidia, itsasontzi-motaren arabera.....	89
67. koadroa	Espainiako itsasontzi-ekoizpena	90
68. koadroa	Eskabide-zorroa urte-amaieran	90
69. koadroa	Eskabide-zorroa itsasontzi-motaren arabera, urte-amaieran 2017.....	91
70. koadroa	Ontzigintza Euskadin.....	92
71. koadroa	Ontzigintzaren ekoizpena Euskadin. Partaidetza Estatuan. Tonaje konpentsatua.....	92
72. koadroa	Eskabide-zorroa Euskadin.....	94
73. koadroa	Enpresa bakoitzaren eskabide-zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak	94
74. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa.....	100
75. koadroa	Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza.....	102
76. koadroa	Turismoen matrikulazioa, marken arabera.....	103
77. koadroa	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	104
78. koadroa	Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak	105
79. koadroa	Espainiako automoziorako ekipo eta osagaien industriaren kopuru nagusiak	106
80. koadroa	EAEko automobilgintzaren sektore hornitzailearen bilakaera.....	107
81. koadroa	Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektoreko ekoizpena.....	110
82. koadroa	Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektoreko esportazioak	111
83. koadroa	Makina-erremintaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainiako estatuan.....	112
84. koadroa	Espainiako makina-erreminten ekoizpenaren banaketa, makineria motaren arabera.....	114
85. koadroa	Espainiaren makina-erreminten esportazioen jomugako hamar herrialde nagusiak.....	115
86. koadroa	Esportazioak makina-erreminta motaren arabera	116
87. koadroa	Espainiaren makina-erreminten inportazioen jatorri diren hamar herrialde nagusiak.....	117
88. koadroa	Sektoreko magnitude nagusien bilakaera	118
89. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak).....	119
90. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka	120
91. koadroa	Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera	121
92. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira	122
93. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, paper-motaren arabera.....	123

94. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, ore-motaren arabera	124
95. koadroa	Paperaren eta orearen ekoizpena Hego Euskal Herrian.....	125
96. koadroa	Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Hego Euskal Herrian	125
97. koadroa	Kautxu naturalaren eta sintetikoaren kontsumoa munduan.....	126
98. koadroa	Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarritzko datuak ⁰ Espainian.....	127
99. koadroa	Kautxu eraldatuaren kanpo-merkatutzako datuak, azpisektoreka.....	128
100. koadroa	Kautxu eraldatuaren kanpo-merkatutzako datuak, azpisektoreka.....	128
101. koadroa	Pneumatikoen eta birkautxutuen ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkatutzak	129
102. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian	130
103. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn.....	133
104. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn	134
105. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn.....	134
106. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn.....	135
107. koadroa	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	136
108. koadroa	Eraikuntzaren Koiunturako Indizea (EKI).....	137
109. koadroa	Lizitazio ofizialen banaketa: administrazio zentrala, autonomikoa eta tokikoa	138
110. koadroa	Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2017).....	139
111. koadroa	Lizitazio ofiziala, obra-moten arabera (2017).....	140
112. koadroa	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak ^(*)	143
113. koadroa	Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*.....	146
114. koadroa	Eraikuntzako langileak.....	146
115. koadroa	Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralaren enpresa laguntzaileen kopurua.....	159
116. koadroa	Ondare garbiaren errentagarritasuna Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	160
117. koadroa	Aktibo garbiaren errentagarritasuna Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	161
118. koadroa	Leverage finantzarioa Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan	162
119. koadroa	Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreen alderaketa, 2016.....	164
120. koadroa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan.....	167
121. koadroa	Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreen alderaketa, 2016.....	168
122. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea.....	172
123. koadroa	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko ratioen piramidea.....	173
124. koadroa	Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea	174
125. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea.....	175
126. koadroa	Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	176
127. koadroa	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	177
128. koadroa	Metalurgiaren sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) ratioen piramidea	178
129. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)	179
130. koadroa	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	180
131. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	181
132. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	182



133. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	183
134. koadroa	Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	184
135. koadroa	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea.....	185
136. koadroa	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	186
137. koadroa	Industria osoaren ratioen piramidea.....	187
138. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria-sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	188
139. koadroa	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	189
140. koadroa	Paperaren industriaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	190
141. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	191
142. koadroa	Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	192
143. koadroa	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	193
144. koadroa	Metalurgiaren sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferrolineazioen fabrikazioa) funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	194
145. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	195
146. koadroa	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	196
147. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria.....	197
148. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera.....	198
149. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera.....	199
150. koadroa	Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera.....	200
151. koadroa	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera.....	201
152. koadroa	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera.....	202
153. koadroa	Industria-sektore osoko iturrien eta erabileraren egoera.....	203
154. koadroa	Enpresak ekonomia-atalaren arabera. 2011-2017 alderaketa.....	209
155. koadroa	Enpresak, soldatuen geruzen arabera. 2011-2017 alderaketa.....	212
156. koadroa	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	215
157. koadroa	EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*.....	217
158. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkatutzat. Hego Euskal Herria.....	220
159. koadroa	Enplegua lehen sektorean*.....	222
160. koadroa	Hego Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*.....	224
161. koadroa	Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*.....	226
162. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenekin lortutako errendimenduak*.....	227
162. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak ⁽¹⁾	228
164. koadroa	Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroaren 30ean).....	230
165. koadroa	Esnearen ekoizpena.....	231
166. koadroa	EAEko ekoiztutako esnearen helburua.....	232
167. koadroa	Esne-ekoizpenerako eliteko behi-ustiatzearen lagin baten emaitzak.....	233
168. koadroa	ABEREK eta INTIA-ITGk kudeatutako esne-ardi ustiatzearen batez besteko emaitza ekonomikoak.....	234
169. koadroa	Euskal Herriko hiltzearen hildako azalera.....	236

170. koadroa	Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden okelatarako behi eta ardien ustiatzearen emaitzak.....	237
171. koadroa	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiatzearen emaitzak.....	238
172. koadroa	EAEn egurra mozteko lizentziak.....	239
173. koadroa	EAEn egurra mozteko lizentziak.....	240
174. koadroa	EAEko ontzidiaren egitura	242
175. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, portu bakoitzeko (2017)	243
176. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera (2017).....	244
177. koadroa	Baxurako ontzidiak lehorreratutako arrantza, guztira	245
178. koadroa	Baxurako ontzidiak lehorreratutako arrantzaren helmuga, 2017.....	246
179. koadroa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera	247
180. koadroa	Baxurako ontzidiek lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera (2017).....	248
181. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera (2017)	250
181. koadroa	EAEko alturako ontzidiaren egitura, 2017*	251
183. koadroa	Zerbitzuen sektorearen bilakaera	253
184. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. Haur Hezkuntza	254
185. koadroa	Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza	255
186. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. Lehen Hezkuntza	256
187. koadroa	Euskalduntze-maila. Lehen Hezkuntza	257
188. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. DBH.....	258
189. koadroa	Euskalduntze-maila. DBH.....	259
190. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.....	261
191. koadroa	Euskalduntze-maila. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.....	262
192. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. LOGSE Batxilergoa.....	263
193. koadroa	Euskalduntze-maila. LOGSE Batxilergoa	263
194. koadroa	Ikasle eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko Unibertsitateetan.....	265
195. koadroa	Ikasleen banaketa UPV/EHU ⁽¹⁾	266
196. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean.....	268
197. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP).....	269
198. koadroa	Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean	270
199. koadroa	Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean	271
200. koadroa	Bidaiarien mugimendua*	273
201. koadroa	Bidaiarien mugimendua, konpainien arabera.....	273
202. koadroa	Bidaiarien garraioaren ondoriozko diru-bilketa	274
203. koadroa	Jatorria eta/edo helmuga Hego Euskal Herrian duten salgaien bolumena ⁽¹⁾	274
204. koadroa	Trenbide bidezko garraioaren sektoreko langileak.....	275
205. koadroa	Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan	275
206. koadroa	Bilboko Metroko bidaiarien banaketa, geltokien arabera (2017).....	276
207. koadroa	Ibilgailuen parkea	278
208. koadroa	Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbia*	279
209. koadroa	Motorizazio-indizeak	279
210. koadroa	Garraiatutako salgaiak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa jatorrizko eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera	280
211. koadroa	Hiri-garraioa. Sektoreko oinarrizko datuak	281
212. koadroa	Hiriko garraioaren bilakaera.....	282
213. koadroa	Itsaso bidezko munduko merkataritza.....	283
214. koadroa	Espainiako itsas merkataritza.....	283
215. koadroa	Euskal portu nagusietako trafikoa	284
216. koadroa	Salgaien guztizko trafikoaren osaera.....	285
217. koadroa	Kanpoko trafikoa eta kabotajea	286



218. koadroa	Bilboko portuko kanpoko trafikoaren osaera (2017).....	286
219. koadroa	Pasaiaiko portuko kanpoko trafikoaren osaera (2017).....	287
220. koadroa	Bilboko portua. Trafikoa herrialdeen arabera (2017).....	288
221. koadroa	Pasaiaiko portua. Trafikoa herrialdeen arabera (2017).....	291
222. koadroa	Bilboko portua. Magnitude ekonomikoak.....	291
223. koadroa	Hego Euskal Herriko aireko trafikoa.....	292
224. koadroa	Aireontzien trafikoa, aireportuaren arabera*.....	293
225. koadroa	Salgaien trafikoa, aireportuaren arabera*.....	294
226. koadroa	Bidaiarien trafikoa, aireportuaren arabera*.....	294
227. koadroa	Aireportuko trafikoaren gorakada (2017/2016)*.....	295
228. koadroa	Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE).....	301
229. koadroa	Gordailu-erakundeak. Bulego-kopurua.....	302
230. koadroa	Finantza- eta aseguru-jardueretan afiliatzea.....	302
231. koadroa	Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera.....	304
232. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua eragileen arabera.....	305
233. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	306
234. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	307
235. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua eragileen eta eremuaren arabera.....	309
236. koadroa	Etxebizitzan gaineko hipoteka berrien eraketa.....	311
237. koadroa	Aldaketa notarialak eragindako etxebizitza-hipotekak.....	312
238. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak.....	313
239. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankortasunaren gutzitako tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	313
240. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	314
241. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarriko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	314
242. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, eragileen arabera.....	315
243. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk.....	316
244. koadroa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.....	317
245. koadroa	Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina.....	318
246. koadroa	Kreditu-erakundeak. Familiei ⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioei eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR).....	319
247. koadroa	Finantza-arloko inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea eta kopurua.....	321
248. koadroa	Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtzen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera.....	323
249. koadroa	Higigarrietako inbertsio-funtzen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduaren 31).....	324
250. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera.....	327
251. koadroa	Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak.....	328
252. koadroa	Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa.....	330
253. koadroa	Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: estatuaren zorra ⁽¹⁾	331
254. koadroa	Espainiako eperako finantzarioen eta aukera finantzarioen merkatua *.....	332
255. koadroa	Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, gehienekoa eta gutxienekoa.....	333
256. koadroa	Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*.....	333

Grafiko aurkibidea

1. grafikoa	Interes-tasen aldakuntzak	19
2. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	32
3. grafikoa	Barne-produktu gordinaren bilakaera.....	35
4. grafikoa	Industria-errentagarritasuna.....	61
5. grafikoa	Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera (m ptb).....	68
6. grafikoa	Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena	75
7. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	77
8. grafikoa	Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena.....	79
9. grafikoa	Tubacex taldearen 2017ko salmenten banaketa geografikoa.....	85
10. grafikoa	Ontzigtzako eskabide-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT).....	93
11. grafikoa	Sektoreko fakturazioaren bilakaera.....	108
12. grafikoa	Makina-erremintaren sektoreko merkataritza-balantza	113
13. grafikoa	Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian	122
14. grafikoa	Lizitazio ofiziala.....	142
15. grafikoa	Amaitutako etxebizitzien kopurua.....	145
16. grafikoa	Eraikuntzako langileak.....	147
17. grafikoa	Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) hego Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2016	165
18. grafikoa	Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) alderaketa, 2016.....	166
19. grafikoa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2016	170
20. grafikoa	Inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxua Hego Euskal Herriko eta estatu osoko industria-sektoreetan, 2016ko alderaketa	171
21. grafikoa	Enpresa kopuruaren bilakaera.....	205
22. grafikoa	Enpresa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza	206
23. grafikoa	Estatuko guztizkoaren gaineko garrantziaren bilakaera (estatu=100)	207
24. grafikoa	Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (zenbaki indizea 2011=100)	208
25. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatuen tarteen arabera (zenbaki indizea 2011=100)	211
26. grafikoa	Nekazaritza-sektoreko faktore-kostuetako balio erantsi gordinaren bilakaera.....	218
27. grafikoa	Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*	223
24. grafikoa	Abeltzaintza-ekoizpena Hego Euskal Herrian, espezieen bilakaera	236
25. grafikoa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak.....	247
30. grafikoa	Ikasleen matrikulazioaren bilakaera Euskal Herrian	260
31. grafikoa	Salgaien eta ontzien trafikoa Bilboko portuan	289
32. grafikoa	Salgaien eta ontzien trafikoa Pasaiako portuan	290
33. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*	299
34. grafikoa	Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa	300
35. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE).....	307
36. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera.....	308
37. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera.....	316
38. grafikoa	Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala.....	319
39. grafikoa	Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtza (2017)	332



| 17

1. ESPARRU OROKORRA

1. EKONOMIA-INGURUNEA (NAZIOARTEAN ETA ESTATUAN)

1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri orokorrak: ekoizpen-jarduera

2017an munduko ekonomiak susperraldia sendotu du; eta, hazkundearen erritmoa indartuz, % 3,8ra iritsi da (2016an % 3,2). Izan ere, ekonomia aurreratuen abiadura handitu da (% 2,3ko hazkundera 2017an, aurreko ekitaldian, berriz, % 1,7koa izan zen), eta goraka ari diren eta garatzeko bidean dauden merkatuek ere bizitu egin dute abiadura (% 4,8 igo dira 2017an, aurreko ekitaldian, berriz, % 4,4), munduko merkataritzaren bultzada nagusi den egoera orokorrean.

Horiek horrela, ELGAren maiatzeko aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuek portzentajezko zazpi hamarren areagotu dute hazkundera: 2016an % 1,8 igo zen, eta 2017an, berriz, % 2,5. Bestalde, hazkunde handiago bat aurkitzeko, 2010eraino egin behar dugu atzera (% 3).

1. koadroa Barne-produktu gordinaren bilakaera

Herrialdea	(% Δ)		
	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	2,9	1,5	2,3
Japonia	1,4	1,0	1,7
Alemania	1,5	1,9	2,5
Frantzia	1,0	1,1	2,3
Italia	0,8	1,0	1,6
Erresuma Batua	2,3	1,9	1,8
Kanada	1,0	1,4	3,0
Eurogunea	1,6	1,7	2,5
ELGA, guztira	2,4	1,8	2,5

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Lehenik eta behin, Ipar Amerikako ekonomiari erreparatuta, hura ere aurreko ekitaldian baino indar handiagoz igo da 2017an (% 2,3 2017an; % 1,5 2016an), batez ere barne-eskariak bizitasun handiagoa izan duelako (% 2,4 2017an; % 1,7 aurreko ekitaldian).

Goraka ari diren eta garatzeko bidean dauden merkatu-ekonomien esparruan, Errusia eta Brasil berriro gora egiten hasi dira 2017an (% 1,5 eta % 1 hurrenez hurren; 2016an, berriz, -% 0,2 eta -% 3,5), eta Txinak eta Indiak % 7 inguruko hazkundeak lortu dituzte (% 6,9 eta % 6,7 hurrenez hurren).

2. koadroa Barne-eskari osoaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	3,5	1,7	2,4
Japonia	1,0	0,4	1,1
Alemania	1,5	2,4	2,4
Frantzia	1,5	1,9	2,3
Italia	1,4	1,3	1,3
Erresuma Batua	2,4	2,2	1,4
Kanada	0,1	0,8	3,8
Eurogunea	1,9	2,3	2,0
ELGA, guztira	2,7	2,0	2,4

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Europako testuinguruan, Euroguneak gero eta gehiago sendotu du aurrerapenaren erritmoa, eta % 2,5era iritsi da (% 1,7 2016an, % 1,6 2015ean). Horrenbestez, 2014an hasitako susperraldia (% 1,3ko errebotea) indartu egin da, eta aurreko urteetan pairatutako atzeraldia amaitu da.

Kanpo-merkataritza

ELGAko kide diren herrialdeetako merkataritza-jarduera biziagoa izan da 2017an aurreko urtean baino. Bultzada handiagoa izan dute esportazioek (% 4,6 igo dira 2017an; % 2,6 2016an), bai eta inportazioek ere (% 4,5ko hazkundea; % 3,2koa aurreko urtean). Horri dagokionez, berezitasun hauek nabarmendu behar dira: Ameriketako Estatu Batuen kanpo-salmenten gorakada nabarmena, Japoniaren esportazioen bizkortze garbia, eta Kanadaren eta Japoniaren inportazioen susperraldi adierazgarria.

3. koadroa Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak

(% Δ)

Herraldea	Inportazioak			Esportazioak		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	5,0	1,3	4,0	0,4	-0,3	3,4
Japonia	0,8	-1,6	3,4	2,9	1,7	6,7
Alemania	5,2	3,8	5,6	4,7	2,4	5,3
Frantzia	5,5	4,2	4,1	4,0	1,9	3,3
Italia	6,6	3,8	5,7	4,2	2,6	6,0
Erresuma Batua	5,1	4,8	3,2	5,0	2,3	5,7
Kanada	0,7	-1,0	3,6	3,5	1,0	1,0
ELGA, guztira	4,8	3,2	4,5	4,3	2,6	4,6

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Horrenbestez, herrialde industrializatu guztien eragiketa arrunten balantzea (alegia, ondasun eta zerbitzuen merkataritza-jardueraren eta transferentzia arruntaren bilakaeraren emaitza) positiboa izan da 2017an: 196,5 mila milioi dolar (2016an 114,8 mila milioi dolar izan ziren). Emaitza hori bultzatu duen arrazoi nagusia izan da nabarmen

hobetu dela Euroguneko superabit-saldoa (504 mila milioi dolar 2017an; aurreko ekitaldian, berriz, 435,5 mila milioi dolar izan ziren). Bestalde, okerrera egin du Ameriketako Estatu Batuetako defizit-saldoak (-466,2 mila milioi dolar 2017an; -451,7 mila milioi dolar 2016an) eta horren eragina kaltegarria izan da.

4. koadroa Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	-434,6	-451,7	-466,2
Japonia	136,4	189,2	196,6
Alemania	302,9	294,9	298,6
Frantzia	-8,9	-18,6	-14,3
Italia	27,7	47,7	53,5
Erresuma Batua	-149,7	-154,3	-106,7
Kanada	-56,1	-49,4	-49,4
Eurogunea	441,1	435,5	504,0
ELGA, guztira	85,0	114,8	196,5

(mM \$)

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Prezioak eta soldatak

Ekitaldian, oro har, petrolioaren garestuak denez (Brent upelak 43,3 dolar balio zuen 2016an, eta 54,3 dolar 2017an), kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkundearen erritmoa bizkortu du aztertutako herrialde guztietan.

lido horretan, ELGaren arabera, kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkundera bizkortu du 2017an; zehazki, % 1,7raino Estatu Batuetan eta % 1,4raino Eurogunean (2016an % 1,2 eta % 0,4 hurrenez hurren). Industrializatutako herrialdeen multzoan, berriz, % 2raino igo da (% 1,1 aurreko ekitaldian).

5. koadroa Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	0,3	1,2	1,7
Japonia	0,4	-0,5	0,2
Alemania	0,6	0,6	1,7
Frantzia	0,3	0,0	0,9
Italia	0,2	0,1	1,2
Erresuma Batua	0,6	1,4	2,0
Kanada	1,1	1,0	1,1
Eurogunea	0,3	0,4	1,4
ELGA, guztira	0,8	1,1	2,0

(% Δ)

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Horiek horrela, AEBko Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren politika monetarioak desberdinak izan dira. Erreserba Federalak portzentajezko puntu laurden bat igo du bere erreferentzia-tasa hiru aldiz (martxoan, ekainean eta abenduan); horrenbestez, 2017ko ekitaldia ixtean % 1,5ekoa izan da. Bestalde, Europako Banku Zentralak tinko eutsi dio erreferentzia-tasari: % 0 izan da ekitaldi guztian.

Soldaten bilakaera aztergai hartuta, 2017an langile bakoitzeko ordainsariak aurreko ekitaldian baino gehiago egin du gora honako herrialde hauetan: Ameriketako Estatu Batuak, Alemania, Frantzia eta Kanada (% 1,7, % 2,6 eta % 1,9 azken bi herrialdeetan; 2016n, berriz, % 1, % 2,2, % 1 eta % 0,8 hurrenez hurren). Bestalde, bizitasun txikiagoko igoyerak izan dituzte Japonian (% 0,8 2017an; % 1,1 2016an), Italian (% 0,2 2017an; % 0,5 2016an) eta Erresuma Batuan (% 2,9 2017an; % 3,3 2016an).

6. koadroa Langile bakoitzeko ordainsarien bilakaera

Herrialdea	(% Δ)		
	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	2,7	1,0	1,7
Japonia	0,5	1,1	0,8
Alemania	2,7	2,2	2,6
Frantzia	0,9	1,0	1,9
Italia	0,9	0,5	0,2
Erresuma Batua	1,1	3,3	2,9
Kanada	2,0	0,8	1,9
Eurogunea	1,6	1,3	1,6

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Lan-merkatua

Jarduera ekonomiko sendoari esker, lan-merkatuek bilakaera ona izan dute 2017an ere: enpleguak gora egin du, eta jaitsi egin da, oro har, langabezia-tasa.

Zehazki, 2017an enpleguak gora egin du aztertutako herrialde eta bloke guztietan; bizitasun handiena Kanadak izan du (% 1,9), haren atzetik Eurogunea ageri da (% 1,5), eta ondoren Ameriketako Estatu Batuak (% 1,3). Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da enplegua aurreko ekitaldian baino erritmo motelagoan sortu dela, bai Amerikako Estatu Batuetan bai Eurogunean.

7. koadroa Enpleguaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	1,7	1,7	1,3
Japonia	0,5	1,0	1,0
Alemania	0,8	2,4	1,1
Frantzia	0,1	0,6	1,1
Italia	0,8	1,3	1,1
Erresuma Batua	1,7	1,4	1,0
Kanada	0,9	0,7	1,9
Eurogunea	1,1	1,7	1,5

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Langabezia-tasak, berriz, behera egin du orokorrean 2017an, eta Euroguneko langabezia-tasa nabarmen handiagoa da Ameriketako Estatu Batuetakoa eta herrialde industrializatuen multzo osokoa baino (% 9,1 Eurogunean, % 4,3 AEBn eta % 5,8 herrialde industrializatuen multzoan).

8. koadroa Langabezia-tasa

(Biztanleria aktiboaren % zenbat)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	5,3	4,9	4,3
Japonia	3,4	3,1	2,8
Alemania	4,6	4,2	3,8
Frantzia	10,4	10,1	9,4
Italia	11,9	11,7	11,2
Erresuma Batua	5,4	4,9	4,4
Kanada	6,9	7,0	6,3
Eurogunea	10,9	10,0	9,1
ELGA, guztira	6,8	6,3	5,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Politika monetarioa eta aurrekontuen politika

2017an gure inguruko ia herrialde guztietan jarraipena eman zaio gehiegizko defizit-mailak jaisteko neurrien ezarpenari; eta, horrenbestez, kontu publikoen desorekak murriztu dira. Japonia izan da salbuespen bakarra, igoera txiki bat ezarri baitu.

Europaren esparruan, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak murriztu egin dituzte beren defizitak (-% 2,6, -% 2,3 eta -% 1,8 2017an; -% 3,4, -% 2,5 eta -% 3,3 2016an). Alemaniak, berriz, % 1,3 areagotu du superabita (% 1 aurreko ekitaldian). Eurogunearen baterako defizitari erreparatuta, -% 0,9 izan da 2017an (-% 1,5 2016an).

Nazioartean, bai Ameriketako Estatu Batuek bai Kanadak beren defizit-maila murriztu dute (2017an -% 3,6 eta -% 1 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian, berriz, -% 5 eta -% 1,1). Bestalde, Japoniak zertxobait igo du (-% 3,5 2017an; -% 3,4 2016an).

Horiek horrela, ELGAko kide diren herrialdeek finantzaketa-premiak murriztu dituzte 2017an, BPGren -% 2ra arte). Horrenbestez, aurreko ekitaldiko maila (-% 2,9) portzentajezko bederatzi hamarrenetan hobetu dute.

**9. koadroa Administrazio publikoen finantzaketa-premiak
(finantzaketa-gaitasuna (+) edo premia (-), barne-produktu gordin
nominalaren ehunekotan)**


(Barne-produktu gordinaren % zenbat)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	-4,3	-5,0	-3,6
Japonia	-3,6	-3,4	-3,5
Alemania	0,8	1,0	1,3
Frantzia	-3,6	-3,4	-2,6
Italia	-2,6	-2,5	-2,3
Erresuma Batua	-4,3	-3,3	-1,8
Kanada	-0,1	-1,1	-1,0
Eurogunea	-2,0	-1,5	-0,9
ELGA, guztira	-3,0	-2,9	-2,0

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Politika monetarioari dagokionez, lehen adierazi bezala, 2017an AEBko Erreserba Federalak % 1,5era arte igo du bere erreferentzia-tasa, eta Europako Banku Zentralak (EBZ), berriz, lehengoari eutsi dio (% 0).

1. grafikoa Interes-tasen aldakuntzak



Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Europar Batasuna

Europako eremua aztertzea helburu duen azpiepigrafe hau garatu aurretik, adierazi behar dugu EB-28 osoari buruzko informazioa ematen jarraituko dugula, Brexita gorabehera; izan ere, Erresuma Batua Europar Batasunetik benetan irteteko prozesua negoziazio-fasean dago oraindik ere.

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, 2017an EB-28 osoak bere hazkundearen erritmoa indartu du, % 2,4ra iritsi arte (% 2koa izan zen aurreko ekitaldian). Bestalde, barne-eskariaren bizitasuna baretu da, eta portzentajezko hiru hamarren behera egin ditu (% 2,1eko hazkundera 2017an; % 2,4koa 2016an), esportazioen hazkundera areagotu da (% 5,3 2017an; % 3,5 aurreko ekitaldian), eta inportazioen hazkundera, berriz, baretu egin da (% 4,5 2017an; % 4,8 aurreko ekitaldian).

Barne-eskarian arreta jarrita, bai kontsumo pribatuak bai kontsumo publikoak bai inbertsioak bizitasun handiagoa izan dute aurreko ekitaldian baino: 2017an % 1,9, % 1,1, eta % 3,4 hurrenez hurren; 2016an % 2,4, % 1,6 eta % 3,5 hurrenez hurren).

10. koadroa Adierazle nagusiak (EB-28)

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
Jarduera			
– Kontsumo pribatua	2,1	2,4	1,9
– Kontsumo publikoa	1,3	1,6	1,1
– Kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG)	3,6	3,5	3,4
– Barne-eskaria	2,3	2,4	2,1
– Esportazioak	6,2	3,5	5,3
– Inportazioak	6,3	4,8	4,5
– Barne-produktu gordina	2,3	2,0	2,4
Prezioak eta soldadak			
– Barne-produktu gordinaren deflatorea	1,3	1,0	1,4
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	0,3	0,6	1,6
– Lan-kostu unitario errealak	-1,1	0,1	-0,2

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2018ko udaberria).*

Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen bilakaera kontuan hartuta, guztiek gora egin dute 2017an. Honako hauek izan dute bizitasun handiena, betiere % 5etik gorakoa: Irlanda, Errumania, Malta eta Eslovenia (% 7,8, % 6,9, % 6,6 eta % 5 hurrenez hurren). Beste muturrean daude % 2tik beherako hazkundea izan duten herrialdeak: Erresuma Batua eta Frantzia (% 1,8 bietan), Belgika (% 1,7), Italia (% 1,5) eta Grezia (% 1,4). Bestalde, Alemaniak, Europako eragile ekonomiko nagusiak, % 2,2ko hazkundea izan du; horrenbestez, portzentajezko hiru hamarren areagotu du aurrerapenaren erritmoa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 1,9 2016an).

11. koadroa Barne-produktu gordinaren hazkundea
(Europar Batasuna)

(Urteik urterako aldaketa-tasaren % zenbat)

Herrialdea	2015	2016	2017
Irlanda	25,6	5,1	7,8
Errumania	4,0	4,8	6,9
Malta	9,9	5,5	6,6
Eslovenia	2,3	3,1	5,0
Estonia	1,7	2,1	4,9
Polonia	3,8	3,0	4,6
Letonia	3,0	2,2	4,5
Txekiar Errepublika	5,3	2,6	4,4
Hungaria	3,4	2,2	4,0
Zipre	2,0	3,4	3,9
Lituania	2,0	2,3	3,8
Bulgaria	3,6	3,9	3,6
Eslovakia	3,9	3,3	3,4
Herbehereak	2,3	2,2	3,2
Espainia	3,4	3,3	3,1
Austria	1,1	1,5	2,9
Kroazia	2,3	3,2	2,8
Portugal	1,8	1,6	2,7
Finlandia	0,1	2,1	2,6
Suedia	4,5	3,2	2,4
EB-28	2,3	2,0	2,4
Luxenburgo	2,9	3,1	2,3
Alemania	1,7	1,9	2,2
Danimarka	1,6	2,0	2,2
Erresuma Batua	2,3	1,9	1,8
Frantzia	1,1	1,2	1,8
Belgika	1,4	1,5	1,7
Italia	1,0	0,9	1,5
Grezia	-0,3	-0,2	1,4

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2018ko udaberria).*

Per capita BPGa aztertzen badugu, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, ikusten dugu 2017an ere Europar Batasuneko kideen arteko alde handiek irauten dutela. Lehengo kideen artean, Greziak (% 62,4), Portugalek (% 72,2), Espainiak (% 85,5), Italiak (% 89,2), Frantziak (% 96) eta Erresuma Batuak (% 98,6) dituzte maila baxuenak, EB-15eko batezbestekoa (% 100) baino baxuagoak. Maila altuena, berriz, Luxenburgok du: batezbestekoa halako bi eta gehiago (% 233,6). EB-28 osorik aintzat hartuta, eta kide berriak bata bestearen segidan sartu ondoren, Europar Batasuneko per capita BPGak nabarmen behera egitea eragin du.

12. koadroa Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordina (2017)

Herrialdea	UE-15=100	UE-28=100
Luxenburgo	233,6	252,0
Irlanda	174,3	188,0
Herbehereak	118,6	127,9
Austria	118,1	127,4
Alemania	114,0	123,0
Danimarka	113,9	122,9
Suedia	112,9	121,8
Belgika	107,9	116,4
Finlandia	101,6	109,6
EB-15 guztira	100,0	107,9
Erresuma Batua	98,6	106,4
Frantzia	96,0	103,6
EB-28 guztira	92,7	100,0
Italia	89,2	96,2
Malta	89,0	96,0
Espainia	85,5	92,2
Txekiar Errepublika	82,8	89,3
Eslovenia	78,6	84,8
Zipre	77,4	83,5
Portugal	72,2	77,9
Lituania	72,1	77,8
Eslovakia	72,0	77,7
Estonia	71,4	77,0
Polonia	64,8	69,9
Hungaria	63,7	68,7
Grezia	62,4	67,3
Letonia	61,9	66,8
Errumania	56,6	61,1
Kroazia	56,2	60,6
Bulgaria	45,7	49,3

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2018ko udaberria).

Aurreikuspenak

Nazioarteko erakunde nagusien proiektzioek adierazten dutenez, hazkundearen erritmoa egonkortu egingo da, oro har, eta goraka ari diren eta garatzeko bidean dauden merkatu-ekonomiak izango dira etorkizunean ere bizienak. Zehazki, Nazioarteko Diru Funtsak adierazitakoaren arabera, munduko ekonomiak % 3,9ko hazkundera izango du, bai 2018an bai 2019an.

Bestalde, ekonomia aurreratuek profil neurritsuagoa izango dute: % 2,5 gora egingo dute 2018an, eta % 2,2 2019an. Aipatzekoa da, bereziki, ekonomia iparramerikarraren bizitasuna, ia % 3ko hazkundera izango baitu hurrengo bi ekitaldietan, ELGAK adierazitakoaren arabera. Eurogunean apalagoak izango dira hazkunderak: % 2,2 2018an eta % 2,1 2019an. Japonian, berriz, ekonomiak % 1,2 egingo du gora hurrengo bi urteetan.

Nolanahi ere, egoera hori gauza dadin, alde askoren arteko lankidetzan sakondu beharko da hainbat arlotan, hala nola merkataritzan, munduko desoreken murrizketan, zibersegurtasunean eta klima-aldaketan.

13. koadroa Aurreikuspen ekonomikoak (herrialde industrializatuak)

Kontzeptua	2018	2019
(%)		
– Barne-produktu gordin erreala (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,9	2,8
• Japonia	1,2	1,2
• Eurogunea	2,2	2,1
• ELGA guztira	2,6	2,5
– Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,2	2,2
• Japonia	0,9	1,3
• Eurogunea	1,6	1,8
• ELGA, guztira	2,2	2,3
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	3,9	3,6
• Japonia	2,5	2,5
• Eurogunea	8,3	7,8
• ELGA guztira	5,4	5,1
– Defizit publikoa (barne-produktu gordinaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	-5,5	-6,1
• Japonia	-3,0	-2,5
• Eurogunea	-0,6	-0,4
• ELGA guztira	-2,6	-2,7
– Munduko merkataritza (% Δ)	4,7	4,5

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri orokorrak

2017an Espainiako ekonomiak %3tik gorako hazkundera izan du hirugarren urtez jarraian, aurrerapenaren erritmoak moteltzen jarraitu duen arren: % 3,1 2017an, % 3,3 2016an eta % 3,4 2015ean.

Horiek horrela, estatuko ekonomiak Europa osokoak baino bizitasun handiagoa izateak zertxobait hobetu du Europar Batasuneko ekonomia nagusiekin benetan parekatzeko konbergentzia-prozesua.

Eskariari dagokionez, 2017an barne-produktu gordinaren gorakada eragin duen arrazoi nagusia izan da barne-eskariak portzentajezko 2,8 puntuko ekarpen positiboa egin diola

hazkunde globalari (2016an portzentajezko 2,5 puntu positibo). Horrez gainera, kanpo-sektorearen portzentajezko hiru hamarreneko ekarpen positiboak ere eragina izan du (portzentajezko zortzi hamarren aurreko ekitaldian).

Eskaintzari erreparatuta, lau sektore handiek gora egin dute 2017an. Aurrerapenaren erritmoa sendotu du industriak, eta bereziki eraikuntzak (2017an % 3,7 eta % 4,9 hurrenez hurren; 2016an % 3,6 eta % 1,9 hurrenez hurren). Bestalde, lehen sektoreak eta zerbitzuek hazkundearen erritmoa baretu dute (2017an % 3,7 eta % 2,6 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 6,9 eta % 3 hurrenez hurren).

Lan-merkatuari dagokionez, 2017an biztanleria landunak % 2,6 egin du gora (% 2,7 2016an). Sektore guztietan, oro har, enpleguak gora egin du, eta aurreko ekitaldian baino bizitasun handiagoz, zerbitzuak salbuespen bakarria direlarik. Bestalde, biztanleria langabearen beheraldia erritmoa bizitu du (% -12,6 2017an; % -11,4 2016an; -% 9,9 2015ean), eta 3.916.900 langabe izatera iritsi da 2017an. Zenbateko horrek, hain zuzen, % 17,2ko langabezia-tasa dakar.

Prezioak kontuan hartuta, 2017ko ekitaldia ixtean, KPIren urtetik urterako aldaketa (abendutik abendura) % 1,1era jaitsi da (% 1,6 2016ko ekitaldia ixtean), baina urteko batezbestekoari begiratuz gero, % 2raino igo da (-% 0,2ko batezbestekoa 2016an).

Azkenik, aurrekontu-exekuzioari dagokionez, 2017ko defizitak (BPGaren -% 3,11), kreditu-erakundeentzako laguntzak barne, portzentajezko ia puntu eta erdi hobetzen du aurreko ekitaldikoa (BPGaren -% 4,51 2016an).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

Espainiako ekonomiak 2017an lortutako % 3,1eko gorakada hori egonkorra izan da hiruhilekoetan zehar: Urtetik urterako hazkundera % 3koa izan da lehen hiruhilekoan, eta % 3,1ekoa hurrengo hiruetan.

Horiek horrela, jardueraren bilakaera aztertuko dugu jarraian, ikuspegi hauek aintzat hartuta: eskaria (helmuga), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2017an, Espainiako BPG osoa 1.163.662 milioi eurora iritsi da¹; horietatik 886.573 milioi azken kontsumoari dagozkio (659.274 etxeena, 12.464 etheen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeena -EZIAGGE- eta 214.835

¹ Uneko prezioak.

administrazio publikoena), 239.176 inbertsioari (120.879 eraikuntzara bideratutakoak, 83.807 ekipo-ondasunetara eta 34.580 jabetza intelektualeko produktuetara), eta 6.881 izakinen aldakuntzari. Era horretan, barne-eskaria, guztira, 1.132.630 milioi eurokoa izan da. Esportazioen (396.725 milioi euro) eta inportazioen (365.693 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da, eta hori kontuan hartuta, guztizko eskaria zenbatekoa izan den jakin dezakegu.

- 2017ko barne-eskariak hazkunde orokorrari egindako ekarpen positiboari (portzentajezko 2,8 puntu) kanpo-eskariak egindako ekarpen positiboa (portzentajezko hiru hamarren) gehitu zaio. Barne-eskariaren esparruan, kontsumo pribatuaren hazkunde-erritmoa baretu egin da (% 2,4 2017an; % 2,9 2016an), baina kontsumo publikoa eta inbertsioa indartu egin dira (2017an % 1,6 eta % 5 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 0,8 eta % 3,3 hurrenez hurren). Azken partida horri erreparatuta, bai eraikuntzari lotutako arloak bai ekipo-ondasunekin lotutakoak hazkundea areagotu dute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2017an % 4,6 eta % 6,1 hurrenez hurren; 2016an % 2,4 eta % 4,9 hurrenez hurren).
- Sektorekako banaketa aintzat hartuta, 30.165 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 190.812 milioi euro industria-sektoreari (152.026 milioi euro manufaktura-industriari dagozkio), 60.704 milioi eraikuntzari eta 773.182 milioi zerbitzuei. Partida horiei zergei dagokiona gehituz gero (108.799 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Lau sektore handiek gora egin dute 2017an. Aurrerapenaren erritmoa sendotu du industriak, eta bereziki eraikuntzak (2017an % 3,7 eta % 4,9 hurrenez hurren; 2016an % 3,6 eta % 1,9 hurrenez hurren). Bestalde, hazkundearen erritmoa baretu dute lehen sektoreak eta zerbitzuek (2017an % 3,7 eta % 2,6 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 6,9 eta % 3 hurrenez hurren).

14. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (eskaria eta eskaintza)

(Urtetik urterako tasaren % zenbat, bolumen kateatua)

Eragiketak		2016	2017
ESKARIA	Azken kontsumoko gastua	2,5	2,2
	– Etxeetan	2,9	2,4
	– EZIAGGEetan	7,4	2,7
	– Administrazio Publikoetan	0,8	1,6
	Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0
	– Eraikuntza	2,4	4,6
	– Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak	4,9	6,1
	Izakinen gorabeherak*	0,0	0,1
	Barne-eskaria*	2,5	2,8
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,8	5,0
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	2,7	4,7	
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan		3,3	3,1
ESKAINZA	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	6,9	3,7
	Industria	3,6	3,7
	Eraikuntza	1,9	4,9
	Zerbitzuak	3,0	2,6
	Produktuen gaineko zerga garbiak	4,4	4,2

(*): Barne-produktu gordinaren hazkundeari eginiko ekarpena, merkatu prezioan.
Iturria: EIN.

- Errentaren aldetik begiratuta, soldatakoen ordainsariek hartu dute BPGaren % 47,3, ustiapenen soberakin garbiak % 42,4 hartu du, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek, berriz, gainerako % 10,3a.

15. koadroa Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta)

(% Δ nominala)

Eragiketak	2015	2016	2017	2017 (M euro)
Langileen soldata ⁽¹⁾	5,3	2,9	3,3	550.272
Ustiapeneko soberakin gordina ⁽²⁾	1,7	4,9	4,8	493.627
Ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zerga garbiak ⁽³⁾	8,4	1,4	4,5	119.763
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan ⁽⁴⁾	4,1	3,6	4,0	1.163.662

(4) = (1)+(2)+(3).

Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

2017an estatuko barne-merkataritzak aurreko ekitaldian baino bizitasun handiagoa izan du; hazkundearen erritmoa bizkortu dute esportazioek eta, bereziki, inportazioek (% 5 eta % 4,7 hurrenez hurren; 2016an % 4,8 eta % 2,7 hurrenez hurren).

Inportazioen bizkortzea esportazioena baino handiagoa izan denez, kanpo-eskariak hazkunde globalari egindako ekarpen positiboa txikiagoa izan da aurreko ekitaldikoa

baino: portzentajezko 0,3 puntu 2017an eta 0,8 puntu 2016an. Horrez gainera, azpimarratu behar da ekitaldiak aurrera egin ahala aldatu egin dela kanpo-eskariak hazkunde globalari egin dion ekarpenaren izaera, positibotik negatibora: portzentajezko 0,5 puntuko ekarpen positiboa 2017ko lehen hiruhilekoan, portzentajezko 0,6 puntuko ekarpen positiboa bigarren hiruhilekoan, portzentajezko 0,1 puntuko ekarpen positiboa hirugarren hiruhilekoan, eta ekarpen negatiboa (portzentajezko -0,1 puntu) laugarren hiruhilekoan.

Laneko kostuak eta prezioak

Petrolioaren prezioak ekitaldiaren lau hiruhilekotan izandako goranzko joerarekin bat eginez, 2017an prezioen bilakaerak urtetik urterako tasa positiboak izan ditu hilero; baina, orokorrean, beherantz egin dute pixkanaka: % 3 urtarrilean eta otsailean, % 2,3 martxoan, % 2,6 apirilean, % 1,9 maiatzean, % 1,5 ekainean eta uztailean, % 1,6 abuztuan, % 1,8 irailean, % 1,6 urrian, % 1,7 azaroan eta % 1,1 abenduan.

Hortaz, 2017ko ekitaldia ixtean, inflazioak (urtetik urterako tasa, abendutik abendura) hazkunde motelagoa izan du (% 1,1) aurreko ekitaldia ixtean izan zuena baino (% 1,6). Dena dela, urteko batezbestekoak kontuan hartuta, prezioak % 2 igo dira 2017ko ekitaldi osoan (-% 0,2 2016an), eta azpiko inflazioa % 1,1ekoa izan da (% 0,8koa aurreko ekitaldian).

Horiek horrela, kontuan hartuta ELGaren arabera Euroguneko inflazio-tasa (kontsumo pribatuaren deflatorearen bidez neurtua) % 1,4koa izan dela 2017an (2016an % 0,4koa izan zen), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentzialak portzentajezko sei hamarren positibo izan ditu (portzentajezko sei hamarren negatibo aurreko ekitaldian).

Ondasun-taldeak kontuan hartuta, 2017an garraioak eta etxebizitza izan dira, alde handiarekin, inflazioa gehien bultzatu dutenak, % 4 inguruko tasak eraginez (% 4,2 eta % 3,9 hurrenez hurren). Horien ondoren, honako hauek ageri dira: hotelak, kafetegiak eta jatetxeak; edari alkoholodunak eta tabakoak; komunikazioak; elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak; aisia eta kultura. Produktu eta zerbitzu horien guztien prezioek % 2 eta % 1 bitarteko igoerak izan dituzte (% 1,9, % 1,7, % 1,3, % 1,2 eta % 1,1 hurrenez hurren). Eta, horien ondoren, honako hauek daude: beste batzuk izeneko taldea eta irakaskuntza (% 0,9 bietan); medikuntza (% 0,7); eta jantziak eta oinetakoak (% 0,5). Aitzitik, etxeko tresneriaren prezioek behera egin dute (-% 0,4).

16. koadroa Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI)

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
KPI			
– Indize orokorra ⁽¹⁾	0,0	1,6	1,1
– Indize orokorra ⁽²⁾	-0,5	-0,2	2,0
Elikagaiak	1,2	1,3	1,3
Elikagaiak ez direnak	-1,0	-0,6	2,1
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	1,2	1,4	1,2
• Edari alkoholdunak, tabakoa	1,4	0,5	1,7
• Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,6	0,5
• Etxebizitza	-2,1	-4,2	3,9
• Etxeko tresneria	-0,2	0,2	-0,4
• Medikuntza	0,1	-0,2	0,7
• Garraioak	-4,5	-2,1	4,2
• Komunikazioak	-1,8	2,6	1,3
• Aisia eta kultura	-0,4	-1,0	1,1
• Irakaskuntza	1,1	0,6	0,9
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,8	1,1	1,9
• Beste batzuk	1,6	1,6	0,9
Azpikoa	0,6	0,8	1,1
IPI			
– Indize orokorra	-2,1	-3,1	4,4
• Kontsumo-ondasunak	1,1	0,2	1,9
• Ekipo-ondasunak	0,8	0,6	0,9
• Bitarteko ondasunak	-0,7	-1,5	3,4
• Energia	-8,8	-10,8	10,4

(1): Abendutik abendura.

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Industria-prezioei dagokienez, 2017an indize orokorrak joera aldatu du eta % 4,4 igo da (-% 3,1 2016an), nabarmen garestitu baita energia (% 10,4), bai eta bitarteko ondasunak ere (% 3,4), eta maila apalagoan kontsumo-ondasunak (% 1,9) eta ekipo-ondasunak (% 0,9).

Lan-kostuak aztergai hartuta, 2017an produktibitatea % 0,3 areagotuenez (BPGak % 3,1 egin duelako gora, eta enpleguak, berriz, % 2,8, lanaldi osoko lanpostuen baliokideak aintzat hartuta), eta soldatadun bakoitzeko ordainsariak % 0,2 igo direnez, lan-kostu unitarioak behera egin du (-% 0,1), baina ez aurreko ekitaldian bezain beste (2016an -% 0,7).

17. koadroa Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak

Kontzeptua	2015	2016	2017
Barne-produktu gordin erreala	3,4	3,3	3,1
Enplegua guztira*	3,2	3,0	2,8
Produktibitatea	0,2	0,3	0,3
Langileen soldatak	5,3	2,9	3,3
Soldatako enplegua*	3,6	3,3	3,1
Langile bakoitzaren soldata	1,7	-0,4	0,2
Lan-kostu unitarioa	1,5	-0,7	-0,1

(% Δ)

(*): Kontabilitate Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Geure balioespena, EInen datuak oinarri hartuta.

Lan-merkatua

2017ko bultzada ekonomikoak hartaratuta (% 3,1eko hazkundera izan du barne-produktu gordinak), estatuko lan-merkatuak bilakaera ona izan du; enpleguak gora egin du eta langabeziak behera. Hala eta guztiz ere, handiegia da oraindik ere langabezia-tasa.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) adierazitakoaren arabera, biztanleria landunak aurreko ekitaldiko hazkunderaren erritmoari eutsi dio gutxi gorabehera (% 2,6 2017an; % 2,7 2016an), biztanleria aktiboak, oro har, behera egin duen bitartean (-% 0,4).

Bestalde, jarduera-tasa apur bat jaitsi da (% 58,8 2017an; % 59,2 aurreko ekitaldian), eta bai gizonen tasak bai emakumeenak behera egin dute (2017an % 64,7 eta % 53,2 hurrenez hurren; 2016an % 65,1 eta % 53,6 hurrenez hurren).

Enpleguaren hazkunde horrek (% 2,6) 2017an 18.824.800 landun izatera iristea eragin du, sektore guztietako hazkunde orokorraren ondorioz. Lehen sektoreak eta, bereziki, industriak eta eraikuntzak bizkortu dute dagokien sektoreko enpleguaren aurrerapena (2017an % 5,8, % 5 eta % 5,1 hurrenez hurren; 2016an % 5,1, % 1,6 eta hazkunde nulua, hurrenez hurren). Bestalde, baretu egin da zerbitzuen hazkundera (% 1,9 2017an; % 2,9 aurreko ekitaldian).

**18. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera.
Urteko batezbestekoak**

(m pertsona eta % zenbat)

Kontzeptua	2017	% Δ		
		2015	2016	2017
Biztanleria aktiboa	22.741,7	-0,1	-0,4	-0,4
Biztanleria landuna	18.824,8	3,0	2,7	2,6
– Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	819,5	0,1	5,1	5,8
– Industria	2.647,4	4,3	1,6	5,0
– Eraikuntza	1.128,3	8,1	0,0	5,1
– Zerbitzuak	14.229,6	2,6	2,9	1,9
Biztanleria langabea	3.916,9	-9,9	-11,4	-12,6
Langabezia-tasa*	17,2	-9,7	-11,0	-12,3

() Biztanleria aktiboaren langabezia-tasa, ehunekotan.*

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko ekaineko datuak).

2017an biztanleria landunak zertxobait bizkortu du hazkundearen erritmoa, % 3,2ra iritsi arte (% 3,1 2016an). Aldi berean, soldatakoa ez den biztanleriak behera egin du (-% 0,1 2017an; % 0,7 aurreko ekitaldian), funtsean autonomoen kopurua murriztu delako (-% 2,4). Kontratu mota aintzat hartuta, aurreko ekitaldietan bezala, aldi baterako kontratua duten soldatakoen kopurua askoz ere gehiago handitu da kontratu mugagabea dutenena baino (% 5,6 eta % 2,3 hurrenez hurren).

Biztanleria landunean arreta jarrita, 2017an biziagoa izan da multzo horren beherakadaren erritmoa (-% 12,6; aurreko ekitaldian, berriz, -% 11,4). Horrenbestez jarraipena eman zaio 2014an hasitako beheraldiari. Horren haritik, adierazi behar da 2017an Espainiako biztanleria langabeak lau milioi pertsona baino zertxobait gutxiago hartzen dituela; beraz, 2009ko mailatik gertu dago. Langabezia-tasa % 17,2ra jaitsi da (% 19,6 2016an), baina hala ere Europako esparruan bigarren tokian jarraitzen du, Greziak soilik baitu langabezia-tasa handiagoa (Europako Batzordearen arabera, % 21,5).

19. koadroa Enplegua, egoera profesionalaren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona eta % zenbat)

Kontzeptua	2017	2015	% Δ	
			2016	2017
Biztanleria landuna	18.824,8	3,0	2,7	2,6
Soldatakoak	15.715,1	3,4	3,1	3,2
– Sektorre pribatua	12.686,5	3,9	3,6	3,8
– Sektorre publikoa	3.028,6	1,7	0,9	0,9
Soldatakoak ez direnak*	3.109,7	1,1	0,7	-0,1
– Enplegu-emaileak	960,9	1,3	2,4	5,7
– Autonomoak	2.032,7	1,4	0,4	-2,4
– Kooperatibistak	23,8	-7,3	15,9	-9,5
– Familia-laguntza	85,8	-2,3	-12,6	-2,2
Kontratu mugagabedun soldatakoak	11.524,2	1,9	1,8	2,3
Aldi baterako kontratudun soldatakoak	4.190,9	8,3	6,8	5,6
Lanaldi osoko landunak	16.005,9	3,2	3,3	2,9
Lanaldi partzialeko landunak	2.818,9	1,9	-0,8	1,0

(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, sailkatu ezin direnak ere sartu baitira bertan.

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko ekaineko datuak).

Sektorre publikoa eta interes-tasak

Administrazio publiko guztien 2017ko defizitak (BPGaren -% 3,11), kreditu-erakundeentzako laguntzak barne, portzentajezko ia puntu eta erdi hobetzen du aurreko ekitaldikoa (BPGaren -% 4,51 2016an).

Autonomia-erkidegoei erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak, Kanariak eta Balear Uharteek superabit-saldoa izan dute 2017an, eskualdeko barne-produktu gordinaren arabera (% 1,5, % 1,22, % 0,67 eta % 0,48 hurrenez hurren). Gainerako autonomia-erkidegoek saldo defizitarioak izan dituzte. Defizit handiena Murtziako Eskualdeak izan du (-% 1,51), eta txikiena, berriz, Galiziak (-% 0,2).

20. koadroa Defizit publikoa

(Barne-produktu gordinaren % zenbat)


Kontzeptua	2016	2017
Administrazio zentrala*	-2,48	-1,86
Autonomia-erkidegoak	-0,84	-0,32
Tokiko korporazioak	0,61	0,59
Gizarte Segurantzza	-1,59	-1,48
Administrazio publikoak, guztira*	-4,29	-3,07
• Kreditu-erakundeei emandako laguntzak	-0,21	-0,04
Administrazio publikoak, guztira	-4,51	-3,11

(*): Finantza-laguntzarik gabe.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2018ko martxoaren 26a).

Azkenik, adierazi behar da, 2017ko ekitaldia ixtean Europako Banku Zentralaren erreferentzia-tasa % 0 izan dela, eta ekitaldi guztian ez dela doitu. Aitzitik, Erreserba Federalaren erreferentzia-tasa % 1,5era igo da, portzentajezko puntu laurdeneko igoerak egin baitira martxoan, ekainean eta abenduan.

2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ eta Erreserba Federala.

Aurreikuspenak

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak apirilaren amaieran argitaratutako egoera makroekonomikoaren arabera, estatuko ekonomiaren hazkundeak % 2tik gorako erritmoa izango du hurrengo bi urteetan, baina argi ikusten da abiadura moteldu egingo dela pixkanaka (% 2,7 2018an, % 2,4 2019an, eta % 2,3 2020an eta 2021ean). Enpleguak, lanaldi osoko lanpostuen baliokideak aintzat hartuta, % 2tik gorako hazkundeak izango du, eta horrek langabezia-tasaren beherakada bultzatuko du. Hala eta guztiz ere, langabezia-tasa % 10etik gorakoa izango da aurreikuspenetan aintzat hartutako denbora guztian (2018-2021).

21. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2018)

Kontzeptua	Urtetik urterako aldaketa-tasa
BARNE-PRODUKTU GORDINA eta ESKARI-AGREGATUAK	
• Azken kontsumo nazional pribatuko gastua	2,0
• Administrazio publikoen azken kontsumoaren gastua	1,1
• Kapital finkoaren eraketa gordina	4,7
– Barne-eskaria (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	2,3
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,8
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	4,1
– Kanpo-saldoa (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	0,4
– Barne-produktu gordina	2,7
LAN-MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza ehunekotan*	2,5
– Langabezia-tasa	15,5

(*): Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (2018ko apirila).

2. IKUSPEGI OROKORRA

Munduko ekonomiaren hazkunde-erritmoa indartu egin da, baina aurreko ekitaldian baino ehuneko bi hamarren gutxiago igo da EAEko barne-produktu gordina: % 2,9 2017an, eta % 3,1 2016an.

Kontzeptua	22. koadroa		Bilakaera orokorra		
	2013	2014	2015	2016	2017
<i>(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)</i>					
EAE					
– Barne-produktu gordina	-1,7	1,6	3,0	3,1	2,9
– Enplegua	-3,2	-1,0	1,3	2,9	0,3
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	16,6	16,3	14,8	12,6	11,3
– KPJ ⁽²⁾	0,6	-0,7	0,3	1,5	1,1
NAFARROA					
– Barne-produktu gordina	-1,3	1,5	2,9	2,9	3,2
– Enplegua	-3,5	1,7	0,7	1,2	4,2
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	17,9	15,7	13,8	12,5	10,2
– KPJ ⁽²⁾	0,0	-1,2	-0,1	1,8	0,6
ESPAINIA					
– Barne-produktu gordina	-1,7	1,4	3,4	3,3	3,1
– Enplegua	-2,8	1,2	3,0	2,7	2,6
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	26,1	24,4	22,1	19,6	17,2
– KPJ ⁽²⁾	0,3	-1,0	0,0	1,6	1,1

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria).


Horrenbestez, euroguneko ekonomia erreferentziatzat hartuta (% 2,5eko hazkundera 2017an, ELGaren arabera), euskal ekonomiak izandako bilakaera onak aurrerapen txiki bat ekarri du Europako ekonomia nagusien parean jartzeko prozesuan.

EINen eskualdetako zenbatekoak kontuan hartuta, 2017an Espainiako autonomia-erkidego guztiek gora egin dute, eta haietako zortzik 2016an baino gorakada handiagoak izan dituzte. Zehazki, bizitasun handiena Aragoik izan du (% 3,6), eta txikiena Ceutak (% 1,6). Hego Euskal Herriak % 3,1 egin du gora, EINen arabera.

Lan-merkatuari erreparatuz gero, EINen biztanleria aktiboaren inkestaren arabera, 2017an landunen kopuruak % 1,2 egin du gora, oro har, Hego Euskal Herrian (% 0,3ko igoera txiki bat EAEn; % 4,2ko gorakada Nafarroan), eta dinamika hori ez da estatukoa bezain bizia izan (enpleguaren % 2,6ko igoera 2017an).

Langabezia-tasak, berriz, behera egiten jarraitu du, oro har: EAEn 2016an % 12,6 izatetik 2017an % 11,3 izatera igaro da; Nafarroan % 12,5etik % 10,2ra; Hego Euskal Herrian, oro har, % 12,6tik % 11,1era; eta estatuan, berriz, % 19,6tik % 17,2ra.

3. grafikoa Barne-produktu gordinaren bilakaera



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Prezioei dagokienez, 2017an zehar petrolio-upela garestitu egin da, eta horrek prezioen bilakaera baldintzatu du. Horiek horrela, EAEn, KPIren urtetik urterako aldakuntza-tasak % 3 ingurukoak izan ziren urtarrilean eta otsailean; % 2koak edo hortik gorakoak martxoan, apirilean eta maiatzean; % 1,7 ingurukoak ekainetik azarora bitarteko hiletan, eta % 1 baino zertxobait handiagoak abenduan. Foru Komunitatean antzeko dinamika izan dute, baina igoeren erritmoak zertxobait motelagoak izan dira. Horrenbestez, metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1,1 izan da EAEn eta % 0,6 Nafarroan (2016ko ekitaldiaren amaieran % 1,5 eta % 1,8 hurrenez hurren).

Azkenik, adierazi behar da Hego Euskal Herriko ekonomiak, 2018ko lehen hiruhilekoan, % 3,1eko igoera izan duela urtetik urtera, eta zenbateko hori ehuneko hamarren bat handiagoa dela 2017ko laugarren hiruhilekoari dagokiona baino. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2018ko maiatzeko aurreikuspenetan adierazitakoaren arabera, KPIk aurtengo ekitaldian % 2,8 egingo du gora, eta hiruhileko bakoitzean hazkundearen erritmoa neurritsua izango da.



23. koadroa Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera

Kontzeptua	2015		2016		2017	
	Hego EH	Espainia	Hego EH	Espainia	Hego EH	Espainia
A. EKOIZPENA ETA JARDUERA						
A.1 Industria (ekoizpenak)						
Ontzigtza (tona konpentsatuak)	16,4	16,2	-49,3	-42,5	-2,8	26,2
Makina-erreminta (ekoizpenaren euro korranteak)	7,1	7,1	0,1	0,1	19,8	19,8
Esku-erreminta (ekoizpenaren euro korranteak)	3,5	3,5	6,0	6,0	6,0	6,0
Papera eta kartoa (tonak)	0,4	2,6	3,4	0,4	-1,6	0,0
Elektronika (euro korranteak)*	--	--	--	--	4,6	--
Industria Produkzioaren Indizea*	3,5	3,4	2,3	1,8	3,0	3,2
• Kontsumo-ondasunak	5,2	1,4	0,2	1,8	2,6	1,0
• Bitarteko ondasunak	1,3	4,1	1,0	2,0	5,5	5,1
• Ekipo-ondasunak	7,4	7,4	8,7	3,9	-0,1	4,1
• Energia	1,4	0,7	-4,4	-0,9	2,9	2,1
A.2 Eraikuntza						
Amaitutako etxebizitzak (kopurua)	-2,9	-4,9	-31,2	-13,3	12,2	31,0
Hasitako etxebizitzak (kopurua)	-2,9	33,0	66,8	28,1	--	--
Zementuaren barne-salmentak (mila tona)***	-4,9	5,5	-2,3	-2,7	9,3	13,5
Lizitazio ofiziala (euro korranteak)	5,6	-28,2	-22,7	-0,7	84,9	39,3
A.3 Nekazaritza-sektorea (ekoizpenak)						
Nekazaritza (euro korranteak)*	10,9	10,9	2,5	8,3	2,4	-2,6
Abeltzaintza (euro korranteak)*	-6,8	-0,4	1,0	0,7	1,8	14,5
Basogintza (euro korranteak)*	2,5	--	25,6	--	-13,7	--
Guztira (euro korranteak)*	2,8	7,1	4,3	5,4	0,0	2,2
A.4 Zerbitzuak						
Tren bidezko garraioa (salgaiak)*	-0,3	--	-23,7	--	-7,4	--
Tren bidezko garraioa (bidaiariak)*	-0,2	--	-0,5	--	11,0	--
Errepide bidezko garraioa (salgaiak)	5,8	8,2	1,5	2,8	2,9	9,3
Itsas garraioa (salgaiak)*	6,3	4,1	-3,1	0,6	2,0	6,4
Aireko garraioa (salgaiak)	9,3	4,7	11,9	11,2	13,3	15,4
Aireko garraioa (bidaiariak)	6,9	6,0	8,2	11,0	9,2	8,7
A.5 Finantza-sektorea						
Gordailu pribatuak (euro korranteak)	2,6	-0,4	2,2	0,4	3,8	0,5
Sektore pribatuko kreditua (euro korranteak)	-1,0	-4,0	0,9	-4,1	-0,4	-1,9
B. BARNE-ESKARIA						
Autoen matrikulazioa (kopurua)	17,3	22,9	5,0	12,4	8,3	9,2
Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua)	25,5	30,8	4,2	6,1	5,7	6,7
Ekipo-ondasunen inportazioak (euro korranteak)**	34,2	21,2	9,6	6,8	2,2	7,8
Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h)	--	1,7	--	0,6	--	1,1
C. KANPO-MERKATARITZA						
Esportazioak (euro korranteak)	-0,8	3,8	-1,2	1,7	6,2	8,9
Inportazioak (euro korranteak)	0,5	3,5	-5,9	-0,4	14,6	10,5
D. PREZIOAK ETA SOLDATAK*						
Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa)*	-0,3	-0,5	0,0	-0,2	2,0	2,0
Kontsumo-prezioen indizea (abendua/abendua)*	0,3	0,0	1,5	1,6	1,1	1,1
• Azpikoa (abendua/abendua)	1,0	0,9	1,0	1,0	0,7	0,8
Industria-prezioen indizea*	-2,6	-2,1	-3,0	-3,1	3,4	4,4
• Kontsumo-ondasunak	-0,6	1,1	0,7	0,2	0,9	1,9
• Bitarteko ondasunak	-0,8	-0,7	-2,2	-1,5	2,8	3,4
• Ekipo-ondasunak	0,3	0,8	0,9	0,6	1,8	0,9
Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko*	-0,3	1,1	-1,1	-0,3	0,1	0,1
E. LAN-MERKATUA****						
Biztanleria aktiboa	-0,8	-0,1	0,2	-0,4	-0,5	-0,4
Biztanleria landuna	1,1	3,0	2,5	2,7	1,2	2,6
• Lehen sektorea	-16,9	0,1	6,8	5,1	8,1	5,8
• Industria	2,6	4,3	8,3	1,6	5,3	5,0
• Eraikuntza	1,1	8,1	-4,9	0,0	2,1	5,1
• Zerbitzuak	1,3	2,6	1,2	2,9	-0,4	1,9
Biztanleria langabea	-10,8	-9,9	-13,5	-11,4	-12,4	-12,6
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	14,6	22,1	12,6	19,6	11,1	17,2
Erregistratutako kontratuak	14,5	11,1	6,5	7,6	3,5	7,6

(*): EAEko datuak. (**): EAE, garraiorako makinak eta ekipoen inportazioak. Nafarroan, makinak eta aparatuen eta material elektrikoaren inportazioak. (***) : Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa. (****): BAL, 2011ko biztanleria-oinarria.

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

2.1 EKOIZPENA

Ekoizpenaren gorako erritmoa indartu egin zen EAEn 2016. urtean, lehendik zekarren igoera-erritmoari eutsi zion Nafarroan, eta bilakaera moderatua erakutsi zuen Estatuan; hala, hurrengo urtean, 2017an, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinak ehuneko bi hamarrekotan apaldu du goranzko joera (% 2,9 igo da 2017an eta % 3,1 aurreko urtean), eta horixe bera gertatu da Estatuan (% 3,1eko igoera izan da 2017an eta % 3,3koa izan zen 2016an). Nafarroan, azkenik, ehuneko hiru hamarreko handitu du igoera-erritmoa (% 3,2 igo da 2017an eta % 2,9 igo zen aurreko urtean).

24. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	13,1	2,0	-3,0
– Industria	3,1	2,9	2,7
– Eraikuntza	1,1	1,8	2,5
– Zerbitzuak	3,5	2,8	3,1
– Guztira	3,0	3,1	2,9
NAFARROA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	2,5	2,2	2,1
– Industria	2,9	2,3	2,1
– Eraikuntza	1,2	0,6	1,1
– Zerbitzuak	3,2	3,6	4,1
– Guztira	2,9	2,9	3,2
ESPAINIA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	-2,4	6,9	3,7
– Industria ⁽²⁾	5,4	3,6	3,7
– Eraikuntza	2,4	1,9	4,9
– Zerbitzuak	2,6	3,0	2,6
– Guztira	3,4	3,3	3,1

(1): Balio Erantsi Gordina oinarritzko prezioei sektoreen kasuan, BPG merkatuko prezioei guztizkoaren kasuan.

(2): Ez da energia sartzen.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Hiruhilekoetan izandako bilakaerari begiratuta, gorako erritmoa finkatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan (urtetik urtera, % 2,8ko, % 2,9ko eta % 3ko igoerak izan dira lehen, bigarren eta azken bi hiruhilekoetan); Nafarroan, berriz, egonkortu egin da (urtetik urtera, % 3,1eko igoera izan da lehen hiruhilekoan, % 3,3koa bigarrenean, eta % 3,2koa hirugarrenean eta laugarrenean).

Eskaintzaren ikuspegitik begiratuta, 2017an ia sektore guztiek izan dituzte igoera orokorrak aztertu diren hiru lurralde-eremuetan (EAEko lehen sektorea izan da salbuespen bakarra); hala ere, igoera-erritmoa handitu dute batzuek, eta apaldu beste batzuek.

Euskal Autonomia Erkidegoan, igoera-erritmoa handitu dute zerbitzuek eta eraikuntzak (% 3,1 eta % 2,5 igo dira 2017an, eta % 2,8 eta % 1,8 igo ziren 2016an, hurrenez hurren); era berean, industria-sektorean apaldu egin da zertxobait igoera (% 2,7koa izan da 2017an, eta % 2,9koa izan zen aurreko urtean), eta, azkenik, lehen sektoreak behera egin du (-% 3 jaitsi da 2017an, eta % 2 igo zen 2016an).

Zerbitzuek eta eraikuntzak azkartu egiten dute igoera Nafarroan (% 4,1eko eta % 1,1eko igoerak izan dituzte 2017an, eta aurreko urtean, berriz, igoera horiek % 3,6koa eta % 0,6koa izan ziren, hurrenez hurren); bestalde, lehen sektoreak eta industriak eutsi egin diote igoera-erritmoari (% 2,1eko igoera izan dute bietan 2017an, eta 2016an % 2,2koa eta % 2,3koa izan ziren, hurrenez hurren).

Industria-sektorea aztertuz gero, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) adierazten du igoera-erritmoa handitu duela Euskal Autonomia Erkidegoan (% 3koa izan da 2017 eta % 2,3koa izan zen aurreko urtean), eta atzera egin duela Nafarroan (-% 2,1 jaitsi da 2017an eta % 0,7 igo zen 2016an). Bestalde, sektore horretako enplegua % 3,2 handitu da EAEan (% 4,7ko igoera izan duela adierazi du Eustat erakundearen BJAk) eta % 11,6 Foru Komunitatean. Nafarroan, beherakada txiki bat izan du industria-sektorea, baina uneko eskaerak gorako joera erakusten dute eta ez da aurreikusitako eskaeren aurreikuspenik aldatu.

25. koadroa Industria Sektorearen adierazleak

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE			
- Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	3,5	2,3	3,0
- Industria-enplegua ⁽²⁾	5,0	9,7	3,2
- Industria-enplegua ⁽³⁾	-2,4	2,1	4,7
NAFARROA			
- Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	2,2	0,7	-2,1
- Industria-giroa ⁽⁴⁾	2	2	1
- Egungo eskaerak ⁽⁴⁾	-1	-2	4
- Aurreikusitako eskaerak ⁽⁴⁾	13	12	12
- Industria-enplegua ⁽²⁾	-3,7	4,3	11,6

(1): Egutegi-ondorioak kontuan hartuz zuzendutako datuak.

(2): EIN.

(3): BJA (Eustat).

(4): Erantzun-saldoak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eraikuntzaren sektorea aztertzeari ekinda, guztirako produkzio-indizeak indartu egin du goranzko joera Euskal Autonomia Erkidegoan, % 5,6koa izan baita 2017an (% 2,4koa izan zen 2016), eta, haren barruan, etxegintzaren adarrak ere azkartu egin du handitze-

erritmoa (% 7,7koa izan da, eta % 4,9koa izan zen aurreko urtean); bestalde, obra zibilek leundu egin dute beren beheranzko joera (-% 8,6ko jaitsiera izan dute 2017an, eta -% 12,2ko jaitsiera izan zuten 2016an). Era berean, zementuaren barne-salmentek % 9,3 egin dute gora 2017an (-% 2,3ko jaitsiera izan zuten aurreko urtean), lizitazio ofizialek % 73,4 egin dute gora (-% 15,5eko jaitsiera izan zuten 2016an), eta amaitutako etxebizitzek % 4,6 egin dute gora (-% 35,4ko jaitsiera izan zuten aurreko urtean). Hala ere, sektoreko enpleguak -% 2,6ko jaitsiera izan du BAiren datuen arabera, baina jaitsiera hori % 0,8ko igoera izan da, BJAREN arabera.

Nafarroako Foru Erkidegoan, zementuaren barne-salmentek % 9,3 egin dute gora 2017an (-% 2,3 egin zuten behera 2016an), lizitazio ofizialek % 229,2 egin dute gora (-% 62,4 egin zuten behera aurreko urtean) eta amaitutako etxebizitzek % 42ko igoera izan dute (-% 7,6ko jaitsiera izan zuten 2016an). Bestalde, hasitako etxebizitzaren kopurua % 39,6 igo da urtetik urtera, eta bizkortu egin du hazkunde-erritmoa (% 34,4 igo zen adierazle hori aurreko urtean). Datu horiek guztiak enplegu-igoerako testuinguru batean eman dira; izan ere, % 21,1 handitu da lurralde horretan urtetik urtera (-% 27,2ko beherakada izan zuten 2016an).

26. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE			
- Produkzio-indizea ⁽¹⁾	-0,1	2,4	5,6
- Etxegintza	1,8	4,9	7,7
- Obra zibila	-10,0	-12,2	-8,6
- Zementuaren barne-salmentak*	-4,9	-2,3	9,3
- Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	-2,6	-15,5	73,4
- Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	-13,7	80,7	--
- Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	11,4	-35,4	4,6
- Enplegua ⁽⁴⁾	-4,4	2,9	-2,6
- Enplegua ⁽⁵⁾	-0,6	1,3	0,8
NAFARROA			
- Zementuaren barne-salmentak*	-4,9	-2,3	9,3
- Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	98,2	-62,4	229,2
- Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	34,1	34,4	39,6
- Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	-43,9	-7,6	42,0
- Enplegua ⁽⁴⁾	20,7	-27,2	21,1

(*): Oficemen-eko (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementu grisaren barneko salmentei dagokie.

(1): Eraikuntzaren koiuntura-indizea (EUSTAT). Oinarria: 2010=100.

(2): SEOPAN.

(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.

(4): EIN.

(5): BJA (Eustat).

Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.

Zerbitzuei begirada orokorra emanez gero, ikusten da aurreko urtean baino jarduera biziagoa izan dutela EAEn eta Nafarroan, baina ez da horrelakorik gertatu Estatuan. Edonola ere, kontuan izan behar da sektorea oso heterogeneoa dela, eta normala dela aldeak izatea aztertutako azpisektoreen adierazleetan.

Alde horretatik, azkartu egin da airetiko bidaiarien kopuruaren goranzko joera Euskal Autonomia Erkidegoan, % 9,2ko igoera izan baitu 2017an (% 8,3ko igoera izan zuen 2016an), eta, portuetan, salgaien garraioa % 2 igo da (-% 3,1eko jaitsiera izan zuen aurreko urtean). Era berean, ostatu-gauen igoera-erritmoa % 2,6ra moteldu da (% 8,9ko igoera izan zuen adierazle horrek 2016an), eta txikizkako merkatariena, berriz, % 0,8ra (% 1,6ko igoera izan zuen aurreko urtean). Hori horrela, enpleguak -% 0,4 egin du atzera sektorean, baina Eustat erakundearen BJAren arabera, % 0,7ko igoera izan du.

Nafarroako Foru Erkidegoan, aurreko urtean baino igoera handiagoak izan dituzte airetiko bidaiarien trafikoak eta autobideetan igarotako ibilgailu astunen trafikoak (% 7,9ko eta % 3ko igoerak izan dituzte 2017an, eta, hurrenez hurren, % 6,6ko eta % 2,1ko igoerak izan zituzten 2016an), baina igoera-erritmoa moteldu dute ostatu-gauak eta autobideetan igarotako ibilgailu arinen trafikoak (% 3,6ko eta % 3,4ko igoerak izan dituzte, eta aurreko urtean, berriz, % 8,2koa eta % 4,6koa, hurrenez hurren). Dena den, enpleguak, sektore osoan, -% 0,4 egin du behera (% 2,9 egin zuen gora 2016. urtean).

27. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE			
- Hoteletako ostatu-gauak	8,2	8,9	2,6
- Aire-zirkulazioko bidaiariak	6,9	8,3	9,2
- Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea	1,7	1,6	0,8
- Portuetako salgaiak	6,3	-3,1	2,0
- Enplegua ⁽¹⁾	0,9	0,8	-0,4
- Enplegua ⁽²⁾	2,5	1,0	0,7
NAFARROA			
- Hoteletako ostatu-gauak	3,4	8,2	3,6
- Aire-zirkulazioko bidaiariak	7,2	6,6	7,9
- Ibilgailu arinen zirkulazioa autobideetan	4,0	4,6	3,4
- Ibilgailu astunen zirkulazioa autobideetan	6,3	2,1	3,0
- Enplegua ⁽¹⁾	2,7	2,9	-0,4

(1): EIN.

(2): BJA (Eustat).

Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.

2.2 ESKARIA

Barne-eskaria

EAEko BPGd-ak % 2,9 egin du gora 2017an (% 3,1 2016an); eta testuinguru berean, barne-eskariak aurreko ekitaldiko dinamismoari eutsi dio: % 3ko igoera izan du, bai 2016an, bai 2017an.

Barne-eskariaren osagaiei erreparatuz gero, kontsumo pribatuaren hazkunde-erritmoa pixka bat moteldu da (% 3 2017an, eta % 3,1 aurreko ekitaldian); kontsumo publikoa, aldiz, apur bat indartu da (% 2,4 2017an eta % 2,3 2016an), eta inbertsioen igoera-erritmoa % 3,5raino igo da (% 3,1 2016an).

28. koadroa Barne-eskariaren adierazleak

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE			
– Kontsumo pribatua	3,3	3,1	3,0
– Kontsumo publikoa	2,1	2,3	2,4
– Kapital-eraketa gordina	3,8	3,1	3,5
– Barne-eskaria	3,2	3,0	3,0

Iturria: Eustat.

Nafarroan, sendotu egin da ekonomia-hazkundearen erritmoa (2017an % 3,2 eta aurreko ekitaldian % 2,9), eta pixka bat jaitsi da barne-eskariak hazkunde globalari egindako ekarpen positiboa: % 2,6 2017an, eta % 2,7 2016an. Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatuak hazkunde txiki bat izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2017an % 3,4ko igoera izan du, eta 2016an % 3,3koa izan zuen); eta kontsumo publikoak, aldiz, aurreko ekitaldiko dinamismoari eutsi dio (% 3,1eko hazkundea 2016an eta 2017an). Horrez gainera, inbertsioen hazkunde-erritmoa ehuneko hiru hamarren jaitsi da (2017an % 0,3 eta 2016an % 0,6).

29. koadroa Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE			
– Kontsumo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	5,2	0,2	2,6
– Automobilen matrikulazioa	16,6	4,9 ⁽⁴⁾	7,7 ⁽⁴⁾
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	27,2	3,8 ⁽⁴⁾	4,0 ⁽⁴⁾
– KPI ⁽²⁾	0,3	1,5	1,1
– Soldata-igoera ⁽³⁾	0,53	0,92	1,37
– Ekipo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	7,4	8,7	-0,2
NAFARROA			
– Automobilen matrikulazioa	19,7	5,3 ⁽⁴⁾	10,4 ⁽⁴⁾
– KPI ⁽²⁾	-0,1	1,8	0,6
– Soldata-igoera ⁽³⁾	0,67	1,23	1,90
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	20,9	5,3 ⁽⁴⁾	10,5 ⁽⁴⁾

(1): Egutegi-ondorioak kontuan hartuz zuzendutako datuak.

(2): Aldaketa-tasa abendutik abendura.

(3): Hitzarmenetan itundua.

(4): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

2017an, euskal kanpo-merkataritzak (atzerrirakoak) izandako bilakaera hedakorra izan da, batez ere, produktu energetikoen taldean. Ildo horretatik, guztizko esportazioek % 10,4 egin dute gora (2016an -% 1,2); izan ere, esportazio energetikoen susperraldi handia izan dute (2017an % 26,2ko aurrerapena, eta -% 25,8ko uzkurdua 2016an) eta esportazio ez-energetikoen bizkortu egin dira (2017an % 9ko hazkundea eta aurreko ekitaldian % 1,8koa). Bestalde, guztizko inportazioek % 19,5 egin dute gora (2016an -% 7,3ko jaitsiera); izan ere, inportazio energetikoen errebote handia izan dute (2017an % 53ko igoera eta aurreko ekitaldian -% 28,8ko atzerapena), eta inportazio ez-energetikoen indartu egin dira (2017an % 10,6ko hazkundea eta aurreko ekitaldian % 0,8koa).

Hain zuzen ere, 2017ko guztizko esportazioak 23.856,7 milioi eurora heldu dira (horietako 2.206,6 milioi euro esportazio energetikoenak dira), eta kopuru horiek % 10,4ko urte arteko hazkundea dakarte. Guztizko inportazioak, aldiz, 18.652,6 milioi eurora heldu dira (horietako 5.020,2 milioi euro inportazio energetikoenak dira), eta kopuru horiek % 19,5eko hazkundea dakarte.

Inportazioek, esportazioekin alderatuta, dinamismo handiagoa lortu izanaren ondorioz, 2017ko merkataritza-balantzak 5.204 milioi euroko saldo positiboa izan du (2016an 6.011,8 milioi euro); eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 127,9koa izan da (aurreko ekitaldian % 138,5koa).

30. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Hego Euskal Herrian

(M eurotan)

Kontzeptua	2015	2016	2017*	% Δ 17/16
EAE				
- ESPORTAZIOAK guztira	21.867,8	21.615,9	23.856,7	10,4
- Esportazio energetikoak guztira	2.356,5	1.748,4	2.206,6	26,2
- Esportazio ez-energetikoak guztira	19.511,3	19.867,5	21.650,0	9,0
- INPORTAZIOAK guztira	16.835,6	15.604,1	18.652,6	19,5
- Inportazio energetikoak guztira	4.609,0	3.281,0	5.020,2	53,0
- Inportazio ez-energetikoak guztira	12.226,6	12.323,1	13.632,4	10,6
- GUZTIZKO SALDOA	5.032,2	6.011,8	5.204,0	-13,4
NAFARROA				
- ESPORTAZIOAK guztira	8.539,7	8.437,6	8.073,3	-4,3
- INPORTAZIOAK guztira	4.578,2	4.543,9	4.432,8	-2,4
- GUZTIZKO SALDOA	3.961,5	3.893,6	3.640,5	-6,5

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduanen eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eremu geografiko handiei erreparatuz gero, euroguneak jarraitzen du izaten euskal kanpo-sektorearen helmuga eta jatorri nagusia 2017an, eta ekitaldi horren esportazio guztien % 51,4 eta inportazio guztien % 44,2 hartu zituen. Horri lotuta, azpimarratu behar da Frantzia eta Alemania elkarrekin hartuta, kanpo-salmenten % 31,3 eta kanpo-erosketen % 24,6 barnean hartzen dituztela.

2017an salerositako produktuei dagokienez, esportazioen % 48,2 garraiorako makina eta ekipamenduak dira, eta manufakturatutako artikulak, % 30,8. Inportazioei dagokienez, berriz, erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak % 26,9 dira, garraiorako makina eta ekipamenduak atal horietako guztizkoaren % 25,1 eta % 22,5 dira, hurrenez hurren.

31. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta atalen arabera
(M eurotan)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2015	2016	2017*	%	% Δ 17/16	2015	2016	2017*	%	% Δ 17/16
GUZTIRA (Gutzizkoak)	21.867,8	21.615,9	23.856,7	100,0	10,4	16.835,6	15.604,1	18.652,6	100,0	19,5
HERRIALDEEN ARABERA (Gutzizkoak)										
– Frantzia	3.629,6	3.614,7	3.693,8	15,5	2,2	1.785,8	1.626,4	1.812,2	9,7	11,4
– Alemania	3.206,4	3.357,1	3.775,5	15,8	12,5	2.386,6	2.622,9	2.783,0	14,9	6,1
– Italia	1.157,2	1.050,9	1.100,4	4,6	4,7	839,9	866,2	930,3	5,0	7,4
– Erresuma Batua	1.416,9	1.308,4	1.512,0	6,3	15,6	1.743,3	827,3	1.325,7	7,1	60,2
– Eurogunea	11.140,4	11.345,2	12.261,6	51,4	8,1	7.657,8	7.722,2	8.251,7	44,2	6,9
– ELGE	17.340,6	17.632,9	19.467,4	81,6	10,4	11.839,3	11.025,1	12.849,9	68,9	16,6
– Beste helmuga batzuk	4.527,2	3.983,0	4.389,3	18,4	10,2	4.996,3	4.579,0	5.802,7	31,1	26,7
ATALEN ARABERA (Gutzizkoak)										
– Elikagaiak eta animalia biziak	654,3	629,8	669,3	2,8	6,3	810,1	797,2	867,1	4,6	8,8
– Edariak eta tabakoak	224,2	230,1	243,7	1,0	5,9	16,1	11,9	14,4	0,1	21,0
– Jatekoak ez diren material gordinak, erregaiak salbu	290,6	280,9	302,8	1,3	7,8	1.269,6	930,3	1.076,3	5,8	15,7
– Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak	2.356,5	1.747,6	2.206,6	9,2	26,3	4.609,0	3.281,0	5.020,2	26,9	53,0
– Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak nahiz landareenak)	38,2	34,0	16,7	0,1	-50,9	151,3	166,6	209,2	1,1	25,6
– Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak	848,0	854,9	817,1	3,4	-4,4	1.487,6	1.393,8	1.533,7	8,2	10,0
– Artikulu manufakturuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak	7.086,1	6.586,9	7.343,6	30,8	11,5	3.627,6	3.567,3	4.196,1	22,5	17,6
– Makineria eta garraio-ekipamendua	9.681,1	10.471,5	11.489,0	48,2	9,7	3.919,8	4.477,0	4.676,9	25,1	4,5
– Hainbat artikulu manufakturu	595,1	651,2	685,4	2,9	5,3	933,8	974,8	1.056,3	5,7	8,4
– NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta eragiketak	93,5	129,0	82,5	0,3	-36,0	10,7	4,2	2,5	0,0	-40,5

(): Behin-behineko datuak.*
Iturria: Eustat (Aduanen eta Zerga Bereziren Sailaren arabera).

Nafarroako ekonomiari erreparatuz gero, EAEn ez bezala, esportazioek eta inportazioek behera egin dute 2017an. Hau da, kanpo-salmentak 8.073,3 milioi eurokoak izan dira, eta kanpo-erosketak 4.432,8 milioi eurokoak; kopuru horiek -% 4,3ko eta -% 2,4ko beherakadak eragin dituzte, hurrenez hurren. Horiek horrela, merkataritza-balantzak 3.640,5 milioi eurora murriztu du bere saldo positiboa (3.893,6 milioi euro 2016an), eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 182,1ekoa izan da (aurreko ekitaldian % 185,7koa).

EAEn bezala, Europar Batasuna da (EB-28) Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia, kanpo-salmenten % 69,8 eta kanpo-erosketen % 76,4 biltzen baititu.

Esportazioei dagokienez, Frantziak guztizkoaren % 18,3 du, eta eta Alemaniak hurbiletik jarraitzen dio (% 14,6); inportazioen kasuan, berriz, Alemaniak biltzen du guztizkoaren % 25,7, eta hurrengo herrialdea, alde handi samarrarekin, Frantzia da (guztizkoaren % 12,4).

Muga-zergen partidei dagokienez, 2017an garraio-materialak esportazioen % 40,4 eta inportazioen % 21 biltzen ditu, eta horrek baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala.

32. koadroa Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2015	2016	2017*	%	% Δ 17/16	2015	2016	2017*	%	% Δ 17/16
GUZTIRA (Guztizkoak)	8.539,7	8.437,6	8.073,3	100,0	-4,3	4.578,2	4.543,9	4.432,8	100,0	-2,4
HERRIALDEEN ARABERA (Guztizkoak)										
– Frantzia	1.488,8	1.433,1	1.473,6	18,3	2,8	545,7	554,6	550,8	12,4	-0,7
– Alemania	1.385,8	1.282,7	1.179,7	14,6	-8,0	1.426,9	1.356,7	1.140,4	25,7	-15,9
– Italia	645,7	638,9	672,6	8,3	5,3	286,5	278,0	293,6	6,6	5,6
– Erresuma Batua	634,7	608,3	558,1	6,9	-8,3	163,8	149,3	106,2	2,4	-28,9
– Portugal	367,6	324,3	312,4	3,9	-3,7	255,4	249,0	255,3	5,8	2,5
– EB-28 guztira	6.154,8	5.912,3	5.634,2	69,8	-4,7	3.700,8	3.613,7	3.385,1	76,4	-6,3
– Gainerako Europa	499,7	568,7	414,2	5,1	-27,2	136,7	148,9	152,6	3,4	2,5
– Ameriketako Estatu Batuk	286,4	311,5	334,9	4,1	7,5	45,3	42,6	51,0	1,2	19,7
– Beste helmuga batzuk	1.598,8	1.645,1	1.690,0	20,9	2,7	695,4	738,7	844,1	19,0	14,3
ATALEN ARABERA (Guztizkoak)										
– Lehen sektorea	463,5	520,5	650,5	8,1	25,0	325,3	392,2	446,2	10,1	13,8
– Nekazaritzako elikagaien ind.	538,8	553,6	565,0	7,0	2,1	217,8	237,3	237,7	5,4	0,2
– Industria kimikoa	96,7	122,0	145,0	1,8	18,9	269,8	238,7	207,0	4,7	-13,3
– Mat. plastikoak, kautxua	269,8	266,9	294,8	3,7	10,5	287,6	280,1	290,7	6,6	3,8
– Metal komunuen manuf.	732,8	668,7	632,4	7,8	-5,4	517,8	485,4	498,7	11,3	2,7
– Makinak, mat. elektrikoa	2.145,1	1.991,8	1.928,7	23,9	-3,2	1.328,8	1.278,0	1.206,2	27,2	-5,6
– Garraio-materiala	3.743,4	3.774,6	3.259,1	40,4	-13,7	1.022,1	1.006,1	930,3	21,0	-7,5
– Gainerakoak	549,6	539,5	597,8	7,4	10,8	609,0	626,1	616,0	13,9	-1,6

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2017an, Brent petrolio-upela % 25,3 garestitu den bitartean, prezioen urtetik urterako aldaketa positiboa izan da ekitaldiko hilabete guztietan, bai EAEn, bai Nafarroan; baina aldaketek profil moderatua adierazten dute. Zehazki, EAEn esparruan, KPlaren urtetik urterako tasa % 3 ingurukoa izan da urtarrilean eta otsailean, % 2 edo gehiagokoa martxoan, apirilean eta maiatzean, % 1,7 ingurukoa ekainetik azarora bitartean, eta % 1 baino zertxobait handiagoa abenduan. Nafarroako Foru Komunitatean ere antzeko dinamika izan dute prezioek, baina hazkundearen erritmoa motelagoa izan da.

Horrenbestez, 2017an inflazio-tasa metatuak (abendutik abendura) % 1,1 behera egin du EAEn, eta % 0,6 jaitsi da Nafarroan (% 1,5 eta % 1,8 aurreko ekitaldia ixtean, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, ekitaldi osoari dagokion batez besteko urteko tasak gora egin du bi kasuetan: % 2 EAEn eta % 1,6 Nafarroan (2016an ez zen aldaketarik izan bi kasuetan).

33. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

EAE	2015	2016	2017	NAFARROA	2015	2016	2017
KPI				KPI			
Orokorra ⁽¹⁾	-0,3	0,0	2,0	Orokorra ⁽¹⁾	-0,6	0,0	1,6
Orokorra ⁽²⁾	0,3	1,5	1,1	Orokorra ⁽²⁾	-0,1	1,8	0,6
Elik. eta alkohol gab. edariak	2,3	0,7	1,7	Elik. eta alkohol gab. edariak	1,7	0,8	0,3
Edari alkoholdunak, tabakoa	1,0	0,8	1,8	Edari alkoholdunak, tabakoa	1,0	1,1	1,3
Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,9	0,3	Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,9	0,7
Etxebizitza	-1,6	0,4	1,1	Etxebizitza	-3,0	0,3	1,0
Etxeko tresneria	0,3	0,8	-0,7	Etxeko tresneria	0,1	-0,3	-0,8
Medikuntza	0,9	0,7	0,4	Medikuntza	1,2	0,0	0,7
Garraioak	-2,5	4,6	2,0	Garraioak	-2,4	5,6	1,1
Komunikazioak	0,5	3,3	0,3	Komunikazioak	0,4	3,2	-0,1
Aisia eta kultura	0,1	0,9	-0,3	Aisia eta kultura	-0,1	1,4	-1,4
Irakaskuntza	0,6	1,0	1,6	Irakaskuntza	0,9	1,2	0,6
Hotelak eta jatetxeak	0,8	1,3	1,8	Hotelak eta jatetxeak	0,7	1,9	2,5
Beste batzuk	1,8	1,8	0,5	Beste batzuk	1,6	2,1	-0,4
Industria Prezioen Indizea (IPRI)				Nekazariak Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	-2,6	-3,0	3,3	Orokorra	--	-3,1	3,9
Kontsumoa	-0,6	0,7	0,9	Nekazaritza-produktuak	--	-0,6	2,9
Ekipamendua	0,3	0,9	1,8	Baso-produktuak	--	-6,2	-0,8
Bitartekoak	-0,8	-2,2	2,8	Animalia-produktuak	--	-6,0	5,4

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIV.

2017ko abenduko urtetik urterako aldaketa-tasari berriro erreparatuta, eta ondasun multzo guztiak kontuan hartuta, EAEn garraioek izan dute inflazio handiena (% 2), eta haren ondoren ageri dira edari alkoholdunak eta tabakoa, hotelak eta jatetxeak (% 1,8 bi

kasuetan), elikagaiak eta alkohol gabeko edariak (% 1,7) eta irakaskuntza (% 1,6). Atzerago daude honako hauek: etxebizitza (% 1,1), beste batzuen multzoa (% 0,5), medikuntza (% 0,4), jantziak eta oinetakoak, eta komunikazioak (% 0,3 bi kasu horietan). Aitzitik, aisia eta kulturaren prezioek behera egin dute, bai eta etxeko tresneriaren prezioek ere (-% 0,3 eta -% 0,7 hurrenez hurren). Nafarroan, hotelen eta jatetxeen prezioen gorakada izan da nabarmenena (% 2,5), eta multzo horren ondoren ageri dira edari alkoholduak eta tabakoa (% 1,3), garraioak (% 1,1), etxebizitza (% 1), jantziak eta oinetakoak, medikuntza (% 0,7 bi kasuetan), irakaskuntza (% 0,6), eta elikagaiak eta alkohol gabeko edariak (% 0,3). Bestalde, talde hauetako prezioek ez dute gora egin Nafarroan: komunikazioak, beste batzuen multzoa, etxeko tresneria, eta aisia eta kultura (-% 0,1, -% 0,4, -% 0,8 eta -% 1,4 hurrenez hurren).

EAEko prezio industrialak aztertuz, 2017an tasa orokorra % 3,3 igo da, aurreko ekitaldian behera egin ondoren (-% 3), bitarteko ondasunen prezioek % 2,8 egin dute gora, ekipamenduek % 1,8 eta kontsumo-ondasunek % 0,9.

Nafarroako nekazariak jasotako prezioei dagokienez, 2017an % 3,9 igo dira: gora egin dute animalia-produktuek (% 5,4) eta nekazaritza-produktuek (% 2,9), eta behera baso-produktuek (-% 0,8).

34. koadroa Soldata-adierazleak

Kontzeptua	2015	2016	2017
EAE			
Soldata-kostuak (urtetik urterako aldaketa-tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	0,4	0,2	-0,2
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-0,3	-1,1	0,1
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	580	495	388
– Eraginpeko langileak	210.221	189.605	134.730
– Adostutako soldata-igoera	0,53	0,92	1,37
NAFARROA			
Soldata-kostuak (urtetik urterako aldaketa-tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	0,5	1,5	2,8
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-0,1	-0,4	4,1
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	207	186	161
– Eraginpeko langileak	100.425	120.210	112.407
– Adostutako soldata-igoera	0,67	1,23	1,90

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

Amaitzeko, lan-kostuei erreparatuta, 2017an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostuak behera egin du EAEn (-% 0,2), eta Nafarroan, berriz, % 2,8 igo da. Langile eta hilabete

bakoitzeko kostua ez da ia aldatu EAEn (% 0,1 igo da) eta nabarmen handitu da Nafarroan (% 4,1).

2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Hego Euskal Herrian

2017ko sustapen ekonomikoak, bai EAEn bai Nafarroan, bai eta estatu osoan ere, enpleguaren hedapen eta langabeen beherakada ekarri ditu, bai Hego Euskal Herrian bai estatuan.

Zehazki, Hego Euskal Herriko biztanleria aktiboari erreparatuta, 1.330,5 mila pertsonak osatu dute multzo hori 2017an; beraz, urtetik urterako murrizketa txiki bat ageri da (-% 0,5). Biztanleria aktibo horren barruan, 1.183,5 mila pertsona landunak dira (aurreko ekitaldian baino % 1,2 gehiago), eta 147,1 mila pertsona, berriz, langabeak, eta zenbateko hori aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa da (-% 12,4). Halaber, estatuko esparruan ere zertxobait jaitsi da biztanleria aktiboa (-% 0,4); landunen kopurua % 2,6 handitu da, eta langabeenak, berriz, behera egin du (-% 12,6).

Sexua kontuan hartuta, Hego Euskal Herriko biztanleria landuna handitu egin da 2017an, hala gizonen artean (% 1,9) nola emakumeen artean (0,4%), eta estatuan ere portaera bera ikusi da (biztanleria landunak % 2,7 eta % 2,6 egin du gora, hurrenez hurren). Biztanleria langabearen beherakadari dagokionez, orokorra izan da bi sexuei erreparatuta, bai Hego Euskal Herrian (-% 16,9 gizonak eta -% 8,1 emakumeak) bai estatuan (-% 13,9 eta -% 11,3 hurrenez hurren). Beraz, bai gizon aktiboen kopuruak bai emakume aktiboenak behera egin dute Hego Euskal Herrian (-% 0,3 eta -% 0,7 hurrenez hurren), bai eta estatuan ere, oro har (-% 0,3 eta -% 0,4 hurrenez hurren).

Hego Euskal Herriko jarduera-tasak behera egin du zertxobait (2017an % 56,8 izan da eta 2016an % 57,3 izan zen); EAEn jaitsi egin da (2017an % 56,1 eta aurreko ekitaldian % 56,9), eta Nafarroan, berriz, igo (2017an % 59,1, eta aurreko ekitaldian % 58,5). Halaber, estatuko jarduera-tasak ere behera egin du (2017an % 58,8 eta 2016an % 59,2). Beraz, Hego Euskal Herriko eta estatu soko tasen artean ehuneko bi punturen aldea dago.

Sexua kontuan hartuta, Hego Euskal Herriko jarduera-tasaren bilakaerak behera egin du, bai gizonen artean (2017an % 62,4 eta aurreko ekitaldian % 62,8) bai emakumeen artean (2017an % 51,6 eta aurreko urtean % 52,2), eta bi tasen arteko aldea pixka bat handitu da. Datuak alderatuta, 2017an Nafarroak EAEk baino jarduera-tasa handiagoa izan du,

bai gizonen artean bai emakumeen artean. Estatu osoan, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasak (% 64,7 eta % 53,2 hurrenez hurren) handiagoak izan dira Hego Euskal Herrikoak baino (% 62,4 eta % 51,6 hurrenez hurren).

Biztanleria langabeari erreparatuta, 2017an behera egin du langabeen kopuruak, 147,1 mila pertsona izatera iritsi arte. Jaitsiera hori (-% 12,4) EAeko eta Nafarroako beherakadaren ondorio izan da (-% 11,2 eta -% 16,5 hurrenez hurren). Orobat, estatuko langabeen kopurua ere murriztu egin da 2017an (-% 12,6).

Dinamika horren ondorioz, langabezia-tasak behera egin du aztertutako eremu geografiko guztietan. Hego Euskal Herrian, langabezia-tasa 2016an % 12,6 izatetik 2017an % 11,1 izatera aldatu da; izan ere, murriztu egin da, bai EAEn (2017an % 11,3 eta aurreko ekitaldian % 12,6) bai Nafarroan (2017an % 10,2 eta aurreko ekitaldian % 12,5). Estatuan, oro har, langabezia-tasa % 17,2ra jaitsi da (% 19,6 aurreko urtean). Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da oraindik ere Europako bigarren tokian dagoela, langabezia-tasari dagokienez, Greziak soilik baitu langabezia-tasa handiagoa.

35. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia
(urteko batezbestekoak, milakotan)

Eremua		2016			2017		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
EAE	Poten. aktiboak	869,7	942,1	1.811,8	871,8	944,9	1.816,7
	Aktiboak	544,3	487,5	1.031,7	538,3	481,7	1.020,0
	Landunak	478,4	423,4	901,8	481,7	423,0	904,7
	Langabeak	65,8	64,1	129,9	56,6	58,7	115,3
	Jarduera-tasa	62,6	51,7	56,9	61,7	51,0	56,1
	Langabezia-tasa	12,1	13,1	12,6	10,5	12,2	11,3
	Erregistratutako langabezia*	62,4	73,8	136,2	56,7	70,8	127,5
Nafarroa	Poten. aktiboak	257,5	264,6	522,1	258,7	266,5	525,3
	Aktiboak	163,3	142,4	305,6	167,0	143,6	310,5
	Landunak	145,4	122,1	267,5	154,1	124,7	278,8
	Langabeak	17,8	20,3	38,1	12,9	18,9	31,8
	Jarduera-tasa	63,4	53,8	58,5	64,6	53,9	59,1
	Langabezia-tasa	10,9	14,3	12,5	7,7	13,2	10,2
	Erregistratutako langabezia*	18,0	22,0	40,0	15,5	20,3	35,7
Hego Euskal Herria	Poten. aktiboak	1.127,2	1.206,7	2.333,9	1.130,5	1.211,4	2.342,0
	Aktiboak	707,6	629,9	1.337,3	705,3	625,3	1.330,5
	Landunak	623,8	545,5	1.169,3	635,8	547,7	1.183,5
	Langabeak	83,6	84,4	168,0	69,5	77,6	147,1
	Jarduera-tasa	62,8	52,2	57,3	62,4	51,6	56,8
	Langabezia-tasa	11,8	13,4	12,6	9,9	12,4	11,1
	Erregistratutako langabezia*	80,4	95,8	176,2	72,2	91,1	163,3
Espainia	Poten. aktiboak	18.754,0	19.777,5	38.531,5	18.803,1	19.851,0	38.654,1
	Aktiboak	12.213,8	10.608,9	22.822,7	12.172,1	10.569,6	22.741,7
	Landunak	10.000,8	8.340,8	18.341,5	10.266,3	8.558,5	18.824,8
	Langabeak	2.213,0	2.268,2	4.481,2	1.905,8	2.011,1	3.916,9
	Jarduera-tasa	65,1	53,6	59,2	64,7	53,2	58,8
	Langabezia-tasa	18,1	21,4	19,6	15,7	19,0	17,2
	Erregistratutako langabezia*	1.642,3	2.060,7	3.703,0	1.459,7	1.953,1	3.412,8

(): Abendua.*
Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko maiatzeko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

2017an langabezia-tasaren murrizketa orokorra izan da bi sexuen artean, bai EAEn bai Nafarroan (beraz, Hego Euskal Herrian), bai eta estatuan ere, oro har. Zehazki, Hego Euskal Herrian gizonen langabezia-tasa % 9,9ra jaitsi da, eta emakumeena, berriz, % 12,4ra (2016an % 11,8 eta % 13,4 izan ziren, hurrenez hurren); estatuan, berriz, % 15,7ra eta % 19ra jaitsi dira, hurrenez hurren (aurreko ekitaldian % 18,1 eta % 21,4 izan ziren, hurrenez hurren). Emakumeek, betiere, langabezia-tasa handiagoa izan dute, gizonek baino.

Horrenbestez, txosten honen aurreko edizioetan bezala, labur-labur aztertuko dugu langabezia Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Kontuan hartu behar da, kasu honetan, zehazki, abenduko datuei buruzko

informazioa ematen dela, eta ez ekitaldi osoari buruzkoa. Hori horrela, iturri horren arabera, 2017ko abenduan EEZPren Euskal Herriko bulegoetan erregistratutakoaren arabera, langabeak 163,3 mila dira, eta kopuru hori 2016koa baino txikiagoa da (-% 7,3). Langabe horietatik 127,5 mila EAEkoak dira, eta Nafarroakoak 35,7 mila, eta kopuru horiek aurreko ekitaldikoak baino txikiagoak dira (-% 6,4 eta -% 10,8 hurrenez hurren). Era berean, 2017ko abenduan erregistratutako langabeziak behera egin du estatu osoan (-% 7,8), eta langabeak 3.412,8 mila pertsona dira, guztira.

36. koadroa Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztira
EAE	2015	53,8	38,6	14,5	8,7	14,8
	2016	56,3	31,5	12,0	9,4	12,6
	2017	36,4	26,0	10,8	8,8	11,3
Nafarroa	2015	51,9	35,2	13,2	8,2	13,8
	2016	36,7	33,3	11,4	9,2	12,5
	2017	42,9	28,7	9,2	6,2	10,2
Hego Euskal Herria	2015	53,2	37,8	14,2	8,6	14,6
	2016	50,0	32,0	11,9	9,4	12,6
	2017	38,9	26,7	10,5	8,2	11,1
Espainia	2015	67,2	44,6	20,6	17,9	22,1
	2016	60,0	41,4	18,2	16,4	19,6
	2017	54,5	35,2	15,9	14,8	17,2

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko maiatzeko datuak).

Berriz ere Biztanleria Aktiboaren Inkesta kontuan hartuta (urteko batezbesteko datuak), langabezia-tasan desberdintasun adierazgarriak ageri dira adinaren arabera, eta gazteen artean daude zenbateko handienak. Zehazki, 2017an, 16 eta 19 urte bitarteko pertsonak % 38,9ko langabezia-tasa izan dute Hego Euskal Herrian; 20 eta 24 urte bitartekoek, berriz, % 26,7koa; 25 eta 54 urte bitartekoek % 10,5koa; eta, azkenik, 55etik gorakoek % 8,2koa.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Hego Euskal Herrian adin-talde guztietan behera egin du langabezia-tasak: gazteenen artean, 2016an % 50 izatetik 2017an % 38,9 izatera jaitsi da; 20 eta 24 bitartekoen artean, % 32tik % 26,7ra; 25 eta 54 bitartekoen artean, % 11,9tik % 10,5era; eta adinduenen artean, % 9,4tik % 8,2ra.

Halaber, estatuaren esparruan gazteek izan dute langabezia-tasa handiena 2017an (% 54,5) eta adin-tarte guztietan behera egin du.

37. koadroa Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak

(pertsona kopuruak, milakotan)

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2015	11,2	183,4	47,9	633,9
	2016	12,5	201,1	49,3	638,9
	2017	12,8	207,6	48,0	636,3
Nafarroa	2015	9,5	64,4	16,9	173,5
	2016	9,6	67,2	12,3	178,5
	2017	11,1	75,0	14,9	177,8
Hego Euskal Herria	2015	20,7	247,8	64,8	807,4
	2016	22,1	268,3	61,6	817,4
	2017	23,9	282,6	62,9	814,1
Espainia	2015	736,8	2.482,3	1.073,7	13.573,3
	2016	774,5	2.522,2	1.073,8	13.970,9
	2017	819,5	2.647,4	1.128,3	14.229,6

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko maiatzeko datuak). (EJSN-2009).

Hego Euskal Herrian enpleguak sektore bakoitzean egin duen bilakaerari erreparatuta, 2017an enpleguak gora egin du sektore guztietan, zerbitzuetan izan ezik. Lehen sektorean lan egiten dutenek % 8,1 egin dute gora, industrian lan egiten dutenen kopurua % 5,3 handitu da, eta eraikuntzan lan egiten dutenena, berriz, % 2,1 igo da. Aitzitik, zerbitzuei lotutako enplegua murriztu egin da (-% 0,4), eta kontuan hartu behar da sektore horrek, Hego Euskal Herriko enplegu guztien % 68,8 biltzen dituenak, 814,1 mila landun dituela, gehienak EAEkoak. Horren ondoren ageri dira honako sektore hauek: industria, 282,6 mila landun dituena (guztizkoaren % 23,9); eraikuntza, 62,9 mila landun dituena (guztizkoaren % 5,3); eta lehen sektorea, 23,9 mila landun dituena (guztizkoaren % 2).

Estatuaren esparruan, sektore guztietan handitu da landunen kopurua: lehen sektorean % 5,8 igo da, eraikuntzan % 5,1 egin du gora, industrian % 5 igo da, eta zerbitzuetan, berriz, % 1,9.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuei dagokienez, 2017an gora egin dute aztergai ditugun eremu geografiko guztietan. Zehazki, ekitaldi horretan Hego Euskal Herrian jakinarazitako 1.329.531 kontratuek % 3,5 handitzea dakarte (% 3,4 EAEn eta % 3,8 Nafarroan), eta estatu osoan jakinarazitako 21.501.303 kontratuek, berriz, % 7,6 gora egin dutela adierazten dute.

Kontratu motari erreparatuta, 2017an kontratu mugagabeen kopurua gehiago handitu da aldi baterako kontratuena baino, bai Hego Euskal Herrian bai estatuan, oro har (Hego Euskal Herrian % 12,3 eta % 2,9 hurrenez hurren, eta estatuan % 12,6 eta % 7,2 hurrenez

hurren). Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da erregistratutako kontratuen % 90 baino gehiago aldi baterakoak direla oraindik ere.

38. koadroa EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak				KONTRATUA K, GUZTIRA
		Mugagabeak	Konbertsioak	Guztira	Obra eta zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Guztira	
EAE	2015	42.890	17.147	60.037	252.493	353.862	200.863	807.218	867.255
	2016	44.459	21.071	65.530	262.062	393.796	205.211	861.069	926.599
	2017	48.217	25.111	73.328	268.594	418.855	197.323	884.772	958.100
Nafarroa	2015	10.777	5.962	16.739	76.452	144.796	101.011	322.259	338.998
	2016	11.764	7.277	19.041	80.576	157.230	100.876	338.682	357.723
	2017	13.023	8.649	21.672	89.166	171.908	88.685	349.759	371.431
Hego Euskal Herria	2015	53.667	23.109	76.776	328.945	498.658	301.874	1.129.477	1.206.253
	2016	56.223	28.348	84.571	342.638	551.026	306.087	1.199.751	1.284.322
	2017	61.240	33.760	95.000	357.760	590.763	286.008	1.234.531	1.329.531
Espainia	2015	1.030.460	478.705	1.509.165	7.334.750	7.722.400	2.009.965	17.067.115	18.576.280
	2016	1.131.236	582.026	1.713.262	7.715.112	8.641.593	1.908.987	18.265.692	19.978.954
	2017	1.242.805	686.445	1.929.250	8.278.306	9.412.876	1.880.871	19.572.053	21.501.303

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Elkarrizketa soziolaboralari begiratuta, 2017an negoziazio kolektiboak garapen txikiagoa izan du aurreko ekitaldian baino, bai EAEn bai Nafarroan, bai eta estatuan ere; hitzarmen gutxiago negoziatu dira, eta pertsona-kopuru txikiagoari eragin diete hitzarmen horiek. Zehazki, 2017an negoziatutako hitzarmenen kopuruan honako beherakada hauek ageri dira: -% 21,6 EAEn, -% 13,4 Nafarroan eta -% 23,4 estatuan.

39. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak			
		Kopurua	Eraginpeko langileak	Hitzartutako soldata-igoera	Kopurua	Parte hartutako langileak	Langileak greba bakoitzeko	Lan egin gabeko egunak
EAE	2015	580	210.221	0,53	154	10.847	70	18.862
	2016	495	189.605	0,92	150	13.579	91	59.095
	2017	388	134.730	1,37	180	59.389	330	100.636
Nafarroa	2015	207	100.425	0,67	38	1.930	51	10.721
	2016	186	120.210	1,23	47	4.264	91	18.881
	2017	161	112.407	1,90	43	1.956	45	4.750
Espainia	2015	5.642	10.227.278	0,71	615	170.528	277	497.483
	2016	4.983	10.323.456	1,02	641	183.120	286	388.912
	2017	3.815	8.723.626	1,48	730*	482.878*	661*	851.444*

(*): Ez daude sartuta Katalunian urriaren 3an egindako greba orokorraren datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa. 2018ko maiatzeko datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2017ko bilakaera gorantz izan da EAEn eta estatuan, eta Nafarroan, berriz, beherantz. EAEn greben kopurua % 20 handitu da, parte-hartzaileen kopuruak % 337,4 egin du gora, eta jardun gabeko lanaldien kopurua, berriz, % 70,3 igo da. Estatuaren kasuan, berriz, % 13,9, % 163,7 eta % 118,9 handitu dira, hurrenez hurren. Aitzitik, greben kopuruak behera egin du Foru Komunitatean (-% 8,5), bai eta parte-hartzaileek (-% 54,1) eta jardun gabeko lanaldien kopuruak ere (-% 74,8).

Biztanleria

Bai EAEko bai Nafarroako biztanleria aldatu ez denez (% 0 bi kasuetan), Hego Euskal Herriko biztanleriak ez zuen aldaketarik egin 2016an (% 0). Guztira 2.830.181 biztanle daude, haietatik 2.189.534 EAEn eta 640.647 Nafarroan. Estatuan, oro har, 46.557.008 biztanle daude, 2016ko datuen arabera, eta kopuru horrek beherakada txiki bat dakar (-% 0,1).

Kontuan hartuz gero Hego Euskal Herrian 2016an 24.141 haur jaio zirela eta kopuru hori aurreko urtekoa baino txikiagoa dela (-% 2,9), eta 26.951 pertsona hil zirela eta kopuru hori 2015ekoa baino txikiagoa dela (-% 0,9), saldo begetatiboa negatiboa da (-2.810 pertsona). Horrenbestez, jarraipena eman zaio 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen ildoari.

40. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2016

Eremua	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza-tasa (%)	Heriotza-tasa (%)
Araba	3.074	2.688	386	9,5	8,3
Bizkaia	9.156	11.759	-2.603	8,0	10,2
Gipuzkoa	6.017	6.777	-760	8,4	9,4
EAE	18.247	21.224	-2.977	8,3	9,7
Nafarroa	5.894	5.727	167	9,2	8,9
Hego Euskal Herria	24.141	26.951	-2.810	8,5	9,5
Espainia	410.583	410.611	-28	8,8	8,8

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2017ko abenduko datuak.

Testuinguru horretan, Hego Euskal Herrian bai jaiotza-tasaren bai heriotza-tasaren bilakaerak beherantz egin dute (2016an ‰ 8,5 eta 2015ean ‰ 8,8 jaiotza-tasaren kasuan, eta 2016an ‰ 9,5 eta 2015ean ‰ 9,6 heriotza-tasaren kasuan). Datu horiekin alderatuta, estatuan, oro har, jaiotza-tasa handiagoa izan da (‰ 8,8) eta heriotza-tasa, berriz, txikiagoa (‰ 8,8).

Ezkontzei dagokienez, Hego Euskal Herrian 9.763 ezkontza egin ziren 2016an, eta kopuru hori txikiagoa da aurreko ekitaldikoa baino (-% 1); estatuan, berriz, % 3,5 handitu da ezkontzen kopurua (171.023 2016an eta 165.172 2015ean).

41. koadroa Hego Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera

Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa	Migrazio-saldoa
2006	2.735.558	11.921	26.577	9,7	23.459	8,6	3.118	-4.147
2007	2.747.736	11.767	27.189	9,9	24.414	8,9	2.775	-1.715
2008	2.777.489	11.720	28.339	10,2	24.725	8,9	3.614	2.481
2009	2.802.753	10.985	27.749	9,9	24.761	8,8	2.988	3.543
2010	2.815.263	10.665	27.948	9,9	24.344	8,6	3.064	3.882
2011	2.826.657	10.304	27.902	9,9	24.990	8,8	2.912	5.702
2012	2.837.659	10.171	27.264	9,6	25.657	9,0	1.607	4.764
2013	2.836.159	9.286	25.191	8,9	25.043	8,8	148	3.469
2014	2.829.775	9.595	25.562	9,0	25.677	9,1	-115	5.103
2015	2.829.733	9.861	24.856	8,8	27.191	9,6	-2.335	4.031
2016	2.830.181	9.763	24.141	8,5	26.951	9,5	-2.810	4.247

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN). 2017ko abenduko datuak.

Azkenik, nabarmendu behar da 2016ean Hego Euskal Herriak migrazio-saldo positiboa izan duela, 4.247 pertsonakoa, immigrazioen kopurua handiagoa izan baita emigrazioen kopurua baino. Zehazki, EAEn migrazio-saldo positiboa 2.889 pertsonakoa izan da, eta Nafarroan, berriz, 1.358 pertsonakoa.



| 17

2. INDUSTRIA

1. IKUSPEGI OROKORRA

Egoera orokorra ona den honetan, Hego Euskal Herriko industria-sektorearen jarduerak berriro egin du gora 2017an; horrela, aurreko urteetan hasitako goranzko dinamikari eutsi dio, hazkunde-erritmoa pixka bat moteldu bada ere, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Halaber, eremu geografikoei erreparatuz gero, industria-jarduera gehiago areagotu da EAEn Nafarroan baino. Zehazki, 2017an, balio erantsi gordin sektorialak % 2,7 gora egin du EAEn (2016an % 2,9), eta % 2,1 Nafarroan (2016an % 2,3). EAEn industriak goranzko joera erakutsi du urtean zehar: % 2,0, % 2,3, % 2,7 eta % 3,7% lehenengo hiruhilekotik laugarrenera, hurrenez hurren. Nafarroan, berriz, ez du bilakaera berdina izan: % 2,7, % 2,4, % 1,5 eta % 1,6. Aipatu behar da EAEn eta Nafarroan 2017an antzemandako industria-jardueraren hobekuntza estatu osoan izandakoa (% 3,7) baino zertxobait txikiagoa izan dela.

Industria-enpleguaren joerari dagokionez, eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, 2017an % 3,2ko hobekuntza izan da EAEn (% 4,7 BJAren arabera); Nafarroan, berriz, % 11,6ko gorakada izan da (2016an % 4,3). Nafarroaren kasuan, estatuko igoera baino askoz ere nabarmenagoa izan da, estatu osoan % 5,0 egin baitu gora (2016an % 1,6).

2017ko jardueraren hobekuntza euskal industria-enpresen emaitzen kontuan ere ikusi da, eta errentagarritasunek gora egin dute, argi eta garbi.

Produkzio-adierazleak

Industria-ekoizpenaren tasek gora egin dute 2017an, aurreko urteko datuekin alderatuta, Nafarroan izan ezik. Zehazki, 2017an Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) % 3,0 gora egin du EAEn (% 2,3 2016an), eta Nafarroan, berriz, % 2,1 behera egin du (2016an zertxobait igo zen: % 0,7). Bestalde, estatuko IPI % 3,2 igo da (% 1,8 2016an).

42. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

(%)

Urtea	EAE	Nafarroa	Estatua
	IPI ^(*)	IPI ^(*)	IPI ^(*)
2010	1,8	6,4	0,8
2011	4,1	-2,1	-1,6
2012	-5,9	-8,0	-6,7
2013	-3,1	-1,6	-1,6
2014	1,4	3,9	1,3
2015	3,5	2,2	3,4
2016	2,3	0,7	1,8
2017	3,0	-2,1	3,2

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.

43. koadroa Hego Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoen arabera

(%)

Urtea	Bitarteko ondasunak		Ekipo-ondasunak		Kontsumo-ondasunak		Energia	
	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa
2010	7,1	2,4	-3,2	21,6	0,6	-6,5	-5,4	18,8
2011	5,8	-2,4	11,2	-1,2	-0,1	5,9	-7,6	-30,8
2012	-7,4	-6,7	-6,2	-10,3	-4,1	-4,9	-2,8	-7,1
2013	-2,5	-4,6	-3,2	3,3	-5,1	-0,2	-2,5	-6,8
2014	2,4	10,0	1,6	3,4	-2,2	3,2	0,1	-6,0
2015	1,3	-0,8	7,4	4,9	5,2	2,4	1,4	6,9
2016	1,0	0,9	8,7	-0,3	0,2	0,8	-4,4	12,8
2017	5,5	7,4	-0,1	-4,5	2,6	-0,5	2,9	2,7

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.

Ondasun motak aintzat hartuta, EAEn Industria Produkzioaren Indizeak kopuru positiboak izan ditu helburu ekonomiko gehienetan: % 5,5 bitarteko ondasunetan, % 2,6 kontsumo-ondasunetan, eta % 2,9 energian; ekipamendu-ondasunetan, berriz, % 0,1ko beherakada izan da. Nafarroan gora egin dute bitarteko ondasunek (% 7,4) eta energiak (% 2,7), baina behera egin dute ekipamendu-ondasunek (-% 4,5) eta kontsumo-ondasunek (-% 0,5).

EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera kontuan hartuta, jarduera-arloen arabera, 2017an nabarmenak izan dira arlo hauetako igoerak: kautxua eta plastikoak (% 7,4), industria kimikoa (% 5,6), informatikako eta elektronikako produktuak (% 5,1), metalurgia (% 4,8), erauzketa-industriak (% 3,7), koke-fabrikak eta petrolio-finketa (% 3,0), energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 2,8), garraio-materiala (% 2,1), makineria

eta ekipoa (% 1,4), eta altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk (% 1,2). Aitzitik, behera egin dute arlo hauek: farmaziako produktuak (-% 2,7), ehunak, jantziak, larrua eta oinetakoak (-% 2,5), makineria eta ekipo elektrikoa (-% 0,6), elikagaien, edarien eta tabakoaren industria (-% 0,2), eta zura, papera eta arte grafikoak (-% 0,1).

**44. koadroa EAEko Industria Produzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduerar-
arloka***

Kontzeptua	2015	2016	2017 (%)
Erauzketa-industriak	-6,3	-16,8	3,7
Elikagaien, edarien eta tabakoaren ind.	1,3	2,2	-0,2
Ehunak, jantziak, larrua eta oinetakoak	-1,6	-1,9	-2,5
Zura, papera eta arte grafikoak	6,5	0,8	-0,1
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	5,2	-0,7	3
Industria kimikoa	5	2,3	5,6
Farmaziako produktuak	-6,3	5,5	-2,7
Kautxua eta plastikoak	-0,1	3,4	7,4
Metalurgia	1,3	0,7	4,8
Informatikako eta elektronikako produk.	15,7	10,1	5,1
Material eta ekipo elektrikoa	-0,5	-5,9	-0,6
Makineria eta ekipoa	6,9	2,6	1,4
Garraio-materiala	3,8	16,6	2,1
Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk	22,3	5,8	1,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	0,3	-5,2	2,8

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Eustat.

**45. koadroa Nafarroako Industria Produzioaren Indizearen (IPI) bilakaera,
jarduerar-arloka**

Kontzeptua	2015	2016	2017 (%)
Nekazaritzako elikagaien ind.	3,8	1,3	-2,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	-3,4	0,3	8,7
Papera, zura eta altzariak	4,3	7,9	7,1
Garraio-materiala	1,5	-2,0	-14,6
Beste manufaktura-industria batzuk	-0,4	0,5	6,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI)

Nafarroaren kasuan, 2017an Industria Produzioaren Indizearen (IPI) bilakaera heterogeneoa izan da jarduerar-arloen arabera. Aipagarria da arlo hauetan egindako igoera: metalurgia eta produktu metalikoak (% 8,7), papera, zura eta altzariak (% 7,1), eta beste manufaktura-industria batzuk (% 6,4). Bestalde, behera egin du elikagaien industriak (-% 2,3) eta, batez ere, garraio-materialak (-% 14,6).

Enpresa-emaitzak

Lehen adierazi bezala, 2017an industria-jarduera baretu egin da, eta moderazio hori euskal industria-enpresen emaitzen kontuan ere ikusi da, errentagarritasunak moteldu egin baitira.

Hain zuzen ere, azken urteetan aztertu den euskal industria-enpresa nagusien laginari dagozkion ratioak (mozkinak/salmentak eta mozkinak/berezko funtsak), zergen aurretik kalkulatuta, % 5,9 eta % 8,7 izan dira 2017an, hurrenez hurren, eta bi kasu horietan tasak 2016koak baino txikiagoak izan dira (% 9,0 eta % 16,3); horrenbestez, 2013an hasitako goranzko joera eten da.


46. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako

Ratioak	2013	2014	2015	2016	2017
Bitarteko kontsumoak/salmentak	55,8	56,4	56,7	56,8	55,6
Langileen kostuak/salmentak	21,2	21,5	20,8	20,2	22,0
Finantza-karga garbia/salmentak	2,8	1,3	1,6	1,3	1,3
Mozkinak/salmentak	3,8	6,8	7,7	9,0	5,9
Mozkinak/berezko funtsak	7,4	12,0	14,6	16,3	8,7
Cash flow/salmentak	7,9	8,2	10,2	11,0	9,9
Salmentak/langileak (m euro)	174,6	186,6	196,8	204,4	196,3

Iturria: CNMV eta geuk egina.

2017an zertxobait behera egin du bitarteko kontsumoen ehunekoak guztizko salmentetan (% 55,6 2017an; % 56,8 2016an) eta langileen kostuen ehunekoak gora egin du (% 22,0 2017an; % 20,2 2016an). Finantza-karga garbia, berriz, % 1,3koa da, 2016an bezalakoa, eta langile bakoitzeko salmentak 196,3 mila eurokoak izan dira; alegia, 2015ekoen parekoak.

4. grafikoa Industria-errentagarritasuna



Iturria: Geuk egina.

Oro har, euskal industria-enpresa nagusien laginaren jardueraren emaitzek izan duten bilakaerari buruz aurretik aipatutakoa berretsi egiten da, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren (HBZ) emaitzak aztertzean¹. Informazio horrek, estatu osoari buruzkoa izan arren, euskal enpresek 2017ko ekitaldi honetan izandako joerak nahiko argi ikusteko aukera ematen du.

Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak bildutako informazioak adierazten du 2017an enpresen jarduerak gora egiten jarraitu duela, baina aurreko urtean baino erritmo motelagoan. Urtean zehar laginaren balio erantsi gordina %1 igo da, termino nominaletan, eta 2016an, berriz, % 3,4 egin zuen gora. Dena dela, aurreko hiruhilekoetan bezala, soberakin horren bilakaera erantsian eragin negatiboa izan du lagin honetan pisu nabarmena duten enpresa oso handi batzuen portaera kaltegarriak. Enpresa horiek energiaren sektorekoak dira, batez ere, eta adar horretan merkataritzako marjinak estutu egin dira, ekoizpen-kostuen goraldiaren testuinguruan. Adar hori alde batera utziz gero, bizitasun handiagoz igo da balio erantsi gordina (% 3,8); baina, hala ere, motelago aurreko urtean baino (% 4,2).

¹ Espainiako 944 enpresa ez-finantzariok 2017ko lau hiruhilekokoei dagozkien datuak bidali dituzte, eta lagin horren emaitzak dira (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkari hoberena). Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektoreko balio erantsi gordinaren % 12,8 osatzen dute.

47. koadroa Emaizten kontua. Urteetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala ^(*)		
	I-IV 15/ I-IV 14	I-IV 16/ I-IV 15	I-IV 17/ I-IV 16
Enpresa kopurua / Nazioko guztizko estaldura	986/%14,0	982/%13,9	944/%12,8
1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne)	-4,0	-0,7	5,9
Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk	-2,4	-3,6	7,4
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne)	-8,5	-2,7	8,3
Erosketa garbiak	-13,8	-1,1	11,7
Beste ustiapen-gastu batzuk	4,3	-2,9	-0,3
S1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	6,3	3,4	1,0
3. Langile-gastuak	2,2	0,7	2,4
S2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S1 - S3)	11,0	6,2	-0,4
4. Diru-sarrera finantzarioak	-13,7	1,7	11,7
5. Finantza-gastuak	-10,3	-12,6	-11,8
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	0,2	-0,3	1,4
S3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S2 + 4 - 5 - 6)	16,9	17,0	7,4
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	--	--	--
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	-77,8	19,5	40,1
9. Mozkinen gaineko zergak	--	--	-50,0
S4. EKITALDIAREN EMAITZA (S3 + 7 + 8 - 9)	-53,2	182,0	-23,8
EKITALDIAREN EMAITZA / BEGd (S4 / S1)	10,9	33,6	24,9
ERRENTAGARRITASUNAK			
R1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	5,3	5,8	5,9
R2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideekiko	3,0	2,7	2,4
R3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	7,1	8,2	8,6
R4. Kendura: Errentagarritasuna - Finantza-kostua (R1 - R2)	2,3	3,1	3,5

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu gisa kalkulatuta dira.

Iturria: Espainiako Bankua.

Enpleguari dagokionez, 2017an joera positiboa izan du, eta % 2,2 egin du gora (2016an % 1,4). Kontratu motari erreparatuta, aldi baterako enpleguak indar handiagoz egin du gora (% 6,8), baina finkoa ere igo da (% 1,2).

Bestalde, ohiko emaitza garbiak % 7,4 egin du gora 2017an. Dena dela, ehuneko hori apalagoa da aurreko urtekoa baino (% 17). Soberakin horrek gora egin du finantza-sarreraren igoeragatik; izan ere % 11,7 egin dute gora, batez ere dibidendu handiagoak jasotzearen eta finantza-gastuak murriztearen ondorioz (% 11,8 behera egin dute, azken urteetan besteren finantzaketaren batez besteko kostuek behera egiteko izan duten joerak jarraipena izan duelako). Bestalde, diru-sarrera ezohikoen bilakaerak inpaktu negatiboa izan du azken emaitzan, eta horren ondorioz % 23,8 behera egin du. Hala eta guztiz ere, pisu erlatibo handia du oraindik ere balio erantsi gordinarekiko (% 24,9 2017an; % 33,6 aurreko urtean).

Testuinguru horretan, ohiko errentagarritasun-ratioek zabaltzeko joerari eutsi diote. Zehazki, aktibo garbiaren ohiko errentagarritasunak gora egin du 2017an % 5,9ra iritsi arte (2016an % 5,8) eta baliabide propioen ohiko errentagarritasuna % 8,6ra iritsi da (2015ean % 8,2), zorraren kostua berriro murriztu den testuinguru batean.

2. ENERGIA

Urtero bezala, klima-aldaketari buruzko hitzordurik garrantzitsuenetariko bat Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Alderdien Konferentzia (COP-23) izan da. Aurten, Bonn hirian egin da, azaroaren 6tik 18ra; non, AEBren falta nabarmendu zen. Konferentzian hainbat zailtasuni egin diote aurre, herrialde batzuek Parisko Hitzarmenean ezarritako zenbait alderdi aldatu nahi baitzituzten. Desadostasunak Talanoako Elkarrizketarekin izan zuen zerikusia. Izan ere, herrialdeek 2018an beren klima-konpromisoak berrikusteko obligazioa hartu dute, ikusi baitute Parisko Hitzarmenean ezarritakoa ez dela nahikoa helburu nagusia betetzeko, hau da: temperatura 1,5 gradu baino gehiago ez igotzea. 2018rako herrialdeek CO² emisioak aztertzeke konpromisoa hartzen duten dokumentuaren onarpena atzeratu da, finantzazio-arazoak egon direlako, posible delako AEB goi-bileratik ateratzea eta Txinak ez duelako nahi Parisko Hitzarmena berrikustea, baizik eta nahiago duelako Kyotoko Protokoloaren bigarren fasean herrialde aberatsek hartutako konpromisoak berriro aztertzea.

Parisko Akordioa 2020an aplikatzekoa da, Kyotoko Protokoloaren indarraldia amaitzen denean. Akordio hori lehen klima-akordio unibertsala izateaz gain, juridikoki loteslea ere bada herrialde guztientzat (AEBekin zer gertatzen den ikusteko dago). Parisko Akordioko testuak berak dioenaren arabera, akordioaren helburua "klima-aldaketaren mehatxuaren aurkako mundu-erantzuna indartzea da, garapen iraunkorraren eta pobrezia desagerrarazteko ahaleginaren testuinguruan". Horretarako, gobernuek hau adostu dute:

- Munduaren batez besteko tenperaturaren igoerari, epe luzera, industriaurreko mailetatik oso gora joaten ez uztea (2 °C baino gutxiagoko igoera).
- Igoera 1,5 °C-ra mugatzea, arriskuak eta klima-aldaketaren eragina nabarmen murrizteko.
- Isuri globalak lehenbailehen jartzea gehieneko mailan edo handik behera, garapen bidean dauden herrialdeetan prozesua luzeagoa izango dela onartuta ere.
- Ondoren, murrizketa azkarrak aplikatzea, eskura dauden irizpide zientifiko onenetan oinarrituta.

Beraz, COP23an erabaki da 2018. urte hasieran Talanoako Elkarrizketa abian jartzea. Plataforma horretan adieraziko zaie hainbat alderdiri, hala nola enpresa-sektoreko ordezkariari, inbertitzaileei, hiriei, komunitateei eta gizarte zibilari, egungo klima-jardueraren egoerari buruzko galdera hauen inguruko proposamenak aurkezteko: Non gaude? Nora joan nahi dugu? Eta nola helduko gara? Hortik abiatuta, eta informazio guztia jasota, azken zirriborroak zehaztuko dira Parisko Hitzarmena abiarazteko.

Zirriborro horiek Poloniako konferentzian entregatuko da, azken aldiz onartzeko (konferentzia hori 2018ko abenduan egingo dela aurreikusten da).

Hori esanda, eta EBko energia-politikari dagokionez, hauek dira oraindik ere bete nahi diren hiru helburu nagusiak: hornikuntzaren segurtasuna, lehiakortasuna eta iraunkortasuna. Horretarako, klimaren eta energiaren arloko 2030era arteko jarduketa-esparruaren baitan, EBk etorkizunean landu beharreko politikei buruzko eztabaidei ekitea proposatzen du, honako gai hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- Hemendik 2050era bitartean, berotegi-efektuko gasen igorpenak % 80-95 artean murriztea, 1990eko maila abiapuntutzat hartuta.
- Energiaren prezio altuak eta EBk etorkizuneko prezioen gorakadarekiko (bereziki gasarena eta petrolioarena) duen ahultasun ekonomikoa.
- EBren mendekotasuna energia-inportazioekiko, askotan politikoki ezegonkorak diren eremuetatik datozenak.
- Energia-azpiegiturak ordezteko eta hobetzeko beharra, bai eta inbertitzaile posibleentzat araudi-esparru egonkor bat ezartzekoa ere.
- EBk 2030erako berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizteko helburu bati buruzko akordio bat lortzeko beharra, klima-aldaketari buruzko beste nazioarteko akordio baterako hurrengo negoziazioetarako ekarpen gisa.

Bestetik, aurreko urteetan bezala, indarrean jarraitzen du 2008an EBk klima-aldaketaren eta energiaren alorrean erabakitako politika integratuak, 2020rako asmo handiko helburu batzuk eta 2030erako eta 2050erako helburu berriak barne.

Hiru hauek dira 2020rako neurrien helburu nagusiak:

- Berotegi-efektuko gasen igorpenak % 20 murriztea, 1990eko mailak abiapuntu hartuta.
- EBko energiaren % 20 berriztagarria izatea.
- Energia-eraginkortasuna % 20 hobetzea.

Hiru hauek dira 2030erako funtsezko helburuak:

- Berotegi-efektuko gasen igorpenak gutxienez % 40 murriztea, 1990eko mailak abiapuntu hartuta.
- Gutxienez energia berriztagarrien % 27ko kuota lortzea.
- Energia-eraginkortasuna % 27 hobetzea.

2050ari dagokionez, ekonomia hipokarbonikoranzko ibilbide-orriak hau ezartzen du:

- 2050rako, EBk bere igorpenak % 80-95 artean murriztu beharko ditu, 1990eko mailak abiapuntu hartuta.
- Horretarako, lehenengo % 40 murriztea lortu beharko du 2030erako, eta % 60 2040rako.

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da sektore guztiek parte hartzea. Trantsizio hori, adituen arabera, bideragarria eta ekonomikoki gauzatzeko modukoa da.

2.1 EAE-KO ENERGIA-BALANTZEA

EAEko energia-balantzea aztertuko da orain. Hasteko, 2017ko daturik ez dagoela eskuragarri adierazi behar da, eta, beraz, jarraian landuko den informazioa 2016koa izango da. Hori garbi utzi ondoren, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) –Euskadiko energia-agentzia, alegia– da jarraian aurkeztuko den energia-balantzea egitearen arduraduna. EAEren energia-balantzea Eurostat metodologiari jarraikiz kalkulatu da, eta energia-mota guztien jarraipen zehatza erakusten du, jatorrizko erauzketa edo inportazioarekin hasi eta eraldaketa eta kontsumoarekin bukatuta. Hala, balantzea bi ataletan zatitzen da. Lehen atalean (1.-5. puntuak), iturri primarioen energia-hornidura jasotzen da, bai erauzketa bidez lortutakoa (1. Energia primarioaren produkzioa), bai inportatutakoa (2. Guztizko sarrerak). Zenbateko horien guztizkoa –izakinen mugimenduak (3), esportazioek (4) eta itsas garraioak (5) doitu– bat dator barne-kontsumorako erabilgarri dagoen zenbatekoarekin (6. puntua = 1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren zatiak energiaren eraldaketa-prozesuei eta azken kontsumorako erabilgarri dagoen energiari (12 = 6-7+8+9-10-11) egiten die erreferentzia, konbertsio-prozesuen (7 eta 8), elkartrukeen (9), energia-sektorearen beraren kontsumoaren (10) eta galeren (11) ondoren. Kontsumorako erabilgarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren lortuko da azken kontsumo energetikoa (14).

48. koadroa EAEko energia-balantzea, 2016

(m ptb)

Sektorea	Ikatza eta deribatuak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
1. Energia primarioaren produkzioa	0	0	0	28	415	0	443
2. Guztizko sarrerak	31	8.774	1.394	0	54	862	11.083
3. Stocken mugimendua	0	-68	-41	0	0	0	-109
4. Guztizko irteerak	0	5.834	-668	0	2	0	5.167
5. Bunkerrak (itsas garraioa)	0	0	0	0	0	0	0
*6.Barne-kontsumo gordinerako erabilgarria	31	2.842	2.021	28	468	862	6.253
7. Eraldatzen ari diren sarrerak	0	9.289	682	11	115	0	10.097
7.1 Zentral termoelektrikoak	0	0	397	0	43	0	440
7.2 Kogenerazioa	0	8	285	11	72	0	376
7.3 Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
7.4 Findegiak	0	9.281	0	0	0	0	9.281
8. Eraldatze-irteerak	0	9.131	0	1	0	428	9.560
8.1 Zentral termoelektrikoak	0	0	0	0	0	204	204
8.2 Kogenerazioa	0	0	0	1	0	224	224
8.3 Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
8.4 Findegiak	0	9.132	0	0	0	0	9.132
9. Trukeak	0	0	0	0	-60	60	0
10. Energia-sektorearen kontsumoa	0	332	106	0	0	86	524
11. Garraio- eta banaketa-galerak	0	0	0	0	0	44	44
**12. Azken kontsumorako erabilgarria	31	2.353	1.233	18	293	1.220	5.147
13. Azken kontsumo ez-energetikoa	0	139	0	0	0	0	139
***14. Azken kontsumo energetikoa	31	2.214	1.233	18	293	1.220	5.008

* 6=1+2+3-4-5

** 12=6-7+8+9-10-11

***14=12-13

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

Beraz, Energiaren Euskal Erakundeak emandako informazioaren arabera, EAEn 2016ko ekitaldiko energiaren azken kontsumoa 5.008 mila ptb izan zen, aurreko urtekoaren oso antzekoa (-% 0,5). Era berean, barne-kontsumo gordinaren bilakaera aztertuta, aldaketa gutxi ikus daitezke 2015etik; aurten, 6.253 mila ptb (-% 0,8) lortu da.

49. koadroa Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera


(m ptb)

Sektorea	2013	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Ikatza eta deribatuak	47,1	44,8	44,0	31,0	-29,5
Petrolio eta deribatuak	2.003,8	2.016,8	2.133,0	2.214,0	3,8
Gas naturala	1.418,0	1.324,9	1.290,0	1.233,0	-4,4
Energia deribatuak	14,7	15,8	18,0	18,0	0,0
Energia berriztagarriak	272,8	301,9	260,0	293,0	12,7
Energia elektrikoa	1.291,9	1.279,0	1.289,0	1.220,0	-5,4
Guztira	5.048,3	4.983,2	5.034,0	5.008,0	-0,5

Iturria: EEE. Geuk egina.

Informazioa energia-motaren arabera bereizita, 2016an EAEn garrantzi handiena duen sektorearen, hau da, petrolioa eta deribatuen (% 44,2) azken kontsumoa % 3,8 igo da. Atzetik datozen beste bi energiek, gas naturalak eta energia elektrikoak (% 24 biek), kontsumoa murriztu dute pixka bat (-% 4,4 eta -% 5,4); gainerako energiek, aldiz, nahiz eta partaidetza txikiagoa izan, modu heterogeneoan eboluzionatu dute. Energia berriztagarriek, % 5,8ko partaidetzarekin, urte arteko bilakaerarik onena izan dute (% 12,7). Bestalde, ikatzak eta deribatuak garrantzia galdu dute (% 0,6), eta kontsumoak % 29,6ko uzkurdua izan du. Azkenik, energia deribatuen kontsumoa mantendu egin da, baina ez du garrantzi handirik izan (% 0,4).

5. grafikoa Azken kontsumoa EAEn, energia-motaren arabera (m ptb)



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

Datuak sektoreka aztertuz gero, 2016ko azken kontsumoak bilakaera-jarrera ezberdinak izan ditu sektoreen arabera. Alde batetik, lehen sektorean 2015eko joera bera errepikatu da, ez baita apenas aldaketarik egon; industriaren sektorean kontsumoa murriztu da (-% 2,6); eta garraioen sektoreak, aldiz, hazkundera izan du (% 4,6). Horretaz gainera, bizitegiaren sektoreko eta zerbitzuen sektoreko joera aldatu egin da; eta horren ondorioz, energia-eskaria murriztu da (% 7,1 eta % 2,9 hurrenez hurren); 2015ean gertatu ez zen bezala, urte hartan kontsumoa igo baitzen.

Energiaren azken kontsumoan, partaidetzari dagokionez, garraioen eta industriaren sektoreak siderurgia-jardueraren beherakadaren eraginpean egon dira azken urtean; eta bien artean % 80ko energia-eskaria izan dute (% 40,2 eta % 39,1 hurrenez hurren).

Bizitegiaren kontsumoak % 10,7ko partaidetza izan du, zerbitzuen sektoreak % 8,6koa eta lehen sektoreak % 1,4koa.

50. koadroa Azken kontsumoa EAEn, sektoreen arabera

Sektorea	2013	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Lehen sektorea	78,0	69,4	70,0	70,0	0
Industria	2.102,2	2.074,1	2.016,0	1.960,0	-2,8
Garraioa	1.846,9	1.862,1	1.925,0	2.013,0	4,6
Zerbitzuak	438,7	427,8	445,0	432,0	-2,9
Bizitegia	582,4	549,9	578,0	534,0	-7,6
Guztira	5.048,3	4.983,2	5.034,0	5.008,0	-0,5

(m.ptb)

Iturria: EEE. Geuk egina.

Aurreko txostenetan adierazten den bezala, Euskadiko Energia Estrategia 2030 planak gidatuko du euskal energia-politika hurrengo urteetan (2016-2030). Energiaren Euskal Erakundeak argitaratutako informazioaren arabera, estrategia hori epe luzeagorako ikuspegi baten barnean sartzen da. Helburua gero eta energia-sistema iraunkorragoa lortzea da, lehiakortasuna, hornikuntzaren segurtasuna eta karbono gutxiko baldintzetan.

Beraz, hauek dira, zehatzago esanda, 2030erako ezarritako helburuak:

- 2016-2030 aldirako, urtean 1.250.000 ptb aurreztea energia primarioan; horrek % 17ko aurrezkoa ekarriko luke 2030ean, eta aldi horretan intentsitate energetikoa % 33 hobetuko litzateke.
- Energia berriztagarrien aprobetxamendua % 126 sendotzea, 2030. urtean 966.000 ptb lortzeko; izan ere, horrek berekin ekarriko luke berriztagarriek azken kontsumoaren % 21eko kuota izatea.
- Euskal administrazio publikoaren ereduzko konpromisoa sustatzea, bere instalazioetako energia-kontsumoa 10 urtean % 25 murrizteko, bai eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko administrazioen eraikinetako % 25etan. Horrez gain, ibilgailu alternatiboak erabili beharko dituzte ibilgailuen parkeetan eta zerbitzu publikorako flotetan.
- Energia alternatiboaren % 25eko kuotara iristea errepide bidezko garraioan, eta petrolioarekiko pixkanakako desloturari eta ibilgailu iraunkorragoen erabilerari garrantzia ematea.
- Kogenerazioak eta berriztagarriek sortzen duten elektrizitate-kuota handitzea, 2015ean % 20 izatetik 2030ean % 40 izatera igarotzeko.
- Euskal enpresen, zentro teknologikoen eta zientzia-eragileen sarearen lehiakortasuna sendotzea, ikerketarako, garapen teknologikorako eta industria-

garapenerako lehentasunezko 9 arlo sustatuz energiaren esparruan, Euskadiko espezializazio adimendunerako RIS3 strategiaren ildotik.

- Klima-aldaketa arintzen laguntzea, neurri energetikoen bidez urtean berotegi-efektuko gasen 3 Mt murriztuz. Horrek BEGen energia-emisioak % 35 murriztea ekarriko du, 2005ekin alderatuta.

2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Atal honetan, bilakaera sektorialari buruzko informazioa bat dator 2017ko ekitaldiarekin, nahiz eta datuak behin-behinekoak izan. Hori esanda, datuen lehen hurbilketan, ikus daiteke estatu-mailan energia elektrikoaren kontsumoa hirugarren urtez igo dela (% 1,1) eta produkzio gordina, aldiz, gelditu (% 0,1). Beraz, 2017ko elektrizitate-eskaria 241.224 milioi kWh-koa izan da, eta produkzio gordina, aldiz, zerbait handiagoa, hau da, 262.665 milioi kWh-koa. EAEko egoera aztertuz gero, ez da aldaketa handirik ikusten kontsumoan, Estatuarekin alderatuta, -% 2,1eko uzkurdua izan du. Produkzioan ere antzeko joera izan du, baina urte arteko aldaketa-tasa Estatukoa baino altuagoa da (% 2,8). Hain zuzen ere, EAEko eskari elektrikoa 7.578 milioi kWh-koa da, eta 2017ko produkzioa, 1.090,3 milioi kWh-koa. Horrenbestez, autogenerazio-tasa % 14,38koa da.

Estatuko datuak sakon aztertuta, eta Unesak (Espainiako Industria Elektrikoaren Elkarteak) emandako behin-behineko informazioaren arabera, 2017ko azken kontsumoa 241.224 milioi kWh-koa da (2016an baino % 1,1 gehiago). Eraitza hori produkzio gordinari (262.665 milioi kWh, 2016an baino % 0,1 gehiago) ponpaketa-kontsumoak (3.662 milioi kWh, 2016an baino % 24 gutxiago) eta garraioan eta banaketan izandako galerak (26.939 milioi kWh, 2016an baino % 1,1 gehiago) kentzetik eta nazioarteko saldoa (9.160 milioi kWh, 2016an baino % 19,5) gehitzetik sortzen da.

Estatuko produkzio garbia aztergai hartuta eta sorkuntza elektrikoaren osaera iturrien arabera aztertuz, datu berriek adierazi dute produkzio-maparen osaeran aldaketa esanguratsuak egon direla. Lehenik eta behin, energia hidraulikoaren produkzioak nabarmen egin du behera, 2017an produkzioa erdira jaitsi da: 39.177 milioi kWh-tik 2016an 20.574 milioi kWh-ra pasa da 2017an (-% 47,5). Horrenbestez, produkzio guztian duen parte-hartzea ahuldu egin da (% 7,8 2017an eta % 14,9 2016an). Energia nuklearraren produkzioa 55.612 milioi kWh-koa da, eta joera horrekin jarraitu du; hala eta guztiz ere, beherakada ez da hain handia izan: produkzio-mailak % 0,9ko uzkurdua izan du eta % 21 inguruko pisu erlatiboa mantendu du. Energia berriztagarrien produkzioari dagokionez, guztizko produkzioaren % 26,2 hartzen du; 2017ko ekitaldiko jarduerak gorakada txiki bat izan du (% 1,7) eta 68.729 milioi kWh lortu ditu. Energia berriztagarrien artean garrantzi handiena produkzio eolikoak du eta energia-mota horrek izan du

dinamismo txikiena (% 18,3ko parte-hartzea eta % 0,4ko hazkundea). Bestalde, datu hobekak dituzte eguzki-energiak (% 5,2 eta % 5,1 hurrenez hurren) eta biomasak eta hondakinek (% 2,7 eta % 4,2). Era berean, kogenerazioak eta hondakinen tratamenduak garrantzi handiagoa du produkzio-mapan; izan ere, balioek % 8,8 egin dute gora eta % 10,7ko parte-hartzea izan du. Azkenik, erregai fosilei dagokienez, 2017ko produkzioak % 21,8ko egoera izan du eta, horrela, 89.568 milioi kWh-rekin produkzio-mapan liderra izaten jarraitu du. Horretan eragina izan du ikatzaren eta gas naturalaren bilakaera aldatzeak, % 20,6 eta % 27,7ko igoera izan dute; bai eta fuel-olioaren hazkundeak ere; hala ere, azken horren eragina xumeagoa izan da, parte-hartze txikiagoa baitu.

51. koadroa Energia elektrikoaren produkzioa eta eskaria Hego Euskal Herrian

(M kWh)

Urtea	Guztizko produkzioa					Guztira: (1+2+3+4+5) 6	Guztizko kontsumoa 7	Autogene- razioa %-tan (6/7) x 100
	Hidraulikoa 1	Termikoa 2	Eolikoa 3	Mini hidraulikoa 4	Kogenerazioa 5			
2011	235,6	1.310,6	334,6	11,5	451,7	2.344,0	21.064,5	11,13
2012	264,6	1.922,9	323,2	11,8	443,5	2.966,1	19.698,9	15,06
2013	477,5	745,6	336,6	13,1	435,9	2.008,7	8.409,8	23,88
2014	321,0	0	328,5	12,4	350,7	1.012,5	7.583,7	13,35
2015	351,3	0	326,2	10,5	438,0	1.126,2	7.707,5	14,61
2016	306,3	0	319,1	11,8	422,8	1.060,0	7.742,7	13,69
2017	225,5	141,1	311,9	9,0	402,7	1.090,3	7.578,5	14,38

Iturria: Iberdrola. Geuk egina.

EAEko produkzioaren bilakaera energia-motaren arabera aztertuz gero, Iberdrolaren informazioa oinarri hartuta, oro har, produkzio-mailek behera egin dute. Hain zuzen ere, kogenerazioak, produkzio-mapan nagusi den energiak (guztizkoaren % 36,9), % 4,8ko jaitsiera izan du 2017ko balioetan. Estatuan gertatu bezala, energia hidraulikoak (% 20,7) izan du bilakaerarik txarrena, produkzio-jarduera % 26,4 jaitsi baita. Bestalde, mini hidraulikoak ere joera bera jarraitu du (-% 24), nahiz eta partaidetza txikiagoa izan (% 0,8). Horretaz gainera, energia eolikoak, produkzio-bolumenean bigarrena denak (% 28,6), produkzioa murriztu du, baina ez da izan hain nabarmena (-% 2,2). Murrizketen testuinguru horretan, energia terminoaren produkzioa suspertu egin da, 3 urteko geldialdiaren ondoren; eta produkzio-mapan indar handiagoa hartu du (% 12,9). Horretaz gainera, guztizko produkzioa igotzearen arduraduna da.

52. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldeka

Lurraldea	2014	2015	2016	2017	(M kWh) % Δ 17/16
Araba	972,1	1.062,8	1.090,0	1.090,9	0,1
Bizkaia	3.016,8	2.794,8	2.917,3	2.692,9	-7,7
Gipuzkoa	1.905,0	2.032,1	1.949,7	1.851,6	-5,0
EAE	5.893,9	5.889,7	5.957,0	5.635,3	-5,4
Nafarroa	1.689,8	1.817,8	1.785,7	1.943,2	8,8
Euskal Herria ⁽¹⁾	7.583,7	7.707,5	7.742,8	7.578,5	-2,1
Espainia ⁽²⁾	233.392	236.553	238.053	241.224*	1,1

(*): Behin-behineko datuak.

(1): Fakturatutako energia elektrikoa. Iberdrolaz aparteko banatzaileak ez dira aintzat hartu, ezta Iberdrolaren kontsumo propioa ere.

(2): Energia elektrikoaren kontsumo garbia.

Iturria: Iberdrola eta Unesa.

EAEko kontsumoa 7.578,5 milioi kWh-koa izan da 2017an; energia-eskaria % 2,1 murriztu da 2016kiko eta 2014ko balioetara itzuli da. Ikuspuntu geografikotik aztertuta, jaitzierak nagusi diren testuinguruan, kontsumoa mantendu da eskari gutxien dagoen eskualdean, hau da, Araban (% 0,1); eta Nafarroan, aldiz, nabarmen egin du gora (% 8,8). Bizkaian (% 35,5) eta Gipuzkoan (% 24,4) egondako jaitsierek (-% 7,7 eta -% 5 hurrenez hurren) Euskal Herriko energiaren kontsumo garbian eragiten dute 2017an.

Atalari amaiera emateko, 2017an Iberdrola taldeko bilakaeran nabarmendutako hainbat adierazle aurkezten dira.

Enpresa horrek argitaratutako informazioaren arabera, irabazi garbia % 3,7ra igo da, 2.804 milioi euro lortu arte; era berean, EBITDA doituak 7.522 milioi euro izan ditu. Inbertsioak % 38 igo dira, 5.891 milioi euro lortuta. Horretarako, energia berriztagarrien eta sortzekoen negozio arautuak egiten dituzte, epe luzerako kontratuen bidez. Energia elektrikoak lortutako emaitzak onak bi alderdi hauei esker da: alde batetik, Donald Trump presidenteak sustatutako zerga-erreformaren eraginez negozioek AEBn izandako inpaktu positiboa; eta bestetik, Gamesaren gainbalioa eta Brasilgo Neoenergiaren integrazioa irailetik aurrera. Hala eta guztiz ere, kontrako faktoreak ere egon dira, hala nola Espainiako egoera hidrolagikoa, AEBko ekaitzak, Erresuma Batuko negozio liberalizatua edo eraginkortasun-planerako hornidurak.

Era berean, 2018-2022 estrategia-planak 32.000 milioi euroko inbertsioak aurkeztu ditu hurrengo bost urterako; horrela, 2022an 3.500 eta 3.700 milioi euro arteko irabazi garbia, eta 11.500 eta 12.000 milioi euroko EBITDA lor dezake. Elkartek jarduten duen herrialdeetan industria-sarea indartu nahi du, hornitzaileei egingo zaizkien erosketen aurreikuspenari esker, bai eta maila handiko lanbideak mantendu ere, mundu osoan dituzten 35.000 langileei formakuntza-planak eskainiz.

3. SIDERURGIA

3.1 EGOERA OROKORRA

2017. urtea ona izan da bai mundu-mailako ekonomiarentzat bai Espainiakoarentzat. Dinamikotasun hori siderurgiaren sektorerara heldu da eta, lehengaien prezioak oso aldakorrek badira ere, positiboan itxi du urtea.

Munduko gehiegizko ekoizpen-ahalmena dela-eta, erronka handi baten aurrean dago sektorea; izan ere, gorabidean diren beste merkatu batzuetara hedatu da duela urte gutxira arte Txinan ardatzen zen fenomeno hori. Ildo horretatik, G20koek –ELGEren eskutik– mundu mailako arazo horri irtenbide posibleak bilatzeko foroa sortu dute: Altzairuaren Gehiegizko Ahalmenaren inguruko Mundu Mailako Foroa (GFSEC). Aipatzekoa da Espainiako Gobernuak eta Europako Batzordea prozesuaren parte direla eta Foroan elkarlan aktiboan ari direla.

Mundu-mailan siderurgia sektoreak dituen erronkei aurre egite aldera, eta merkataritza-defentsarako neurriak erregulatzea eraginkorrago eta errazago egiteko, Europako merkataritza-politiken arloko erregulazio-prozesuak burutu dira urtean zehar.

World Steel Association-en (Altzairuaren Munduko Erakundea) ahaleginen helburu den beste gai bat langileen segurtasuna eta ongizatea da, eta "Zero ezbehar" ekimenaren bidez, % 78 gutxitu da lesioen tasa 2016tik.

Orobat, berrikuntza funtsezkoa da etengabe garatzen ari den altzairuaren sektorean, eta horregatik, altzairuaren industriak bere diru-sarreraren % 13 inbertsioarekin eta prozesuen hobekuntzarekin zerikusia duten proiektuetan inbertitu du.

World Steel Association-ek argitaratutako azken datuen arabera, altzairu gordinaren guztizko ekoizpena 1.689 milioi tonakoa izan da 2017an, eta kontsumoa 1.587 milioi tonara igo da. Ildo beretik, 2016arekin alderatuta, altzairuaren ekoizpenean zein kontsumoan erregistratu diren hazkundeak aurreko ekitaldian erregistratu zirenak baino handiagoak izan dira. Zehazki, altzairu gordinaren mundu-mailako ekoizpena % 3,8 hazi da 2016koarekin alderatuta (aurreko urtean baino ia hiru ehuneko gehiago), eta altzairuaren munduko kontsumoa % 4,7 hazi da urtetik urtera (% 1 aurreko urtean).

53. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena

Herraldea	2016			2017		
	m Tm	Δ %	%	m Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	91,1	-0,2	5,6	95,2	4,5	5,6
Japonia	104,8	-0,3	6,4	104,7	-0,1	6,2
Txina	807,6	0,6	49,6	831,7	3,0	49,2
India	95,5	7,4	5,9	101,4	6,2	6,0
Alemania	42,1	-1,4	2,6	43,4	3,1	2,6
Italia	23,4	6,4	1,4	24,1	3,0	1,4
Frantzia	14,4	-4,0	0,9	15,5	7,6	0,9
Erresuma Batua	7,6	-30,3	0,5	7,5	-1,3	0,4
Espainia	13,6	-8,1	0,8	14,5	6,6	0,9
EB-28	156,5	-2,7	9,6	162,3	3,7	9,6
Mundu osoa	1.627,0	0,6	100,0	1.689,4	3,8	100,0


Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Altzairuaren ekoizpenaren konposizioari jatorri geografikoaren arabera begiratzuz gero, ez da aldaketarik ageri aurreko urteekin alderatuta. Hala, Txinak 832 milioi tona ekarri dizkio munduko ekoizpenari, eta urtetik urterako % 3,0ko hazkundera izan du. Ehuneko hori aurreko urteetan erregistratutakoak baino handiagoa da (% 0,6koa 2016an; -% 2,3koa 2015ean eta % 0,1koa 2014an). Indiaren altzairu ekoizpena txikiagoa den arren (101 milioi tona), hazkunde handienetako bat (% 6,2) izan du aurreko urtearekin alderatuta. Aipatu behar da Txinak, munduko ekoizpenaren % 49,2arekin, altzairua ekoizten duten herrialdeen artean nagusi izaten jarraitzen duela. Ekoizpen horrekin alderatuta, tradizionalki siderurgia landu duten herrialdeek jarrera moderatuagoak erregistratu dituzte: EB-28ko ekoizpena, 162,3 milioi tonarekin, % 3,7 hazi da. AEBen eta Kanadaren baterako ekoizpena 95,2 milioi tonakoa da (urterik urterako % 4,5eko hazkundera izan du) eta Japoniarena, berriz, 104,7 milioi tonakoa (% 0,1 txikitu da).

Arreta merkatu hurbilenetan jarrita, ikusiko dugu Alemaniak, Italiak, Frantziak, Espainiak eta Erresuma Batuak Europako jardueraren zati handiena hartzen jarraitzen dutela; izan ere, EB-28ko altzairu ekoizpenaren % 65 hartzen dute.

Merkatu horietako altzairuaren ekoizpenen bilakaerei dagokienez, nabarmentzekoa da azken urtean merkatu gehienek hobera egin dutela. Zehazki, Frantziako altzairuaren ekoizpena, taldean hazkunde handiena izan duena, % 7,6 hazi da urtetik urtera, Alemaniakoa % 3,1 hazi da eta Italiakoa % 3,0. Erresuma Batua da talde horretatik txikitu den merkatu bakarra (-% 1,3 urtetik urtera). Hala, EB-28ko altzairuaren guztizko ekoizpenak urtetik urterako % 3,7ko hazkundera izan du.

6. grafikoa Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Altzairuaren kontsumoari dagokionez, EB-28ko herrialde nagusien egoera antzekoa da, eta ildo beretik, EB-28ko altzairuaren kontsumo orokorra ere hazi egin da azken urtean, nahiz eta hazkunde hori moteldu egin den 2016arekin alderatuta. Hala, 2017ko EB-28ko baterako altzairuaren kontsumoa 162 milioi tonakoa izan da eta, beraz, % 2,5 hazi da (+% 2,9 hazi zen 2016an). Hazkunde horren eragile nagusia aztertutako herrialde guztiek erakutsi duten dinamismoa da, Erresuma Batuak izan ezik, bere altzairu kontsumoa % 0,9 txikitu baita.

Aitzitik, Espainiako (+% 7,9), Alemaniako (+% 3,2), Italiako (+% 1,7) eta Frantziako (+% 0,8) altzairuaren kontsumoek hobera egin dute duela urtebetekoeekin alderatuta.

Eremu geografiko zabalago bati begiratuta, Txina nabarmentzen da altzairu kontsumitzaile nagusi gisa. 2017an mundu-mailako altzairu kontsumo guztiaren % 46,4 hartu du eta % 8,3 hazi da 2016arekin alderatuta. AEBn eta Kanadan % 6,9 igo da kontsumoa eta 114,3 milioi tonara iritsi da (mundu-mailako kontsumo guztiaren % 7,9 da). Orobat, Indian, nahiz eta merkatu-tasa txikixeagoa (% 5,5) izan, kontsumoak hazten (+% 4,3) jarraitzen du. Gauza bera gertatzen da Japonian ere: % 4,1ko kontsumoa du eta % 3,5 hazi da urtetik urtera.

54. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2016			2017		
	m Tm	Δ %	%	m Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	106,9	-2,3	7,1	114,3	6,9	7,2
Japonia	62,2	-1,3	4,1	64,4	3,5	4,1
Txina	680,3	1,2	44,9	736,8	8,3	46,4
India	83,6	4,2	5,5	87,2	4,3	5,5
Alemania	40,5	3,1	2,7	41,8	3,2	2,6
Italia	24,1	-2,0	1,6	24,5	1,7	1,5
Frantzia	13,2	3,9	0,9	13,3	0,8	0,8
Erresuma Batua	10,9	3,8	0,7	10,8	-0,9	0,7
Espainia	12,6	0,0	0,8	13,6	7,9	0,9
EB-28	158,4	2,9	10,4	162,3	2,5	10,2
Mundu osoa	1.516,0	1,0	100,0	1.587,4	4,7	100,0

Iturria: World Steel Association.

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Orokorrean Espainiak 2017an bizi izan duen aldi ekonomiko oparoa herrialdeko sektore siderurgikoan ere islatu da. Ekonomiaren egoera baikor hori Espainiako sektore siderurgikoko magnitude nagusietan ere igarri da; hala, % 7,5eko hazkundera izan da ageriko kontsumoan eta % 5,9koa altzairuaren ekoizpenean. Zehazki, 12.767 mila tonara igo da produkzioa eta 13.851 mila tonatan zenbatu da ageriko kontsumoa, 2010etik (13.851 mila tona) erregistratu den zifra altuena.

55. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*

Urtea	(mila Tm)				
	Ekoizpena	Esportazioak	Inportazioak	Ageriko kontsumoa	
2010	14.814	9.901	9.153	13.851	
2011	14.015	10.178	9.038	13.179	
2012	12.154	9.901	7.816	10.745	
2013	12.842	9.956	7.612	10.924	
2014	12.739	9.950	8.275	11.587	
2015	13.287	9.600	8.974	12.717	
2016	12.060	8.487	8.622	12.651	
2017	12.767	8.764	9.892	13.594	


(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritzan siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Halaber, siderurgia-sektorearen dinamismoak sektore horretako enpresek kanpoan egin dituzten erosketei eta salmentei ere eragin die. Izan ere, gainerako adierazle nagusiak bezala, inportazioak eta esportazioak ere hazi egin dira 2017an, nahiz eta ez diren proportzio berean hazi. Hala, siderurgia-produktuen inportazioek % 14,7 egin dute gora eta esportazioek, berriz, % 3,3, -lehen hazkundera izan da urrenez urreneco hiru

ekitalditan jaitsierak izan eta gero-. Zehazki, Espainiako siderurgia-sektoreko enpresek kanpora eginiko salmentak 8.876 mila tonara heldu dira 2017an eta inportazioak 9.892 mila tonatan zenbatu dira.

7. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Espainiako siderurgia-sektoreko beste magnitudeetan gertatu den antzera, enpleguarentzat ere urte ona izan da 2017a. Hala, ekoizpenean izan den hazkundearekin paraleloan, sektoreko enpleguan ere susperraldi arin bat gertatu da. Izan ere, 2017ra arte, siderurgia-enpleguak jaitsierak izan ditu urrenez urreneko sei ekitalditan, besteak beste, krisi ekonomikoa zela-eta sektoreko enpresek egin zituzten enplegu-doikuntzen ondorioz. Horregatik, 2017an sektorean joera aldaketa gertatu dela esan daiteke, % 0,8ko hazkundera erregistratu baita, eta 22.300 enplegaturen zifrara heldu (duela urtebete baino 187 enplegatu gehiago).

Sektoreak inportatu dituen lehengai nagusien bilakaerari dagozkion datuak bat datoz ekitaldiaren bilakaerarekin. Koke bihur daitekeen harrikaitzaren kontsumoa berdin mantendu da 2016tik, nahiz eta prezioa, azken urtearekin alderatuta, ia bikoiztu (+% 94,0) eta 2011ko mailara iritsi den. Orobat, txatarraren prezioa % 4,5 igo da urterik urtera eta igoera nabarmen bat egon da horren prezioan ere (+% 42,8). Egoera berbera erregistratu da burdin mearen eta pelleten kontsumoan eta prezioan ere (+% 8,9 eta +% 52,9, hurrenez hurren). 2017an, burdin meak eta pelletek Espainiako siderurgia-

sektoreko lehengai nagusi izaten jarraitzen dute, eta horien kontsumoa 6.546 mila tonakoa da; hau da, guztizkoaren % 52,5.

56. koadroa Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikaitza		Burdin mea eta pelletak		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2008	3.371	147,0	6.328	69,0	7.408	342,0
2009	2.058	133,0	3.951	62,0	4.654	211,0
2010	2.984	161,0	6.707	87,0	6.186	311,0
2011	2.610	215,0	5.373	129,0	5.271	390,0
2012	2.492	176,0	5.220	100,0	4.747	375,0
2013	2.528	129,0	6.259	103,0	4.925	318,0
2014	1.632	105,0	5.699	75,0	4.928	330,0
2015	1.720	102,9	6.378	51,4	5.145	293,3
2016	1.768	106,2	6.010	49,1	3.970	226,1
2017	1.767	206,0	6.546	75,1	4.148	322,9
Hazk. % 16-17	0,0	94,0	8,9	52,9	4,5	42,8

Iturria: Unesid.

Enpresako langileen segurtasunari dagokionez, Unesid-en lehen tasunetako bat Espainiako siderurgia-enpresa guztietan segurtasun-bikaintasuna lortzea da, industriaren iraunkortasuna eta enpresen arrakasta lortzeko ezinbesteko baldintzat jotzen baitu.

Siderurgia-sektorean funtsezko beste alderdi bat berrikuntza da. Horregatik, Unesid industriari bere osotasunean eragiten dieten teknologia-aldaketetan murgilduta dago. Gainera, PLATEA plataformaren bidez, Unesideko kide diren enpresek *"elkarrekintzan dihardute unibertsitateekin eta ikerkuntza-zentroekin Espainiar siderurgiaren lidergoa bermatuko duten produktu eta zerbitzu berezituak garatzeko eta ezartzeko"*.

3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Euskal siderurgia-sektorearen bilakaera nazioartekoaren eta estatukoaren antzekoa izan da, eta hala, hobekuntzak izan dira bai sektoreak euskal ekonomiari egiten dion ekarpenean bai enpleguaren sorkuntzan.

8. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena



Iturria: Geuk egina.

Euskal Autonomia Erkidegoko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritzari dagokionez, sektorearentzat 2017a orokorrean urte ona izan den arren, esportazioek joan den urtekoen antzeko jaitsierekin itxi dute urtea. Konkreteruki, esportazioek 2.114,2 mila tonatan egin dute behera; hau da, % 13,2 jaitsi dira (-% 13,3 jaitsi ziren 2016an). Termino ekonomikoetan, ordea, bilakaera positiboa izan da: 1.497,4 milioi eurekin, hazkundea % 6,5ekoa izan da. Hala, batez besteko prezioa 708,2 milioi eurora igo da.

Inportazioen bilakaera ere positiboa izan da, haien bolumena % 4,9 hazi baita (3.540,5 mila tona) eta haien balio ekonomikoa, % 24,8 (1.831,4 milioi euro). Ondorioz, batez besteko prezioa 517,3 mila eurokoa da.

57. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritzea

Urtea	Inportazioak		Esportazioak	
	m Tm	m euro	m Tm	m euro
2008	6.287,6	3.052,3	2.734,6	2.468,0
2009	3.556,5	1.189,7	2.509,6	1.290,2
2010	5.394,5	2.057,1	2.990,0	1.964,9
2011	4.154,7	2.292,8	2.813,2	2.219,8
2012	3.371,8	1.829,7	2.348,5	1.843,6
2013	4.085,3	1.856,8	2.340,8	1.690,9
2014	4.330,5	1.951,4	2.791,9	1.852,9
2015	4.595,9	1.879,8	2.810,3	1.745,3
2016	3.375,0	1.467,3	2.436,7	1.406,0
2017	3.540,5	1.831,4	2.114,2	1.497,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzea, Ogasun eta Finantza Saila eta Eustat.

EAEko siderurgia-jarduerari buruzko datu hauek Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dira. Garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritze- eta/edo produktu-sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokie.

Horri buruz publikatutako azken informazioen (2016ari dagozkionak) arabera, euskal siderurgiak, ez-burdinazko metalurgiak, galdategiek eta forjaketak eta estanpazioak BEGari eginiko ekarpena 1.542,6 milioi eurokoa izan zen 2016an. Horrek esan nahi du % 7,9ko hazkundea izan zela 2015eko zifrarekin alderatuta. Bestalde, metalezko eraikuntzek, ingeniariak metalikoak eta metalezko artikuluek 2.396,5 milioi euroko ekarpena egin diote Euskal Autonomia Erkidegoko BEGari, urtetik urterako % 4,6ko igoerari esker. Kontuak horrela, industriak BEGari egindako ekarpena % 27,8koa izan da, eta sektoreari loturiko langile-kopurua 67.179 pertsonakoa (2015ean baino % 1,3 handiagoa).

58. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena

(m euro)

Kontzeptua	BEG			Enplegua		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Siderurgia eta ez-burdinazko metalurgia	680	596	668	10.530	10.222	9.648
Galdaketa	441	411	419	7.009	6.643	6.775
Metalezko eraikuntzak	419	427	417	9.663	9.785	9.823
Forjaketa eta estanzazioa	416	423	455	6.342	6.473	6.790
Ingeniaritza mekanikoa	938	992	1.059	17.849	18.498	19.089
Metalezko artikulak	861	870	920	14.370	14.703	15.054
Multzo siderometalurgikoa guztira	3.756	3.720	3.939	65.763	66.324	67.179
Industria	13.102	13.543	14.155	192.387	194.458	198.141
Partaidetza (%)						
– Siderurgia/Industria	5,2	4,4	4,7	5,5	5,3	4,9
– Siderometalurgia/Industria	28,7	27,5	27,8	34,2	34,1	33,9

Iturria: Industria Kontuak (Eustat).

Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

Arreta EAEko altzairuaren ageriko kontsumoan jarritz gero, eta Unesidek emandako datuekin bat, 2017an 13.594 mila tonara iritsi da; hau da, 2016an erregistratutakoa baino % 7,5 handiagoa eta 943 mila tona gehiago termino absolutuetan. Produktu moten arabera behatuz gero, ikusiko dugu bilakaera desberdinak daudela; hala, lingoteen eta amaitugabeen kontsumoa ia desagertzera arte jaitsi da (-% 97,1 jaitsi da eta 11 mila tona kontsumitu dira); bestalde, produktu luze amaituen kontsumoa bere horretan mantendu da 2016arekin alderatuta. Aitzitik, produktu lau hotz eta estaliak eta produktu lau beroek bilakaera positiboa izan dute azken urtean (+% 15,8 eta +% 18,5, hurrenez hurren).

59. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera

(m Tm)

Produktuak	Ageriko kontsumoa			
	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Amaitutako produktu motaren arabera*				
– Lingoteak eta amaitugabeak	530	372	11	-97,1
– Produktu luze amaituak	4.024	4.499	4.498	0,0
– Produktu lau beroak	3.227	2.904	3.440	18,5
– Prod. lau hotz eta estaliak	4.837	4.869	5.636	15,8
Altzairua, guztira	12.717	12.651	13.594	7,5

(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.

Iturria: Unesid.

Bestalde, EAEko beroan ijeztutako produktuen ekoizpenaren bilakaerak argi uzten du produktu luzeen zein lauen ekoizpenak gora egin duela azken urtean. Konkretuki, beroan ijeztutako produktu luzeen ekoizpena 8.789 mila tonatan zenbatu da (urtetik urterako

+% 1,1), eta beroan ijeztutako produktu lauena berriz 4.800 mila tonara igo da (2016an baino +% 4,3)

Beroan ijeztutako produktu luzeak xeheago aztertuz gero, ikusiko dugu talde horren dinamismoa trenbideetako materialen (+% 29,7), egiturazko profilen (+% 3,1) eta alanbre-burdin biribilduen (+% 9,0) bilakaera positiboek eragin dutela; izan ere, hazkunde horiek hormigoirako biribilen (-% 15,0) eta beste merkataritza profil batzuen (-% 1,7) jaitsierak konpentsatu dituzte.

60. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*

(m Tm)

Produktuak	Ekoizpena			
	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Beroan ijeztutako produktu luzeen ekoizpena*	9.070	8.698	8.789	1,1
– Trenbideetako materiala	294	176	228	29,7
– Egiturazko profilak	2.567	2.669	2.753	3,1
– Alanbre-burdin biribildua	2.681	2.600	2.835	9,0
– Hormigoirako biribilak	1.841	1.677	1.425	-15,0
– Beste merkataritza-profil batzuk	1.686	1.575	1.548	-1,7
Beroan ijeztutako produktu lauak	4.744	4.600	4.800	4,3

(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.
Iturria: Unesid.

CIE Automotive

Hego Euskal Herriko siderurgia-sektoreko enpresen erakusgarri da CIE Automotive, eta horren jarduera nagusia produktu lauak ekoiztea da. 2002an sortu zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean. Bere jardueraren xede nagusia da automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziazko talde bilakatzea.

Konpainiak bere burua definitzean dioen moduan, CIE Automotivetik beste enpresengandik bereizten duten hainbat ezaugarri ditu: kokaleku anitzeko enpresa da, teknologia anitzeko eskaintza egiten du, balioa sortzen duen kudeaketa deszentralizatua baliatzen du, dibertsifikazio komertziala lantzen du, eta inbertsio-diziplina eta errentagarritasun-eskakizuna ditu ardatz. Azken horiek 2020rako ezarritako helburuetan eta urtero-urtero egiten dituen inbertsioetan ikusi ahal izan dira. Hona hemen enpresaren kokalekuak: Amerikan (Brasil, AEB, Mexiko), Europan (Espainia, Portugal, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Eslovakia, Txekiar Errepublika, Lituania, Errumania, Errusia), Asian (Txina eta India) eta Afrikan (Maroko).

Jarduera honako segmentu hauetan gauzatzen du: plastikoa (17 fabrika), aluminioa (9 fabrika), mekanizazioa (27 fabrika), estanzazioa (19 fabrika), forjaketa (18 fabrika), galdaketa (3 fabrika) eta sabai-sistema (5 fabrika).

2017an CIE Automtiven ekonomia- eta finantza-parametro nagusietan emaitzak oso onak dira; izan ere, marka historiko guztiak hautsi ditu bai salmentetan bai emaitzetan. CIE Automotivok 2017 ekitaldiko itxieran erregistratutako irabazi garbia 2016koa baino % 32,7 altuagoa izan da, eta salmentak aurreko ekitaldikoak baino % 29,4 handiagoak izan dira.

2017an, taldeak hazkunde-estrategiari eutsi dio eta bi erosketa itxi ditu: Newcor talde estatubatuarra eta CIE Durametal filialaren zati bat erosi ditu. Erosketa horiez gain, 2017an zehar zenbait ekintza burutu dira enpresa organikoki haz dadin; besteak beste, fabrikazio-linea berriak sortu, ekoizpen berriak ireki eta ahalmena handitzeko neurriak hartu dira –Mahindran, esaterako–. Ingurugiroari dagokionez, Forética Aldaketa Klimatikoaren Klusterari atxiki zaio CIE Automotive, eta barne-kudeaketari begira, ingurugiro adierazle berri bat ezarri du: “Salmenten inguruko ingurumen-kostua”.

Soldadurarik gabeko hodiak

EAEko soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritzaren inguruko informazioari begiratu –Unesidek emandako informazioa–, 2017an esportazioek zein inportazioek gora egin dute duela urtebeteko zifrekin alderatuta. Zehazki, esportazioek % 49,2 egin dute gora eta inportazioek % 24,4, urterik urtera.

61. koadroa Soldadurarik gabeko hodian ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza

Urtea	<i>(m Tm)</i>					
	(1) Barne-kontsumoa	(2) Esportazioa	(3) Inportazioa	(4) Ekoizpena	3/1 (%)	2/4 (%)
2008	294	304	248	316	84,5	96,1
2009	149	167	122	160	81,4	104,1
2010	--	212	144	248	--	85,3
2011	--	290	161	279	--	103,9
2012	--	267	152	254	--	105,1
2013	--	230	109	d.e.	--	--
2014	--	282	124	d.e.	--	--
2015	--	234	118	d.e.	--	--
2016	--	186	112	d.e.	--	--
2017	--	278	139	d.e.	--	--

d.e. ez dago daturik.

Iturria: Unesid.

Soldadurarik gabeko hodiak aztertzen jarraitzen badugu, eta azterketa hori helmuga-herrialde bakoiztera egiten diren esportazioen arabera eginda, ikusiko dugu EB-28k helmuga nagusienetako bat izaten jarraitzen duela, nahiz eta lehen postua galdu duen. EB-28k esportazioen guztizkoaren % 31,4 hartzen du eta sailkapeneko bigarren postuan dago.

Azpitarratzekoa da merkatu estatubatuarrak hazkunde ikusgarria erregistratu duela eta, ondorioz, lehen aldiz esportazio gehien (% 44,4) biltzen dituen herrialdea dela. Bestetik, 2016an hazkunde nabarmena izan eta gero, % 39,4ko jaitsiera erregistratu du 2017an Txinak. Dinamismo handiena erakutsi duen herrialdea, berriz, Egipto izan da (+% 547,8), esportazioen guztizkoaren % 2,9 den arren. Europako herrialdeei dagokienez, Alemania, Frantzia eta Italia dira garrantzitsuenak soldadurarik gabeko hodiaren arloan.

62. koadroa Soldadurarik gabeko hodiaren esportazioak helmugako herrialdeen arabera

	<i>(m Tm)</i>				
Eremua	2015	2016	2017	%	% Δ 17/16
Ameriketako Estatu Batuak	57,7	27,0	106,8	44,4	295,9
Alemania	19,3	16,7	21,3	8,8	27,6
Frantzia	12,1	19,6	18,8	7,8	-4,3
Italia	19,6	16,3	17,7	7,3	8,0
Txina	3,5	13,3	8,1	3,4	-39,4
Saudi Arabia	4,7	6,7	8,0	3,3	18,9
Egipto	3,2	1,1	7,0	2,9	547,8
Iran	6,2	3,6	5,7	2,4	57,2
Hego Korea	9,6	6,7	5,5	2,3	-17,1
Erresuma Batua	4,2	3,9	5,1	2,1	33,3
India	5,3	2,0	2,8	1,2	38,6
Belgika	4,4	2,5	2,8	1,1	10,5
Herbehereak	2,9	4,6	2,5	1,1	-45,2
Austria	2,0	1,7	2,4	1,0	40,1
Portugal	3,1	2,4	2,4	1,0	-2,3
Arabiar Emirerri Batuak	4,2	3,9	2,0	0,8	-49,0
EB-28, guztira	72,5	72,2	75,5	31,4	4,5
Mundu osoa	194,9	165,9	240,7	100,0	45,1

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.


Tubacex

Tubacex taldearen memorian ikusten denez, 2017ko ekitaldiaren ezaugarri nagusia izan da, emaitzen finkatzearen dela eta, salmenta-bolumena aurreko ekitaldikoaren antzekoa dela. Konkretuki, Tubacex taldearen salmentak 490,4 milioi eurokoak izan dira; hau da, aurreko urtekoak baino % 0,7 baxuagoak, eta emaitza garbia 2016an 0,5 milioi eurokoa izatetik -19,7 milioi eurokoa izatera igaro da 2017an, urterik urterako % 3,9ko jaitsiera izan du, beraz.

TUBACEX taldearen kanpo-salmenten banaketa geografikoak indartu egin du aurreko ekitaldietako dinamika, eta baieztatu egin da Europak merkatu nagusi gisa duen garrantzia. Asiako merkatuari dagokionez, 2017an jaitsierak jasan ditu beste merkatu batzuen mesedetan, eta AEBko merkatuak, berriz, gora egin du 2016arekin alderatuta.

TUBACEX-ek azken urtean egin dituen inbertsioei dagokienez, enpresak 34,9 milioi euroko inbertsioa egin du instalazio teknikoak eta makinaria hobetzeko. Inbertsio horien helburu nagusia instalazioetan eraginkortasuna handitzea eta industria-plana bizkortzea da, eta plan horren jomuga, berriz, Europako eta Amerikako instalazioetan egiten den produktu konbentzionalaren fabrikazioa Asiara eramatea. Inbertsio-politika horrek inbertsio estrategikoak egiteko aukera ematen du (balio gehitu eta teknologiko handiagoa duten produktuak), bai eta prozesuen eraginkortasuna hobetzen jarraitzeko aukera ere.

9. grafikoa Tubacex taldearen 2017ko salmenten banaketa geografikoa



Iturria: Tubacex taldea.

Tubos Reunidos

2017an taldearen eraldaketa orokorra egin behar izan zuen Tubos Reunidos Taldeak emaitzetan izandako beherakaden ondorioz. Erabaki hori faktore batek baino gehiagok baldintzatu dute, besteak beste, petrolioaren prezioak behera egitearen ondorioz soldadurarik gabeko hodian ekoizpenak behera egin izanak, ekoizpenaren egiturazko gehiegizko gaitasunak, konpetentzia handitzeak, etab. Horregatik guztiagatik sortu da Balio Sortzeko "TRansforma | 360°" Plana.

"TRansforma | 360°" Plana enpresarentzat funtsezkoak diren 7 arlotan antolatu da, eta horretan, maila guztietan giltzarri diren 120 pertsona ari dira aktiboki lanean eraginkortasun operatiboa, prozesua teknikoak, hornikuntza, bikaintasun komertziala, inbentarioen kudeaketa eta kostu orokorrak hobetzeko, eta taldearen taxutze industrialean aldaketa estrategikoak ezartzeko".

Guztiarekin ere, finantza- eta ekonomia-eraketari dagokienez, Tubos Reunidos Taldeak 2017ko ekitaldia ixtean negozio-zifra dezente handiagoa izan du 2016a ixtean izan zuena baino; izan ere, 2017ko zifra 312,5 milioi eurokoa izan da (urterik urterako +% 60,3), eta eraketa garbia ere igo egin da, -32,4 milioi eurora (+% 35,4).

Salmenten helmugari begiratuz gero, ikusiko dugu kanpo-salmentak handitzeko joerari eutsi zaiola: taldearen salmenten % 87 kanpora egin dira eta % 13 nazio-mailan.

63. koadroa Negozio-arloak eta enpresa-unitateak Tubos Reunidos taldea. 2017

Negozio-arloak	Unitateak/establezimenduak
Soldadurarik gabeko hodiak	Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba) Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) Acecsa (Iruñea, Nafarroa)
Banaketa	Grupo Almesa (Almesa-Procalsa). Nazio-mailan jarduten du. TR América (Houston, Estatu Batuak) TR Beijing Office (Pekin, Txina) TR Francia (Metz Cedex, Frantzia) TR Italia (Milan, Italia) TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia) TR Dubai Office (Dubai) Madrid (Madril, Espainia) TR Cuba (Habana Zaharra, Kuba) TR México (Mexiko) TR Colombia (Kolonbia) TR Irán (Teheran, Iran)

Iturria: Urteko Memoria-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea.

4. ONTZIGINTZA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Munduko dinamismo ekonomikoaren harian, munduko itsas merkataritza % 3,9 igo da 2017an, eta tona-miliako itsasontzietan are eta hedapen handiagoa izan du (% 5), nahiz eta petrolio gordina garestitu.

Bestalde, itsasontzi berrien mundu-mailako kontratazioa pisu hileko 80,1 milioi tonara arte igo da 2017an, aurreko ekitaldian baino 2,5 aldiz altuagoa –2016an azken hogeitorteko emaitzarik baxuenak eman ziren–; eta entregek, aldiz, -% 2,9 soilik egin dute behera, pisu hileko 97,9 milioi tonara arte.

64. koadroa Munduko merkataritzako ontzidia

Urtea	Tonak	% Δ
1995	451,1	--
2000	515,4	--
2005	601,7	16,7
2010	840,6	39,7
2011	910,1	8,3
2012	991,2	8,9
2013	1.027,0	3,6
2014	1.067,1	3,9
2015	1.107,8	3,8
2016	1.148,0	3,6
2017	1.182,8	3,0

(*): EGT (Erregistro Gordineko Tona) 1995era arte, GT (Erregistroko Tonaje Gordina) 2000tik aurrera.

Iturria: ANAVE.

Munduko merkataritzako ontzidiari dagokionez, itsasontzien desegiteek nabarmen egin dutenez gora eta entregak gutxitu egin direnez, mundu-mailako ontzidia eskariaren azpitik igo da apur bat 2017an, eta horrela, soberan dauden itsasontziak kentzen hasi dira. Zehazki, munduko merkataritzako ontzidia 1.182,8 milioi tona gordinera heldu da 2017an, hau da, % 3ko urte arteko hazkundea izan du.

Ontzidiaren jatorriko herrialdeen arabera, aurreko ekitaldian bezala, Panama da 2017ko protagonista nagusia, mundu osoko ontzidiaren % 18,2 hartzen baitu. Atzetik ditu, tarte handi samarrarekin, Liberia eta Marshall Uharteak (% 11,5 eta % 10,8 hurrenez hurren). Europar Batasunaren eremuan, Malta nabarmentzen da, munduko merkataritzako ontzidiaren % 5,6 hartzen baitu. Atzetik ditu Grezia (% 3,4), Erresuma Batua (% 2,6) eta Zipre (% 1,8).

65. koadroa Munduko merkataritzako ontzidia, jatorrizko herrialdearen arabera

Herrialdea	2015		2016		2017		% Δ 17/16
	MGT	%	MGT	%	MGT	%	
Panama	212,9	19,2	212,3	18,5	215,8	18,2	1,7
Liberia	123,5	11,1	127,7	11,1	135,7	11,5	6,2
Marshall Uharteak	105,4	9,5	115,8	10,1	127,6	10,8	10,1
Hong Kong	92,2	8,3	101,8	8,9	106,8	9,0	5,0
Singapur	75,2	6,8	79,0	6,9	80,0	6,8	1,4
Malta	55,9	5,0	63,3	5,5	66,3	5,6	4,8
Bahamak	49,8	4,5	53,6	4,7	53,4	4,5	-0,3
Txina	42,2	3,8	41,7	3,6	42,3	3,6	1,3
Grezia	42,3	3,8	41,2	3,6	40,8	3,4	-0,9
Erresuma Batua	30,0	2,7	29,8	2,6	30,9	2,6	3,5
Japonia	20,2	1,8	21,7	1,9	23,7	2,0	8,9
Zipre	20,3	1,8	20,5	1,8	21,0	1,8	2,2
Italia	15,6	1,4	15,4	1,3	15,5	1,3	0,0
Danimarka	14,2	1,3	15,1	1,3	15,1	1,3	0,2
Norvegia	13,6	1,2	14,0	1,2	14,6	1,2	4,4
Indonesia	11,4	1,0	12,4	1,1	12,9	1,1	4,1
Portugal	4,5	0,4	8,1	0,7	12,0	1,0	48,8
Bermuda	10,5	0,9	9,9	0,9	10,4	0,9	5,0
Hego Korea	11,4	1,0	10,8	0,9	10,4	0,9	-3,7
India	8,2	0,7	8,7	0,8	9,7	0,8	10,7
Alemania	10,8	1,0	9,9	0,9	9,3	0,8	-5,4
Ameriketako Estatu Batuak	8,5	0,8	8,2	0,7	8,3	0,7	1,8
Holanda	7,7	0,7	7,2	0,6	7,2	0,6	-0,4
Frantzia	5,3	0,5	5,4	0,5	5,7	0,5	5,8
Finlandia	1,6	0,1	1,6	0,1	5,7	0,5	265,2
Belgika	5,1	0,5	4,7	0,4	4,8	0,4	1,5
Espainia	2,1	0,2	2,1	0,2	2,3	0,2	8,5
Suedia	2,6	0,2	2,5	0,2	2,2	0,2	-13,0
Kroazia	1,3	0,1	1,3	0,1	1,3	0,1	5,4
Luxenburgo	2,4	0,2	2,0	0,2	1,3	0,1	-35,2
Beste herrialde batzuk	91,6	8,3	100,3	8,7	89,7	7,6	-10,5
EB-15 guztira	144,4	13,0	145,1	12,6	148,8	12,6	2,5
EB-28 guztira	222,9	20,1	231,2	20,1	238,4	20,2	3,1
Mundu osoa	1.107,8	100,0	1.148,0	100,0	1.182,8	100,0	3,0

Iturria: ANAVE.

Itsasontzi-mota aztertuz gero, orain arte bezala, 2017an solteko gaien itsasontziak izan dira nagusi munduko merkataritzako ontzidian; izan ere, ontzidi osoaren % 36 hartzen du. Horien atzetik daude petrolio-ontziak (% 21,7), edukiontzia garraiatzeko itsasontziak (% 18,3) eta merkataritzako beste ontzi batzuk (% 13).

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, gasa garraiatzeko itsasontziek izan dute hazkunderik handiena (% 9,5); hala ere, kontuan izan behar da itsasontzi-mota horiek munduko merkataritzako ontzidiaren % 6 soilik hartzen duela.

66. koadroa Munduko merkataritzako ontzidia, itsasontzi-motaren arabera

Itsasontzi-mota	2014	2015	2016	2017
Petrolio-ontziak	239,8	240,0	244,6	256,8
Gasa garraiatzekoak	52,6	56,3	61,3	67,1
Solteko gaien ontziak	386,8	405,4	415,0	425,8
Kargaontziak	62,7	62,7	63,0	62,7
Edukiontzia garraiatzekoak	188,1	200,3	215,5	216,4
Beste merkataritza-ontzi batzuk	137,1	141,6	148,7	154,1
Merkataritzako ontziak guztira	1.067,1	1.107,8	1.148,0	1.182,8

(MGT)

Iturria: ANAVE.

Azkenik, adierazi behar da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2017an ia ez dela aldatu munduko merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina (2017an 17,9 urte eta 2016an 17,7 urte): zaharrenak hozkailu-kargaontziak dira (29,1 urte) eta berrienak solteko gaien ontziak (9,9 urte).

4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Nazioartean itsasontzi berrien kontratazioak izandako hazkundearekin bat etorrita, ontzi horien Espainiako ekoizpena ere % 26,2 igo da 2017an, 130 mila tona konpentsatura¹ heldu arte eta hazkundearen bidea berriro hartuta; aurreko ekitaldian jaitsiera handia izan zuen (-% 42,5 2016an). Horretaz gainera, ekoizpen-faseei dagokienez, hasitako tonajeak, uretaratutakoak eta entregatutakoak igo egin dira (% 69, % 18,4 eta % 7,3 hurrenez hurren).

¹ Atal honetan, tona konpentsatutan ematen da informazioa, kontrakoa adierazi ezean.

67. koadroa Espainiako itsasontzi-ekoizpena

(mCGT)⁽¹⁾

Urtea	Tonaje haztatua ⁽²⁾	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea	Konpentsazio-koefizientea ⁽³⁾
2008	404	469	401	343	0,79
2009	351	291	413	287	0,69
2010	237	74	258	358	0,71
2011	175	121	132	318	0,63
2012	107	86	124	93	0,55
2013	161	153	161	169	0,48
2014	154	181	137	159	0,43
2015	179	280	169	99	0,92
2016	103	84	103	124	0,48
2017	130	142	122	133	0,75

(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi-mota eta -neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitze konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduk oinarri hartuta.

(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.

(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Espainiako ontziolen eskabide-zorroari dagokionez, 2017an 506 mila tona erregistratu dira; horrek esan nahi du urtetik urterako hazkundea % 8,1ekoa izan dela, eta hazi egin direla bai nazioarteko zorroa (% 11,5) bai esportazioak (% 5,4). Horiek horrela, barne-merkatuak bere garrantzia sendotu du guztizko zorroarekiko (% 46 2017an eta % 45 aurreko ekitaldian).

68. koadroa Eskabide-zorroa urte-amaieran

Urtea	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira mCGT
	mCGT	%	mCGT	%	
2008	268	25	785	75	1.053
2009	200	25	615	75	815
2010	109	20	441	80	550
2011	13	6	222	94	235
2012	15	5	298	95	313
2013	21	8	238	92	259
2014	19	7	271	93	290
2015	171	37	288	63	459
2016	209	45	259	55	468
2017	233	46	273	54	506

Iturria: Geuk egina, Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eskabide-zorroaren tonajea handiagoa izan da; izan ere, gora egin dute bai Estatuko zorroaren tonajeak (233 mila tona 2017an eta 209 mila tona 2016an) bai kanpoko zorroaren tonajeak (273 mila tona 2017an eta 259 mila tona aurreko ekitaldian), nahiz eta zorroan zeuden itsasontzi-kopuruak behera egin duen

lehen kasuan (2017an 20 eta 2016an 23), eta, gora, bigarreanean (2017an 45 eta 2016an 37).

69. koadroa Eskabide-zorroa itsasontzi-motaren arabera, urte-amaieran 2017

Itsasontzi-mota	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira	
	Itsasontzi-kop.	CGT:	Itsasontzi-kop.	CGT:	Itsasontzi-kop.	CGT:
Petrolio gordina garraiatzekoak	4	121.388	0	0	4	121.388
Petrolio- eta kimika-produktuak	0	0	0	0	0	0
Kargaontziak	0	0	0	0	0	0
Hozkailu-ontziak	0	0	0	0	0	0
Ferryak	2	67.789	0	0	2	67.789
Bidaiari-ontziak	1	1.840	2	44.777	3	46.617
Arrantza-ontziak	6	22.781	16	91.871	22	114.652
Beste itsasontzi batzuk	7	19.340	27	136.367	34	155.707
Guztira	20	233.138	45	273.015	65	506.153

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Itsasontzi-motei dagokienez, 2017ko barne-merkatuko eskabide-zorroa honako hauek osatzen dute: beste itsasontzi batzuk izeneko atalean sailkatutako zazpi ontzik, sei arrantza-ontzik, petrolio gordina garraiatzeko lau ontzik, bi ferryak eta bidaiari-ontzi batek. Bestalde, esportazioen eskabide-zorroan honako hauek daude: beste itsasontzi batzuk atalean sailkatutako hogeita zazpi ontzi, hamasei arrantza-ontzi eta bi bidaiari-ontzi.

Azkenik, 2017ko urtarrilean Navantia elkarteak eta haren bazkide den Windarrek behin betiko kontratua sinatu zuten Iberdrolarekin eta Iberdrolak Erresuma Batuan duen Scottish Power filialarekin. Kontratuan East Anglia One itsas parke eolikoan (Ipar itsasoko hegoaldean) 42 jackets eraikitzea adostu zen. Parke hori prest egon behar da 2018. urte amaierarako. 714 MW inguruko potentzia instalatua izango du; jacket motatako zimendu-egiturek eutsitako 102 offshore haize-sorgailuk osatuko dute, eta parkea eta Erresuma Batuko sare elektrikoa azpiestazio elektriko batek lotuko ditu. Horrela, Navantia etorkizuneko erreferentziazko enpresa gisa finkatu da, Iberdoralak eta beste operadore batzuk Erresuma Batuan eta Europako beste herrialde batzuetan itsas parkeak eraiki behar dituztenerako.

4.3 ONTZIGINTZA EUSKADIN

Estatuan izandako hazkundearen antzera, ontzigintzaren euskal sektorearen ekoizpenak ere gora egin du 2017an, 25 mila tona gordin ekoiztu dira, 2016an baino % 8,7 gehiago.

Ekoizpen-faseei dagokienez, hasitako tonajea eta uretaratutako tonajea igo egin dira 2017an (% 15,4 bi kasuetan), baina entregatutako tonajeak behera egin du (-% 7,1).

70. koadroa Ontzigitza Euskadin
(MGT)

Urtea	Tonaje haztatua	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea
2008	69	104	71	31
2009	81	73	95	60
2010	59	5	64	103
2011	37	51	21	57
2012	35	16	49	23
2013	28	17	19	55
2014	27	36	24	23
2015	42	77	35	19
2016	23	13	26	28
2017	25	15	30	26

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Hala eta guztiz ere, tonaje konpentsatua aztertuz gero, euskal ontzigitzaren ekoizpena pixka bat jaitsi da 2017an (-% 2,8), eta estatuko guztizkoaren gainean duen ehunekoa murriztu da (Estatuko guztizkoaren % 27 2017an eta % 34 2016an).

**71. koadroa Ontzigitzaren ekoizpena Euskadin. Partaidetza Estatuan.
Tonaje konpentsatua**

Kontzeptua	2016		2017	
	mCGT	% Espainiaren	mCGT	% Espainiaren
Tonaje haztatua	36	34	35	27
Hasitako tonajea	27	32	29	20
Uretaratutako tonajea	35	34	39	32
Entregatutako tonajea	46	37	35	26

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Tonaje konpentsatua aztertzen jarraituz, lehen bi ekoizpen-faseak igo dira 2017an: hasitako tonajeak % 7,4 egin du gora eta uretaratutakoak % 11,4; entregatutako tonajeak, aldiz, -% 23,9 egin du behera.

Dinamika horren arabera, Euskadik Estatuan duen pisu erlatiboak behera egin du orokorrean: hasitako tonajearen kasuan % 32 2016an eta % 20 2017an, uretaratutako tonajearen kasuan % 34tik % 32ra jaitsi da, eta entregatutako tonajearen kasuan, % 37tik % 26ra.

10. grafikoa Ontzigtzako eskabide-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)



Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Euskadiko ontziolen eskabide-zorroari dagokionez, 2017an 171 mila tona konpentsatu lortu zituen; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 6,2ko hazkundea.

72. koadroa Eskabide-zorroa Euskadin

Urtea	mCGT
2008	271
2009	201
2010	173
2011	89
2012	114
2013	100
2014	119
2015	148
2016	161
2017	171

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Euskadiko ontzigintza-enpresen egoerari erreparatuz gero, azpimarratu behar da, lehenik eta behin, Sestaoko La Naval enpresaren egoera oso kritikoa dela txosten hau egin denean (2018ko uztaila). Izan ere, galera handiak izan ditu, hartzekodunen konkurtsoan dago eta ez du inbertsio berririk lortu. Horren ondorioz, pikutara joan da megaferryaren eskaria, eta lan hori zen ontziolak bizirik irauteko itxaropena. Gainera, ontziola ez zen inoiz hasi ferry horretarako txapa mozten, kontratua deuseztatu baitzen.

73. koadroa Enpresa bakoitzaren eskabide-zorroa, amaiatutako ontziak eta hasitako ontziak

(CGT unitateak)

Enpresa	Eskabide-zorroa		Amaiatutako itsasontziak		Hasitako itsasontziak	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Astilleros Murueta	5.084	22.275	10.888	5.084	3.392	22.275
Astilleros Balenciaga	14.519	10.008	14.001	4.511	10.008	0
Astilleros Zamakona	26.909	45.362	2.158	4.316	13.961	6.721
CNN Sestao	114.100	93.500	18.872	20.600	0	0

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Sestaoko La Naval ontziolaren egoera konplexua denez, Euskadiko ontziola txikienak dira euskal ontzigintzaren sektoreko dinamizatzaileak.

Astilleros Murueta ontziolak Bilboko merkataritza-ganberaren saria jaso zuen, aurreko ekitaldiaren hasieran, nazioartera zabaltzeagatik; liderra baita nazioartean oso konplexua den sektore batean: teknologia aurreratuko itsasontziak eraikitzen.

Astilleros Balenciaga ontziolaren kasuan, 2018. urtearen hasieran "Norwegian Gannet" ontzia uretaratu zuten, une horretara arte eraikitako handiena. Ontzi hori Norvegiako enpresa armadore batentzat da, akuikulturako izokina garraiatzeko eta prozesatzeko.

Horretaz gainera, kontuan izan behar da munduko lehen ontzia izango dela propulsioko sistema hibridoa erabiltzen, hau da, dieselarekin eta bateriek bultzatuta ibiliko da.

Astilleros Zamakonari dagokionez, ekitaldi honen erdialdean "Esvagt Dana" ontzia entregatu zuten. Danimarkako Esvagt enpresarentzat eraikitzen duen laugarren ontzia da. Larrialdi-egoeretan itsas plataformei laguntza ematea da helburua, bai eta parke eolikoan mantentze-lanen programei laguntza ematea ere, besteak beste.

Atalari amaiera emateko, Euskal Herriko Itsas Foroak Euskal Herriko Industria Elkartearen XXV. urteurrena ospatzeko egindako biltzarrean adierazi zuen La Naval ontziolak izandako zailtasunak alde batera utzita, euskal ontzigintzaren sektorea egoera onean dagoela, eta ontziola eta talde-fabrikatzaile ugari hobetzeko aurrerapenak aurreikusten direla. Horri dagokionez, foro horretan lehendakariak adierazi zuen itsas industriak etorkizuna duela Euskadin, baina ontziolari buruzko ekonomia-jardueraren bide berriak lantzen jarraitu behar dela: itsas industriak eta offshore energia eolikoa, oil & gas, itsas bidaiak eta, noski, arrantza.

5. AUTOMOBILGINTZA

Berrito igo da, zortzigarren urtez jarraian, mundu osoan saldutako automobilen kopurua, eta orain arteko markak hautsi dira, 96,8 milioi ibilgailu saldu baitira. Matrikulazioek % 3,1 egin dute gora, eta hainbat faktorek eragin dute igoera horretan: ekonomiaren gorakada, erosten laguntzeko hainbat neurri abian jartzea, interes-tasa txikiagoak... Handitu egin da kontsumitzaileen konfiantza, eta horren ondorioz, gora egin dute erosketek. Bestalde, egia da joera hori ez dela berdina izan toki guztietan, eremu geografikoen arabera portaera nahiko desberdinak ikusi baitira. Horiak horrela, emaitza positiboarekin itxi du urtea Asia, Ozeania eta Erdialdeko Ekialdea biltzen dituen blokeak (% 50,5eko pisu espezifikoa, % 4,3ko igoera), bai eta Europak (% 21,6ko partaidetza, % 3,9ko igoera) eta Latinoamerikak ere (% 4,7ko partaidetza, eta ibilgailuen eskaeraren gorakada handia: % 12,4). Aitzitik, beste herrialde batzuetan behera egin dute salmentek, hala nola NAFTAko herrialdeetan (-% 1,2 eta % 21,9ko partaidetza) eta Afrikan (% 1,2ko partaidetza, eta beherakada nabarmena: % 9,1).

Ekoizpenari buruzko datuekin jarraituz, Asiak eta Ozeaniak osatutako blokea nagusi da munduan: 53,5 milioi ibilgailu ekoitzi dituzte, aurreko urtean baino % 3,3 gehiago. Azpimarratu behar da Asian eta Ozeanian oso bizkor egin duela gora automobilgintzaren sektoreak. Txina da gorakada hori gehien bultzatu duen herrialdea; izan ere, hamarkada batean produkzio-erritmoak bikoiztu eta gehiago egin dira, eta 2017an munduko fabrikazioaren % 55 izatera iritsi da. NAFTAko herrialdeetan, berriz, 17,5 milioiko ekoizpenarekin, hainbat urtetako goraldiaren ostean, % 3,8 behera egin du ekoizpenak 2017an; izan ere, Ameriketako Estatu Batuetan jaitsi egin da (-% 8,1), bai eta Kanadan ere (-% 7,2). Europari erreparatuta, aurreko urteko ekoizpenari eutsi zaio: 14,7 milioi EB-15en (% 0,7ko igoera) eta 18,8 milioi EB-27n (% 0,9ko igoera), eta Europako gainerako herrialdeek bizitasun handiagoa izan dute. Beraz, Europako gainerako herrialde horietako ekoizpenak ere zenbatuz gero, Europa osoan 22,1 milioi ibilgailu ekoitzi dira, eta urtetik urterako igoera % 3,1ekoa izan da. Hego Amerika aztergai hartuta, munduko ekoizpenaren zati txikia izan arren (% 3,3), 2017ko ekitaldian nabarmen egin du gora (% 20,3); hiru milioi ibilgailutik gora ekoitzi ditu, eta Brasil izan da bilakaera horren egile nagusia. Afrikak, berriz, ekoizpenaren % 1 du, eta 2017an % 3,1 egin du gora; hala eta guztiz ere, ekoizpena ez da iritsi milioi bat ibilgailura.

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Datuak sakon aztertuta, produkzio-eremuari dagokionez, urtean 100 milioi ibilgailuren zenbateko sinbolikoa ekoiztetik gero eta gertuago gauden honetan, errealitate oso desberdinak daude, herrialdeen arabera. Zehazki, ekoiztitako bolumena nabarmen igotzen lagundu duten herrialdeetatik hasita, aurtengoan ere Txina gailendu da. Asiako erraldoiaren ibilbidea geldiezina da, eta munduko lehen ekoizlea izan da oraingoan ere: 29 milioi ibilgailu egin ditu 2017an, aurreko urtean baino % 3,2 gehiago. Ildo beretik, sendotu egin da ekoizpen-mapan presentzia handia duen Asiako beste herrialde bat: Japonia. Izan ere, 2017ko ekitaldian % 5,3 egin du gora, eta urtean 10 milioi ibilgailu muntatzetik gero eta gertuago dago. Indiak eta Hego Koreak 4,8 eta 4,1 milioi ibilgailu egin dituzte, hurrenez hurren, baina bi herrialde horien bilakaerak kontrakoak izan dira (% 5,8 eta -% 2,7). Dena dela, herrialde horietako jarduera lagungarria izan da Asia ibilgailuen munduko lehen ekoizle gisa kokatzeko. Azpimarratu behar da munduko ibilgailu guztien erdia (% 50,9) ekoizten dela Asiako bost herrialde hauetan: Txina (% 29,8), Japonia (% 10), India (% 4,9), Hego Korea (% 4,2) eta Thailandia (% 2).

Azterketarekin jarraituz, Amerikari dagokionez, NAFTAko herrialdeetan, lehen esan bezala, 2017ko ekitaldia ixtean emaitza negatiboa izan da (-% 3,8). Bai Ameriketako Estatu Batuek (11,2 milioi ibilgailu ekoiztiak, -% 8,1), bai Kanadak (2,2 milioi, -% 7,2) ibilgailu gutxiago ekoizti dute, eta Mexikok egindako gorakada nabarmena (% 13ko igoera, 4,1 milioi ibilgailu) ez da nahikoa izan beste bi herrialdeetako beherakadak konpentsatzeko. Horren guztiaren ondorioz, pixkanaka ahuldu egin da NAFTAko herrialdeek munduko ekoizpenen taulan duten presentzia, eta 2017an % 17,9 baino ez da izan (2016an % 19, 2015ean % 20). Hego Amerikari dagokionez, ekoizpenen mapan ageri diren herrialdeen artean, Brasil da nagusi, bai bolumenagatik, bai bilakaeragatik. Zehazki, ekoizpenak nabarmen gora egin du (% 25,2) eta 2,7 milioi ibilgailu inguru egin dira. Horrenbestez, munduko bederatzigarren ekoizlea izatera iritsi da Brasil; izan ere, alde batetik, barne-merkatua suspertu egin da (% 9,2ko igoera), eta bestetik, esportazioetan orain arteko marka guztiak hautsi ditu.

Europako datuei erreparatuta, argi eta garbi ikusten da, oro har, ekoizpen handiak dituzten herrialdeek zertxobait behera egin dutela, eta ekoizpen txikiak dituztenek, berriz, gora egin dutela. Frantzia da salbuespena: munduko hamargarren ekoizlea da, % 6,5 egin du gora, aurreko urteko datuekin alderatuta, eta 2,2 milioi ibilgailu egitera iritsi da. Espainiak % 1,5 behera egin du, eta murrizketa txiki horrek azken bost urteetako joera apurtu du; dena dela, 2.848.335 ibilgailu egin ditu, eta zortzigarren tokiari eutsi dio. Alemania Europako lehenengo potentzia da; zertxobait behera egin badu ere (-% 1,8), tinko eutsi dio laugarren tokiari munduko rankingean eta 5,6 milioi ibilgailu egin ditu.

Joera hori Erresuma Batura ere hedatu da: ekoizpenak % 3,7 egin du behera, eta 1,7 milioi ibilgailu egin dira. Aitzitik, Europako ekoizle nagusien artean, gora egin dute Italiak (1,1 milioi ibilgailu eta % 3,5eko igoera) eta Txekiar Errepublikak (1,4 milioi ibilgailu eta % 5,2ko igoera). Goranzko joera hori Errusiara ere hedatu da, eta herrialde horretan indar handia hartu du (1,5 milioi ibilgailu eta % 19ko igoera). Produkzio-bolumen txikiagoak dituzten herrialdeen bizitasuna ere azpimarratu behar da; esate baterako, aipatzekoak dira Portugal (175.544 ibilgailu eta % 22,7ko igoera) eta Finlandia (91.598 ibilgailu eta % 91ko igoera).

Afrikan, bi herrialdek soilik dute ekoizpenaren ehuneko aipagarria: alde batetik, Maroko (% 0,4), eta bestetik, Hegoafrika (% 0,6). 2017an, herrialde horiek kontrako bilakaerak izan dituzte: lehengoak % 9 egin du gora, eta bigarrenak, aldiz, % 1,5 behera.

Matrikulazioen bilakaera aztergai hartuta, Txina nagusi izan da oraingoan ere, ibilgailuen mundu-merkatuaren % 30,1 bereganatu baitu. Zehazki, 29,1 milioi ibilgailu matrikulatu dituzte Asiako herrialde erraldoi horretan, aurreko urtean baino % 4 gehiago. AEB da bigarren herrialdea (17,6 milioi, % 18,2), matrikulazioek % 1,6 behera egin badute ere. Horrelako bilakaerarik ez du izan 2009ko krisi finantzarioaz geroztik, eta beherakadak AEBko hiru fabrikatzaile handiak (*big three*: Ford, GM eta Fiat Chrysler) herrestan eraman ditu, behera egiteko ohitura handirik ez badute ere. Hirugarren eta laugarren tokietan Asiako bi herrialde sendotu dira: Japonia (5,2 matrikulazio eta % 5,4ko igoera) eta India (4 milioi matrikulazio eta % 9,5eko igoera). Asiako binomio horren atzetik, Europako hiru herrialde hauek daude: Alemania (3,8 milioi eta % 2,8ko igoera), Erresuma Batua (2,9 milioi euro eta % 5,4ko jaitsiera) eta Frantzia (2,6 milioi eta % 5,1eko igoera). 10 merkatu nagusien rankinga osatzen duten herrialdeak Brasil, Italia eta Kanada dira. Horietako bakoitzean 2 milioi ibilgailu inguru matrikulatu dituzte, eta guztietan gora egin du matrikulazioen kopuruak (% 9,2, % 6,8 eta % 4,7 hurrenez hurren). Horiek horrela, azpimarratu behar da hamar herrialde horietan egin direla matrikulazio guztien % 75 inguru.

Halaber, marken merkatuari erreparatuta, 2017ko ekitaldian gora egin du PSA taldeak. Peugeot, Citroën eta DS automobilen jabe da talde hori, eta orain arte General Motors enpresarenak ziren bi marka erosi ditu: Opel eta Vauxhall. Talde berri horrek merkatuko beste lider batekin lehia jardun beharko du, Volkswagen taldearekin, hain zuzen, azken horrek isuri kutsatzaileen eskandaluak sortutako astindua gainditu duela baitirudi, salmenten atalean behintzat: 10,7 milioi ibilgailu saldu ditu mundu osoan, eta % 5 egin du gora, aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta.

Esanak esan, azaldutako datuen arabera, 2017an ekonomia guztietako adierazleek ez dute gora egin, salmenten gorakada geldiarazi duten zenbait faktore direla eta. Faktore horien artean, aipatzekoak dira honako hauek: zenbait neurri protekzionista, programa fiskal kaltegarriak, eta zenbait herrialdetako egoera politikoarekin lotutako ziurgabetasuna (Erresuma Batua, AEB...). Horrez gainera, aurreikuspenak betetzen badira, hazkundearen oztopo horiek iraungo dute seguruenik 2018an, eta kutsatze-efektua ere agertuko da, batez ere neurri protekzionisten alorrean. Horiek horrela, sektorearen hazkundeari buruzko aurreikuspenek behera egin dute, eta % 1 ingurukoa izango dela uste da.

74. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioak

		<i>(unitateak)</i>		
HERRIALDEA	Kontzeptua	2016	2017	% Δ 17/16
Alemania	Ekoizpena (turismoak soilik)	5.746.808	5.645.581	-1,8
	Matrikulazioak	3.708.867	3.811.246	2,8
Frantzia	Ekoizpena (turismoak soilik)	2.090.279	2.227.000	6,5
	Matrikulazioak	2.478.472	2.604.942	5,1
Espainia	Ekoizpena	2.891.922	2.848.335	-1,5
	Matrikulazioak	1.347.344	1.462.235	8,5
Erresuma Batua	Ekoizpena	1.816.622	1.749.385	-3,7
	Matrikulazioak	3.123.755	2.955.182	-5,4
Italia	Ekoizpena	1.103.305	1.142.210	3,5
	Matrikulazioak	2.050.292	2.190.403	6,8
Belgika	Ekoizpena	399.427	379.140	-5,1
	Matrikulazioak	617.854	634.111	2,6
EB-15	Ekoizpena	14.629.947	14.730.310	0,7
	Matrikulazioak ⁽¹⁾	16.145.220	16.563.830	2,6
Txekiar Errep.	Ekoizpena	1.349.896	1.419.993	5,2
	Matrikulazioak	291.008	302.109	3,8
EB-27	Ekoizpena	18.595.985	18.768.153	0,9
	Matrikulazioak ⁽²⁾	17.568.449	18.147.636	3,3
Errusia	Ekoizpena	1.303.544	1.551.293	19,0
	Matrikulazioak	1.404.464	1.602.270	14,1
Estatu Batuak	Ekoizpena	12.180.301	11.189.985	-8,1
	Matrikulazioak	17.865.773	17.583.842	-1,6
Mexiko	Ekoizpena	3.600.365	4.068.415	13,0
	Matrikulazioak	1.647.723	1.570.764	-4,7
Brasil	Ekoizpena	2.156.356	2.699.672	25,2
	Matrikulazioak	2.050.321	2.238.915	9,2
Kanada	Ekoizpena	2.370.271	2.199.789	-7,2
	Matrikulazioak	1.983.745	2.077.000	4,7
Japonia	Ekoizpena	9.204.813	9.693.746	5,3
	Matrikulazioak	4.970.260	5.238.888	5,4
India	Ekoizpena	4.519.341	4.782.896	5,8
	Matrikulazioak	3.669.277	4.017.539	9,5
Thailandia	Ekoizpena	1.944.417	1.988.823	2,3
	Matrikulazioak	768.788	873.506	13,6
Hego Korea	Ekoizpena	4.228.509	4.114.913	-2,7
	Matrikulazioak	1.823.041	1.798.796	-1,3
Txina	Ekoizpena	28.118.794	29.015.434	3,2
	Matrikulazioak	28.028.175	29.122.531	3,9

(1): EB-15 + EFTA eta (2): EB-28 + EFTA
Iturria: ANFAC eta OICA.

5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatuan, 2017ko ekitaldian ibilgailuen ekoizpenak zertxobait behera egin du (-% 1,5), eta bilakaera horrek apurtu du 2013az geroztik estatuko industriaren ezaugarri izan den goranzko joera. Hala eta guztiz ere, behera egin arren, nazioartean duen tokiari eutsi dio estatuko industriak: zortzigarren ekoizlea da munduko rankingean, eta Europako lehena ibilgailu komertzialen arloan. Gogoan izan behar da gaur egun ere automobilgintzaren sektorea erreferentzia dela mundu-mailan; izan ere, 17 ekoizpen-zentro daude, eta 42 modelo muntatzen dira, haietatik 20 mundu guztirako eskusiba gisa. 2017an, Anfac elkarteak¹ emandako informazioaren arabera, automobilgintzaren sektoreko fakturazioa 64.569 milioi eurokoa izan da, eta inbertsioa, berriz, 2.160 milioi eurokoa, aurreko ekitaldikoa baino % 11 gehiago. Enplegua kontuan hartuta, sektoreak biztanleria aktiboaren % 9 hartzen du, 5.300 enplegu berri sortu dira 2017an, eta barne-produktu gordinaren % 8,6 da. Zenbateko horiek adierazten dute sektorea estatuko ekonomiaren motor nagusietako bat dela gaur egun ere.

Azterketarekin jarraituz, lehen esan bezala, azken bost urte hauetako ibilbidea kontuan hartuta, aurtengoan ibilgailuen ekoizpenak behera egin du estreinakoz; horrenbestez, ezin izan da lortu Anfac elkarteak 2017rako aurreikusitako kopuru sinbolikoa; 3 milioi ibilgailu ekoiztea, alegia. Hainbat erronkak eragin dute eta eragingo dute industriaren ibileran, gehientsuenak kanpokoak, ekoizpenaren % 81,4 (2,3 milioi ibilgailu) kanpo-merkatuetara baitoa. Lehenengoa Erresuma Batuko merkatuko salmenten etengabeko beheraldiarekin lotuta dago; izan ere, aspalditik izan da estatuko industriaren hirugarren bezeroa, eta zenbait modelo ia eskusiboki merkatu horretara bideratzen dira. Brexitak sortu duen ziurgabetasunari eta liberaren balio-gutxitzeari (euroarekin alderatuta), beste faktore batzuk ere erantsi behar zaizkie, hala nola Macronek aurreikusitako inbertsioa, Frantzia automobilgintza sustatzeko, eta ekoizleen artean tokia eskatzen duten herrialdeen susperraldia (Brasil, Mexiko...). Ziurgabetasun handiko egoera horri erantsi behar zaio, bestalde, Trumpen mehatxu itzela, ibilgailuen inportazioen arantzelak % 25era igo nahi baititu. Kontuan izan behar da esportaziora nabarmen bideratutako industria dela, kanpoko salmenten mende dagoela, eta esportazioen balioa 37.000 milioi eurotik gorakoa dela; horren guztiaren ondorioz, estatuko ekonomian sektore esportatzaile nagusia da. Bestalde, matrikulazioek (1.462.235 ibilgailu) bilakaera ona izan dute (% 8,5), baina igoyeraren erritmoa moteldu egin da, besteak beste 2016ko ekainaz geroztik ez dagoelako PIVE planik.

¹ ANFAC: Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Esanak esan, sektorearen adierazle nagusiak aztergai hartuta, datuei lehen begiratu ematean argi eta garbi ikusten da beherakada txikiak egin direla ekoizpenaren atalean (-% 1,5) eta esportazioetan (-% 1,1), eta matrikulazioek, berriz, gora egin dutela (% 8,5). Ibilgailu mota aintzat hartuta, turismoen alorrean, sektoreko jarduera orokorraren ildo beretik, ekoizpenak behera egin du, eta esportazioak proportzio berean jaitsi dira (% 3 inguru); horrenbestez, 2.243.220 unitate ekoitzi dira 2017ko ekitaldian, eta 1.866.931 unitate esportatu dira. Testuinguru horretan, matrikulazioek % 7,7 gora egin dute, eta 1.234.932 unitatera iritsi dira.

Gainerako segmentuen proportzioa askoz ere txikiagoa izanik, gora egin dute esportazioetan, ekoizpenean eta matrikulazioetan ere hobera egin dute segmentu guztietan, ibilgailu industrialetan izan ezik, % 5,2 eta % 0,1 egin baitute behera, hurrenez hurren.

75. koadroa Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritzea

(unitateak)

Azpisektorea	Ekoizpena			Esportazioak			Matrikulazioak		
	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ
Turismoak	2.313.391	2.243.220	-3,0	1.923.099	1.866.931	-2,9	1.147.007	1.234.932	7,7
Lur orotakoak	46.726	48.272	3,3	44.773	46.209	3,2	--	--	--
Komer. arinak eta furgoiak	466.766	495.217	6,1	348.144	369.149	6,0	172.106	198.821	15,5
Ibilgailu industrialak	65.039	61.626	-5,2	28.236	35.928	27,2	24.705	24.675	-0,1
Autobusak	0	0	--	--	--	--	3.527	3.807	7,9
Guztira	2.891.922	2.848.335	-1,5	2.344.252	2.318.217	-1,1	1.347.344	1.462.235	8,5

(*): Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako matrikulazioak ere jasotzen ditu.

Iturria: ANFAC.

Azterketan aurrera eginez, marken banaketari erreparatuta, Renault lider eztabaidaezina da estatuko merkatuan; salmentak % 12,2 igo ostean, 100.000 unitateen muga gainditu duen fabrikatzaile bakarra da. Bigarren eta hirugarren tokietan Seat (94.461) eta Volkswagen (89.602) daude; bien artean 184.000 matrikulaziotik gora lortu dituzte; hau da, merkatuaren % 15. Kopuru horrek nabarmen gora egingo luke taldeko beste bi marka komertzialenak kontuan hartuz gero: Audi (54.939) eta Skoda (24.860). Hartara, 263.862 matrikulazio izango lirakeke (% 21,3ko merkatu-kuota). Azken urtean, Seat bikain ibili da; izan ere, haren salmentek nabarmen egin dute gora (% 21,7), eta aise gainditu dituzte Volkswageneen emaitzak, hura oso gutxi igo baita (% 0,7), aurreko ekitaldian bezala. Estatuko merkatuan hurrengo tokian dagoen taldea PSA da (Peugeot, Citroën, bai eta Opel ere, oraindik orain sartu dena). Talde horrek gorakada neurritsua egin du (% 2,5), eta, 239.396 ibilgailu matrikulatuta, merkatuaren % 19 eskuratu du. Frantziar binomioan, Peugeotek lehenengo tokiari eutsi dio, 87.732 unitate salduta, eta atzean utzi du ohiko kidea, Citroën (64.743 unitate). Kide komertzial berria, Opel, antzeko kopuruetara iritsi da

(86.921 unitate), baina, hala ere, behera egin duen bakarra izan da (-% 2,8), marka nagusien artean. Esanak esan, Toyotaren bilakaera nabarmendu behar da (% 19,1), estatuko rankingean bi toki aurreratu baititu, eta Kia, Fiat eta Mercedes ere aipatzekoak dira, bi digituko igoerak egin dituzten aldetik (% 10,4, % 11,2 eta % 10,6 hurrenez hurren).

76. koadroa Turismoen matrikulazioa, marken arabera

Marka nagusiak	2016	2017	(unitateak) %Δ
Seat	77.643	94.461	21,7
Volkswagen	89.012	89.602	0,7
Audi	51.655	54.939	6,4
Volkswagen taldea	218.310	239.002^(*)	9,5
Peugeot	83.524	87.732	5,0
Opel	89.383	86.921	-2,8
Citroën	60.607	64.743	6,8
PSA taldea	233.514	239.396	2,5
Renault	90.504	101.503	12,2
Toyota	55.672	66.300	19,1
Nissan	57.087	62.403	9,3
Ford	60.114	62.398	3,8
KIA	53.412	58.949	10,4
Hyundai	50.912	55.219	8,5
Fiat	48.866	54.343	11,2
Mercedes	47.065	52.058	10,6
BMW	44.365	48.754	9,9
Dacia	44.599	46.398	4,0
Gainerako markak	142.589	148.209	3,9
Guztira	1.147.007	1.234.932	7,7

(*): Skoda barne hartuz gero, Volkswagen taldeko 263.862 auto matrikulatu dira.
Iturria: DGT eta ANFAC.

Kanpo-merkataritza kontuan hartuta, 2.318.217 ibilgailu esportatu dira 150 herrialde baino gehiagotara. Urteko emaitza negatiboa izan da (-% 1,1), eta guztizko ekoizpenaren % 81,4 esportatu da. Aurreko urtean beherakada txiki batzuk ikusi ziren, baina 2017an joera hori nagusitu da esportazioen jomuga nagusi diren herrialdetan. Halaber, industriak jomuga minoritarioetan merkataritza-jarduera sendotu badu ere, Europarekiko mendekotasun handia du oraindik ere. Izan ere, estatuko industriaren 10 bezero nagusiek esportazio-jardueren % 80 hartzen dute, eta horietatik gehienak europarrak dira.

77. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

Herraldea	2016	2017	(unitateak) %Δ
Frantzia	421.423	433.614	2,9
Alemania	425.718	404.499	-5,0
Erresuma Batua	348.199	304.931	-12,4
Italia	241.505	254.603	5,4
Turkia	135.035	117.657	-12,9
Belgika	92.846	86.086	-7,3
Herbehereak	65.797	60.946	-7,4
Austria	61.718	57.572	-6,7
Polonia	52.314	52.585	0,5
Portugal	41.691	42.266	1,4
10 herrialde nagusiak, guztira	1.886.246	1.814.759	-3,8
Gainerakoak	458.006	503.458	9,9
Esportazioak, guztira	2.344.252	2.318.217	-1,1

Iturria: ANFAC.

Zehazki, Frantzia, % 3 inguruko gorakadaren ostean, rankingeko lehenengo tokian jarri da berriro, eta Alemania bigarren tokian geratu da, ekitaldian emaitza negatiboa izan ondoren (-% 5). Azpimarratu behar da binomio horren pisu espezifikoek (% 18,7 eta % 17,4 hurrenez hurren) protagonismo handia ematen dietela esportazioen arloan. Dena dela, haietatik nahiko hurbil ageri dira beste bi herrialde hauek: alde batetik, Erresuma Batua (% 13,2), nahiz eta behera egin duen (-% 12,4), eta bestetik, Italia (% 11), 2017an % 5,4 gora egin ostean. Aurreko urtean gertatu bezala, Brexit efektua dela-eta, Erresuma Batuan behea jo dute *Made in Spain* ibilgailuen matrikulazioek. Egoera ahul horretan dago Turkia ere, eta hango merkatuak behera egin du (-% 12,9), bai eta merkataritza-fluxu handienak dituzten hurrengo hiru herrialdeetako merkatuek ere: Belgika, Herbehereak eta Austria (% 7 inguruko beherakadak). Aitzitik, Polonia eta Portugal nahiko egonkor ageri dira zenbatekoetan, eta beste herrialde minoritario batzuk gero eta indartsuago daude nazioartean, hala nola Singapur, Kanada –EBrekin merkataritza askeko tratatua oraindik orain sinatzearen ondorioz– eta Argentina.

Dena dela, kanpo-salmentek zertxobait behera egin duten arren (-% 1,1) adierazi behar da automobilgintzak estatuko sektore esportatzaile nagusia izaten jarraitzen duela. Beheraldien testuinguru horretan, ordea, inportazioek % 7,7 gora egin dute, eta 20.875 milioi eurora iritsi dira. Horiek horrela, sektoreko merkataritza-saldoa, % 10,3 behera egin arren, 16.500 milioi eurora iristen da.

78. koadroa Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak

(M eurotan)

Ibilgailuak	Esportazioak eta entregak Europar Batasunaren barruan			Inportazioak eta erosketak Europar Batasunaren barruan			Esportazioen eta inportazioen arteko saldoa		
	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ
Turismoak	31.210	30.706	-1,6	16.336	17.661	8,1	14.874	13.044	-12,3
Kamioiak	6.218	6.305	1,4	2.696	2.811	4,3	3.522	3.493	-0,8
Ibilgailu bereziak	84,7	93,7	10,6	103,3	125,1	21,1	-19	-31	63,2
Autobusak	269	266	-1,1	248	277	11,7	21	-11	-152,4
Guztira	37.781	37.370	-1,1	19.383	20.875	7,7	18.398	16.495	-10,3

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia

Etorkizunari begira, ingurua gero eta lehiakorragoa da: Europako 230 automobil-fabrikak lehia dihardute modelo berriak muntatzeko aukera ditzaten. Testuinguru horretan Anfac elkarteak aurkeztu duen ibilbide-orriak bost ardatz hauek ditu: zerga-sistema berdea, modernoa eta zorrotzagoa; lehiakortasunari eustea, ekoizpen-kostuak hobetuz; inbertsioak sustatuko dituen berrikuntza-politika eraginkorra; hiri handiak mugikortasun iraunkorra garatzeko erreferentziazko eremu izan daitezzen bultzatzea. Dena dela, 2018rako aurreikuspenak onak dira: matrikulazioek % 8 gora egingo dutela kalkulatu da, eta hartara, orain dela hamarkada bat -krisia hasi aurretik- zeuden zenbatekoak izango ditugu berriro ere.

Automobilgintzako magnitude handiak aztertu ostean, automoziorako ekipo eta osagaien Espainiako industriaren adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko dugu, 2017an guztiek ere gora egin dutela kontuan hartuta. Lehenik eta behin, automoziorako hornitzaileek estatuko ekonomiari egiten dioten ekarpen garrantzitsua nabarmendu behar da; izan ere, haien fakturazioa 36.240 milioi eurokoa izan da (2016koa baino % 6,6 handiagoa), eta zenbateko hori BEGaren % 4 inguru da. Sektorea osatzen duten 1.000 enpresatik gora daude, 170 herrialdetan, eta 364.000 enplegu inguru sortzen dituzte, zuzenak eta zeharkakoak kontuan hartuta. Bigarrenik, automobilgintzaren bilakaeran duen eginkizun estrategikoa azpimarratu behar da; izan ere, industria laguntzailearen ekarpena gero eta garrantzitsuagoa da, eta ibilgailuaren balioaren % 75 izatera iritsi da.

79. koadroa Espainiako automoziorako ekipo eta osagaien
industriaren kopuru nagusiak

(M eurotan)

Kontzeptua	2016	2017	%Δ 17/16
Fakturazioa	34.000	36.240	6,6
Salmentak merkatu nazionalen	14.500	16.225	11,9
- Jatorrizko ekipoa	9.600	10.910	13,6
- Ordezko piezak	4.900	5.315	8,5
Esportazioak	19.500	20.015	2,6
Inbertsioak	2.000	2.200	10,0
I+G+B inbertsioak	1.350	1.530	13,3
Enplegua (langile-kopurua)	212.000	224.000	6,0

Iturria: Sernauto.

Sektoreko zifra nagusien azterketan aurrera eginez, eta Sernautok¹ emandako datuen arabera, gorakada nabarmenak egin dira. Urteko bilakaera neurritsuena esportazioena izan da: % 2,6 gora egin dute esportazioek, eta 20.000 milioi euroko muga gainditu da. Testuinguru horretan, fakturazioa eta enplegua batera doaz: % 6 inguru igo dira biak, 2017ko fakturazioak (36.240 milioi euro) orain arteko markak hautsi ditu, 12.000 enplegu zuzen gehiago sortu dira, eta guztira 224.000 enplegu izatera iritsi da sektorea. Gorakadak nagusi diren egoera horretan, batez ere barne-merkatuko salmentak igo dira (% 11,9), eta 16.225 milioi eurora iritsi dira. Gorakada horretan eragin handiagoa izan du jatorrizko ekipoen salmenten bilakaerak (% 13,6ko igoera eta % 67,2ko partaidetza) ordezko piezen merkatuarenak baino (% 8,5eko igoera). I+G+B arloko inbertsioek (1.530 milioi euro) salmentek egindako gorakada bera egin dute (% 13,3); ekoizpen-ahalmenak areagotzeko eta hobetzeko inbertsioek % 10 egin dute gora, eta 2.200 milioi euro izatera iritsi dira.

Azken finean, adierazitako datu horiek kontuan hartuta, 2017ko ekitaldiak berresten du industria laguntzaileak garai ona bizi duela, eta *osagaien 2020ko agenda estrategikoan* sektoreak ezarritako helburu oro bete dituela. Horrek guztiak sektorearen lehiakortasun handia agerian jartzen du. Bestalde, patronalak iragarri duenez, 2018an hazkundea neurritsuagoa izango da (% 3 fakturazioan eta % 2 enpleguan), baina gora egiteko joerak iraungo du hurrengo urteetan.

¹ Automobilgintzako Hornitzaileen Espainiako Elkartea.

5.3 AUTOMOZIOAREN INDUSTRIA HORNITZAILEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2017an EAEko automobilgintzak berriro ere gora egin du, azken zortzi urteetan bezala. Urtearen amaieran EAEko sektore hornitzaileak oso datu onak eman ditu: hazkundea biziagoa izan du estatuko industriak oro har izandakoa baino, eta haren fakturazioaren ia % 50 izatera iritsi da.

80. koadroa EAEko automobilgintzaren sektore hornitzailearen bilakaera

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017 ^(*)
Fakturazioa (M eurotan)	13.071	13.747	15.004	16.454	18.390
Enplegua (langile kopurua)	34.851	36.093	36.583	38.019	40.859

(*): Behin-behineko datuak.


Iturria: ACICAE.

Horiek horrela, ACICAE klusterrean bildutako sektorearen fakturazioak orain arteko markak hautsi ditu 2017an: 18.390 milioi euro. Igoera % 11,7koa izan da, eta azken urteetan gero eta handiagoa izaten ari da. Horri erantsi behar zaio Mercedes-Benzek Gasteizen duen lantegiaren ekarpena: 5.000 langile inguru ditu, Clase V eta Vito modeloetako 150.000 unitate ekoitzi dituzte, eta 2018an 10.000 unitate gehiago egingo dituztela aurreikusi dute. Horiek horrela, egin diren kalkuluaren arabera, Gasteizko lantegiak EAEko barne-produktu gordinaren % 4 sortzen du, eta haren esportazioak EAEko merkataritza-balantzaren % 15 inguru dira. Horrek guztiak sendotu egin du automobilgintzaren sektoreak EAEn duen indarra; izan ere, barne-produktu gordinaren % 25 inguru da, eta zenbateko horrek argi eta garbi adierazten du sektoreak euskal ekonomian duen garrantzia.

Analisiarekin jarraituz, enpleguaren bilakaerari dagokionez, 2017ko ekitaldian nabarmen gora egin du sektoreko langileen kopuruak. Zehazki, % 7,4 igo da, 2016ko kopuruekin alderatuta; hau da, 2.840 langile gehiago daude, eta guztira EAEn 40.800 pertsonatik gora ari dira sektorean lanean. Kopuru horiei erantsi behar zaizkie EAetik kanpo lan egiten duten 45.000 pertsona, klusterra osatzen duten 300 enpresek 29 herrialdetan dituzten lantegietan dihardutenak. Sektoreak kanpora jotzen duela argi eta garbi ikusten da, enpresen nazioartekotze handiagatik ez ezik, esportaziorako joeragatik; izan ere, ekoizten diren 10 produktutatik ia 9 atzerriko dira, eta erdia inguru Europaz kanpoko herrialdetara bidaltzen da. Bezero-segmentuei erreparatuta, merkataritza-jarduerako eskariaren zati handiena muntatzaileei dagokie (% 60), haien atzetik daude lehen mailako hornitzaileak (% 38), eta askoz ere ehuneko txikiagoa du ordezkio piezen merkatuak (% 2).

Halaber, ACICAEk argitaratutako informazioaren arabera, EAEko enpresa hornitzaileek fakturazioaren %3 inguru erabili dute I+G+B arlorako, eta enpresa talde eta multinazionalen kasuan, zehazki, %7 erabili dute. Aurrekoaren ildo beretik, fakturazioaren %1,8 inbertitu dute enpresek, batez beste, prestakuntza-programetan, eta guztiak ere langileen beharren arabera egokitutako prestakuntza-planak abian jartzeko konpromisoa adierazi dute.

11. grafikoa **Sektoreko fakturazioaren bilakaera**



Iturria: ACICAE.

Etorkizunari begira, ACICAEko arduradunek adierazi dutenez, industriaren hazkundera sendotzeko, erronka hauei heldu behar zaie: bezeroen kanporatze-proiektu gehiago erakartzea, produktu berrietan sartzea, eta prozesuak digitalizatzea. Esportazioen arloan, Europako salmentei eutsiko zaiela aurreikusteaz gainera, lehentasunezko merkatuak honako hauek izango dira: Txina, India, Brasil, Mexiko eta Ameriketako Estatu Batuak, Trumpek arantzelak neurrigabe igoko dituela mehatxatu duen arren. Horiek horrela, eta ezustekorik ez baldin bada, klusterrak -2018an 25 urte beteko dituenak- berriro ere %7ko hazkunderaren aldeko apustua egingo du 2018rako, eta horrek adierazten du automozio sektore hornitzaileak oso osasun ona izaten jarraitzen duela.

6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

6.1 MUNDUKO EGOERA

Makina-erremintaren nazioarteko egoerak 2017an izan duen bilakaerari buruzko datuak falta direnez, CECIMO¹ elkarteko kideen bilakaerari buruzko datu nagusiak aurkeztuko ditugu, Europako jarduera neurtze aldera. Hori argituta, adierazi behar da CECIMOk kideek –merkatu globalaren % 33 inguru osatzen dutenek– azken ekitaldian % 7 inguru egin dutela gora fakturazioan, eta 25,8 bilioi eurora iritsi direla, urteko bigarren zatiko eskaeren bultzadari esker, batez ere. Esportazioen bolumenak ere (20 bilioi euro inguru) nabarmen gora egin du 2017an (% 9,1), kanpoko salmenten igoera orokorrak eraginda. Zehazki, Europak du pisu espezifiko handiena (% 52) eta CECIMOk kideei egin dizkien erosketen zenbatekoak % 9 egin du gora; Asiak % 24 partaidetza izan du, eta % 11 egin du gora; eta Amerikak ere antzeko joera izan du: % 15,6ko partaidetza du eta % 12 egin du gora. Bestalde, 2017an, esportazioen helmuga nagusiak –CECIMOk herrialdeak alde batera utzita– honako hauek izan dira: Txina (% 15,4), AEB (% 10,6), Polonia (% 4,2) eta Mexiko (% 3,4).

Inportazioei dagokienez, 10,7 milioi eurokoak izan dira, eta % 8,8 egin dute gora, 2016ko zenbatekoekin alderatuta. Atal honetan Asiak nabarmen egin du gora CECIMOk kideekiko merkataritza-harremanetan (% 19) eta inportazioen % 31 bereganatu du. Europak igoera askoz ere apalagoa izan du (% 4) eta CECIMOk kideen jarduera inportatzailearen % 64,2 bildu du oraingoan ere. Horiek horrela, 2017an CECIMOk kideen makina-erreminten kontsumoa 16,5 bilioi eurokoa izan dela kalkulatu da (2016an baino % 5 gehiago), 2018rako aurreikuspenak are eta baikorragoak dira (% 8,2ko igoera) eta 2019rako pixka bat apalagoak (% 4,9).

6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

Datuen azterketari heldu aurretik, garrantzi handikoa da honako hau adieraztea: estreinakoz finkatu dira txosten honetako atal berean makina-erremintaren eta esku-erremintaren datuak. 2016ko maiatzaz geroztik, Eskuin –Burdindegia eta Industria-hornikuntzaren Klusterra– AFM elkartean (Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte) sartuta dago, eta elkarte horrek biltzen ditu Espainiako makina-erreminta eta fabrikazio-teknologiaren alorreko enpresen % 90.

¹ CECIMO: Europako Makina Erremintaren Industrien Elkarte.

Horiek horrela, aurkeztuko dugun informazioa lotuta dago, lehenik eta behin, sektoreko ekoizpenaren eta esportazioen bilakaerarekin; bigarrenik, makina-erremintaren sektoreko magnitude nagusien bilakaeraren berri ematen du; eta azkenik, esku-erremintaren zenbateko handiak adierazten ditu.

81. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektoreko ekoizpena

Ekoizpena	<i>(m eurotan)</i>		
	2016	2017	%Δ 17/16
Makina-erremintak	941.440	1.127.610	19,8
· Harroketa	611.980	640.790	4,7
· Deformazioa	329.460	486.820	47,8
Osagaiak	187.850	196.380	4,5
Erremintak	109.150	116.280	6,5
Osagarriak	61.350	70.600	15,1
Beste makina batzuk	147.000	130.440	-11,3
Mekanizatuak eta beste zerbitzu batzuk	59.510	65.190	9,5
Ekoizpena, guztira^(*)	1.496.670	1.690.690	13,0

() Estatuko makina-erremintei dagozkien osagaien eta osagarrien zatia kenduta.*

Iturria: AFM.

Aurreko guztia aintzat hartuta, ekoizpen-jardueraren bilakaera aztertzeari ekingo diogu. Fabrikazio aurreratuaren eta makina-erremintaren sektoreko ekoizpenak nabarmen gora egin du 2017ko ekitaldian (% 13), eta fakturazioak sektoreko marka guztiak hautsi ditu: 1.690,69 milioi euro. Eraitza on hori lortzen lagundu dute azpisektore guztiek, beste makina batzuenak izan ezik: % 7,7ko pisu espezifikoak du eta % 11,3 behera egin du. Makina-erremintek sektorearen % 66,7 hartzen dute, eta oso nabarmen egin dute gora (% 19,8). Deformazio-azpisektorea goraldiaren eragile nagusietako bat izan da, bultzada handia eman baitie sektoreko zenbatekoei, bai bolumenagatik (guztizkoaren % 28,8) bai hazkundearen bizitasunagatik (% 47,8). Harroketa-azpisektoreak ere funtsezko eginkizuna bete du sektoreko agregatuaren portaeran, partaidetza handia baitu (% 37,9), eta eraitza positiboa izan du ekitaldiaren amaieran, igoera apalagoa izan arren (% 4,7). Osagaien bilakaera ere antzekoa izan da: % 4,5 egin dute gora, eta % 11,6ko partaidetza dute. Erremintek, berriz, % 6,5 egin dute gora, eta % 6,9ko partaidetza dute. Mekanizatuak eta beste zerbitzu batzuek osatzen dute produkzioaren mapa. Arlo horrek % 9,5 egin du gora, eta ekoizpen-jardueraren % 3,9 hartzen du.

Azterketarekin jarraituz, kanpo jarduerari dagokionez, ekoizpenaren arloan gertatutakoaren antzera, esportazioek marka guztiak hautsi dituzte 2017an, eta sektorean ekoiztutako 10 produktutatik 7 esportatu dira (% 73). Urtetik urterako tasa % 4,1 izan da, ekoizpenari dagokiona baino neurritsuagoa, eta guztira 1.233,77 milioi

euroko balioa esportatu da. Atal honetan, halaber, deformazio-azpisektorearen bilakaera azpimarratzekoa da: sektorearen % 25 hartzen du, eta % 10,3 gora egin dute kanpoko salmentek. Harroketa-makineriak esportazioen zati handi bat hartzen du (% 48,1) eta joera bera izan du, bizitasun txikiagoa izan arren (% 6,9). Nolanahi ere, bilakaera hobereana mekanizatuen eta zerbitzuen arloari dagokio (% 21,2); alegia, sektoreko zati txikiena (% 3,2) hartzen duen segmentuari. Erremintek pisu espezifiko askoz ere txikiagoa dute (% 5,1), eta haien kanpoko salmentek igoera neurritsua egin dute (% 3,5), bai eta osagarriek ere (% 3,4), eta azken horien partaidetza txikia da (% 3,5). Dinamika positibo horren aurka egin dute osagaiak eta beste makina batzuek (esportazioen % 9,8 eta % 5,2 hurrenez hurren); izan ere, lehenengoek zertxobait behera egin dute (-% 2,5) eta bigarrenen kasuan beherakada askoz ere handiagoa izan da (-% 28,7).

82. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektoreko esportazioak

<i>(m eurotan)</i>			
Esportazioak	2016	2017	%Δ 17/16
Makina-erremintak	835.120	902.150	8,0
· Harroketa	555.380	593.640	6,9
· Deformazioa	279.740	308.510	10,3
Osagaiak	124.540	121.440	-2,5
Erremintak	61.370	63.500	3,5
Osagarriak	41.470	42.900	3,4
Beste makina batzuk	89.730	63.950	-28,7
Mekanizatuak eta beste zerbitzu batzuk	32.520	39.430	21,2
Esportazioak, guztira	1.184.750	1.233.370	4,1

Iturria: AFM.

Bezero-sektoreei dagokienez, salmentak sektore hauetara bideratu dira gehienbat: automobilgintza eta autoen osagaiak (merkatuaren % 39), makina-erremintak eta beste ekipo-ondasun batzuk (% 19), eta sektore aeronautiko eta aeroespaziala (% 12). Bezeroen mapa honako hauek osatzen dute: azpikontratazioak (% 9), energia-sorkuntza (% 5), moldeak eta trokelak (% 3), trenbideak (% 2), eraikuntza metalikoak (% 2) eta etxetresnak eta tresneria (% 2).

Horiek horrela, urtearen emaitza oso ona izan da makina-erremintaren eta fabrikazio-teknologia aurreratuen arloko enpresentzat, eta ekitaldiaren amaieran orain arteko markak hautsi dituzte.

6.3 MAKINA-ERREMINTAK HEGO EUSKAL HERRIAN

Makina-erreminta fabrikatzaileentzat urtea nolakoa izan den aztertuz, aurreko atalean adierazitakoaren ildotik, gora egin dute sektoreko adierazle nagusiek. 2017ko ekitaldiaren amaieran, ekoizpenak 1.100 milioi euroko muga gainditu du, % 19,8 gora egin baitu; estatuko industria Europako hirugarren tokian finkatu da, eta munduko bederatzigarrena da. 2017an eskarien bilketak gora egin du, kanpoko zenbait merkaturen ahuleziak eta barne-merkatuaren jaitsierak aurreko ekitaldian eragindako behaldiaren ostean. Horrenbestez, 2016tik pilatutako eskari-zorroaren zati handi bat bideratu da kanpo-merkatuan, eta batez ere, barne-merkatuan, azken horretan salmentek neurrigabe egin baitute gora.

83. koadroa Makina-erremintaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainiako estatuan

Kontzeptua	(m eurotan)			
	2015	2016	2017*	%Δ 17/16
1. Ekoizpena	940.170	941.440	1.127.610	19,8
2. Barne-salmentak	168.330	106.320	225.460	112,1
3. Esportazioak	771.840	835.120	902.150	8,0
4. Inportazioak	416.790	477.410	500.930	4,9
5. Barne-kontsumoa	585.120	583.730	726.390	24,4
6. Esportazio-proporzioa = 3/1	82,1	88,7	80,0	-9,8
7. Inportazio-proporzioa = 4/5	71,2	81,8	69,0	-15,7

(*): Behin-behineko datuak.


Iturria: AFM.

Zehazki, 2017an esportazioen bilakaerak 2016ko erritmo berari eutsi dio: % 8 inguru egin dute gora, eta ekitaldiaren amaieran 902,15 milioi euro izatera iritsi dira. Barne-salmentak 225,5 milioi eurokoak izan direla kalkulatu da; horrek hazkunde askoz ere handiagoa dakar (% 112,1), aurreko ekitaldiko zenbatekoak bikoiztu egin baitira. Barne-merkatuaren portaera on hori izan daiteke, neurri batean, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzak makineriaren arloan bultzatutako *Renove* plan berriak, 12 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura duenak, eragindako ondorioa.

Inportazioak, berriz, 500 milioi eurotik gorakoak izan dira; goranzko joerari eutsi diote, baina azken urte honetan hazkundearen erritmoa baretu egin da (% 5 2017an, % 14,5 2016an). Dena dela, barne-kontsumoak oso bilakaera ona izan du 2017an: % 25 egin du gora, eta 726,4 milioi eurora iritsi da. Hala eta guztiz ere, portaera oso ona izan arren, azpimarratu behar da barne-kontsumoaren kopuruak oraindik ere oso urrun daudela krisiaren aurreko zenbatekoetatik. Horiek horrela, datuen bilakaerak adierazten du aldaketa esanguratsuak ageri direla inportazio-proporzioan (inportazioak/barne-kontsumoa) eta 2017an % 69koa izan dela (% 81,8 2016an); halaber, esportazio-

proportzioa (esportazioak/ekoizpena) aldatu egin da eta % 80koa izan da (% 88,7 aurreko ekitaldian).

12. grafikoa Makina-erremintaren sektoreko merkataritza-balantza



Iturria: AFM.

84. koadroa Espainiako makina-erreminten ekoizpenaren banaketa, makineria motaren arabera

Makina-erreminta mota	2015	2016	2017*	(m eurotan)
				% Δ 17/16
Fresatzeko eta mandrinatzeko makinak	182.710	158.960	167.130	5,1
Tornuak	156.210	153.950	139.942	-9,1
Makina bereziak eta transfer makinak	79.450	96.660	111.322	15,2
Artezteko makinak	53.610	73.300	68.613	-6,4
Mekanizazio-zentroak	55.180	58.580	62.366	6,5
Prozesu fisiko-kimikoen makinak	23.820	24.830	26.024	4,8
Zulatzeko makinak	20.900	15.420	14.840	-3,8
Zerrak eta trontzatzeko makinak	6.440	4.960	4.691	-5,4
Beste harroketa-makina batzuk	24.400	25.320	45.866	81,1
Harroketa bidezko M-E, guztira	602.720	611.980	640.794	4,7
Prensa mekanikoak	166.760	109.730	227.130	107,0
Prensa hidraulikoak	19.620	63.680	118.494	86,1
Kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak	31.060	32.190	43.429	34,9
Zizailatzeko makinak	39.180	37.320	15.248	-59,0
Puntzonatzeko edo hozkatzeko makinak	12.170	14.570	13.189	-9,5
Beste deformazio-makina batzuk	68.660	72.060	69.326	-3,8
Deformazio bidezko M-E, guztira	337.450	329.460	486.816	47,8
Makina-erremintak, GUZTIRA	940.170	941.440	1.127.610	19,8

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: AFM.

Ekoizpenari buruzko datuetan sakonduz, eta harroketa-azpisektoreari dagokionez, lehen esan bezala, 2017ko ekitaldian % 4,7 gora egin du ekoizpenak. 640,79 milioi euroko zenbatekoarekin, eta deformazio-azpisektorearen bilakaera askoz ere biziagoaren ondorioz, jardueraren pisu espezifikoa % 56,8ra jaitsi da (% 65 2016an). Azpisektorea osatzen duten makinaren bilakaera berrikusita, askotariko ibilbideak ikusten dira, baina orokorrean aldaketa neurritsuak izan dira. Hain zuzen ere, bi digitu dituen mugimendu bakarra makina berezien eta transfer makinaren bilakaera izan da, haien ekoizpenak % 15,2 egin baitu gora. Pisu espezifikoa handiena duten beste bi produktuek, fresatzeko eta mandrinatzeko makinek (% 26,1) eta tornuek (% 21,8), kontrako bilakaerak izan dituzte. Lehenengo kasuan jarduerak gora egin du (% 5,1) eta bigarrenek, berriz, behera egin dute (-% 9,1). Azpimarratu behar da aztertutako hiru makinaren artean harroketa-makinaren ekoizpenaren zati handiena biltzen dutela (azpisektorearen % 65,3 eta guztizkoaren % 37). Gainerako harroketa-makinei dagokienez, artezteko makinak eta mekanizazio-zentroak gailendu dira, ekoizpenaren % 10,7 eta % 9,7 hartuta, baina bien bilakaerak kontrakoak izan dira: lehenengo ekoizpenak behera egin du, eta bigarrenak sendotu egin dira (-% 6,4 eta % 6,5 hurrenez hurren).

Deformazio bidezko makinak aztertuz, ekoiztutako bolumenak nabarmen gora egin du azken urtean (% 47,8), eta azken saldoa 486,82 milioi eurokoa izan da. Datuei lehen begiratu emanda, ikusten da ekoizpen-zerrendaren goiko aldean ageri diren hiru

makinek eragin dutela azpisektoreko ekoizpenaren gorakada. Zehazki, prentsa mekanikoeak, prentsa hidraulikoeak eta urbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak ekitaldi bikaina izan dute (% 107, % 86,1 eta % 34,9 hurrenez hurren), gainerako makinak ekoizpenek –neurri handiagoan ala txikiagoan– behera egin duten bitartean. Beheraldia nagusi diren testuinguru horretan, zizailatzeko makinek ekitaldi bilakaera aipatzekoa da, haien ekoizpenak nabarmen behera egin baitu (-% 59). Horiek horrela, lehenengo hiru makina motak deformazio bidezko ekoizpenaren % 80 bildu dute, eta guztizkoaren % 35.

85. koadroa Espainiaren makina-erreminten esportazioen jomugako hamar herrialde nagusiak

(m eurotan)

Herraldea	2015	2016	2017*	% Δ 17/16
Alemania	80.070	108.050	130.080	20,4
Txina	51.340	96.630	89.170	-7,7
Mexiko	46.650	77.820	88.430	13,6
Ameriketako Estatu Batuak	97.050	65.480	75.450	15,2
Italia	51.070	68.570	57.430	-16,2
Frantzia	45.060	51.270	56.960	11,1
Portugal	51.310	72.310	56.850	-21,4
Erresuma Batua	48.750	24.310	36.460	50,0
Polonia	35.270	34.300	30.860	-10,0
India	20.390	15.250	26.500	73,8
Gainerako herrialdeak	244.880	221.130	253.960	14,8
Esportazioak, guztira	771.840	835.120	902.150	8,0

()*: Behin-behineko datuak.

Iturria: AFM.

Esportazioen bilakaera aztertuz, eta kanpo-merkatuekiko mendekotasun handia kontuan hartuta, 2017an ere gora egin dute esportazioek, aurreko ekitaldiko erritmo berean (% 8 inguru). Alemania berriro gailendu da, estatuko industriaren merkataritza-kide nagusia den aldetik, bai esportazioetan duen partaidetzagatik (% 14,4) bai bilakaeragatik (% 20,4). Txinak % 9,9ko partaidetza du, eta bigarren tokian finkatu da munduko ranking horretan, estatuko industriarekiko merkataritza-fluxuek % 7,7 behera egin ostean. Mexiko hirugarren tokian dago, % 13,6 gora egin ostean; AEBk antzeko bilakaera izan du (% 15,2) eta hurrengo tokian ageri da. European, berriz, Italiak, Portugalek eta Poloniak behera egin dute (-% 16,2, -% 21,4 eta -% 10), eta Frantziak eta Erresuma Batuak gora (% 11,1 eta % 50). Bestalde, Indiaren portaera gailendu da: gorakada handia egin ostean (% 73,8), esportazioen zerrendan gora egin du, eta estatuko ekoizpenaren jomugako hamar herrialde nagusien artean kokatu da. Kontzentrazio geografikoari erreparatuta, azpimarratu behar da esportazioen jomuga diren hamar herrialde nagusien artean jardueraren % 72 biltzen dutela, eta ehuneko hori oso kontuan hartzekoa da. Lehenengo bost herrialdeak soilik hartuta, berriz, % 50 urbiltzen dira.

86. koadroa **Esportazioak makina-erreminta motaren arabera**

(m eurotan)

Makina-erreminta mota	2015	2016	2017*	% Δ 17/16
Fresatzeko eta mandrinatzeko makinak	182.290	141.500	155.720	10,0
Tornuak	114.910	118.590	110.290	-7,0
Mekanizazio-zentroak	48.850	47.820	77.020	61,1
Artezteko makinak	46.520	74.710	57.240	-23,4
Makina bereziak eta transfer makinak	70.160	81.530	53.170	-34,8
Prozesu fisiko-kimikoen makinak	20.950	23.980	24.610	2,6
Beste harroketa-makina batzuk	60.300	67.250	115.590	71,9
Harroketa bidezko M-E, guztira	543.980	555.380	593.640	6,9
Zizailatzeko eta puntzonatzeko makinak	45.170	41.820	118.300	182,9
Prentsa mekanikoak	104.740	83.090	97.270	17,1
Kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak	24.410	32.300	33.070	2,4
Prentsa hidraulikoak	19.130	49.300	31.840	-35,4
Beste deformazio-makina batzuk	34.410	73.230	28.030	-61,7
Deformazio bidezko M-E, guztira	227.860	279.740	308.510	10,3
Makina-erremintak, GUZTIRA	771.840	835.120	902.150	8,0

()*: Behin-behineko datuak.

Iturria: AFM.

Makina motaren araberako esportazioen datuei erreparatuta, 2017ko ekitaldian bilakaera oso desberdinak ageri dira, makinaren arabera. Hala eta guztiz ere, azpisektore bakoitzeko emaitza orokorrak positiboak izan dira. Harroketa-makinek esportazioen zati nagusia hartzen dute (% 65,8), eta haien barruan lehenengo tokian ageri dira oraingoan ere fresatzeko eta mandrinatzeko makinak. Azken horien esportazioek handitzen dira (% 10), azpisektoreko esportazioen % 26,2 zor zaie. Tornuek behera egin dute azken urtean (% -7), eta bigarren tokian finkatu dira, % 18,6ko partaidetzarekin. Dena dela, rankingaren hirugarren tokian ikusten da aldaketa garrantzitsuena: mekanizazio-zentroek gora egin dute (% 61) eta toki bat igo dira, artezteko makinei aurrea hartuta, haien esportazioek nabarmen behera egin baitute (-% 23,4).

Deformazio bidezko makina-erreminta aztergai hartuta, bilakaera hobea izan du (% 10) harroketa-azpisektoreak baino (% 6,9). Horretan eragin dute, batez ere, zizailatzeko eta puntzonatzeko makinek, haien esportazioak ia hirukoiztu egin baitira 2017an (% 182,9). Esportazioen gorakada horri esker lehenengo tokian jarri dira, eta haien atzetik geratu dira prentsa mekanikoak, azpisektore horretako esportazioetan gailendu ohi direnak. Azken horiek igoera neurritsuagoa izan dute (% 17,1) eta esportazioen % 10,8 zor zaizkie. Bestalde, beherakada handiak egin dituzte prentsa hidraulikoek (-% 35,4) eta beste deformazio-makina batzuek (-% 61,7), baina kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinaren kanpo-salmentek egonkor dira.

87. koadroa **Espainiaren makina-erreminten inportazioen jatorri diren hamar herrialde nagusiak**

(m eurotan)

Herrialdea	2015	2016	2017*	% Δ 17/16
Alemania	98.070	99.320	122.110	22,9
Italia	61.520	73.150	90.180	23,3
Japonia	43.030	61.540	53.340	-13,3
Txina	20.760	23.290	29.580	27,0
Taiwan	33.440	35.100	29.400	-16,2
Suitza	17.670	24.640	29.060	17,9
Belgika	38.590	43.240	21.760	-49,7
Hego Korea	15.870	19.900	17.490	-12,1
Turkia	9.450	12.820	16.800	31,0
Erresuma Batua	18.730	17.030	16.350	-4,0
Gainerako herrialdeak	59.660	67.380	74.860	11,1
Inportazioak, guztira	416.790	477.410	500.930	4,9

()*: Behin-behineko datuak.

Iturria: AFM.

Inportazioei dagokienez, berriro gora egin dute (% 4,9) eta 500,9 milioi euro izatera iritsi dira. Datuak herrialdeen arabera bereiziz gero, egiazta dezakegu merkataritza-jarduera herrialde gutxi batzuetan biltzen dela; izan ere, inportazioen % 85,1 lehenengo hamar herrialdeei dagozkie, eta lehenengo hiru herrialdeei, berriz, erdia baino gehiago. Esportazioen atalean bezala, Alemania da estatuko industriaren aliatu komertzial nagusia (% 24,4ko partaidetza), haren atzetik dago Italia (% 18), eta biek ere antzeko bilakaera izan dute (% 23 inguru egin dute gora). Hirugarren tokian eta beheara eginez Japonia dago: inportazioen % 10,6 zor zaizkio, baina % 13,3 beheara egin du. Inportazioen ehuneko txikiagoekin eta antzeko proportzioekin (% 6 inguru) ageri dira hurrengo hiru herrialdeak: Txina, Taiwan eta Suitza. Haien bilakaerak, ordea, ez dira homogeneoak (% 27, -% 16,2 eta % 17,9 hurrenez hurren). Rankinga honako herrialde hauek osatzen dute, oso proportzio txikiekin eta bilakaera desberdinekin: Belgika, Hego Korea, Turkia eta Erresuma Batua.

6.4 ESKU-ERREMINTAK

Makina-erremintaren sektorean bezala, 2017ko ekitaldian esku-erreminten eta industria-hornikuntzaren magnitude nagusiek gora egin dute. Egonkor dagoen datu bakarra enpleguari buruzkoa da: azken bi urteetan 1.900 pertsona aritu dira lanean sektorean.

Ekoizpenak % 6 inguru egin du gora, eta 358,4 milioi eurora iritsi da. Horrenbestez, azken lau urteotako joera positiboari jarraitu dio. Joera bera izan dute esportazioek ere: berriro gora egin dute, baina igoera zertxobait motelagoa izan da (% 3,4), eta 175,5 milioi esportatu dira guztira. Salmenten banaketa geografikoari dagokionez, esportazioen mapa ez da ia aldatu, aurreko ekitaldikoarekin alderatuta. Esportazio gehienen jomuga EB izan da (% 71,4), eta haren atzetik Amerika (% 11,6), Ekialde Ertaina (% 7), Asia eta Ozeania, Errusia eta Ekialdeko Europa, eta Afrika (horietako bakoitzak % 3 inguru hartu du). Goranzko testuinguru horretan, barne-merkatuaren hazkundera nabarmena da (% 8,5), gora egin baitute bai industria-segmentuak (% 7,7) bai eraikuntzari dagokionak (% 10,6), eta askoz ere neurritsuagoak izan dira nekazaritzarako salmentak (% 1,8). Horiek horrela, 2017an sektoreko salmenten erdia industriara bideratu da, % 42,6 eraikuntzara, eta % 7,1 besterik ez nekazaritzara.

88. koadroa Sektoreko magnitude nagusien bilakaera

Kontzeptua	(m eurotan)		
	2016	2017 ^(*)	% 17/16
Ekoizpena	338.361	358.482	5,9
Barne-salmentak	168.734	183.026	8,5
-Industria	85.564	92.123	7,7
-Eraikuntza	70.453	77.956	10,6
-Nekazaritza	12.717	12.947	1,8
Esportazioak	169.627	175.456	3,4

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eskuin -Burdindegi eta Industria-hornikuntzaren Klusterra-.

Atal hau amaitzeko, eta AFMk eta Eskuinek argitaratutako informazioa aintzat hartuta, 2017ko egoerak optimismoa dakar. Enpresen konfiantza-maila aintzat hartuta, badirudi 2018an eskabide-zorroari eutsiko zaiola, edo hobera egingo duela; baina, egia esan, zaila izango da ekitaldi honetan lortutako zenbateko historikoak errepikatzea. Bestalde, makineria berritzeko *Renove* plan berri bat abian jartzea lagungarria izango litzateke barne-merkatua suspertzeko, oraindik ere dagokion ahalmenaren azpitik baitago, eta, ezustekorik ezean, kanpo-merkatuek orain arteko bizitasunari eutsiko diotela aurreikusten da.

7. PAPERERA

7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

CEPI (Confederation of European Paper Industries) konfederazioaren datuetatik abiatuta, Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen ASPAPEL Elkarteak adierazi du CEPIko kideen herrialdeetako paper- eta kartoi-ekoizpena 92.271 mila tonakoa izan dela 2017an, eta urtetik urterako hazkundea % 1,5ekoa izan dela. Beraz, esan daiteke jarraipena eman zaiola aurreko ekitaldian hasitako susperraldiari (beherakada ugariren ondoren, 2016an ez zen jaitsierarik izan).

89. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2012	92.081	-1,6
2013	91.128	-1,0
2014	90.949	-0,2
2015	90.872	-0,1
2016	90.982	0,0
2017 (*)	92.271	1,5

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarteak, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Paper-ekoizpenaren herrialde-banaketari begiratuta eta 2016ko datuen arabera (ez dago, kasu zehatz honetan, 2017ko daturik), munduan ekoizten den paperaren % 22,1 produzitu dute CEPI osatzen duten herrialdeek. Asia da ekoizle handiena (paper guztiaren % 46,4 ekoizten du). Bestalde, Ipar Amerikak ekoizpenaren % 20 hartzen du, hau da, CEPIko herrialdeek baino zertxobait gutxiago.

CEPIko kideen herrialdeetan, gora egin dute 2017an paperaren esportazioek eta kontsumoak (esportazioek % 5,2ko igoera eta kontsumoak % 0,5eko hazkundea izan dute); eta behera egin dute, aldiz, inportazioek (-% 0,4ko jaitsiera). Hain zuzen ere, esportazioak 20.127 mila tonakoak izan dira. Latinoamerikara eta Asiara bideratutako esportazioek nabarmen egin dute gora (% 14,5eko eta % 11ko igoera, hurrenez hurren); Europara eta Ipar Amerikara bideratutakoek, berriz, igoera apala izan dute (% 3,4ko eta % 2,7ko gorakada, hurrenez hurren); eta gainerako tokietara bideratutakoek behera egin dute. Bestalde, kontsumoa 77.714 mila tonakoa izan da, eta inportazioak 5.668 mila tonakoak. Inportazioek, oro har, behera egin dute, Europako gainerako tokietatik egin direnek izan ezik (inportazio horiek % 2,4ko gorakada izan dute).

Horrela, bada, CEPI osatzen duten herrialdeetan 14.459 mila tonako saldo positiboa izan du paperaren merkataritza-balantzak 2017an; eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,5 igo da balantza hori (2016an, 13.451 mila tonako superabita izan zuen).

90. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka

Herraldea	2016*	Guztizkoaren %
Alemania	22.633	5,5
Austria	4.995	1,2
Belgika	2.077	0,5
Bulgaria	262	0,1
Danimarka	60	0,0
Espainia	6.219	1,5
Finlandia	10.145	2,5
Frantzia	7.984	1,9
Grezia	227	0,1
Hungaria	758	0,2
Italia	9.001	2,2
Holanda	2.671	0,7
Polonia	4.614	1,1
Portugal	2.281	0,6
Erresuma Batua	3.676	0,9
Txekiar Errepublika	795	0,2
Eslovakia	783	0,2
Suedia	10.103	2,5
Norvegia	1.099	0,3
Suitza	1.234	0,3
Brasil	10.464	2,5
Kanada	10.117	2,5
Txina	111.288	27,1
Ameriketako Estatu Batuak	72.120	17,6
India	11.257	2,7
Japonia	26.279	6,4
Errusia	8.539	2,1
Mundua osorik**	410.760	100,0

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2016ko informazioa baino ez dugu.

(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarteak.

CEPI esparruan, orearen ekoizpena 37.795 mila tonakoa izan da, eta ekoizpen horrek % 1,7 egin du gora aurreko urtearekiko. 2016ko datuen arabera (ez dago 2017ko daturik), CEPIko kideek orearen ekoizpen mundialaren % 20,6 produzitu dute, Asiak ekoizpenaren % 21,5 eta Ipar Amerikak, berriz, ekoizpenaren % 35,6.

91. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

(m tona)

Herrialdea	2016*	Gutzizkoaren %
Alemania	2.485	1,4
Austria	1.655	0,9
Belgika	500	0,3
Bulgaria	204	0,1
Danimarka	0	0,0
Espainia	1.677	0,9
Finlandia	10.782	6,0
Frantzia	1.720	1,0
Grezia	0	0,0
Hungaria	0	0,0
Italia	303	0,2
Holanda	45	0,0
Polonia	1.145	0,6
Portugal	2.624	1,5
Erresuma Batua	220	0,1
Txekiar Errepublika	439	0,2
Eslovakia	680	0,4
Suedia	11.140	6,2
Norvegia	874	0,5
Suitza	113	0,1
Brasil	18.710	10,4
Kanada	16.500	9,1
Txina	10.618	5,9
Ameriketako Estatu Batuak	47.806	26,5
India	1.579	0,9
Japonia	8.624	4,8
Errusia	8.104	4,5
Mundua osorik**	180.413	100,0

(*): *Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2016ko informazioa baino ez dugu.*

(**): *Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPEL elkartearen datuen arabera, Espainiako paper- eta kartoi-ekoizpena 6.217,8 mila tonakoa izan da 2017an, eta datu hori ez da apenas aldatu aurreko urtearekiko (ezdeusa izan da urtetik urterako aldakuntza); CEPI eremuan, aldiz, ekoizpenak % 1,5 egin du gora.

Bestalde, Espainiako paper-inportazioak 3.266,6 mila tonakoak izan dira, eta % 0,3 egin dute gora; esportazioak, aldiz, 2.681,4 mila tonakoak izan dira, eta -% 5,3 egin dute behera. Horrez gainera, paperaren ageriko kontsumoak % 2,4ko hazkundera izan du (6.802,9 mila tonakoa izan da). Hori horrela, paperaren Estatuko merkataritza-balantzak

saldo negatiboa izan du: -585,2 mila tonako jaitsiera izan du 2017an (-425,9 mila tonako defizita izan zuen 2016an).

92. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira


(m Tm)

Urtea	Ekoizpena	Inportazioak	Esportazioak	Ageriko kontsumoa
2008	6.414,3	3.815,9	2.964,6	7.265,6
2009	5.679,2	3.323,2	2.809,8	6.192,4
2010	6.193,4	3.316,9	3.062,4	6.447,9
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

13. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian

(Indizea: 1985=100)



Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

Aurreko urteetan bezala, 2017an ere Europar Batasuna da Estatuaren bazkide komertzial nagusia; inportazioen % 87,4 eta esportazioen % 58,7 hartzen baititu. Zehazki, Frantziak eta Finlandiak kanpo-erosketen % 18,1 eta % 17 hartzen dituzte, hurrenez hurren; eta Portugalek eta Frantziak, kanporako salmenten % 22,1 eta % 18,8 hurrenez hurren.

Paper-mota guztiek ez dute bilakaera bera izan Espainian. Ekoizpenari begiratuta, zenbait paper-motak gora egin dute; esateko baterako, kartoi iztukatuak (% 12,2ko igoera), beste paper batzuek (% 9,7ko hazkundea), uhin-kartoiak (% 2,9ko gorakada) eta beste ontzi eta enbalaje batzuek (% 0,7ko hazkundea). Beste paper-mota batzuek, aldiz, behera egin dute ekoizpenean, hala nola prentsarako, inprimatzeko eta idazteko paperek (-% 10,7ko jaitsiera) eta paper higieniko eta sanitarioek (-% 2,7ko beherakada).

93. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper-motaren arabera

(m Tm)

Mota	Ekoizpena		Inportazioak		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16
Prentsa, inprimatze eta idazteko paperak	1.299,5	-10,7	1.183,4	-3,0	1.105,9	-9,0	1.307,0	-5,4
Higienikoak eta sanitarioak	704,1	-2,7	154,1	0,4	168,4	-0,3	689,8	-2,6
Uhin-kartoirako	2.963,7	2,9	954,5	-0,4	799,3	-8,5	3.118,8	5,2
– Uhinatarako	1.363,0	2,2	335,4	-2,7	307,1	-14,3	1.391,4	5,4
– Test Liner eta Kraft Liner	1.185,7	5,7	587,3	0,3	433,1	-2,8	1.339,8	6,2
– Bikoak eta larruak	415,0	-2,3	31,8	13,5	59,1	-15,6	387,7	1,2
Kartoi iztukatua	299,3	12,2	568,3	8,0	148,1	13,5	719,5	8,6
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	496,5	0,7	318,2	7,3	367,7	7,0	447,0	0,2
Beste paper batzuk	524,7	9,7	88,2	-13,5	92,1	-5,9	520,8	8,0
Papera eta kartoiak, guztira	6.217,8	0,0	3.266,6	0,3	2.681,4	-5,3	6.802,9	2,4

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Jarraian, paper-orearen datuak aztertuko dira. 2017an, % 1,7ko hazkundea izan du paper-orearen ekoizpenak (1.699,5 mila tona ekoitzi dira); eta era berean, gorakada izan dute esportazioek (962 mila tona, aurreko ekitaldian baino % 3,6 gehiago). Behera egin dute, berriz, inportazioek (1.139,4 mila tona, -% 2,3ko beherakada) eta ageriko kontsumoak (1.876,9 mila tona, -% 1,9ko jaitsiera).

Horrela, paper-orearen Estatuko merkataritza-balantzak saldo negatiboa izan du 2017an, -177,4 mila tonako beherakada izan du (2016an, -237,3 mila tonako saldo negatiboa); eta estaldura-tasa % 84,4koa izan da (aurreko ekitaldian, % 79,6koa).

Ore mekanikoa eta kimikoa da gehien erabiltzen den ore-mota. Guztizko ekoizpenaren % 98,5 hartzen du; eta ore-mota hori nagusi da esportazioetan, inportazioetan eta ageriko kontsumoan. Horrez gainera, gora egin dute ore mekanikoaren eta kimikoaren kanpo-salmentek (% 3,3ko igoera, 941 mila tona) eta ekoizpenak (% 1,3ko gorakada, 1.673,8 mila tona); eta behera egin dute, aldiz, kanpo-erosketek (-% 2ko jaitsiera, 1.097,4 mila tona), eta ageriko kontsumoak (-% 1,7ko beherakada, 1.830,1 mila tona).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa 5.020 mila-tonakoa izan da 2017an, eta -% 3,4ko beherakada izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

94. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore-motaren arabera
(m Tm)

Mota	Ekoizpena		Inportazioak		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16
Ore mekanikoa eta kimikoa	1.673,8	1,3	1.097,4	-2,0	941,0	3,3	1.830,1	-1,7
Erdikimikoa eta beste batzuk	25,7	9,0	42,0	-9,4	20,9	19,2	46,8	-10,7
Ore birjinak, guztira	1.699,5	1,4	1.139,4	-2,3	962,0	3,6	1.876,9	-1,9
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.560,1	-3,2	1.521,6	-7,1	1.061,7	-7,9	5.020,0	-3,4

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

Txosten honen aurreko argitalpenetan bezala, jarraian berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko da, adierazle hauek oinarri hartuta: ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 67koa 2017an eta % 70,9koa 2016an; erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): % 80,7koa 2017an eta % 83,6koa 2016an; birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 73,8koa 2017an, eta aurreko ekitaldian, berriz, % 78,2koa.

Estatuko datuak CEPIkoekin alderatuta, ekoizpenak ez du aldaketarik izan Espainiako paperaren sektorean (hazkundera ezdeusa izan da Estatuan) eta CEPIIn, berriz, % 1,5eko hazkundera izan da. Esportazioek, aldiz, behera egin dute Estatuan (-% 5,3ko beherakada), eta gora CEPIIn (% 5,2ko igoera). Bestalde, inportazioek aldaketak izan dituzte: Estatuan % 0,3ko hazkundera izan da, eta CEPIIn -% 0,4ko jaitsiera.

7.3 SEKTOREA HEGO EUSKAL HERRIAN

Paperaren eta kartoiaren sektoreak ez du bilakaera bera izan Estatuan eta CEPIIn; Estatuan, ekoizpenak ez du ez hazkunderik ez beherakadarik izan, eta CEPIIn, aldiz, % 1,5eko igoera izan du. Bestalde, Hego Euskal Herrian -% 1,6 egin du behera paperaren eta kartoiaren ekoizpenak, eta 1.434,1 mila tona ekoitzi dira guztira. Hori horrela, paperaren eta kartoiaren sektoreak Hego Euskal Herrian izandako beherakadaren eta Estatuan izandako hazkunderaren ondorioz, Hego Euskal Herriko paperaren sektoreak iaz baino proportzio txikiagoa izan du Estatuan, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 23,1ko ehunekoa izan du 2017an, eta % 23,4koa izan zuen 2016an).

95. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Hego Euskal Herrian

Kontzeptua	2015	2016	2017	(m Tm) % Δ 17/16
Papera eta kartoia, guztira	1.409,5	1.458,1	1.434,1	-1,6
Orea, guztira	494,6	487,0	489,3	0,5

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

Lehen azaldu dugun moduan, orearen ekoizpenak gora egin du bai Estatuan, bai CEPIIn (% 1,4 eta % 1,7 hurrenez hurren), eta Hego Euskal Herrian ere joera horri eutsi zaio. Izan ere, % 0,5eko hazkundea izan da 2017an, eta 489,3 mila tona ekoizti dira; hala eta guztiz ere, behera egin du Estatuan duen proportzioa: % 28,8koa izan da 2017an eta % 29koa izan zen 2016an.

Kanpo-merkataritzako jarduerari eta jarduera horren datu ekonomikoei begiratuta, Hego Euskal Herriko paper-eta ore-esportazioek % 8,7ko hazkundea izan dute, 905.650 mila euroko bolumenarekin; eta inportazioek, berriz, % 6ko igoera, eta 523.073 mila euroko bolumena. Ondorioz, 382.577 mila euroko suberabit komertziala izan da (339.916 mila eurokoa izan zen 2016an).

Atalari amaiera emateko, Hego Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak aurkeztuko ditugu, bai eta enpresa bakoitzaren kokapena eta ekoizten dituzte paper-motak ere.

96. koadroa Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Hego Euskal Herrian

Enpresak	Kokapena	Ekoizpena
Sarriopapel y Celulosa, S.A.	Leitza, Uranga	Inpresiorako eta idazketarako p. eta ore
Indarkia S.L.- Ezten FCR.	Aranguren, Artziniega	Tisu papera
Papresa	Errenteria	Prensa papera
Smurfit Kappa Nervión	Iurreta	Orea, kraft papera
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, Kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak
Sca Hygiene Spain	Allo	Tisu papera
Zikuñagako paper-fabrika (Iberpapel)	Hernani	Orea eta inpresio eta idazketarako papera
Munksjö Paper DECOR, S.A.	Tolosa	ljezketarako oinarri-papera
Oriako paper-fabrika	Zizurkil	Inpresio eta idazketarako papera
Ebroko paper-fabrika	Viana	Papera eta uhin-kartoia
Bertako	Uharte	Papera eta uhin-kartoia
Newark San Andrés, S.L.	Atarrabia	Uhin-kartoia
Amarozeko paper-fabrika	Legorreta	Inpresio eta idazketarako papera

Iturria: Ekoizpenaren Sustapena. "Espainiako 2.500 enpresa garrantzitsuenak", eta enpresen memoriak.

8. KAUTXUA

8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Nazioarteko bizitasun ekonomikoarekin bat eginez, munduko kautxu-kontsumoak % 3,3 gora egin du 2017an, eta 28.414 mila tonara iritsi da, International Rubber Study Group-ek argitaratutako informazioaren arabera. Ekoizpenak, berriz, hazkunde handiagoa izan du (% 4,2); horrenbestez 2017an 28.500 mila tona ekoitzi dira, eta munduko kautxu-stockak 177 mila tonako saldo positiboa izan du defizitaren ostean (-55 mila tonako defizita izan zuen 2016an).

Kautxu-mota kontuan hartuta, kautxu naturalaren kasuan, ekoizpena kontsumoa baino handiagoa izan da, eta 314 mila tonako stock positiboa metatu da. Kautxu sintetikoaren kasuan, ordea, ekoizpena kontsumoa baino txikiagoa izan denez, stocka negatiboa izan da (-137 mila tona).

97. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren kontsumoa munduan

(m Tm)

Eremua	Kautxu naturala			Kautxu sintetikoa			Guztira		
	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16
Asia/Pazifikoa	9.333	9.763	4,6	8.105	8.369	3,3	17.438	18.132	4,0
EMEA*	1.645	1.726	4,9	3.693	3.802	3,0	5.338	5.528	3,6
Amerika	1.693	1.736	2,5	3.035	3.018	-0,6	4.728	4.754	0,5
Guztira	12.670	13.225	4,4	14.834	15.189	2,4	27.504	28.414	3,3

(*): EMEA: Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika.

Iturria: International Rubber Study Group.

Esparru geografikoa aintzat hartuta, kautxuaren kontsumoak gora egin du, oro har, 2017an: % 4 Asia/Pazifikoa; % 3,6 Europan, Ekialde Ertainean eta Afrikan; eta % 0,5 Amerikan. Eremu horiek munduko kautxu-kontsumoaren % 63,8, % 19,5 eta % 16,7 hartzen dute, hurrenez hurren.

8.2 KAUTXUA ERALDATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAE-N

Nazioartean gertatu den moduan, Espainian ere 2017an gora egin du kautxua eraldatzeko sektoreko ekoizpenak, eta ageriko kontsumoa ere igo da.

Horren haritik, Kautxu Industrialarien Partzuergo Nazionalak emandako informazioaren arabera, estatuko ekoizpena 858.269 tonara iritsi da 2017an, eta zenbateko horrek % 5,3ko urtetik urterako hazkundera adierazten du. Ageriko kontsumoa 743.431 tonakoa da, eta bolumen hori aurreko urtekoa baino % 7,1 handiagoa da.

Halaber, sektoreko fakturazioak ere gora egin du 2017an (% 5,4) eta 5.072,4 milioi eurora iritsi da, salmentak igo baitira, bai pneumatikoen eta birkautxutuen azpisektorean (% 6,2) bai pieza teknikoen atalean (% 3,6).

Sektoreko ekoizpenak % 5,3 egin duenez gora, eta sektoreko enplegua ere zertxobait igo denez (% 0,4), estatuko kautxuaren sektorearen produktibitateak % 4,9 egin du gora, eta enplegatu bakoitzeko 39,1 tonara iritsi da 2017an.

Horiek horrela, azpimarratu behar da automobilgintzako sektoreak kautxuaren industria eraldatzailean izan duen garrantzi handia kontuan hartuta, kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutuen azpisektoreari eskainitako epigrafearen esparruan), haren analisi labur berezia egin dela, aurreko urteetako txostenetan egin den bezala.

98. koadroa Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarritzko datuak⁽¹⁾ Espainian

(Tm)

Kontzeptua	2016	2017	% Δ 17/16
1. Ekoizpena	814.712	858.269	5,3
2. Kontsumo agerikoa	694.319	743.431	7,1
3. Esportazioak	754.024	762.154	1,1
4. Inportazioak	633.631	647.316	2,2
5. Saldo komertziala	120.393	114.838	-4,6
6. Esportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	3,83	3,90	1,8
7. Inportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	4,05	4,13	2,0
8. Esportazioa/Ekoizpena (%)	92,6	89	-4,1
9. Inportazioa/Kontsumo agerikoa (%)	91,3	87	-4,6
10. Enplegua	21.850	21.935	0,4
11. Produktibitatea (1/10) ⁽³⁾	37,3	39,1	4,9

(1): Honako hauek bame: CNAE 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutuak) eta CNAE 22.19 (kautxuaren beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexko pieza teknikoak).

(2): Euro/kg.

(3): Tm/enplegatu/urte.

Iturria: Kautxuaren Industrialarien Partzuergo Nazionala.

Kanpo-merkataritzari erreparatuta, bolumena kontuan hartuz gero, esportazioek eta, batez ere, inportazioek gora egin dute 2017an. Kanpo-salmentak % 1,1 handitu dira, 762.154 tonara iritsi arte. Aldi berean, kanpo-erosketak % 2,2 egin dute gora, eta 647.316 tonara arte iritsi da. Hortaz, superbait komertzialak, bolumena kontuan hartuta, behera egin du (-% 4,6), eta 114.838 tonara jaitsi da.

99. koadroa Kautxu eraldatuaren kanpo-merkataritzako datuak, azpisektoreka

(Tm)

Produktua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa		
	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16
Pneumatikoak eta birkautxutuak	602.610	605.043	0,4	453.226	465.934	2,8	149.384	139.109	-6,9
Pieza teknikoak	151.414	157.111	3,8	180.405	181.382	0,5	-28.991	-24.271	-16,3
Guztira	754.024	762.154	1,1	633.631	647.316	2,2	120.393	114.838	-4,6

Iturria: Kautxuaren Industrialarien Partzuergo Nazionala.

Horrez gainera, diru-kopuruei begiratu gero, esportazioek eta inportazioek ere gora egin dute 2017an (% 2,9 eta % 4,2 hurrenez hurren), eta superabit komertziala murriztu egin da (-% 7,5).

Azpisektoreak aintzat hartuta, bolumenari erreparatu gero, kanpo-salmentetan pieza teknikoek izan dute bizitasun handiena (% 3,8), eta kanpo-erosketetan, berriz, pneumatikoen eta birkautxutuen azpisektoreak (% 2,8).

Hala eta guztiz ere, diru-kopuruak kontuan hartuta, hazkunde handiena, bai esportazioetan bai inportazioetan, pieza teknikoena izan da (% 4 eta % 6,2 hurrenez hurren).

100. koadroa Kautxu eraldatuaren kanpo-merkataritzako datuak, azpisektoreka

(M eurotan)

Produktua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa		
	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16
Pneumatikoak eta birkautxutuak	1.917,4	1.962,2	2,3	1.558,5	1.604,5	3,0	358,9	357,7	-0,3
Pieza teknikoak	970,3	1.009,5	4,0	1.004,8	1.067,3	6,2	-34,5	-57,8	67,3
Guztira	2.887,6	2.971,7	2,9	2.563,3	2.671,7	4,2	324,4	299,9	-7,5

Iturria: Kautxuaren Industrialarien Partzuergo Nazionala.

EAEko kautxua eraldatzeko sektorean arreta jarrita, eta, lehenik eta behin, Eustatek emandako kautxuaren eta plastikoaren industria-produkzioaren indizea (IPI) aintzat hartuta, 2017an hazkundearen erritmoa indartu du, eta % 7,4ra iritsi da (% 3,4 aurreko urtean).

Kanpokoekin egindako trukeei dagokienez, kautxuaren eta harekin egindako manufakturen esportazioek behera egin dute EAEn (-% 0,7) eta 1.127.192 mila eurora jaitsi dira. Inportazioek, ordea, % 10,5 egin dute gora, eta 486.617 mila euro izatera iritsi

dira. Horrenbestez, kanpo-merkataritzako balantzaren saldo positiboak behera egin du (-% 7,8) eta 640.575 mila eurokoa da.

EAEri buruzko informazioa estatuari buruzkoarekin lotuta, diru-kopuruak kontuan hartuz gero, EAEko kanpo-merkataritzak estatuko guztizkoan duen ehunekoak behera egin du kanpo-salmenten kasuan (guztizkoaren % 37,9 2017an; 2016an, berriz, % 39,3), aitzitik, kanpo-erosketek gora egin dute (guztizkoaren % 18,2 2017an; % 17,2 aurreko urtean).

8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUEN AZPISEKTOREA

Analisiaren arreta pneumatikoen eta birkautxutuen azpisektorean jarrita, eta berriro ere Kautxuaren Industrialarien Partzuergo Nazionalak argitaratutako informazioa kontuan hartuta, 2017an 650.758 tona ekoitzi ditu azpisektoreak, eta ageriko kontsumoa 511.649 tonakoa izan da. Bolumen horiek urtetik urterako gorakadak adierazten dituzte: % 6,2 eta % 10,4 hurrenez hurren.

Kanpo-merkataritzari erreparatuta, pneumatikoen eta birkautxutuen esportazioek % 0,4 egin dute gora 2017an, eta 605.043 tona izatera iritsi dira; aldi berean, inportazioek % 2,8 egin dute gora, eta 465.934 tona izatera iritsi dira. Horrenbestez, esportatzeko joera % 93koa izan da, eta inportatzeko joera, berriz, % 91,1ekoa.

101. koadroa Pneumatikoen eta birkautxutuen ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza

Kontzeptua	2016	2017	% Δ 17/16
1. Ekoizpena	612.802	650.758	6,2
2. Esportazioak	602.610	605.043	0,4
3. Inportazioak	453.226	465.934	2,8
4. Kontsumo agerikoa	463.418	511.649	10,4
5. 2/1 x 100	98,3	93,0	-5,5
6. 3/4 x 100	97,8	91,1	-6,9

Iturria: Kautxuaren Industrialarien Partzuergo Nazionala.

Kautxuaren sektoreak automobilgintzaren sektorearekin duen lotura kontuan hartuta, azken horren bilakaera aztertuko dugu labur-labur. Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ANFAC) emandako datuen arabera, ibilgailuen matrikulazioak % 8,5 egin du gora 2017an, eta 1.462.235 ibilgailu matrikulatu dira. Bestalde, ibilgailuen produkzioak eta esportazioek behera egin dute (-% 1,5 eta -% 1,1 hurrenez hurren): 2.848.335 ibilgailu ekoitzi dituzte, eta 2.318.217 esportatu.

102. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian

(unitateak)

Kontzeptua	Ekoizpena			Esportazioak			Matrikulazioak ⁽¹⁾		
	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16	2016	2017	% Δ 17/16
Turismoak	2.313.391	2.243.220	-3,0	1.923.102	1.866.931	-2,9	1.147.009	1.234.932	7,7
Industria-ibilgailuak ⁽²⁾	578.531	605.115	4,6	421.153	451.286	7,2	196.811	223.496	13,6
Autobusak eta autokarrak	0	0	0	0	0	0	3.527	3.807	7,9
Guztira	2.891.922	2.848.335	-1,5	2.344.255	2.318.217	-1,1	1.347.347	1.462.235	8,5

(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne daude. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako matrikulazioak ere jasotzen ditu.

(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.

Iturria: ANFAC.

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan bezala, Euskal Herrian kokatuta dauden pneumatikoen fabrikatzaile nagusiei buruzko ohar labur bat erantsiko dugu. Michelin eta Bridgestone.

Lehenik eta behin, Michelinen jarriko dugu arreta. Euskal Herrian kokagune hauetako instalazioen bidez lan egiten du: Gasteiz, Araia (Araba, benetan gune logistikoa da) eta Lasarte (Gipuzkoa). Enpresa taldeak, oro har, 1.693 milioi euroko etekinak eskuratu ditu 2017an, eta bolumen hori aurreko urtekoa baino % 1,5 handiagoa da; orobat, zenbateko horrek orain arteko markak hautsi ditu enpresak lortutako etekinen alorrean. Euskal Herrian arreta jarrita, azpimarratu behar da 80 milioi euroko inbertsioa egiten ari dela 2017-2019 aldian Gasteizko instalazioetan. Inbertsio horien xedea da gomak nahasteko fabrikazio-linea berriak ezartzea eta biltegi automatikoak jartzea, bai lehengaiak gordetzeko, bai eta goma metatzeko ere, bezeroei bidali aurretik.

Bridgestonek, berriz, Basauriko instalazioen bidez lan egiten du Euskal Herrian. Azpimarratu behar da instalazio hori, azkenean, enpresak Europan dituen instalazioak 2017-2022 aldian modernizatzeko planetik kanpo geratu dela. Estatuan, Bridgestonek Burgosen duen ekoizpen-zentroan soilik egingo dira inbertsioak.

9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA¹

9.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Informazioaren Teknologien Europako Behatokiaren (EITO) arabera, IKT merkatuaren fakturazioa 3,2 bilioi eurokoa izan da 2017. urtean, aurreko urtean baino % 3,3 handiagoa. Munduko ekonomiaren digitalizazio-prozesuaren berri ematen digu datu horrek.

Informazioaren teknologien bilakaerari begiratuta, teknologia horren salmentak % 3,4 igo dira 2017. urtean, harik eta 1,4 bilioi euroko zenbatekoa iritsi arte; era berean, telekomunikazio-teknologiaren salmentak % 3,3 egin du gora eta 1,8 bilioi euroko emaitza izan du. Funtsean, gorabideko merkatuak dituzten ekonomien bultzadari esker lortu dira emaitza horiek.

Banaketa geografikoari erreparatuta, India eta Txina dira IKT merkatu mugituenak, 2017. urtean % 9ko eta % 8,5eko igoerak izan baitituzte, hurrenez hurren; hala ere, kontuan izan behar da Estatu Batuak direla oraindik eragile nagusiak, 979 mila milioiko fakturazioa, eta, urtetik urtera, % 3ko igoera izan baitu herrialde horrek.

Azkenik, nabarmendu behar da software eta IKT zerbitzuen merkatuak munduan ageri duen gorako joera irmoak berretsi egiten duela lehen adierazi dugun ekonomiaren digitalizazio-prozesu hori, izan ere, sektore guztietako enpresak ari dira cloud computing eta big data moduko teknologia digitaletan inbertitzen.

¹ Sektorea modu orokorrean aipatzen dugunean, horrek barne hartzen ditu sektorean sartzen diren jardura elektronikoinformatiko guztiak eta telekomunikazioetakoak, baina ez telekomunikaziozerbitzuen operadore/hornitzaile handiak.

9.2 SEKTOREA ESPAINIAN¹

Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkartearen (AMETIC) arabera, informazioaren teknologien Estatuko hipersektorearen fakturazioa 24.946 milioi eurokoa izan zen 2017an, laugarren urtez jarraian gora eginda. Horrek esan nahi du fakturazio-bolumena 2016. urtean baino % 3,3 handiagoa izan dela. Sektore-azterketak adierazten du sektore guztiek egin dutela gora 2017an: *zerbitzuek* % 7,2, *softwareak* % 5,4 eta *hardwareak* % 4,5.

Alde horretatik, informazioaren teknologien *zerbitzuek* 17.106 milioi euroko fakturazioa izan dute 2017. urtean (sektorearen guztizko zenbatekoaren zatirik handiena), eta % 7,2ko bolumen-igoera urtetik urtera. Nabarmendu behar da egoera makroekonomikoa ona izan dela eta horrek informazioaren teknologien alorreko zerbitzu-proiektuak bultzatzeko giroa sortu duela; hori horrela, teknologia-aholkularitza eta garapeneko eta ezarpeneko zerbitzuek izan dute goranzko joera handiena jarduera-azpisegmentu horretan.

Beste azpisektore batek, *softwareak*, 3.266 milioi euroko fakturazioa izan du 2017an, eta % 5,4ko igoera izan du aurreko urteko fakturazioarekiko. Cloud computing arloa izan da azpisektorearen garapen-ardatza. Aplikazio bakoitzari begiratuta, enpresetarako softwarea eta produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko paketeak izan dira salduenak; zehazki, SaaS ereduak gailendu da, enpresetako aplikazio eta esparru askotarako eskaintza egiten duen aldetik.

Hirugarren azpisektoreak, *hardwareak*, 4.575 milioi-euroko negozio-bolumena izan du 2017. urtean, aurreko urtean baino % 4,5 handiagoa. Goranzko bilakaera horren ardatz izan dira azpiegitura berrietan egindako inbertsioak eta parke teknologikoaren berritzea.

AMETIC elkartearen iritzian, esparru hauek dute sektorearen hazkunde-bidea ziurtatuko da, beraiek baitute garatzeko gaitasunik handiena: adimen artifiziala, gauzen Internet eta blockchain, eta aurreko horiek baino ezarpen handiagoa eta garatze-ahalmen handia duten beste batzuk, hala nola cloud computing eta zibersegurtasuna.

¹ Atal hau Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkarteari (AMETIC) buruzko informazioan dago oinarrituta. AMETICEk 2.000 bazkide inguru zituen 2011n; horietatik 300 banakako enpresak ziren eta gainerakoak askotariko enpresa-erakunde eta -multzoak. Horien guztien jarduerak lotura zuen elektronikaren, informazioaren teknologien eta telekomunikazioen sektoreekin.

9.3 SEKTOREA EAE-N¹

Puntu hau azaltzen hasi aurretik, azaldu beharrekoa da Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea (GAIA) eta Euskal Enpresen Ingeniaritza eta Aholkularitza Elkartea (AVIC) sortu direla 2017an, eta horrek eragina izan duela sektorean. Alde horretatik, adierazi behar da bi erakunde horiek barneratu ondoren osatutako megasektoreari buruzko informazioa ematen dela 2016. urteaz geroztik.

Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartek (GAIA) 258 enpresa izan ditu elkartekide 2017. urtean, aurreko urtean baino 21 gutxiago.

103. koadroa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn

Urtea	Enpresak
2008	231
2009	240
2010	265
2011	267
2012	260
2013	265
2014	245
2015	243
2016	254
2016*	279
2017*	258

* GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektore-ekoizpenaren datuek adierazten dute produkzioa 4.958 milioi eurokoa izan dela 2017an, aurreko urtean baino % 4,6 gehiago. Gaur egun, GAIA elkartean dauden sektoreek Euskadiko BPGren % 7 osatzen dute.

¹ Atal hau Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartek (GAIA) emandako informazioa erabiliz egin da. Informazio hori elkarteko kide diren enpresei buruzkoa da, horiek EAEko sektorearen egoera orokorraren adierazle baitira.

104. koadroa **Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

Urtea	Ekoizpena M eurotan	Δ %
2008	3.315,0	9,3
2009	3.060,0	-7,7
2010	2.994,9	-2,1
2011	2.911,0	-2,8
2012	2.742,0	-5,8
2013	2.702,1	-1,5
2014	2.768,0	2,4
2015	2.909,0	5,1
2016	3.530,0	21,3
2016*	4.742,0	--
2017*	4.958,0	4,6

* GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektoreak 2.094 milioi euroko esportazio-bolumena izan du 2017an, eta bolumen hori 2016. urtekoa baino % 6,5 handiagoa izan da. Esportazioa izan da, sektorearen garapen-bektore nagusietako bat.

Horrez gainera, kontuan izan behar da zertxobait handitu dela kanpo-salmentek ekoizpen osoan duen proportzioa: % 42,2koa izan da proportzio hori 2017. urtean, eta % 41,5koa izan zen aurreko urtean.

105. koadroa **Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn**

Urtea	Esportazioak (M euro)	Δ %	Esportazioak/ Ekoizpena
2008	749,0	6,7	22,6
2009	765,0	2,1	25,0
2010	850,0	11,1	28,4
2011	943,0	10,9	32,4
2012	1.053,0	11,7	38,4
2013	1.076,8	2,3	39,8
2014	1.084,2	0,7	39,2
2015	1.117,0	3,0	38,4
2016	1.179,6	5,6	33,4
2016*	1.966,0	--	41,5
2017*	2.094,0	6,5	42,2

* GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektorearen enplegu-datuei begiratuta, sektorearen beraren bizitasuna izan du enpleguak ere: urtetik urtera % 4,1 handitu da enplegu-bolumena 2017an, eta, guztira, 19.276 pertsonari eman die enplegua. Hori da sektoreak gure autonomia-erkidegoan bizi duen loraldiaren adierazle behinena.

106. koadroa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn

Urtea	Enpleguak	Δ %
2008	12.053	9,0
2009	12.000	-0,4
2010	11.400	-5,0
2011	11.410	0,1
2012	10.807	-5,3
2013	10.797	-0,1
2014	10.564	-2,2
2015	11.007	4,2
2016	11.447	4,0
2016*	18.517	--
2017*	19.276	4,1

* GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

I+Gko inbertsioari dagokionez, GAIAko kideek 127,5 milioi euro bideratu dituzte 2017an jarduera horiek burutzeko (sektorearen fakturazioaren % 2,6 izan da), eta urtetik urtera inbertsioak % 2,8ko igoera izan du.

Etorkizun-iragarpenak egiten hasita, GAIA elkarteak berriki aitortu du langile kualifikatuen premia izan daitekeela epe ertainean eta horrek sektorearen jarduera oztopa dezakeela, hazteko-eskaerei aurreko egiteko arazo batzuk izaten ari baitira gaur egun.

10. ERAIKUNTZA

Ekonomia-krisiak kalte ugari eragin zituen eraikuntzan; egun, berreskurapen-prozesuan dago sektorea, baina prozesu horren erritmoa motela da. Magnitude sektorial nagusiak pixkanaka hobetzen ari badira ere, 2017ko egoera ez da berdina jarduera eta lurralde guztietan. Horren ondorioz, eraikuntzaren sektorearen berreskuratzea ez dago nahi bezain gertu. Zenbait adierazlek sektoreari indarra ematen dioten bitartean, beste batzuk, bilakaera positiboa izan arren, minimo historikoetatik gertu daude. Adierazle nagusien bilakaera motela izan da eta lizitazio publikoen esleipenak igoera motela izan du; horren ondorioz, eraikuntzaren sektorearen hazkundera ekonomia guztiarena baino txikiagoa izan da, eta barne produktu gordinaren % 5 inguru osatu du (2007an, BPGren % 10 inguru zen eraikuntza-sektorea). Era berean, Seopan¹ elkarteak argitaratutako informazioaren arabera, Estatuak 114.000 milioi euro baino gehiagoko inbertsio-defizita du lehentasunezko azpiegitura publikoetan (gizartean inpaktu handia dutenetan), eta horrek sektorean eragiteaz gain, kalteak dakartzkio herrialde osoari.

107. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

(% Δ)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Espainia	
	2016	2017	2016	2017
Enplegua	-4,9	2,2	0,01	5,1
Zementuaren barne-salmentak ^(*)	-2,3	9,3	-2,7	13,5
Amaitutako etxebizitzak	-31,2	12,2	-13,3	31,0
Hasitako etxebizitzak	66,8	42,3 ^(**)	28,1	8,3 ^(**)
Lizitazio ofiziala	-22,7	84,9	-0,7	39,3

(*): *Oficemeneko enpresa elkarteak iparraldeko eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak (zakuak eta solteko salmenta).*

(**): *Txostena egin denean ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik; beraz, emandako datuen bilakaera etxebizitza babestuenak dira soilik.*

Iturria: geuk egina, ElNen, Seopanen eta Oficemenen datuetan oinarrituta.

Hori horrela, sektoreko magnitude handien lehen begirada batek esaten digu magnitude horiek gora egin dutela, bai Hego Euskal Herrian bai Espainian, eta bilakaera, oro har, hobea izan dela Espainian. Urte askoren ondoren, enpleguaren urte amaierako datuak positiboak izan dira Espainian (% 5,1eko igoera) eta Hego Euskal Herrian (% 2,2ko gorakada), baina datuak zehatzago aztertuta, ikus daiteke sektoreko gainerako adierazleek baino berreskurapen-prozesu motelagoa duela enpleguak. Zementuaren barne-salmentari begiratuta, Oficemen² elkarteak emandako datuak nabarmendu behar dira, eta datu horiek adierazten dute zementu grisaren barne-eskaerak % 9,3 egin duela

¹ Azpiegituren eraikuntza-enpresa eta enpresa kontzesionarioen elkarteak.

² Espainiako zementu fabrikatzaileen taldea.

gora Hego Euskal Herrian eta % 13,5 egin duela gora Estatu osoan (hurrenez hurren, 1,2 milioi tonakoa izan da Hego Euskal Herrian, eta 12 milioi tona ingurukoa Estatuan). Adierazle horren bilakaerak bi irakurketa ditu. Alde batetik, agerikoa da sektorea berreskuratze-prozesu batean dagoela, 2016ko balioekin alderatuta; eta bestetik, nabarmendu behar da berreskuratze-prozesu hori oso motela izaten ari dela, eta horren ondorioz, ez dela arintzen ari sektorearen egoera. Izan ere, jarduera-bolumenaren % 80 galdu du 2007az geroztik. Nabarmendu behar da, alde horretatik, obra zibilean lizitatu diren bolumenak historiako txikiak direla oraindik ere, eta obra horiek kontsumitzen dute, hain justu, zementu gehien.

Lizitazio ofiziala da hurrengo adierazlea, eta adierazle horrek ere bilakaera negatiboa izan du urte askoan; baina aurten datu positiboak izan ditu bi lurraldeetan. Hala eta guztiz ere, Hego Euskal Herrian hazkundea handiagoa izan da Estatuan baino (% 84,9 eta % 39,3 hurrenez hurren). Goranzko joera hori bera izan dute hasitako etxebizitzek; izan ere, % 42,3 egin du gora horien kopuruak Hego Euskal Herrian, eta % 8,3 egin du gora Estatuan. Bestalde, amaitutako etxebizitzek –babestuak zein libreak– igoera handiagoa izan dute Estatuan, Hego Euskal Herrian baino (Estatuan % 31ko hazkundea izan dute, eta % 12,2koa Hego Euskal Herrian).

108. koadroa Eraikuntzaren Koiunturako Indizea (EKI).

Kontzeptua	(% Δ)		
	2015	2016	2017 ^(*)
Landunen indizea	-1,7	-0,7	1,3
Produkzio-indizea	-0,1	2,4	5,6
Eraikuntza	1,8	4,9	7,7
Obra zibila	-10,0	-12,2	-8,6

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Koiunturako Indizea (EKI).

Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen arabera, 2017an, obra zibilak izan ezik, gainerako adierazle guztiek gora egin dute EAEn. Hain zuzen ere, obra zibilak % 8,6ko beherakada izan du aurtengoan, eta egoera horrek ilundu egin du gainerako adierazleek izandako bilakaera ona; izan ere, obra zibilak garrantzi handia du sektoreko jardueran. Hori horrela, produkzio-indizeak gora egin du (% 5,6); izan ere, eraikuntzaren azpisektoreak bilakaera ona izan du azken hiru urteetan, eta hazkunde-erritmoa azkartu egin da (% 1,8koa 2015ean, % 4,9koa 2016an eta % 7,7koa 2017an). Landunen indizea aztertuta, ikus daiteke indize horrek buelta eman diola 2008tik izan duen bilakaera negatiboari eta % 1,3ko igoera izan duela 2017an.

109. koadroa Lizitazio ofizialen banaketa: administrazio zentrala, autonomikoa eta tokikoa
(Meurotan)

Eremua	2016				2017 ^(*)			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	3,4	83,5	105,0	191,8	20,3	42,9	78,4	141,7
Bizkaia	163,2	124,9	168,6	456,7	81,1	122,0	316,8	519,9
Gipuzkoa	20,8	43,6	226,4	290,8	473,6	197,6	295,7	966,9
EAE	187,3	252,0	500,0	939,3	575,1	362,6	690,8	1.628,5
Nafarroa	3,0	39,1	33,5	75,5	91,4	104,5	52,6	248,6
Hego Euskal Herria	190,2	291,2	533,5	1.014,9	666,5	467,1	743,4	1.877,0
Espainia	3.146,82	2.844,18	3.254,94	9.245,95	3.827,43	3.936,63	5.110,97	12.875,03

(): Behin-behineko datuak.*
Iturria: Seopan.

Eraikuntzaren sektorearen azterketan sakontzeko, lizitazioen bilakaera eta lizitazio horiek lurraldeen arabera nola banatzen diren adieraziko dugu. 2017ko ekitaldian, % 39,3 egin du gora lizitazio-kopuruak Estatuan, eta haren bolumena 12.875 milioi eurokoa izan da. Esan behar da adierazle horiek urtetik urtera konparatzea ez dela oso adierazgarria; izan ere, nahiz eta emaitza onak lortu, lizitazio-kopurua krisiaren aurreko adierazlearen azpitik dago (% 70 gutxiago). Bestalde, Hego Euskal Herriko inbertsio-erritmoa nabarmen azkartu da 2017an. Inbertsioa, 2016an, 1.014,9 milioi eurokoa izan zen, eta 1.877 milioi eurokoa izan da 2017an. Izan ere, hazkundeak izan dira Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Bizkaian, % 13,8ko igoera eman da, 519,9 milioi euroko inbertsioa egin ondoren. Gipuzkoan, aldiz, 2010etik igoera handiena izan da, hau da, % 232,5eko hazkunde nabarmena eta 966,9 milioi euroko inbertsioa. Nafarroan ere % 229,2ko igoera handia eman da, 248,6 milioi euroko inbertsioa egin ondoren. Araban, ordea, beherako bilakaera izan da aurreko urtearekiko, (-% 26,2ko jaitsiera), eta 141,7 milioi euroko inbertsioa izan du. Horrez gainera, aipatu behar da inbertsio handienak abiadura handiko trenaren bi azpiegitura nagusitan egin direla, eta horrek eragina izan duela lurralde bakoitzak jaso duen inbertsio-kopuruan. Azpiegitura horietako bat Gipuzkoan dago, eta bestea, Nafarroan. Gipuzkoan, inbertsio handia jaso da "Euskal Y" sareko bi zatiren obra gauzatzeko; eta horrez gainera, inbertsio handia egin da Donostialdeko Metro sarea osatzeko. Bestalde, Nafarroako azpiegiturak funts ugari jaso ditu 2017an; helburua Kantauri-Mediterraneoko korridorearen parte den Zaragoza-Iruñea abiadura handiko linea eraikitzea da.

Erakunde lizitatzaileen arabera aztertzen baldin badira obra publikoen datuak, ikusten da lizitatuko bolumenek gora egin dutela EAEko eta Estatuako maila administratibo guztietan; hala ere, aldeak daude aldaketa horien nolakoan, eta horrek gorabehera handiak erakusten ditu lizitatzaileen mapan. Estatuan, Administrazio Zentralak % 21,6 handitu du lizitatutako bolumena, baina ildo orokorrari begiratuta, Administrazio horrek lizitatutako bolumenak behera egin du pixkanaka, harik eta bolumen osoaren % 29,7ra iritsi arte 2017. urtean (bolumen hori % 34koa izan zen 2016an). Gobernu Zentralaren

jarduera apaldu egin baldin bada ere, handitu egin dute inbertsio-erritmoa bai autonomia-erkidegoetako administrazioek (% 38,5eko igoera egin dute urtetik urtera eta bolumen osoaren % 30,6 izan dira) bai toki-administrazioek (% 57ko igoera egin dute eta bolumen osoaren % 39,7 izan dira). Lizitazio publikoaren mapak, beraz, ezohiko egoera bat erakusten du. Hego Euskal Herriko analisi horri berari begiratuta, ikusten da tokiko administrazioa dela indar handiena duen organo lizitatzailerik bai Hego Euskal Herrian bai Estatuan, eta lizitazioen % 39,6 egiten duela bi lurraldeetan. Hego Euskal Herrian, tokiko administrazioen lizitazioek % 39,3ko igoera izan dute 2016ko datuekiko. Gainerako administrazioek ere gorakadak izan dituzte; esate baterako, administrazio autonomikoaren inbertsioek % 60,4 egin dute gora eta bolumen osoaren % 24,9 izan dira. Bestalde, Administrazio Zentrala nabarmen igo da (% 250,4ko hazkundea izan du), eta lizitazio-jardueraren % 35,5 hartzen du. Horri lotuta, adierazi behar da, 2017an lizitazio-kopuruak jauzi kuantitatibo handia izan duela Hego Euskal Herrian, baina lizitazio-kopuru horiek krisiaren aurrekoak baino txikiagoak direla.

110. koadroa Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2017)

Eremua	%				Δ% 17/16			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	14,3	30,3	55,4	100,0	497,1	-48,6	-25,3	-26,2
Bizkaia	15,6	23,5	60,9	100,0	-50,3	-2,3	87,9	13,8
Gipuzkoa	49,0	20,4	30,6	100,0	2.176,9	353,2	30,6	232,5
EAE	35,3	22,3	42,4	100,0	207,0	43,9	38,2	73,4
Nafarroa	36,8	42,1	21,2	100,0	2.946,7	167,3	57,0	228,7
Hego Euskal Herria	35,5	24,9	39,6	100,0	250,4	60,4	39,3	84,9
Espainia	29,7	30,6	39,7	100,0	21,6	38,4	57,0	39,3

Iturria: *Seopan*.

Jarraian, lizitazio ofizialak administrazioetan nola banatzen diren adieraziko da. Lehen aipatutako datuen arabera, azpiegitura batzuek inbertsio handiak izan dituzte, eta beraz, Administrazio Zentralaren likidazio-jarduerak hazkunde nabarmena izan du lurralde jakinetan. Igoera hori aztertutako lurralde historiko guztietan eman da, Bizkaian izan ezik. Hain zuzen ere, Bizkaian behera egin du Gobernu Zentralaren lizitazio-jarduerak (-% 50,3ko beherakada), eta ez da aldaketa handirik izan administrazio autonomikoan (-% 2,3ko jaitsiera txikia). Tokiko administrazioak, aldiz, gorakada nabarmena izan du (% 87,9). Hori horrela, tokiko administrazioa da Bizkaiko organo lizitatzailerik nagusia, hark egin baititu lizitazio gehien (lizitazioen % 60,9); bigarrena administrazio autonomikoa da (% 23,5); eta, azkenik, indar gutxiagorekin, Administrazio Zentrala (lizitazioen % 15,6 egin ditu 2017an, eta lizitazioen % 35,7 egin zituen 2016an). Bestalde, Administrazio Zentralak inbertsio handia egin du Gipuzkoan eta Nafarroan. Aurreko urtean, estatuko inbertsio txikia izan zuten bi lurralde horiek, baina, aurreko urtean, estatuko lizitazioak guztizkoaren % 49 eta % 36,8 izan dira lurralde horietan, hurrenez hurren. Horrez gainera, gora egin dute

nabarmen bi lurralde horietan gainerako bi erakunde lizitatzailleek (hau da, tokiko administrazioak eta administrazio autonomikoak). Dena den, gorakada handiena administrazio autonomikoak izan du, bai Gipuzkoan (% 353,3ko hazkundea) bai Nafarroan (% 167,4ko hazkundea); tokiko administrazioak, berriz, igoera apalagoa izan du (% 30,6koa Gipuzkoan, eta % 57koa Nafarroan). Hori horrela, Nafarroako Foru Erkidegoan administrazio autonomikoa da lehena lizitatzailen mapan (% 42,1); ondoren, Administrazio Zentrala (% 36,8); eta, azkenik, tokiko administrazioa (% 21,2). Gipuzkoan, Administrazio Zentralak egin du lizitazioen gehiengoa (% 49); eta horren ondorioz, ahuldu egin da tokiko administrazioa (2016an, lizitazioen % 77,9 eta 2017an, % 30,6), eta gora egin du pixka bat administrazio autonomikoak (lizitazioen % 15 egin zuen 2016an, eta horien % 20,4 egin du 2017an). Bestalde, Araban, beherakadak izan dituzte lizitazio gehien dituzten organoek, hau da, tokiko administrazioak (-% 25,3) eta administrazio autonomikoak (-% 48,6); eta administrazio zentralak, berriz, nabarmen egin du gora (% 497,1). Administrazio-mailaren arabera lizitazioen banaketari dagokionez, tokiko administrazioak du lizitazioen gehiengoa Araban (% 55,3); eta, administrazio autonomikoak, berriz, indarra galdu du (% 43,5 egin zuen 2016an, eta % 30,3, berriz, 2017an); eta horren ondorioz, administrazio zentralaren lizitazioek gora egin dute (% 1,8 izan ziren 2016an eta % 14,4 izan dira 2017an).

111. koadroa Lizitazio ofiziala, obra-moten arabera (2017)

Obra-mota	Hego Euskal Herria			Espainia		
	M eurotan	Δ % 17/16	%	M eurotan	Δ % 17/16	%
Etxebizitzak	93,7	139,5	5,0	501,0	127,9	3,9
Gizarte-ekipamendua	261,5	46,3	13,9	2.445,3	52,1	19,0
Gainerako eraikuntza	139,7	6,2	7,4	1.647,5	16,6	12,8
Eraikuntza guztira	494,8	41,6	26,4	4.593,8	41,8	35,7
Garraioak	962,3	150,7	51,3	4.955,5	31,8	38,5
Urbanizazioak	206,0	14,5	11,0	1.629,6	42,3	12,7
Hidraulikoak	197,8	141,8	10,5	1.372,4	54,5	10,7
Ingurumena	16,2	-19,2	0,9	323,7	53,3	2,5
Obra Zibila guztira	1.382,2	107,7	73,6	8.281,2	37,9	64,3
Guztira	1.877,0	84,9	100,0	12.875,0	39,3	100,0


Iturria: Seopan.

Inbertsioak non egin diren aztertuko dugu orain, eta adierazi behar da lizitazio-inbertsioen banaketa antzekoa izan dela 2017. urtean lurralde guztietan; hala ere, ñabardura batzuk azpimarratu behar dira. Bi jarduera-azpisektore handiei begiraturaz gero, ikusten da Obra zibilak lizitazio ofizialaren % 64,3 hartzen duela Estatuan eta % 73,6 Hego Euskal Herrian. Horri lotuta, nahiz eta ekitaldi honetan % 37,9ko igoera izan, Estatuko obra zibilaren ehunekoak azken bi hamarkadetan izan diren batez bestekoetatik behera daude, % 70 ingurukoak izan baitira. Testuinguru horretan, eraikuntzak inbertsioaren gainerako % 35,7a hartzen du, eta balioak % 41,8 igo dira.

Informazioa obra-motaren arabera zehazten baldin badugu, ikusten da garraioen azpiegituretan egin dela inbertsio handiena (% 38,5), eta azpiegitura horietarako egin den inbertsio-zuzkidura % 31,8 handitu da 2017an. Haren atzetik daude Gizarte Ekipamenduak, bilakaera positiboa izan baitute (% 52,1); gainera, % 19ko ehunekoa dute bolumen osoan. Urbanizazioak eta Gainerako Eraikuntzak % 13 inguruko bolumena dute jarduera osoan, eta beren lizitazio-bolumen propioetan % 42,3ko eta % 16,6ko igoerak izan dituzte, hurrenez hurren. Aurreko bien antzerako bolumen-ehunekoa dute obra hidraulikoek (% 10,7) eta lan horiek % 54,5eko igoera izan dute. Igotzeko joera bera hori erakutsi dute Ingurumen Obrek (% 53,3), baina bolumen osoan duten ehunekoa askoz ere txikiagoa da (% 2,5).

Hego Euskal Herriko datuak aztertuko ditugu orain. Obra Zibilak jauzi kuantitatibo handia izan du; izan ere, lizitazio ofizialaren % 73,6 hartzen du (% 65,6 hartu zuen 2016an). Ehuneko horren zati handi bat garraioei dagokie (lizitazioen % 51,3), nabarmen egin baitute gora (% 150,7ko hazkundea). Joera antzekoa izan dute obra hidraulikoek (% 141,8ko igoera), baina ehuneko askoz ere txikiagoa dute lizitazio ofizialean (% 10,7). Urbanizazioek ez dute igoera handia izan gainerako azpisektoreekin alderatuta (% 14,5) eta inbertsioen % 11 jasotzen dute; ingurumen-obrek, aldiz, oso inbertsio txikia izaten dute (% 0,9), eta berriz ere bilakaera negatiboa izan dute (-% 19,2). Eraikuntzaren azpisektorean, oro har, gorakadak egon dira. Esate baterako, gizarte-ekipamenduak lortu du inbertsiorik handiena (% 13,6), eta gainera, % 46,3ko igoera izan du. Azpisektorearekin amaitzeko, etxebizitzek gora egin dute nabarmen (% 139,5eko igoera) eta gainerako eraikuntzak gorakada txiki bat izan du (% 6,2). Bi azpisektore horiek ez dute inbertsio handirik jasotzen (% 5eko eta % 7,4ko inbertsioak, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, 2016. urtean, murrizketa handiak egin ziren aurrekontuetan, eta horren ondorioz, behera egin zuen lizitazio-jarduerak Hego Euskal Herrian. Beraz, 2017ko igoerek inbertsio publikoak azpiegituretan izandako defizita konpentsatzen dute, hein handi batean.

14. grafikoa Lizitazio ofiziala



Iturria: Seopan

112. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak^(*)

(etxebizitza-kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak				Amaitutako etxebizitzak			
		2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
Araba	Babestuak	20	15	41	290	679	0	35	1
	Libreak	79	201	278	--	389	184	144	204
Bizkaia	Babestuak	1.020	760	576	829	969	1.537	1.127	264
	Libreak	1.102	750	1.715	--	1.159	1.965	914	1.089
Gipuzkoa	Babestuak	456	306	714	225	792	420	567	120
	Libreak	1.000	1.143	2.414	--	1.012	1.462	811	2.087
EAE	Babestuak	1.496	1.081	1.331	1.344	2.440	1.957	1.729	385
	Libreak	2.181	2.094	4.407	--	2.560	3.611	1.869	3.380
Nafarroa	Babestuak	406	329	214	854	1.165	425	348	227
	Libreak	636	1.068	1.664	1.767	591	560	562	1.065
Hego Euskal Herria	Babestuak	1.902	1.410	1.545	2.198	3.605	2.382	2.077	612
	Libreak	2.817	3.162	6.071	--	3.151	4.171	2.431	4.445
Espainia	Babestuak	5.898	5.306	6.787	7.348	15.046	7.931	7.118	5.465
	Libreak	32.120	45.259	57.979	--	35.226	39.891	34.351	48.853

(*): 2018ko uztailaren 23ko datuak; hasitako etxebizitza libreei buruzko informazioa ez dago eguneratuta.


Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.

Hasitako etxebizitzaren gaineko datuei buruzko xehetasunak aztertzen hasiz gero, ikusten da Hego Euskal Herriko hasitako etxebizitzaren (babestuak) eta amaitutako datuak ez direla berdinak lurralde guztietan. Hala eta guztiz ere, ekitaldia datu positiboekin amaitu dute hasitako etxebizitzek (babestuak) eta amaitutakoek (% 42,3ko eta % 12,2ko igoerak, hurrenez hurren). Hego Euskal Herrian, aurreko ekitaldian baino babes ofizialeko hasitako etxebizitza gehiago egin dira (2.198,653 gehiago); izan ere, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetatik hirutan igoerak egon dira. Hirutan bilakaera positiboa izan dute: Bizkaian (% 43,9ko igoera), Araban (% 607,3) eta Nafarroan (% 299,1). Gipuzkoan, aldiz, beherakada egon da (-% 68,5). Gauzak horrela, 2016an hasitako etxebizitzaren kopuru bera abiatu da EAEn (1.344 abiatu dira 2017an eta 1.331 abiatu ziren 2016an); Nafarroan, berriz, bilakaera hobea da (2016an 214 abiatu ziren, eta 854 abiatu dira 2017an). Eremu pribatuan, Nafarroako Foru Erkidegoan –informazioa lortu den lurralde bakarra– gora egin du hasitako etxebizitzaren bolumenak, baina ez eremu publikoan izandako indar berarekin (% 6,2ko hazkundea). Horrekin guztiarekin, iaz baino 743 etxebizitza gehiago hasi dira eraikitzen aurtan Nafarroan; guztira, 2.621 etxebizitza abiatu dira (libreak dira horien % 67).

Amaitutako etxebizitzetara begiratuta, kontrako bi joera ikusi dira 2017an: jarduera publikoak behera egin du, eta pribatuak, berriz, gora. Jarduera pribatuaren igoerak konpentsatu egin du jardun publikoaren beherakada hori. Bizkaiak izan ezik (amaitutako etxebizitzek -% 33,7ko jaitsiera izan dute), aurreko urtekoak baino emaitza hobek izan

dituzte Hego Euskal Herriko lurralde guztiek. Hain zuzen ere, Bizkaian, etxebizitza babestuek % 76,6ko beherakada izan dute; etxebizitza libreek, aldiz, % 19,1eko igoera izan dute. Hala eta guztiz ere, ez da nahikoa izan balantza orekatzeko, nahiz eta 2017an amaitutako 1.353 etxebizitzetatik 1.089 libreak izan diren. EAEko gainerako bi probintzietan, etxebizitza babestuek aurreko ekitaldiko joerari eutsi diote, hau da, -% 80 inguruko beherakada izan dute; eta etxebizitza libreek, aldiz, gora egin dute (Araban % 41,7 eta Gipuzkoan % 157). Horren ondorioz, 205 etxebizitza amaitu dira Araban, eta 2.207 Gipuzkoan. Araban amaitu diren ia etxebizitza guztiak jarduera pribatukoak dira (204 etxebizitza), bai eta Gipuzkoako gehienak ere (2.087 etxebizitza). Antzekoa izan da bilakaera Nafarroan: 1.292 etxebizitza amaitu dira guztira; horietatik, pribatuak dira 1.065. Etxebizitza babestuen kopuruak behera egin du (-% 34,8), eta libreek gora egin dute (% 89,5). Gauzak horrela, Hego Euskal Herrian 5.057 etxebizitza amaitu dira 2017an, hau da, aurreko urtean baino % 12,2 gehiago. Etxebizitza horietatik % 87,9 libreak dira. Antzekoa da joera estatuan ere: 54.318 etxebizitza amaitu dira, aurreko ekitaldian baino % 31 gehiago; eta horietatik % 89,9 libreak dira.

15. grafikoa Amaitutako etxebizitzien kopurua



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.

113. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*

Urtea	Birgaitutako etxebizitza-kopurua	Emandako diru-laguntzak (eurotan)	Batez besteko zenbatekoa
2016	11.535	15.777.000	1.367,75
2017	15.282	20.968.000	1.372,07
Δ % 17/16	32,5	32,9	0,3

(*): Diru-laguntza lortu duten birgaitutako eraikinen eta etxebizitzaren kopurua.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

EAEko etxebizitza babestuen birgaiketaren jardueraren bilakaera aztertuta, ikus daiteke 2017ko balioek nabarmen egin dutela gora, eta aurreko ekitaldiko joera positiboari eutsi zaiola, baina indar handiagoarekin. Birgaitutako etxebizitzaren kopurua % 32,5 igo da, hau da, 3.747 etxebizitza gehiago egin dira; guztira, 15.282 etxebizitza. Emandako diru-laguntzen bilakaerak ere gora egin du (% 32,9ko hazkundea), eta 20 milioi euro baino gehiagokoa izan da laguntza hori (2000. urtetik ez zuen lortzen kantitate hori). Bestalde, birgaitzeko emandako batz besteko zenbatekoa 1.372 eurokoa izan da, 2016. urtekoaren oso antzekoa.

114. koadroa Eraikuntzako langileak

(pertsonek kopuruak, milakotan)


Eremua	2015	2016	2017	Δ % 17/16
Araba	3,9	3,2	5,2	63,3
Bizkaia	28,7	30,3	27,1	-10,6
Gipuzkoa	15,3	15,7	15,7	-0,3
EAE	47,9	49,3	48,0	-2,5
Nafarroa	16,9	12,3	14,9	21,0
Hego Euskal Herria	64,8	61,5	62,9	2,2
Espainia	1.073,7	1.073,8	1.128,3	5,1

Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2011ko oinarria).

Biztanleria okupatua da, ez bairik gabe, sektore-jarduera neurtzeko beste adierazle bat. Lehen azaldutako egoerak adierazten digu adierazle batzuk suspertzen ari direla eta beste batzuk ez dutela goranzko joerarik erakutsi; hala ere, eraikuntza-sektoreak handitu egin du okupazio-tasa Espainian (% 5,1), eta Hego Euskal Herrian (% 2,2). 2017an, eraikuntzako sektorean 1.128.300 langilek egin dute lan Estatuan, eta 62.900 pertsonak Hego Euskal Herrian. Lurraldeei begiratuta, Bizkaia dituzte langile gehien (27,1 mila pertsona), nahiz eta 2017an -% 10,6 egin duen behera langile-kopuruak. Ondoren, Gipuzkoa eta Nafarroa daude (15,7 mila eta 14,9 mila pertsona, hurrenez hurren); Gipuzkoan ez da aldaketa handirik egon, baina Nafarroako Foru Erkidegoan, igoera handia eman da (2016an, -% 0,3 eta 2017an, % 21,0). Arabak dituzte langile gutxien, baina probintzia horrek izan du hazkunderik handiena (% 63,3); eta 3,2 mila langile izatetik 5,2 mila izatera pasa da. Gauzak horrela, eraikuntzaren sektoreak biztanleria okupatua duen eragina minimo historikoetan dago.

Hala eta guztiz ere, sektorea arriskuan dago oraindik; eta ohiz kanpoko gertaerarik izaten ez bada, sektorea % 3,5 igoz delako uste da Estatuan 2018-2020 aldian.

16. grafikoa Eraikuntzako langileak



Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2011ko oinarria).

11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

11.1 SARRERA

Kapitulu honetan, finantza-analisirako bi tresna klasiko aplikatzen zaizkie Hego Euskal Herriko hainbat industria-sektoreri: ratio bidezko analisia eta funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria. Horretarako behar den informazioa sektore bakoitzeko kontabilitateko egoera-orriek –balantzeek eta emaitza-kontuek– osatzen dute.

Sarrera honez gainera, hiru atal handi ditu kapituluak. Lehena metodologikoa da, eta erabilitako oinarrizko informazioa dago zehaztuta bertan. Bigarren atalean, berriz, ratioen piramidearen aplikazioan jarraitutako irizpideen berri ematen da. Azkenik, hirugarren atalak funtsen jatorriaren eta erabileraren egoera-orriaren berri ematen du. Horrenbestez, Hego Euskal Herriko industria-sektoreen analisi ekonomiko eta finantzario bat egin da, sektoreen arteko konparazioa eta estatu osoarekiko konparazio sektoriala oinarri hartuta, eta piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow librean) hartu dira erreferentzia gisa. Halaber, sektoreetako ratioen piramideak eta funtsen iturri eta erabileraren egoera-orriak erantsi dira (Hego Euskal Herrikoak zein estatu osokoak).

11.2 METODOLOGIA

Datu-bankua

Arestian adierazi den bezala, oinarrizko kontabilitate-egoerak behar dira piramidea egiteko: aztertu beharreko sektore guztien balantzeak eta emaitza-kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak bildutako informazioa – enpresa laguntzaileek betetako galdetegietan oinarritua– erabili da datu-base gisa, Hego Euskal Herriari (eskaera espezifiko egin da egoitza EAEn edo Nafarroan duten enpresen kasuan) zein estatu osoari dagokionez. Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak berak landutako urteko txostenetako informazioa erabili da; eta, horri esker, geroago tratatu ahal izateko informazio homoginoa lortu da.

Horretarako, lehenik eta behin, adierazi behar da Balantzeen Zentraleko azken informazio-basea t-2 urteari dagokiola (halaber, datu-base bakoitzak dagokion urteari eta aurreko urteari buruzko informazioa ematen du); hori dela eta, abiapuntuko informazioak urtebeteko atzerapena du, txosten honi dagokion ekitaldiarekiko. Zehazki,

2016koa da txosten hau egiteko azken base eskuragarria, eta 2015-2016 urteei buruzko informazioa ematen du.

Industria-jardueraren sektorizazioari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berriari jarraitu zaio industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu da. Zehazki, honako desagregazio sektorial hau aintzat hartu da (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria (altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik)
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduzioak
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa (makineriarena eta ekipoena izan ezik)
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

2016ko datu-basean, adierazitako 19 sektore horietako 15i buruzko informazioa dago eskuragarri Hego Euskal Herrian (honako sektore hauei buruzko informazioa falta da, estatistika-sekretua dela-eta –sektore bateko 5 enpresa laguntzaile baino gutxiago daudenean–: zuraren eta kortxoaren industria (altzariak, saskigintza eta espartzugintza

izan ezik), arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak, koke-fabrikak eta petrolio-finketa, eta farmazia-produktuen fabrikazioa). 2015ean ere 15 sektoreri buruzko informazioa zegoen eskuragarri (2016arekin alderatuta, ez zegoen honako hauei buruzko informaziorik: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa). Horrenbestez, dagokion urtean Hego Euskal Herrian zein estatu osoan eskuragarri dauden sektoreen batura da industria osorako agregatua.

Azkenik, adierazi behar da sektore bakoitzerako agregatutako egoeren datuak lortzeko oinarri izan den informazioa eskaini duten enpresek beren borondatez eman dutela informazio hori. Beraz, ezerk ez du bermatzen baseak iraungo duenik, ezta egindako analisiak sektore osorako inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa izango duenik ere.

Ratioen piramidea¹

Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitza-kontua

Kontabilitateko oinarritzko egoera-orriek osatzen dute piramidea egiteko abiapuntuko informazioa: emaitza-kontuak eta balantzeak. Informazio hori oso era sinplifikatuan eman behar da, egingo den erabilera kontuan hartuta. Izan ere, aztertutako sektore guztien ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Analisi sakonago bat egiteko eta ondorio sakonagoak ateratzeko, informazio bereziagoa eta eduki gehiago behar dira.

Emaitza-kontuari dagokionez, honako koadro honetan agertzen den eskema erabiliko da:

+	Ustiapenaren ohiko diru-sarrerak	V
-	Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin	CV
-	Kostu finko operatiboak, ordainketarekin	CF
-	Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak)	AM
-	Interesak	I
±	Ezohiko emaitzak	RE
-	Sozietateen gaineko zerga	IS
=	Mozkin garbia	BN

Balantzeari dagokionez, pasiboaren barruan kostu esplizitua eta ondare garbia duten kanpoko funtsak bereziko ditugu (2007ko KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboaren barruan, honako hauek aztertuko ditugu: aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzaila garbia (aktibo korronte garbia), hau da, berezko pasiboak (negozioaren operatiboak berak sortutako pasiboak; esate baterako,

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167. zenbakia, 1999ko abuztua, 329-359 or.

administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) kendu zaizkion aktibo zirkulatzaila, eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua goiz ordaintzeagatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia.

AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA	EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN
	EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK
AKTIBO FINKOA	ONDARE GARBIA

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu jakingarri batzuk azalduko ditugu.

Leverage operatiboa

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarria behar da:

MB= Marjina gordina. Ohiko diru-sarreraren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak kostu aldakorrak soilik estalita uzten duen marjina adierazten du:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAll = Interesen eta zergen aurreko mozkin. Ohiko diru-sarreraren eta kostu operatiboaren (aldakorrak eta finkoak, ordaintzarekin eta ordaintzarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAll = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordaintzarekin eta ordaintzarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den

salmenta-zifra da, eta bat dator $BAll = 0$ baten salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla jotzen badugu (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$\begin{aligned}
 BAll = 0 &= MB - (CF + AM) \\
 MB &= (CF + AM) \\
 \frac{MB}{V} \cdot V &= MBP \cdot V = (CF + AM) \\
 V = VPM &= \frac{CF + AM}{MBP}
 \end{aligned}$$

Eta, horrenbestez, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko gara:

$$\begin{aligned}
 BAll = MB - (CF + AM) &= \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM \\
 BAll &= MBP \cdot (V - VPM)
 \end{aligned}$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finko konstante batzuekin), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (palanka-efektua).

Leverage finantzarioa

Funts propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa jasotzen du. Formulazio matematikoa egiteko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

$t =$ Zerga-tasa

$BAlDl =$ Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAlDl = BAll \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez badago¹, $BAlDl$ -i zergen interes garbiak kentzearen emaitza da mozkin garbia:

$$BN = BAlDl - I \cdot (1 - t)$$

¹ Gero aztertuko ditugu ezohiko emaitzekin lotutako gorabeherak.

Ondoren, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

$r =$ Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, nola finantzatzen den aintzat hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboa bat datorrela aktibo zirkulatzaileraren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

$i =$ Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, bidezko interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezpena kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA} \text{ } ^1$$

$e =$ Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$


Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

$$e = r + (r - i) \frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i) \frac{FA}{PN}$$

$e =$ Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo laukian, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarritzko piramidea ikus daiteke.

¹ FA esaten diogu FACPre eta FALPre baturari, errazte aldera. Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da FACPk kostu esplizitua duten epe laburreko kanpoko funtsak soilik biltzen dituela, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiak.




Goi-erpinen, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa -hots, inbertsioa eta finantzaketa- bereiztean datza piramidearen oinarrian dagoen filosofia. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua gorabehera, hau da, finantza-egitura kontuan hartu gabe; eta eskuineko adarrak, berriz, finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari leverage finantzarioaren bidez egiten dion ekarpena kalkulatzeko.

Beste kontu bat ere aipatu behar da: piramidearen analisisian ezohiko emaitzei emango zaien tratamendua. Normalean, emaitza horien errekurrentzia galdetzen da enpresetan aplikatutako analisisian. Emaitzak errekurrenteak eta, beraz, neurri batean aurreikusgarriak badira, "r" gisa txerta daitezke piramidean, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulaturik, ala bi kalkulaturik: ohiko errendimendua eta ezohikoa.

Dena dela, analisi sektorialari begira, eta emaitzen izaera errekurrentea finkatzeko ezintasuna dela-eta, atal honen amaieran erantsitako taulan irudikatutako soluzioari jarraituko diogu sektore bakoitzean. Lauki horretan, "e" gisa txertatzen dira, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereizten dira: ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3). Garbi dago azken adar hori kontuan hartzearen arrazoia: maila agregatutan, zerga sektorialen zifrek (T) distortsiona dezakete e1 ratioa (hau da, sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen duena). Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komun bat hartu dugu sektore guztietarako, eta zerga horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapitulua amaieran, aztertutako industria-sektore guztien ratioen piramideak erantsi ditugu, Hego Euskal Herria zein estatu osoa kontuan hartuta, 2015eko eta 2016ko datuen arabera. Dena dela, eraginkortasun-arazoak direla-eta, piramideko ratioerik garrantzitsuenak hautatu dira berezko analisi sektorial ekonomiko eta finantzarioari buruzko hurrengo atalean.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu dira Hego Euskal Herriko industria-sektoreen analisisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien analisi xehatua egin da, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta osagaiak: $BAID/V$ eta $V/(AF+ACN)$) eta leverage finantzarioarena $((r-i) \times (FA/PN))$ eta horren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreak alderatzeko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta haren osagaiak hautatu dira: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa $((r-i) \times (FA/PN))$.



Funtsen iturri eta erabileren egoera¹

Ratioen piramidearen kasuan mozkinen oinarrituta egiten den analisi ekonomikoaren orde, analisirako bigarren tresnak finantza-alderdia du ardatz, hau da, funtsen kutxaren edo fluxuen ikuspegia. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra egiten da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko inbertsio-diruzaintza, sektoreko aktiboak –haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe– askatzen dituen euroekin bat datorrena. “Free cash-flow” izen anglosaxoa ezagunagoa da. Erraz kalkulatu da; ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkio, eta, ondoren, aktibo zirkulatzailerik gabian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko kanpoko funtsen diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko ondare garbiaren diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak askatzen dituenean (TINV>0) kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako askatzen dira. Aktiboak berez bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek horretarako dirua jarri beharko dute. Azken batean, zero balioa finantza-orekaren sinonimoa da, eta inoiz ez da interpretatu behar sektorearen osasun-adierazgarri gisa.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko, ratioen piramidean zerga agregatuen zifrei emandako tratamendua hartu behar da kontuan. Horrela, beraz, % 28,5eko tasa orokorra joko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldiari izandako funtsen ezohiko sorkuntzara eramango ditugu. Adierazi beharra dago, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatu dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batean egiteko.

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): “El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero”, *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zenbakia, 2002ko iraila-urria, 18-28 or.

+ V _t	Ohiko salmentak
- C _t	Kostu operatiboak, ordainketarekin
- AM _t	Amortizazioa
= BAII _t	Interesen eta zergen aurreko mozkina
* (1-t)	Zerga-eragina (t = zerga-tasa = 0,285)
= BAIdI _t	Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina
+ AM _t	Amortizazioa
- IF _t	Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenerako diru-laguntzak + ibilgetu-lanak)
+ GFO _t	Funtsen sorkuntza operatiboa
+ RE _t	Ezohiko emaitzak
* (1-t)	Zerga-eragina (t = 0,285)
= REDl _t	Zergen ondorengo ezohiko emaitzak
+ EF _t	Zerga-ondorioa: (0,285 - t efektiboa) * Zergen aurreko mozkina
+ GFE	Funtsen ezohiko sorkuntza
+ ACN _{t-1}	Hasierako aktibo zirkulatzaille garbia
- ACN _t	Amaierako aktibo zirkulatzaille garbia
- ΔACN _t	Aktibo zirkulatzaille garbiaren gehikuntza
- INV _t	Aktibo finkoko inbertsioa (Δ AF garbia + AM - Ibilgetu-eragiketak)
+ TINV _t	Diruzaintza-fluxua, inbertsio-erabakiak
+ EFA _t - AFA _t	Kostua duten kanpoko funtsen jaulkipena, amortizazioa kenduta
+ I _t	Kanpoko funtsen interesak
* (1-t)	Zerga-eragina (t = 0,285)
- (1-t) * I _t	Funtsen detrakzioa interesen ondorioz
+ TFA _t	Diruzaintza-fluxua, kanpoko funtsekin finantzatzeko erabakiak
+ TPN _t	Diruzaintza-fluxua, ondare garbiarekin finantzatzeko erabakiak (Δ PN - BN + ustiap. diru-laguntzak)
= 0	= 0

Bestalde, arestian adierazi dugunez, sektore bati buruzko informazioa osatzen duten enpresen laginak ez du zertan denboran berdin iraun behar. Horregatik, eta urte guztietarako serie homogeen bat sortzeko helburuarekin, sektore bakoitzeko batez besteko funtsen jatorri eta erabileren egoera-orriak aurkeztuko ditugu ondoren. Batezbestekoak honela kalkulatu dira: kontzeptu guztiak zati lagina osatzen duten enpresen kopurua.

Kasu honetan, aztertutako industria-sektore guztietarako funtsen iturri eta erabileren egoerak ere erantsi ditugu kapituluaren amaieran, Hego Euskal Herria zein estatu osoa aintzat hartuta, 2015eko eta 2016ko datuen arabera. Dena dela, eraginkortasun-arazoak direla-eta, balio garrantzitsuenak (TINV, TFA eta TPN) hautatu dira, funts sektorialen jatorri eta erabileren egoera-orriak berariaz aztertzen dituen azken atalean.

115. koadroa Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralaren enpresa laguntzaileen kopurua

SEKTOREA	Hego Euskal Herria	Estatua
	2016	2016
Nekazaritzako elikagaiak	29	438
Ehunak, jantziak eta larrua	5	184
Papera	7	70
Kimika	8	154
Kautxua eta plastikoa	17	118
Mineral ez-metalikoak	8	113
Metalurgia	26	87
Produktu metalikoak	48	269
Produktu informatikoak	10	44
Material eta ekipo elektrikoa	10	64
Makineria eta ekipoa	37	191
Ibilgailu motordunak	20	106
Beste garraio-material batzuk	7	32
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	10	91
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	8	73
Industria, guztira	250	2.034

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

11.3 RATIOEN PIRAMIDEA

2016ko ekitaldiko azken datu eskuragarriak kontuan hartuta, eta lehenik eta behin ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, desberdintasun esanguratsuak daude Hego Euskal Herrian aztertutako industria-sektoreen artean. Zehazki, honako alderdi hauek aipatu behar dira:

- 2016an ondare garbiaren errentagarritasunik handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 29,8), kimika (% 15,0), nekazaritzako elikagaiak (% 13,8), eta kautxua eta plastikoa (% 13,3).
- Eraitza moderatuagoak izan dituzte honako sektore hauek, ondare garbiaren errentagarritasuna industria osoaren batezbestekoa baino handiagoa izan arren (% 8,4tik gorakoa, alegia): ehunak, jantziak eta larrua (% 12,7), ibilgailu motordunak (% 12,4), makineria eta ekipoa (% 10,7), produktu metalikoak (% 10,3), eta material eta ekipo elektrikoa (% 9,7).
- Azkenik, ondare garbiaren errentagarritasuna batezbestekoaren azpitik izan dute gainerako sektoreek: papera (% 7,3), altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 5,1), beste garraio-material batzuk (% 4,8), mineral ez-metalikoak (-% 0,3), metalurgia (-% 1,3), eta produktu informatikoak (-% 21,2).

Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisiak, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) bereizita, 2016ko ekitaldiko honako alderdi hauek nabarmentzen ditu:

- Oro har, eta espero zenez, ondare garbiaren errentagarritasuna ohiko errentagarritasunean oinarrituta dago nagusiki; ezohikoa (e2 eta e3), berriz, osagarria da batez ere.
- Dena dela, azpimarratu behar da, alde batetik, berariaz ezohikoa den ondare garbiaren errentagarritasuna (e2) negatiboa izan dela sektore hauetan: produktu informatikoak (-% 16,5), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-% 5,7), mineral ez-metalikoak (-% 3,5), material eta ekipo elektrikoa (-% 2,3), makineria eta ekipoa (-% 1,8), ibilgailu motordunak (-% 1,4), beste garraio-material batzuk (-% 0,9), altzariak eta beste manufaktura batzuk (-% 0,8), nekazaritzako elikagaiak (-% 0,8), kautxua eta plastikoa (-% 0,5) eta metalurgia (-% 0,4). Zerrenda horren hasierako sei sektoreak batezbestekoaren azpitik daude (-% 1,1en azpitik, alegia). Bestalde, aipagarriak dira sektore hauen emaitza positiboak: kimika (% 3,8), ehunak, jantziak eta larrua (% 3,2), eta produktu metalikoak (% 1,3).
- Azpimarratu behar da, halaber, zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasuna (e3) handia izan dela (% 1,3ko batezbestekoa baino handiagoa) honako sektore hauetan: kautxua eta plastikoa (% 3,1), nekazaritzako elikagaiak (% 2,7), kimika (% 2,6), makineria eta ekipoa (% 2,4), beste garraio-material batzuk (% 2,2), ehunak, jantziak eta larrua (% 1,4), eta produktu metalikoak (% 1,4).

116. koadroa Ondare garbiaren errentagarritasuna Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	e (%)		e1 (%)		e2 (%)		e3 (%)	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Nekazaritzako elikagaiak	11,6	13,8	9,3	11,9	0,6	-0,8	1,6	2,7
Ehunak, jantziak eta larrua	--	12,7	--	8,1	--	3,2	--	1,4
Papera	10,1	7,3	8,9	6,3	-0,3	0,0	1,5	1,1
Kimika	-22,5	15,0	11,9	8,6	-36,0	3,8	1,6	2,6
Kautxua eta plastikoa	16,7	13,3	8,9	10,7	3,7	-0,5	4,1	3,1
Mineral ez-metalikoak	-8,1	-0,3	-5,4	4,9	1,3	-3,5	-3,9	-1,7
Metalurgia	-3,5	-1,3	-3,7	0,4	0,2	-0,4	0,1	-1,3
Produktu metalikoak	9,3	10,3	8,1	7,6	-0,3	1,3	1,5	1,4
Produktu informatikoak	-0,6	-21,2	-1,7	4,9	3,1	-16,5	-2,1	-9,6
Material eta ekipo elektrikoa	8,7	9,7	16,3	10,7	-9,3	-2,3	1,8	1,3
Makineria eta ekipoa	9,7	10,7	7,6	10,1	0,3	-1,8	1,7	2,4
Ibilgailu motordunak	9,8	12,4	10,7	13,1	-1,9	-1,4	1,0	0,7
Beste garraio-material batzuk	--	4,8	--	3,5	--	-0,9	--	2,2
Altzariak eta beste manufak. batzuk	12,4	5,1	1,9	5,0	7,8	-0,8	2,7	0,8
Mak. eta ekipoen konpon. eta instal.	20,2	29,8	20,3	34,2	-0,3	-5,7	0,2	1,3
Industria, guztira	7,6	8,4	7,4	8,2	-1,0	-1,1	1,2	1,3

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren, bai ohikoa (e1) bai ezohikoa (e2 eta e3) barnean hartuta, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) finkatzen duten osagaien analisi zehatzagoa egingo dugu; hots, aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)) aztertuko ditugu.

117. koadroa Aktibo garbiaren errentagarritasuna Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	r (%)		BAIdI / V (%)		V / (AF + ACN)	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Nekazaritzako elikagaiak	7,5	6,4	5,9	6,6	1,273	0,962
Ehunak, jantziak eta larrua	--	7,1	--	3,6	--	1,990
Papera	8,3	4,5	5,6	4,8	1,483	0,947
Kimika	9,4	8,0	5,5	7,1	1,702	1,126
Kautxua eta plastikoa	7,2	8,8	5,5	6,6	1,320	1,344
Mineral ez-metalikoak	0,6	3,7	2,2	4,3	0,264	0,865
Metalurgia	-1,2	1,3	-0,8	0,8	1,468	1,640
Produktu metalikoak	5,5	5,4	4,7	4,5	1,157	1,199
Produktu informatikoak	1,0	3,4	1,0	2,4	1,012	1,379
Material eta ekipo elektrikoa	6,5	5,6	5,9	7,5	1,093	0,745
Makineria eta ekipoa	6,5	8,5	4,0	6,6	1,596	1,289
Ibilgailu motordunak	7,9	9,9	2,9	3,3	2,727	2,962
Beste garraio-material batzuk	--	3,3	--	4,3	--	0,780
Altzariak eta beste manufak. batzuk	1,9	4,2	1,9	3,6	0,957	1,164
Mak. eta ekipoen konpon. eta instal.	13,1	17,1	3,6	4,6	3,665	3,703
Industria, guztira	5,4	5,6	3,9	4,4	1,387	1,274

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Lehenik eta behin, aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, honako alderdi hauek aipa daitezke 2016an aztertutako Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- 2016an, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasuna funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia izan da berriz ere, leverage finantzarioaren indar txikiaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, leverage finantzarioaren ekarpena handiagoa izan da aurtengoan, ia sektore guztietan positiboa izan baita (alderdi hori geroago aztertuko dugu zehazki, osagai horren analisia egitean).
- Horiek horrela, 2016an aktibo garbiaren errentagarritasunik handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 17,1), ibilgailu motordunak (% 9,9), kautxua eta plastikoa (% 8,8), makineria eta ekipoa (% 8,5), kimika (% 8,0), ehunak, jantziak eta larrua (% 7,1), nekazaritzako elikagaiak (% 6,4), eta material eta ekipo elektrikoa (% 5,6), azken hori industria osoaren batezbestekoaren parekoa. Batezbestekotik behera dauden aktibo garbiaren errentagarritasunak dituzte honako sektore hauek: produktu metalikoak (% 5,4), papera (% 4,5), altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 4,2), mineral ez-metalikoak (% 3,7), produktu informatikoak (% 3,4), beste garraio-material batzuk (% 3,3), eta metalurgia (% 1,3).

- Aktibo garbiaren errentagarritasuna finkatzen duten osagaiak kontuan hartuta, eta lehenik eta behin BAId/V ratioa (ustiapenaren ohiko diru-sarreraren interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkinaren ehunekoak) aztertuta, azpimarratu behar da maila handia lortu dutela honako sektore hauek: material eta ekipo elektrikoa (% 7,5), kimika (% 7,1), nekazaritzako elikagaiak, kautxua eta plastikoa, eta makineria eta ekipoa (azken hiru sektore horiek % 6,6), papera (% 4,8), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 4,6), eta produktu metalikoak (% 4,5). Aitzitik, industriaren batezbestekoa (% 4,4) baino beherago daude honako sektore hauek: mineral ez-metalikoak eta beste garraio-material batzuk (biak % 4,3), ehunak, jantziak eta larrua, eta altzariak eta beste manufaktura batzuk (biak % 3,6), ibilgailu motordunak (% 3,3), produktu informatikoak (% 2,4), eta metalurgia (% 0,8).
- Ustiapenaren ohiko diru-sarreraren eta aktibo garbiaren arteko harremana neurtzen duen V/(AF+ACN) ratioari dagokionez, honako sektore hauetan lortutako maila handia azpimarratu behar da: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (3,703), ibilgailu motordunak (2,962), eta ehunak, jantziak eta larrua (1,990). Hiru sektore horiek daude, argi eta garbi, batezbestekoaren gainetik (1,274). Hala ere, horren azpitik daude sektore gehienak. Horien artean nabarmendu behar dira batezbestekoaren oso azpitik dauden sektore hauek: material eta ekipo elektrikoa (0,745), beste garraio-material batzuk (0,780) eta mineral ez-metalikoak (0,865).

118. koadroa Leverage finantzarioa Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	$(r - i) \times (FA / PN) (\%)$		$(r - i)$		FA / PN (%)	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Nekazaritzako elikagaiak	1,8	5,6	0,063	0,055	28,9	101,0
Ehunak, jantziak eta larrua	--	1,0	--	0,053	--	18,9
Papera	0,6	1,7	0,073	0,034	7,7	51,4
Kimika	2,5	0,6	0,060	0,065	41,8	9,3
Kautxua eta plastikoa	1,7	1,8	0,058	0,078	28,9	23,9
Mineral ez-metalikoak	-6,0	1,1	-0,029	0,024	207,8	47,1
Metalurgia	-2,5	-0,8	-0,037	-0,009	66,6	87,5
Produktu metalikoak	2,6	2,2	0,034	0,035	77,2	62,5
Produktu informatikoak	-2,6	1,6	-0,051	0,013	51,6	119,1
Material eta ekipo elektrikoa	9,8	5,1	0,049	0,040	201,2	125,8
Makineria eta ekipoa	1,2	1,6	0,038	0,062	31,2	26,1
Ibilgailu motordunak	2,8	3,2	0,062	0,083	44,8	39,0
Beste garraio-material batzuk	--	0,2	--	0,002	--	109,3
Altzariak eta beste manufak. batzuk	0,1	0,9	0,002	0,024	33,9	36,1
Mak. eta ekipoen konpon. eta instal.	7,2	17,0	0,121	0,155	59,7	109,7
Industria, guztira	2,0	2,6	0,031	0,036	66,3	71,6

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez $((r - i) \times (FA / PN))$, 2016an honako alderdi hauek azpimarra daitezke Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Arestian esan dugunez, leverage finantzarioak, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasunak baino proportzio txikiagoa du ondare garbiaren errentagarritasunean, baina 2016an ekarpen horrek gora egin du. Testuinguru horretan, nabarmena da sektore hauetan lortutako maila handia: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 17,0), nekazaritzako elikagaiak (% 5,6), material eta ekipo elektrikoa (% 5,1), eta ibilgailu motordunak (% 3,2). Horiek guztiek gainditu dute industria osoaren batezbestekoa (% 2,6). Batezbestekoaren azpitik, balio negatiboa duen sektore bakarra dago: metalurgia (-% 0,8).
- Leverage finantzarioa finkatzen duten osagaiei dagokionez, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren (r-i) arteko diferentzia aztertuta, azpimarratu behar da honako sektore hauetan lortutako maila handia: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,155) eta ibilgailu motordunak (0,083), biak ere industria osoaren 0,036ko batezbestekoaren oso gainetik. Balio negatiboarekin eta batezbestekoaren azpitik, berriz, metalurgia dago (-0,009).
- Azkenik, zorpetze-maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek osatzen duten ondare garbiaren ehunekoa), sektore hauek gailendu dira: material eta ekipo elektrikoa (% 125,8), produktu informatikoak (% 118,1), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 109,7), beste garraio-material batzuk (% 109,3) eta nekazaritzako elikagaiak (% 101,0). Beste muturrean daude zorpetze-maila txikiena duten sektoreak: kimika (% 9,3), ehunak, jantziak eta larrua (% 18,9), kautxua eta plastikoa (% 23,9) eta makineria eta ekipoa (% 26,1). Nolanahi ere, adierazi behar da sektore gehienak (9 sektore, zehazki) % 71,6ko batezbestekoaren azpitik daudela, zorpetzeari dagokionez.

119. koadroa Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreen alderaketa, 2016


SEKTOREA	e1 (%)		r (%)		(r - i) x (FA / PN) (%)	
	Hego EH	Estatua	Hego EH	Estatua	Hego EH	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	11,9	10,5	6,4	6,6	5,6	3,9
Ehunak, jantziak eta larrua	8,1	9,2	7,1	7,1	1,0	2,1
Papera	6,3	8,1	4,5	6,2	1,7	1,9
Kimika	8,6	13,5	8,0	9,7	0,6	3,8
Kautxua eta plastikoa	10,7	20,8	8,8	13,2	1,8	7,6
Mineral ez-metalikoak	4,9	5,4	3,7	4,2	1,1	1,2
Metalurgia	0,4	8,3	1,3	5,8	-0,8	2,6
Produktu metalikoak	7,6	11,9	5,4	8,1	2,2	3,8
Produktu informatikoak	4,9	5,1	3,4	4,0	1,6	1,1
Material eta ekipo elektrikoa	10,7	11,3	5,6	7,1	5,1	4,2
Makineria eta ekipoa	10,1	15,5	8,5	12,0	1,6	3,5
Ibilgailu motordunak	13,1	12,3	9,9	8,1	3,2	4,3
Beste garraio-material batzuk	3,5	-9,1	3,3	0,0	0,2	-9,1
Altzariak eta beste manufak. batzuk	5,0	7,4	4,2	5,8	0,9	1,6
Mak. eta ekipoen konpon. eta instal.	34,2	11,9	17,1	8,1	17,0	3,8
Industria, guztira	8,2	10,3	5,6	6,7	2,6	3,7

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Azkenik, Hego Euskal Herriko industria-sektoreen ekonomia- eta finantza-egoera eta estatuko industria-sektoreena konparatzeari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:


- 2016an, zenbait sektoretan (nekazaritzako elikagaiak, ibilgailu motordunak, beste garraio-material batzuk, eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa) funts propioen ohiko errentagarritasuna (e1) handiagoa izan da Hego Euskal Herrian estatuan baino. Gainerako sektoreetan, berriz, alderantziz izan da.
- Aktibo garbiaren errentagarritasunari erreparatuta, estatu osokoa baino handiagoa da sektore hauetan: ibilgailu motordunak, beste garraio-material batzuk, eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Leverage finantzarioaren kasuan ere, Hego Euskal Herrian handiagoa izan da beste garraio-material batzuetan, eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioan, bai eta nekazaritzako elikagaietan, eta material eta ekipo elektrikoetan ere.

17. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) hego Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2016



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

18. grafikoa Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) alderaketa, 2016



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

11.4 FUNTSEN ITURRI ETA ERABILEREN EGOERA

2016ko ekitaldiko azken datu eskuragarrien arabera, eta lehenik eta behin inbertsio-diruzaintza (TINV) kontuan hartuta (*free cash-flow*, hau da, aktiboak -haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe- askatzen dituen euroak), desberdintasun esanguratsuak daude Hego Euskal Herrian aztertutako industria-sektoreen artean. Zehazki, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- 2016an inbertsio-diruzaintzarik handiena izan duen sektorea beste garraio-material batzuen izan da (21,22 milioi euro enpresa bakoitzeko); horren atzetik, honako hauek daude: ibilgailu motordunak (8,51), nekazaritzako elikagaiak (4,94), kautxua eta plastikoa (3,95), eta makineria eta ekipoa (2,59). Bost sektore horien inbertsio-

diruzaintza askoz ere handiagoa izan da industria osoarena baino (1,53 milioi euro batez beste enpresa bakoitzeko).

- Industria osoaren batezbestekoaren azpitik, baina balio positiboekin, honako sektore hauek daude: altzariak eta beste manufaktura batzuk (0,96), kimika (0,82), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,61), eta ehunak, jantziak eta larruak (0,37). Bestelako joera izan dute, ordea, honako sektore hauek: mineral ez-metalikoak (-0,07), produktu metalikoak (-0,11), papera (-0,92), produktu informatikoak (-1,25), metalurgia (-6,33) eta, batez ere, material eta ekipo elektrikoa (-7,61). Horiek guztiek, industriaren batezbestekoaren azpitik egoteaz gainera, balio negatiboak izan dituzte.

120. koadroa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan

*(M eurotan)**

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Nekazaritzako elikagaiak	4,38	4,94	-2,32	-0,57	-2,07	-4,37
Ehunak, jantziak eta larrua	--	0,37	--	-0,25	--	-0,12
Papera	7,41	-0,92	-1,54	3,96	-5,87	-3,04
Kimika	1,48	0,82	-4,49	-0,66	3,01	-0,16
Kautxua eta plastikoa	5,81	3,95	-1,31	0,10	-4,50	-4,05
Mineral ez-metalikoak	5,32	-0,07	-4,26	0,62	-1,06	-0,56
Metalurgia	4,40	-6,33	-10,79	-1,07	6,39	7,40
Produktu metalikoak	0,61	-0,11	-0,15	0,52	-0,46	-0,41
Produktu informatikoak	21,55	-1,25	-19,41	1,03	-2,13	0,22
Material eta ekipo elektrikoa	-2,45	-7,61	2,80	3,87	-0,35	3,74
Makineria eta ekipoa	1,20	2,59	-1,15	-0,85	-0,05	-1,73
Ibilgailu motordunak	1,58	8,51	4,66	-2,18	-6,23	-6,32
Beste garraio-material batzuk	--	21,22	--	-22,45	--	1,23
Altzariak eta beste manufak. batzuk	-0,28	0,96	0,10	-0,13	0,19	-0,84
Mak. eta ekipoen konpon. eta instal.	0,22	0,61	0,55	-0,10	-0,77	-0,50
Industria, guztira	2,68	1,53	-1,92	-0,71	-0,76	-0,82

()*: Batezbesteko sektorialak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Kanpoko funtsen diruzaintza (TFA), sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz funtsen sarreren eta irteeren artean ageri den diferentzia adierazten duena, aintzat hartuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2016an:

- Saldo handienak sektore hauei dagozkie: papera (3,96 milioi euro enpresa bakoitzeko), material eta ekipo elektrikoa (3,87) eta produktu informatikoak (1,03). Horiek guztiek aise gainditzen dute industriaren batezbestekoa (-0,71 milioi euro enpresa bakoitzeko). Halaber, aipatzekoak dira saldo positiboa duten sektore hauek: mineral ez-metalikoak (0,62), produktu metalikoak (0,52), eta kautxua eta plastikoa (0,10).

- Saldo negatiboa izan arren, batezbestekoaren gaineratik nabarmendu dira sektore hauek: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-0,10 milioi euro enpresa bakoitzeko), altzariak eta beste manufaktura batzuk (-0,13), nekazaritzako elikagaiak (-0,57), eta kimika (-0,66). Bestalde, batezbestekoaren oso azpitik daude -eta, beraz, balio negatiboekin- ibilgailu motordunak (-2,18) eta beste garraio-material batzuk (-22,45).

Azkenik, ondare garbiaren diruzaintza (TPN), sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz funtsen sarreraren eta irteeren artean ageri den diferentzia adierazten duena, aintzat hartuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2016an:

- Saldorik handienak honako sektore hauek izan dituzte: metalurgia (7,40 milioi euro enpresa bakoitzeko, 2015ean lortutako 6,39 milioiko saldoa areagotuta), material eta ekipo elektrikoa (3,74) eta beste garraio-material batzuk (1,23). Hiru sektore horiek alde handia atera diete gainerako sektoreei, eta aise gaintitzen dute industria osoaren batezbestekoa (-0,82 milioi euro enpresa bakoitzeko).
- Nabarmendu behar da beste sektore bat baino ez dagoela saldo positiboarekin: produktu informatikoena (0,22 milioi euro enpresa bakoitzeko). Gainerakoek saldo negatiboak izan dituzte, eta bereziki azpimarratzekoak dira honako hauek: papera (-3,04 milioi euro enpresa bakoitzeko), kautxua eta plastikoa (-4,05), nekazaritzako elikagaiak (-4,37) eta ibilgailu motordunak (-6,32).

121. koadroa Hego Euskal Herriko eta estatuko industria-sektoreen alderaketa, 2016

(M eurotan)*

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	Hego EH	Estatua	Hego EH	Estatua	Hego EH	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	4,94	5,02	-0,57	-2,63	-4,37	-2,39
Ehunak, jantziak eta larrua	0,37	0,41	-0,25	-0,12	-0,12	-0,29
Papera	-0,92	2,63	3,96	1,55	-3,04	-4,18
Kimika	0,82	7,97	-0,66	-3,34	-0,16	-4,63
Kautxua eta plastikoa	3,95	2,06	0,10	1,04	-4,05	-3,10
Mineral ez-metalikoak	-0,07	1,72	0,62	-0,13	-0,56	-1,59
Metalurgia	-6,33	3,47	-1,07	-4,76	7,40	1,30
Produktu metalikoak	-0,11	0,69	0,52	-0,14	-0,41	-0,54
Produktu informatikoak	-1,25	0,30	1,03	-0,07	0,22	-0,22
Material eta ekipo elektrikoa	-7,61	15,68	3,87	-9,06	3,74	-6,62
Makineria eta ekipoa	2,59	1,67	-0,85	0,06	-1,73	-1,72
Ibilgailu motordunak	8,51	16,28	-2,18	-9,04	-6,32	-7,24
Beste garraio-material batzuk	21,22	-13,39	-22,45	17,54	1,23	-4,15
Altzariak eta beste manufak. batzuk	0,96	0,40	-0,13	0,12	-0,84	-0,52
Mak. eta ekipoen konpon. eta instal.	0,61	-0,37	-0,10	0,12	-0,50	0,25
Industria, guztira	1,53	3,57	-0,71	-1,41	-0,82	-2,15

(*): Batezbesteko sektorialak.


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

Amaitzeko, Hego Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoera eta estatukoa alderatuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2016an:

- 2016an honako sektore hauek inbertsio-diruzaintza (TINV) handiagoa izan dute Hego Euskal Herrian estatuan baino: beste garraio-material batzuk, makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa, kautxua eta plastikoa, makineria eta ekipoa, eta altzariak eta beste manufaktura batzuk. Aldea oso nabarmena izan da, batez ere, lehenengo bi sektoreetan.
- Kanpoko funtsen diruzaintza (TFA) kontuan hartuta, berriz, honako sektore hauetan handiagoa da Hego Euskal Herrian estatuan baino: papera, mineral ez-metalikoak, produktu metalikoak, produktu informatikoak, eta material eta ekipo elektrikoa. Gauza bera gertatzen da beste sektore batzuetan (nekazaritzako elikagaiak, kimika, metalurgia eta ibilgailu motordunak), baina kasu horietan diruzaintzak balio negatiboak ditu.
- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintza (TPN) dela eta, antzeko zerbait gertatzen da, eta sektoreen erdiak baino gehiagok ondare garbiaren diruzaintza handiagoa dute Hego Euskal Herrian estatuan baino.

19. grafikoa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Hego Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2016

(Meurotan)*




(*): Batezbesteko sektorialak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

20. grafikoa Inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxua Hego Euskal Herriko eta estatu osoko industria-sektoreetan, 2016ko alderaketa

(M eurotan)*




(*): Batezbesteko sektorialak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




122. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


123. koadroa Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




124. koadroa Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


125. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




126. koadroa Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


127. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




128. koadroa Metalurgiaren sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


129. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




130. koadroa Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


131. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramideia



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




132. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


133. koadroa Ibilgailu motorduneren, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




134. koadroa Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.


135. koadroa Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.




136. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

137. koadroa Industria osoaren ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

138. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria-sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua		
	2015	2016	2015	2016	
	+ V_t	46,79	72,66	83,04	85,24
	- C_t	41,49	63,14	74,75	76,34
	- AM_t	1,44	2,80	2,40	2,48
	= $BAll_t$	3,86	6,72	5,90	6,43
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	= $BAlld_t$	2,76	4,81	4,22	4,60
	+ AM_t	1,44	2,80	2,40	2,48
	- IF_t	0,13	0,15	0,12	0,14
+ GFOt		4,07	7,46	6,49	6,93
	+ REt	0,25	-0,43	-0,12	-0,78
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	= $REdIt$	0,18	-0,31	-0,08	-0,56
	+ EFt	0,47	1,02	0,34	0,23
+ GFEt		0,64	0,71	0,25	-0,33
	+ $ACNt-1$	15,73	34,24	15,06	17,40
	- $ACNt$	14,18	37,06	16,56	17,99
- $\Delta ACNt$		-1,55	2,82	1,50	0,59
- $INVt$		1,89	0,41	1,53	0,99
+ $TINVt$		4,38	4,94	3,71	5,02
	+ $EFAt - AFAt$	-2,21	-0,25	-1,00	-2,12
	+ It	0,14	0,45	0,96	0,72
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$		0,10	0,32	0,69	0,51
+ $TFAt$		-2,32	-0,57	-1,68	-2,63
+ $TPNt$		-2,07	-4,37	-2,03	-2,39
= 0		0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

139. koadroa Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	--	13,14	--	18,67
- C_t	--	12,23	--	17,34
- AM_t	--	0,25	--	0,40
= $BAll_t$	--	0,66	--	0,93
* $(1-t)$	--	0,715	--	0,715
= $BAld_t$	--	0,47	--	0,66
+ AM_t	--	0,25	--	0,40
- IF_t	--	0,00	--	0,02
+ GF0t	--	0,72	--	1,05
+ REt	--	0,25	--	-0,06
* $(1-t)$	--	0,715	--	0,715
= REdl_t	--	0,18	--	-0,04
+ EFt	--	0,08	--	-0,02
+ GFEt	--	0,26	--	-0,07
+ ACNt-1	--	4,53	--	5,65
- ACNt	--	4,72	--	5,98
- $\Delta ACNt$	--	0,19	--	0,33
- INVt	--	0,42	--	0,23
+ TINVt	--	0,37	--	0,41
+ EFAt - AFAt	--	-0,23	--	-0,07
+ It	--	0,03	--	0,07
* $(1-t)$	--	0,715	--	0,715
- $(1-t) * It$	--	0,02	--	0,05
+ TFAt	--	-0,25	--	-0,12
+ TPNt	--	-0,12	--	-0,29
= 0	--	0,00	--	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

140. koadroa Paperaren industriaren sektoreko funtsez jatorri eta erabileraren egoera-
orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	84,80	87,02	82,30	84,77
- C_t	74,04	77,57	70,08	72,46
- AM_t	4,12	3,61	3,26	3,57
= $BAll_t$	6,64	5,84	8,96	8,74
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	4,75	4,17	6,40	6,25
+ AM_t	4,12	3,61	3,26	3,57
- IF_t	0,43	0,17	0,19	0,13
+ $GFOt$	8,44	7,61	9,48	9,69
+ REt	-0,20	0,00	-0,74	0,48
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdlt$	-0,14	0,00	-0,53	0,34
+ Eft	0,80	0,65	0,13	0,71
+ $GFEt$	0,66	0,65	-0,40	1,05
+ $ACNt-1$	17,91	29,12	23,03	26,45
- $ACNt$	20,56	30,72	23,41	27,11
- $\Delta ACNt$	2,64	1,60	0,38	0,65
- $INVt$	-0,96	7,58	2,36	7,46
+ $TINVt$	7,41	-0,92	6,34	2,63
+ $EFAt - AFAt$	-1,50	4,32	2,40	2,85
+ It	0,06	0,51	2,11	1,81
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,04	0,36	1,51	1,29
+ $TFAt$	-1,54	3,96	0,89	1,55
+ $TPNt$	-5,87	-3,04	-7,23	-4,18
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

**141. koadroa Industria kimikoaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-
orria**

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	33,58	33,82	129,48	118,66
- C_t	29,86	29,34	116,21	103,22
- AM_t	1,13	1,13	2,87	3,09
= $BAll_t$	2,59	3,35	10,40	12,35
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	1,85	2,40	7,44	8,83
+ AM_t	1,13	1,13	2,87	3,09
- IF_t	0,04	0,09	0,21	0,18
+ GFOT	2,94	3,43	10,09	11,74
+ REt	-7,00	1,47	-1,70	-0,06
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdIt$	-5,00	1,05	-1,22	-0,04
+ Eft	0,22	0,71	0,20	1,02
+ GFET	-4,78	1,76	-1,01	0,97
+ $ACNt-1$	7,86	14,47	23,16	27,49
- $ACNt$	10,55	15,96	24,68	28,89
- $\Delta ACNt$	2,69	1,49	1,52	1,40
- $INVt$	-6,01	2,89	4,78	3,34
+ $TINVt$	1,48	0,82	2,78	7,97
+ $EFAt - AFAt$	-4,29	-0,62	-2,14	-2,86
+ It	0,28	0,05	0,78	0,68
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,20	0,04	0,56	0,48
+ $TFAt$	-4,49	-0,66	-2,69	-3,34
+ $TPNt$	3,01	-0,16	-0,08	-4,63
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

142. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V _t	89,78	80,85	63,54	71,72
- C _t	78,24	69,56	55,72	62,52
- AM _t	4,67	3,86	2,46	2,74
= BAII _t	6,87	7,44	5,36	6,46
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	4,91	5,32	3,83	4,62
+ AM _t	4,67	3,86	2,46	2,74
- IF _t	0,21	0,18	0,26	0,33
+ GFOT	9,37	9,00	6,03	7,03
+ RE _t	2,73	-0,33	0,04	-0,13
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI _t	1,95	-0,23	0,03	-0,09
+ EF _t	2,18	1,49	0,27	0,33
+ GFET	4,14	1,26	0,30	0,24
+ ACN _{t-1}	9,99	11,26	11,35	11,38
- ACN _t	11,40	11,25	11,04	12,64
- ΔACN _t	1,41	-0,01	-0,30	1,26
- INV _t	6,29	6,32	2,81	3,96
+ TINV _t	5,81	3,95	3,82	2,06
+ EFAt - AFAt	-1,09	0,23	0,15	1,26
+ It	0,31	0,18	0,27	0,30
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,22	0,13	0,19	0,22
+ TFAt	-1,31	0,10	-0,05	1,04
+ TPN _t	-4,50	-4,05	-3,78	-3,10
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

143. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	56,03	30,75	44,32	44,63
- C_t	49,52	26,37	38,29	37,48
- AM_t	4,81	2,52	2,87	2,60
= BAI_t	1,69	1,86	3,16	4,56
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	1,21	1,33	2,26	3,26
+ AM_t	4,81	2,52	2,87	2,60
- IF_t	0,29	0,12	0,31	0,22
+ GFOT	5,73	3,74	4,82	5,64
+ RE_t	1,21	-1,17	-4,59	-0,44
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	0,86	-0,84	-3,28	-0,31
+ EFT	-2,72	-0,41	-2,08	0,19
+ GFET	-1,85	-1,25	-5,36	-0,12
+ $ACNt-1$	14,90	9,30	16,81	17,27
- $ACNt$	11,69	11,03	16,47	18,50
- $\Delta ACNt$	-3,21	1,73	-0,33	1,23
- $INVt$	1,77	0,83	-5,35	2,57
+ $TINVt$	5,32	-0,07	5,14	1,72
+ $EFA_t - AFA_t$	0,70	0,77	-4,08	0,27
+ It	6,93	0,21	1,32	0,56
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	4,95	0,15	0,94	0,40
+ $TFAt$	-4,26	0,62	-5,02	-0,13
+ $TPNt$	-1,06	-0,56	-0,12	-1,59
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

144. koadroa Metalurgiaren sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroalineazioen fabrikazioa) funtsez jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	98,85	141,15	202,98	165,80
- C_t	95,60	134,43	191,02	152,23
- AM_t	4,42	5,21	5,13	4,51
= BAI_t	-1,17	1,51	6,83	9,06
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	-0,83	1,08	4,89	6,48
+ AM_t	4,42	5,21	5,13	4,51
- IF_t	0,42	0,51	0,37	0,27
+ GFO_t	3,16	5,78	9,64	10,72
+ RE_t	0,09	-0,26	-1,15	-1,58
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	0,07	-0,19	-0,82	-1,13
+ EFT	0,02	-0,60	0,41	0,71
+ $GFET$	0,09	-0,79	-0,41	-0,42
+ ACN_{t-1}	30,58	30,16	62,21	40,58
- ACN_t	26,33	36,55	63,29	43,06
- ΔACN_t	-4,25	6,39	1,08	2,48
- INV_t	3,10	4,94	4,41	4,35
+ $TINV_t$	4,40	-6,33	3,73	3,47
+ $EFA_t - AFA_t$	-10,12	-0,19	-3,36	-3,48
+ It	0,94	1,24	2,08	1,80
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,67	0,88	1,49	1,29
+ $TFAT$	-10,79	-1,07	-4,85	-4,76
+ TPN_t	6,39	7,40	1,12	1,30
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

145. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	19,65	24,34	20,41	24,04
- C_t	17,64	22,00	18,22	21,33
- AM_t	0,70	0,80	0,63	0,69
= BAI_t	1,30	1,53	1,56	2,02
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	0,93	1,10	1,12	1,45
+ AM_t	0,70	0,80	0,63	0,69
- IF_t	0,11	0,15	0,09	0,11
+ GFOT	1,53	1,75	1,66	2,03
+ RE_t	-0,04	0,23	-0,01	-0,11
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	-0,03	0,16	-0,01	-0,08
+ EFT	0,15	0,18	0,09	0,07
+ GFET	0,12	0,34	0,08	-0,01
+ $ACNt-1$	6,97	7,97	7,04	7,23
- $ACNt$	7,46	8,14	6,92	7,59
- $\Delta ACNt$	0,50	0,17	-0,12	0,36
- $INVt$	0,54	2,03	0,62	0,98
+ $TINVt$	0,61	-0,11	1,24	0,69
+ $EFA_t - AFA_t$	0,01	0,67	-0,46	0,05
+ It	0,22	0,21	0,30	0,28
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,16	0,15	0,21	0,20
+ $TFAt$	-0,15	0,52	-0,67	-0,14
+ $TPNt$	-0,46	-0,41	-0,57	-0,54
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

146. koadroa Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria
(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	27,61	30,47	21,75	21,52
- C_t	25,92	28,06	20,05	20,12
- AM_t	1,32	1,37	0,79	0,73
= $BAll_t$	0,37	1,04	0,91	0,68
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAlDl_t$	0,26	0,74	0,65	0,48
+ AM_t	1,32	1,37	0,79	0,73
- IF_t	0,64	0,31	0,32	0,19
+ GFOT	0,95	1,80	1,12	1,02
+ REt	0,79	-2,33	0,11	-0,61
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdlt$	0,57	-1,67	0,08	-0,43
+ Eft	-0,38	-0,97	-0,02	-0,25
+ GFET	0,19	-2,64	0,06	-0,68
+ $ACNt-1$	27,25	9,32	10,87	6,98
- $ACNt$	12,99	10,56	8,16	6,85
- $\Delta ACNt$	-14,26	1,24	-2,71	-0,13
- $INVt$	-6,15	-0,83	-0,68	0,18
+ $TINVt$	21,55	-1,25	4,56	0,30
+ $EFAt - AFAt$	-18,85	1,28	-3,87	0,04
+ It	0,79	0,34	0,27	0,16
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,57	0,25	0,19	0,11
+ $TFAt$	-19,41	1,03	-4,05	-0,07
+ $TPNt$	-2,13	0,22	-0,51	-0,22
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

147. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera-orria

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	126,94	197,66	118,05	141,13
- C_t	112,65	166,05	108,64	127,92
- AM_t	3,80	10,93	2,41	4,07
= BAI_t	10,49	20,67	7,01	9,14
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	7,50	14,78	5,01	6,54
+ AM_t	3,80	10,93	2,41	4,07
- IF_t	1,20	7,97	0,42	1,40
+ GFO_t	10,09	17,74	7,00	9,20
+ RE_t	-5,04	-3,73	-9,58	-0,78
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	-3,61	-2,66	-6,85	-0,56
+ EFT	0,68	1,55	-1,80	-0,46
+ $GFET$	-2,93	-1,11	-8,65	-1,01
+ ACN_{t-1}	40,62	104,51	23,32	41,92
- ACN_t	46,81	107,99	26,14	37,67
- ΔACN_t	6,19	3,48	2,83	-4,24
- INV_t	3,42	20,76	-7,19	-3,25
+ $TINV_t$	-2,45	-7,61	2,71	15,68
+ $EFA_t - AFA_t$	4,03	6,12	-4,93	-8,11
+ It	1,72	3,15	1,18	1,33
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	1,23	2,25	0,85	0,95
+ $TFAT$	2,80	3,87	-5,77	-9,06
+ TPN_t	-0,35	3,74	3,06	-6,62
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

148. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V _t	44,29	51,34	31,70	32,76
- C _t	40,47	45,40	26,98	28,33
- AM _t	1,31	1,21	0,78	0,64
= BAII _t	2,51	4,73	3,94	3,79
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	1,79	3,38	2,82	2,71
+ AM _t	1,31	1,21	0,78	0,64
- IF _t	0,27	0,14	0,12	0,10
+ GFOT	2,84	4,45	3,48	3,25
+ RE _t	0,10	-0,80	-0,33	-0,24
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI _t	0,07	-0,57	-0,24	-0,17
+ EF _t	0,37	0,75	0,23	0,23
+ GFET	0,44	0,18	-0,01	0,05
+ ACN _{t-1}	14,70	19,66	6,87	8,43
- ACN _t	15,42	21,94	7,59	9,42
- ΔACN _t	0,72	2,27	0,72	0,99
- INV _t	1,37	-0,24	0,55	0,65
+ TINV _t	1,20	2,59	2,20	1,67
+ EFAt - AFAt	-0,97	-0,67	-0,52	0,17
+ It	0,25	0,26	0,21	0,17
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,18	0,19	0,15	0,12
+ TFAt	-1,15	-0,85	-0,67	0,06
+ TPN _t	-0,05	-1,73	-1,53	-1,72
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

149. koadroa Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V_t	293,04	264,35	552,14	568,56
- C_t	274,14	246,54	518,49	534,73
- AM_t	6,97	5,47	18,58	18,33
= BAI_t	11,93	12,34	15,07	15,50
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	8,53	8,82	10,77	11,08
+ AM_t	6,97	5,47	18,58	18,33
- IF_t	0,53	0,54	4,70	4,05
+ GFOT	14,97	13,76	24,65	25,36
+ RE_t	-1,95	-1,21	-2,37	6,16
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= REd_t	-1,39	-0,87	-1,69	4,40
+ EFT	0,73	0,44	2,01	3,10
+ GFET	-0,66	-0,43	0,32	7,50
+ $ACNt-1$	36,95	30,05	14,76	14,05
- $ACNt$	37,02	20,92	12,71	13,37
- $\Delta ACNt$	0,07	-9,13	-2,05	-0,68
- $INVt$	12,67	13,95	22,85	17,26
+ $TINVt$	1,58	8,51	4,17	16,28
+ $EFA_t - AFA_t$	5,24	-1,78	-0,30	-7,87
+ It	0,82	0,57	1,36	1,65
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,59	0,41	0,97	1,18
+ $TFAt$	4,66	-2,18	-1,27	-9,04
+ $TPNt$	-6,23	-6,32	-2,89	-7,24
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

150. koadroa Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V _t	--	330,55	--	313,38
- C _t	--	293,68	--	292,93
- AM _t	--	17,17	--	20,48
= BAII _t	--	19,71	--	-0,02
* (1-t)	--	0,715	--	0,715
= BAIdI _t	--	14,09	--	-0,02
+ AM _t	--	17,17	--	20,48
- IF _t	--	3,63	--	6,53
+ GFOT	--	27,63	--	13,93
+ RE _t	--	-2,52	--	-1,07
* (1-t)	--	0,715	--	0,715
= REdI _t	--	-1,80	--	-0,77
+ EF _t	--	4,52	--	-0,29
+ GFET	--	2,72	--	-1,06
+ ACNt-1	--	194,21	--	190,37
- ACNt	--	163,71	--	176,31
- ΔACNt	--	-30,51	--	-14,06
- INVt	--	39,64	--	40,32
+ TINVt	--	21,22	--	-13,39
+ EFAt - AFAt	--	-15,45	--	23,86
+ It	--	9,79	--	8,83
* (1-t)	--	0,715	--	0,715
- (1-t) * It	--	7,00	--	6,32
+ TFAt	--	-22,45	--	17,54
+ TPNt	--	1,23	--	-4,15
= 0	--	0,00	--	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

151. koadroa Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua		
	2015	2016	2015	2016	
	+ V_t	8,08	24,47	11,70	17,95
	- C_t	7,59	22,68	10,37	15,98
	- AM_t	0,27	0,56	0,49	0,58
	= BAI_t	0,22	1,23	0,84	1,39
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	= $BAId_t$	0,16	0,88	0,60	0,99
	+ AM_t	0,27	0,56	0,49	0,58
	- IF_t	0,26	0,11	0,06	0,08
+ GFOT		0,17	1,34	1,03	1,49
	+ RE_t	0,69	-0,18	0,04	-0,14
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	= REd_t	0,49	-0,13	0,03	-0,10
	+ EFT	0,17	0,13	0,01	0,07
+ GFET		0,66	0,00	0,04	-0,03
	+ ACN_{t-1}	3,62	9,49	4,86	6,26
	- ACN_t	4,40	10,02	4,98	6,60
- ΔACN_t		0,78	0,53	0,12	0,33
- INV_t		0,34	-0,15	-0,25	0,74
+ $TINV_t$		-0,28	0,96	1,19	0,40
+ $EFA_t - AFA_t$		0,13	-0,02	0,33	0,24
	+ It	0,05	0,14	0,08	0,16
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	- $(1-t) * It$	0,03	0,10	0,06	0,11
+ $TFAT$		0,10	-0,13	0,27	0,12
+ TPN_t		0,19	-0,84	-1,47	-0,52
= 0		0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

152. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko funtsen jatorri eta erabileraren egoera

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua		
	2015	2016	2015	2016	
	+ V_t	15,06	17,72	14,89	15,94
	- C_t	14,18	16,41	13,05	14,38
	- AM_t	0,12	0,17	0,72	0,66
	= BAI_t	0,75	1,15	1,12	0,90
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	= $BAId_t$	0,54	0,82	0,80	0,64
	+ AM_t	0,12	0,17	0,72	0,66
	- IF_t	0,01	0,01	0,13	0,10
+ GFOT		0,66	0,98	1,39	1,20
	+ RE_t	-0,01	-0,18	-0,03	-0,13
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	= REd_t	-0,01	-0,13	-0,02	-0,09
	+ E_t	0,01	0,03	0,03	-0,03
+ GFET		0,00	-0,10	0,01	-0,12
	+ ACN_{t-1}	2,35	3,41	3,07	2,94
	- ACN_t	2,96	3,57	3,21	3,07
- ΔACN_t		0,61	0,16	0,14	0,13
- INV_t		-0,18	0,11	0,51	1,32
+ $TINV_t$		0,22	0,61	0,75	-0,37
	+ $EFA_t - AFA_t$	0,56	-0,06	-0,26	0,22
	+ It	0,02	0,06	0,06	0,15
	* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
	- $(1-t) * It$	0,01	0,04	0,04	0,11
+ TFA_t		0,55	-0,10	-0,31	0,12
+ TPN_t		-0,77	-0,50	-0,44	0,25
= 0		0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

153. koadroa Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera

(M eurotan - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Hego Euskal Herria		Estatua	
	2015	2016	2015	2016
+ V _t	71,13	86,52	93,47	92,72
- C _t	64,80	78,13	84,97	84,13
- AM _t	2,47	3,12	2,92	3,04
= BA _{It}	3,87	5,27	5,58	5,55
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Id} _t	2,76	3,77	3,99	3,97
+ AM _t	2,47	3,12	2,92	3,04
- IF _t	0,30	0,62	0,44	0,49
+ GFO _t	4,93	6,27	6,47	6,53
+ RE _t	-0,43	-0,58	-1,06	-0,04
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Id} _t	-0,31	-0,42	-0,76	-0,03
+E _{Ft}	0,36	0,52	0,11	0,38
+ GF _{Et}	0,05	0,11	-0,64	0,35
+ AC _{Nt} -1	17,48	26,87	16,35	17,94
- AC _{Nt}	17,58	27,01	16,99	18,24
- ΔAC _{Nt}	0,10	0,14	0,64	0,30
- INV _t	2,20	4,70	2,08	3,01
+ TIN _{Vt}	2,68	1,53	3,12	3,57
+ EF _{At} - AF _{At}	-1,45	-0,16	-1,04	-0,89
+ I _t	0,66	0,76	0,76	0,73
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,47	0,54	0,55	0,53
+ TF _{At}	-1,92	-0,71	-1,58	-1,41
+ TP _{Nt}	-0,76	-0,82	-1,53	-2,15
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.

12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

12.1 SARRERA

Txosten honen aurreko edizioetan egin den bezala, atal honen helburua da EAEko, Nafarroako eta estatu osoko enpresa-sarearen bilakaera eta egitura aztertzea, denbora-ikuspegi zabal batetik (2011-2017 aldia), ekonomia-sektoreak eta soldatakoen geruzak kontuan hartuta. Horren haritik, gogoan izan behar da aurtengoan ere EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) izan dela informazio-iturri bakarra, azterketa homogeneoa izan dadin.

12.2 BILAKAERA OROKORRA

Enpresa aktiboen kopuruak behera egin zuen, krisi ekonomikoaren ondorioz, aztergai ditugun hiru esparru geografikoetan (EAE, Nafarroa eta estatu osoa). Dena dela, 2014an goraka hasi zen Nafarroan, 2015ean estatuan, oro har, eta 2016an EAEn. Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, susperraldiari eutsi zaio 2017ra arte, baina azken ekitaldian bizitasun pixka bat galdu du joera horrek. Estatuan antzeko joera ageri da, eta EAEn, berriz, 2017an berriro behera egin du.


Zehazki, EAEko enpresa aktiboen kopurua 2011n 165.496 izatetik 2017an 140.290 izatera igaro da, eta bilakaera horrek jaitsiera metatu nabarmena adierazten du (-% 15,2). Aitzitik, estatu osoan enpresen kopuruak gora egin du aldi horretan, 2011n 3.250.576 izatetik 2017an 3.282.346 izatera iritsi arte. Horrek % leko igoera metatua dakar. Dena dela, igoera hori nabarmen txikiagoa da Nafarroako esparruan egindakoa baino (% 6,2); izan ere, 2011n 41.541 enpresa aktibo zeuden, eta 2017an 44.120. Horiek horrela, aztertutako kasuetan, EAEn soilik egin du behera enpresa aktiboen kopuruak 2011tik 2017ra bitartean.

Edonola ere, nabarmendu behar da aintzat hartu diren hiru eremu geografikoetan urtetik urterako gorabeherak desberdinak izan direla aztertutako aldian. Horrez gainera, alde handiak daude eremu bakoitzari dagozkion urtetik urterako aldaketetan ere.

EAEn, enpresen kopuruan egindako beherakada handiena, hain zuzen, 2017koa da (-% 7,2), 2016an gora egiten hasi ondoren (% 1,8). Nafarroan, berriz, urtetik urterako beherakada handiena 2013koa izan zen (-% 1,1), eta gorakada handiena, berriz, 2015ean

(% 3,7). Estatu osoan ere 2013an izan zen beherakada handiena (-% 1,7), eta era berean gorakada handiena 2015ean gertatu zen (% 2,2).


21. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


Horrenbestez, urtetik urterako bilakaerari erreparatuta, 2017an EAEn enpresa aktiboen kopuruak behera egin du (-% 7,2), Nafarroan % 0,5 handitu da, eta estatu osoan, berriz, % 1,4 igo da.

22. grafikoa Enpresa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

23. grafikoa Estatuko guztizkoaren gaineko garrantziaren bilakaera (estatu=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Bilakaera horren arabera, enpresa kopuruak estatuko guztizkoaren gainean duen garrantzia jaitsi egin da EAEn (2017an guztizkoaren % 4,3 izan da; 2011n, aldiz, % 5,1 izan zen); Nafarroan, ordea, gora egin du (2017an guztizkoaren % 1,34 izan da; 2011n, aldiz, % 1,28).


12.3 EKONOMIA-SEKTOREAK

Ekonomia-sektoreetan arreta jarrita (industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak), 2011tik 2017ra bitartean EAEn sektore guztiek behera egin dutela ikusten da, Nafarroan industriak eta eraikuntzak egin dute behera, eta estatu osoan, berriz, industriak, eraikuntzak eta merkataritzak.

Epe horretan, 2017ko eta 2011ko datuak alderatuta, enpresa kopuruan beherakada handiena egin duen sektorea eraikuntza izan da, bai EAEn (-% 32,7), bai estatuan (-% 17,3), bai eta Nafarroan ere (-% 7,6). Bestalde, gainerako zerbitzuek Nafarroan dute bizitasun handiena (% 14,1eko igoera), bai eta estatu osoan ere (% 9,5eko igoera).

Zehazki, EA Eren kasuan, lau sektore handietan enpresa kopurua txikiagoa izan da 2017an 2011n baino, bilakaera hau egin ostean: -% 32,7 eraikuntzan, -% 18,7 industrian, -% 15,2 merkataritzan eta -% 8,9 gainerako zerbitzuetan.

24. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (zenbaki indizea 2011=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2011tik 2017ra bitarteko aldiari erreparatuta, eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean (EJSN-2009) egindako banaketari jarraituz, handizkako eta txikizkako merkataritzan diharduten enpresak eta ibilgailu motordun eta motoen konponketan dihardutenak dira, ekitaldi horietan eta hiru eremu geografikoetan, parte-hartze handiena izan dutenak. Hala, 2017an EAEn jarduera horietan lan egin dute 31.959 enpresak; hau da, EAeko enpresa guztien % 22,8k (2011n ere proportzio bera izan zen). Nafarroan, jarduera horretan lan egindako enpresen proportzioa zertxobait txikiagoa izan da (autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 22,1 2017an eta % 23,2 2011n). Estatu osoan, berriz, pixka bat handiagoa izan da haien proportzioa (estatu osoko % 23 2017an, eta % 24,1 2011n).

154. koadroa Enpresak ekonomia-atalaren arabera. 2011-2017 alderaketa

	EAE		Nafarroa		Estatura	
	2011	2017	2011	2017	2011	2017
Guztira	165.496	140.290	41.541	44.120	3.250.576	3.282.346
Erauzketa-industriak	47	51	30	33	2.743	2.282
Manufaktura-industria	13.310	10.614	3.314	3.073	196.678	174.090
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	383	478	493	688	14.852	15.511
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	300	265	137	139	6.662	6.922
Eraikuntza	27.989	18.830	6.649	6.145	487.224	402.923
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	37.709	31.959	9.636	9.767	782.194	753.503
Garraioa eta biltegiatzea	11.938	9.858	3.504	3.245	217.064	194.463
Ostalaritza	13.714	12.091	3.223	3.612	287.434	279.613
Informazioa eta komunikazioak	2.896	2.726	469	647	53.651	63.526
Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.733	2.691	745	819	69.670	77.340
Higiezin-jarduerak	4.584	2.616	1.140	1.432	123.741	168.540
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	19.540	19.512	4.815	5.367	391.623	400.216
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	6.636	4.802	2.136	2.398	162.328	194.374
Hezkuntza	3.439	4.021	821	1.283	77.088	103.828
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	7.466	8.125	1.280	1.649	141.441	158.571
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	3.007	3.057	897	1.184	73.194	90.852
Beste zerbitzu batzuk	9.805	8.594	2.252	2.639	162.989	195.792

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, honako hauek ageri dira, ordena honetan, aztertutako hiru esparru geografikoetan: eraikuntza, eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Horren haritik, 2017an eraikuntzak 18.830 enpresa bildu ditu EAEn, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 13,4 (% 16,9 2011n), 6.145 enpresa Nafarroan, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 13,9 (% 16 2011n) eta 402.923 enpresa estatu osoan, enpresa guztien % 12,3 (% 15 2011n).

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokienez, 2017an 19.512 enpresa bildu dituzte EAEn, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 13,9 (% 11,8 2011n), 5.367 enpresa Nafarroan, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 12,2 (% 11,6 2011n), eta 400.216 enpresa estatu osoan, enpresa guztien % 12,2 (% 12 2011n).


12.4 SOLDATAKOEN GERUZAK

Soldatakoen geruzak aztergai hartuta, eta lehenik eta behin haien agregazio handiari begira, 2011 eta 2017 bitartean enpresa aktiboek behera egin dute, oro har, bai EAEn, bai Nafarroan, bai estatu osoan, soldatakorik gabeko enpresak eta soldatako bat edo bi dituztenak izan ezik, Nafarroan eta estatuan.

Seitik bederatzira bitarteko langile kopurua duten enpresetan ikusten da beherakada handiena, 2017ko datuak 2011koekin alderatuta, bai Nafarroan (1.991tik 1.629ra jaistea; hau da, -% 18,2), bai estatu osoan (138.040tik 120.696ra jaistea; hau da, -% 12,6). Aitzitik, EAEn, beherakada handiena soldatakorik gabeko enpresetan gertatu da: 2017an 67.769 enpresa dira, eta 2011n 87.939 ziren, beraz, dinamika horrek murrizketa dakar (-% 22,9).

EAEn arreta jarrita, enpresa aktiboek behera egin dute enplegu-geruza guztietan 2011tik 2017ra bitartean: soldatakorik ez duten enpresen artean (-% 22,9), sei soldatakotik bederatzira bitarteko enpresen artean (-% 19,6), hamar soldatakotik hemeretzira bitarteko enpresen artean (-% 13,3), hogeit langile edo gehiagoko enpresen artean (-% 7), hiru soldatakotik bostera bitarteko enpresen artean (-% 6,3) eta soldatako bat edo bi dituzten enpresen artean (-% 3,8).

25. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatakoen tarteen arabera (zenbaki indizea 2011=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2011ko eta 2017ko ekitaldiak aztergai hartuta, soldatakoen geruzen desagregazio handiari begira, soldatakorik gabeko enpresak dira nagusi bi urte horietan, aztergai ditugun hiru esparru geografikoetan. Ildo horretan, EAEn 2017an horrelako 67.769 enpresa daude, eta autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 48,3 dira (2011n % 53,1 ziren). Pisu erlatibo handiagoa dute Nafarroan (autonomia-erkidegoko enpresa guztien

% 56,1; 2011n % 55,1) eta estatuan, oro har (estatuko enpresa guztien % 55,5; 2011n % 55,2).

155. koadroa Enpresak, soldatakoen geruzen arabera. 2011-2017 alderaketa

	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2011	2017	2011	2017	2011	2017
Guztira	165.496	140.290	41.541	44.120	3.250.576	3.282.346
Soldatakorik gabe	87.939	67.769	22.899	24.755	1.795.321	1.823.250
1-2 soldatako	46.403	44.652	9.908	11.472	847.952	894.179
3-5 soldatako	14.525	13.615	4.038	3.897	313.408	298.744
6-9 soldatako	7.172	5.768	1.991	1.629	138.040	120.696
10-19 soldatako	4.957	4.299	1.376	1.155	84.834	77.632
20-49 soldatako	2.907	2.676	825	746	46.160	43.079
50-99 soldatako	878	786	257	223	13.279	12.540
100-199 soldatako	401	400	157	144	6.585	6.674
200-499 soldatako	217	227	64	72	3.288	3.756
500-999 soldatako	55	59	17	17	923	969
1.000-4.999 soldatako	39	36	9	10	679	709
5.000 soldatako edo gehiago	3	3	0	0	107	118

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Soldatakorik gabeko enpresen ondoren ageri dira, kontuan hartutako hiru esparruetan, soldatako bat edo bi dituztenak, eta haien ostean hiru soldatakotik bostera bitarteko enpresak. Zehazki, EAEn, 2017an soldatako bat edo bi izan dituzten enpresak 44.652 dira, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 31,8 (2011n % 28). Geruza horri kuota txikiagoa dagokio estatuan (% 27,2 2017an; % 26,1 2011n), bai eta Nafarroan ere (% 26 2017an; % 23,9 2011n). Bestalde EAEn, 2017an hiru soldatakotik bostera bitarteko enpresak 13.615 izan dira, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 9,7 (2011n % 8,8). Estatuan proportzio zertxobait txikiagoa izan dute (% 9,1 2017an; % 9,6 2011n), bai eta Nafarroan ere (% 8,8 2017an; % 9,7 2011n).



| 17

3. LEHEN SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATUAN

Estatuko nekazaritza-sektoreak (landare- eta animalia-ekoizpenak, beste ekoizpen batzuk, eta haiekin lotutako zerbitzuak) etengabe egin du gora 2010etik aurrera. Goraldi horrek eritmo oso uniformeak izan ditu, eta 2017an ere hala jarraitu du. Horrenbestez, 2009ko zenbatekoarekin alderatuta, 2017ko ekoizpenaren balioa ia % 30 handiagoa izan da, eta hor, jakina prezioen eragina sartuta dago.

Azken zazpi urteetan txikiak izan dira aldaketak, -% 0,2tik % 5,4ra bitartekoak, eta haietatik sei positiboak izan dira. Zehazki, urtetik urterako aldaketa, 2017an, % 2,2koa izan da. Aurreko urteekin alderatuta, oraingoak berrikuntza bat ekarri du: animalia-ekoizpenak gora egin du, eta landare-ekoizpenak, berriz, behera. Izan ere, 2001az geroztik azkeneko produktioak egin duen gorakadarik handiena izan da (% 14,5); bestalde, nekazaritza-eremuan egin den beherakada neurritsua (-% 2,6) 2011z geroztik izandako handiena da. Horrenbestez, landare-ekoizpenak ehuneko 3 puntu behera egin du sektorearen guztizkoan, eta % 58,3ra jaitsi da, animalia-ekoizpenak % 38,1 du, eta beste produktu eta zerbitzu batzuei dagokie gainerako % 3,5a. Proporzio horiek oso egonkorak izan dira azken hamarkadetan; dena dela, landare-ekoizpena, haren izaera biologikoaren ondorioz, abeltzaintzakoa baino aldakorragoa da urte batetik bestera, emaitza ekonomikoei erreparatuta.

Zehazki, 2015etik 2017ra bitarteko gorabeherak zeinu-aldaketak ekarri dituzte, bai landareen arloan bai animalien arloan, bai kantitateetan bai prezioetan. Landare-ekoizpenak behera egin du kantitatean (-% 6,1) eta gora prezioetan (% 3,7); horiek horrela, balioa jaitsi egin da (-% 2,6). Aurreko urtean, berriz, % 8,4, -% 3,7 eta % 4,4 aldatu ziren, hurrenez hurren. Animalia-ekoizpenaren, 2017ko ratioak % 1,9, % 8,6 eta % 10,6 izan dira, eta 2016koak % 4,5, -% 3,6 eta % 0,7. Nekazaritzan, aipatutako bi esparruak batuta, - % 3,1, % 5,5 eta % 2,2 izan dira aldaketak 2017an, eta horrenbestez, konpentsatu dira nolabait 2016ko zenbatekoak: % 6,7, -% 3,6 eta % 2,9.

Landare-ekoizpenaren balioari erreparatuta, honako hauek osatzen dute lehen aipatutako % 58,3a: barazkiak (% 19,1), fruta (% 17,7), oliba-olioa (% 6,4), zerealak (% 6,1), bazka-laboreak (% 3,3), ardoa eta mostoa (% 2,4), industria-laboreak (% 2,2), patatak (% 0,9) eta beste batzuk (% 0,3). Urtetik urterako aldaketa hauek izan dituzte, hurrenez hurren: % 1,3, -% 1,2, -% 8,2, -% 28,1, -% 13,8, -% 19,6, -% 2,2, % 6,7 eta -% 10,3. Kantitatean egindako beherakadaren erdia baino gehiago zerealen ondorioz da:

urtetik urterako aldaketa handienak izaten dituzten laboreak dira, eta nabarmen behera egin dute, baina prezioak % 8,5 igo direnez, balioaren beherakada ez da hain handia izan (-% 22). Gehien garestitu diren produktuak ardoa (% 21,3) eta olioak (% 19,7) izan dira, baina sektorearen guztizkoan eragin handiena izan duena barazkien % 5,5eko igoera izan da. Prezioak merkatu dituzten kategoriatan bakarrak fruta (-% 1,2) eta patata (-% 45) izan dira.

Animalia-ekoizpena, guztira, % 38,1 izan da: % 28,9 haragia eta ganadua (ia erdia txerri-aziendari lotua), % 9,2 esnea, % 2,7 arrautzak eta % 0,5 beste batzuk. Esparru honetan urtetik urterako aldaketak txikiagoak dira landareen arloan baino, salbuespen batzuk izan ezik, hala nola arrautzak (balioaren % 48,6ko igoera 2017an). Aurtengo animalia-ekoizpenaren gorakada handian gehien eragin duten aldagaiak txerri-aziendaren eta hegaztien prezio-igoerak izan dira (% 10 eta % 12,2 hurrenez hurren).

Oro har, barazkiak, fruta eta txerri-azienda dira lehen sektoreak Espainian dituen kategoriatan nagusiak, eta hazkunde handienak dituztenak, batez ere azken bosturtekoan, eta txerri-haragiaren kasuan azken hamarkadan.

Estatistika horretan monitorizatzen da, bereziki, nekazaritza-errenta deritzona; hau da, lehen sektoreko balio erantsi garbia, eta azken urtean % 2,6 egin du gora. Alabaina, gorakada horrekin batera, urteko lan-unitateak % 7,6 igo dira, eta igoera hori ez da batere ohikoa, azken hamarkadetan nabarmena izan baita beheranzko joera. Horiek horrela, lan-unitateko errentak % 4,7 egin du behera, prezio korranteetan. Lan-unitateko errenta, prezio konstanteetan, Ministerioaren estatistikak erreferentziatzen hartzen duen 1990eko balioa baino heren bat handiagoa da.

156. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(M eurotan)

Kontzeptua	2016	2017*	% Δ 2017/2016		
	Balioa	Balioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	48.091,0	49.165,5	2,2	-3,1	5,5
• Landare-ekoizpena	29.438,7	28.687,4	-2,6	-6,1	3,7
• Animalia-ekoizpena	16.377,1	18.755,7	10,6	1,9	8,6
• Zerbitzu-ekoizpena	513,1	514,8	0,3	1,6	-1,2
• Bigarren mailako jarduerak, ez- nekazaritza-errenta	1.188,2	1.207,6	1,6	0,2	1,4
B.- Bitarteko kontsumoak	21.310,3	21.437,7	1,6	1,6	-0,3
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	25.496,9	27.727,8	2,7	10,4	-6,9
D.- Amortizazioak	5.251,5	5.149	0,0	-0,9	0,9
E.- Beste diru-laguntza batzuk	5.804,7	5.660,6	-0,1	--	--
F.- Beste zerga batzuk	362,4	408,1	6,5	--	--
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	25.687,7	27.831,3	2,6	--	--

(*): 2018ko urtarrileko 2. zenbatespena, ekoizleak jasotako oinarritzko prezioetan.
Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

1.2 BILAKAERA HEGO EUSKAL HERRIAN

Sektorearen makromagnitudeak⁽¹⁾

Euskal Autonomia Erkidegoan, sektoreko ekoizpenaren % 53,4 nekazaritza-ekoizpena da, % 33,9 abeltzaintzakoa, % 9,2 basogintzakoa, eta % 3,5 beste ekoizpen batzuei dagokiena. Azken hamarkadetako bilakaeran, nekazaritza-ekoizpenean ikusten da goranzko joera garbiena; abeltzaintzaren bilakaera lauagoa da, eta goranzko joera txikia du; basogintzaren bilakaera ere laua da, baina beheranzko joera du. Azken bosturtekoari soilik erreparatuta, arlo guztietan nolabaiteko gorakada ikusten da, batez ere nekazaritzan. Izan ere, nekazaritzak eta basogintzak behera egin zuten krisi ekonomiko orokorraren lehen urteetan, eta abeltzaintzak, berriz, produktuen ziklo biologiko luzeak dituenez, ez du bat-bateko beheraldi handirik izan azken hamarkadetan.

Elkarren ondoan jarriz gero 2017ko emaitza eta krisiaren hasierako balio txikiena –2009 ekoizpenari dagokiona–, % 32,9 egin du gora sektoreak, hau da, ia heren bat: % 34,3 nekazaritzak, % 15,6 abeltzaintzak, % 43,2 basogintzak (urte hartako ekoizpena ezohikoa izatearen ondorioz) eta % 134 beste ekoizpen txiki batzuek. 2016ko zenbatekoekin alderatuta, % 2,4 gora egin du nekazaritzak eta % 1,8 abeltzaintzak, basogintzak behera egin du (-% 13,7), eta beste ekoizpen batzuk % 9,9 igo dira. Oro har, % 0,01eko igoera apala izan du sektoreak.

Kategoria zehatzei erreparatuta, sektoreko guztizko balio handiena mahastiei dagokie (% 21,7), eta haien atzetik ageri dira barazkiak (% 13,4), behi-haragia eta esnea (% 11,2 eta % 11 hurrenez hurren), intsinis pinuaren zura (% 7,4), zerealak (% 6,7), arrautzak (% 4,7), frutak (% 3), patatak (% 2,2), beste zur mota batzuk (% 1,8), industria-laboreak (% 1,6), ardi- eta ahuntz-haragia (% 1,3), lekadunak (0,8%) eta txerri-haragia (% 0,7). Nekazaritzako eta abeltzaintzako beste ekoizpen batzuk % 4,1 eta % 5 dira, hurrenez hurren. Banaketa hori 2000. urtekoarekin alderatuta, ez dago egitura-aldaketa handirik; baina nabarmendu behar da, esate baterako, behi-haragiak gora egin duela tinko, epe luzean, eta pinu-zuraren kasuan kontrakoa gertatu dela.

2016tik 2017ra balioa igo dutenen artean, lehen aipatutako “nekazaritzako beste ekoizpen batzuk” gailendu dira, ia aurreko urtean halako hiru izatera iritsi baitira (dena dela, ohiko mailara itzultzea baino ez dute egin); ardi- eta ahuntz-haragiak % 36,1 egin du gora, erremolatxak % 24,4, arrautzek % 13,2 eta frutak % 5. Behera egin dutenen artean, intsinis pinuarenak ez diren zurak gailendu dira (-% 34,1), eta haren atzetik ageri dira

⁽¹⁾ EAEko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Ez daukagu Nafarroari buruzko informazio baliokiderik.

zerealak (-% 15,1), lekadunak (-% 13,2), abeltzaintzako beste ekoizpen batzuk (-% 9,8), beste ekoizpen batzuk (-% 9,1) eta intsinis pinuaren zura (-% 6,7).

Ekoizpenaren balioak (diru-sarrerak) adierazten dituzten aldagaiek gaintitu zuten jada krisialdia; nekazaritza-errenta edo balio erantsi garbia, giza baliabideen ordainsariak kenduta, pixkanaka berroneratzen ari zen, baina behera egin du 2017an (-% 3,3) eta 2009az geroztik izandako urtetik urterako balantze okerrera izan du. Ekoizpenaren guztizko balioa ez da aldatu, eta aurtengo errentaren beheraldian eragin du, alde batetik, kostuen igoerak (% 4,6), eta bestetik, diru-laguntzen beherakadak, neurri berean (-% 4,6). Nolanahi ere, bi aldagai horietan egindako aldaketa ez da berria edo ohiz kanpoko, epe luzeko joeren barruan dagoena baizik.

157. koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*

Kontzeptua	(M eurotan)		
	2015	2016	2017
Nekazaritzako amaierako ekoizpena	523,4	545,9	546,0
Nekazaritza	277,8	284,8	292,0
Abeltzaintza	179,9	181,7	185,0
Basogintza	46,4	58,3	50,3
Norb. kontur. beste ekoiz. eta hobekuntzak	19,3	21,0	19,1
- Sektoretik kanpoko gastuak	195,8	187,8	196,4
= Balio erantsi gordina (m.p.)	327,7	358,1	349,6
+ Diru-lag - zerg. saldoa	65,7	65,9	63,0
= Balio erantsi gordina (f.k.)	393,4	424,1	412,5
- Amortizazioak	81,7	82,0	81,8
= Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekaz. errenta	311,7	342,1	330,7

(*): Aurrerapen-datuak, gerora egokitu daitezkeenak.

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen Saila.

Mahastiek sektorearen guztizko emaitzetan duten eragina giltzarrizkoa izan da azken urteetan, EAEko nekazaritza-sektoreko kategoría nagusia diren aldetik. 2010eko gutxienekoa eta 2016ko balioa alderatuta, % 121,3 egin dute gora. Goranzko joera horrek oso abiadura handia hartu zuen, baina 2017an gelditu da eta zertxobait behera egin du (-% 1,6). Beste bi kategoría nagusiek, barazkiek eta zerealek, behera egin dute (-% 1,5 eta -% 15,1), eta nekazaritzaren balantzeak gora egin du lehen aipatutako "nekazaritzako beste ekoizpen batzuk" igo direlako soilik, aurreko urteko ezohiko beheraldiaren ostean ohiko zenbatekoak berreskuratu baititu.

Abeltzaintzaren arloan, behi-haragiaren goraldi garrantzitsuak jarraipena izan du, eta % 3,8 igo da urtetik urtera. 2017an bildu dituen diru-sarrerak 2009koen bikoitza izatera iritsi dira ia. Aldiz, estatuan oso bestelako egoera dago, txerri-haragiak goraldi bikaina


izan baitu zenbait urtetan. Behi-esneak, ordea, pixkanaka balioa galtzen jarraitu du (-% 1,6), eta guztizko balioa behi-haragiarena baino txikiagoa izan da oraingoan ere. Abeltzaintza-azpisektoreak 3,2 milioi inguruko gorakada izan du azken urtean: gora egin dute arrautzek (3 milioi), behi-haragiak (2,3 milioi) eta ardi- eta ahuntz-haragiak (1,8 milioi), baina jaitsi egin da esnea (ia milioi bat), bai eta “abeltzaintzako beste ekoizpen batzuk” ere (ia 3 milioi).

Estatistika berak ematen ditu ekoiztako tona kopuruan izan diren aldaketen datuak. Sektoreak, oro har, behera egin du urtetik urtera (-% 1,6), bai eta nekazaritzaren arloak ere (-% 5,7). Haren barruan, nabarmen jaitsi dira mahastiak (-% 11,3), zerealak (-% 15,3) eta barazkiak (-% 3,1), eta gorakada handia egin du frutak (% 15). Abeltzaintzaren arloan, aldaketak ez dira hain nabarmenak (gorakada txikiak kasu guztietan, % 1,5 guztira); pinuzurak, berriz, % 16,7 gora egin du, tona-kopurua kontuan hartuta.

Prezioei erreparatuta, balantze orokorra % 3,9ko igoera da (% 5,3 landareen arloan eta % 3,3 animalienean). Tona-kopuruan izan diren beherakadak bat datoz prezioetan izandako gorakadekin, hiru labore nagusietan parekoak izan baitira: mahastiak (% 10,7), zerealak (% 14,7) eta barazkiak (% 3,7). Abeltzaintzaren arloan, aipagarriak dira datu hauek: behi-haragia % 2,1 garestitu da, ardi- eta ahuntz-haragia % 12,5, eta arrautzak % 16,5.

26. grafikoa Nekazaritza-sektoreko faktore-kostuetako balio erantsi gordinaren bilakaera

(M eurotan)



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. / Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen Saila.

Bien bitartean, EAEko nekazaritza-sektoreko faktore-kostuetako balio erantsi gordinak behera egin du azken urtean (-% 2,7); horrenbestez, baretu egin da aurreko ekitaldian bizkortu zen hazkundera. Mende honen hasieraz geroztik egin duen bilakaera, orokorrean, landare-ekoizpenaren bilakaeraren oso antzekoa izan da, gainerako ekoizpenen bilakaerek ez baitute gorabehera handirik izan. Nekazaritzako guztizko ekoizpenaren adierazlea erreferentziatzat hartuta, balio erantsi gordinaren sorburu den aldetik, kostuak eta diru-laguntzak kontuan izanik, % 75,6 da.

Nafarroan, berriz, balio erantsi gordinak % 3,7 gora egin du. Beraz, bi lurraldeek eten dute, nolabait, azken urteetako joera, balio erantsi gordinen bolumenak parekatzearen aldekoa, eta bien arteko tartea handitu da berriro, Foru Komunitatea gailendu delarik.

Bilakaera Nafarroan

Nafarroan, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari dagokio barne-produktu gordinaren % 2,9 2017an, eta zenbateko hori ez da ia aldatu azken sei urteetan. 2017an barne-produktu gordinak % 4,2 egin du gora Nafarroan, eta nekazaritza-arloak, lehen esan bezala, % 3,7. Ekonomiak 2007az geroztik izan duen urtetik urterako hazkunde handiena izan da, eta sektoreak 2012az geroztik egin duen handiena. Krisialdian lehen sektoreak zertxobait gora egin du, eta ekonomiaren gainerako sektoreak baino egonkorragoa izan da, edo kalte gutxiago izan ditu. Hiru urtetan (2009an, 2012an eta 2013an) behera egin zuen adierazle orokorrak; nekazaritza-sektoreak, berriz, beheraldi txiki bat baino ez zuen izan 2009an, eta inoizko igoerarik handienetakoa izan zuen 2012an. Aipatu dugun gutxieneko horren ondorengo 8 urteko epean, % 20,9 egin du gora guztira.

Sektorearen joeran eragin handia dute ekoiztako produktuen azken prezioen igoerek; alabaina, ekoizpen-kate bakoitzaren lehen eragileak jasotako prezioei erreparatuz gero, nolabaiteko geldialdia nabari da. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta, oro har, lehen sektoreko produktuen prezioak, 2017an, % 10 inguru handiagoak izan dira 2010eko erreferentziako balioak baino. Igoera hori, zalantzarik gabe, neurritsua da 7 urteko aldirako, eta nabarmena da azken 3 urteetako geldialdia.

Nafarroan, berriz, prezio-aldaketa hauek izan dira 2017an: % 3,9 sektoreko ekoizpen orokorrean, % 2,9 nekazaritzan, -% 0,8 basogintzan, eta % 5,4 animalia-ekoizpenetan. Igoera horiek estatukoak baino nabarmen txikiagoak dira. Aldaketak kalkulatzeko, urteko batezbestekoak erabili dira, urtarokotasuna saihesteko.

Kategorien arabera beste prezio batzuk, berriz, urte bakoitzeko abenduko balioen aldaketa gisa eman dira, iturri bera hartuta. Horrenbestez, Nafarroan 2016tik 2017ra

bitartean prezio-aldaketa hauek izan dira: % 9,1 zerealak, -% 3,2 lekadunak, % 5,6 patata, % 0,7 industria-laboreak, -% 5,6 bazka-laboreak, -% 3,7 fruta, -% 29,1 fruitu lehorrak, % 9 barazkiak, eta % 16,5 mahastizaintza eta ardogintza.

Abeltzaintzako produktuetan, hau izan da bilakaera: % 2,6 behi-haragia, % 4,7 ardi-haragia, % 2,2 ahuntz-haragia, % 11,9 txerri-haragia, % 12,6 hegaztiak, % 12,3 untxiak, -% 0,3 esnea, % 19,1 arrautzak, eta % 15,4 azienda bizia. Horrenbestez, zerealak, barazkiak, txerri-haragia eta hegaztiak garestitzearen ondorioz egin du gora sektoreak.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Hego Euskal Herriko nekazaritzako elikagaien sektoreak kanpo-merkataritza indartzeko joera izan du azken urteetan, hala esportazioetan nola inportazioetan. Hala eta guztiz ere, alde handiak daude Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko egituren artean, batez ere inportazioetan: Nafarroan sektoreak ez du EAEn adinako kanpo-erosketen beharrik. Beste desberdintasun nabarmen bat da animalia-ekoizpenak (bai esportazioetan bai inportazioetan) garrantzi handiagoa duela EAEn Nafarroan baino; bestalde, Nafarroak industriadatu aurreko landare-produktu askoz ere gehiago esportatzen ditu EAEk baino.

158. koadroa a Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Hego Euskal Herria

(M eurotan)

Muga-zergen atala	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2016	2017	2016	2017
Animalia biziak eta animalia-produktuak	EAE	242,9	241,4	389,8	440,1
	Nafarroa	137,4	216,9	158,6	188,0
	Hego EH	378,7	458,3	548,3	628,1
Landare-produktuak, gantzak eta olioak	EAE	85,2	82,3	291,8	326,5
	Nafarroa	383,1	433,7	238,9	258,3
	Hego EH	445,0	412,2	513,4	514,5
Elikagaigintzako produktuak	EAE	591,8	620,9	315,0	337,7
	Nafarroa	553,6	565,1	237,3	237,7
	Hego EH	1.141,4	1185,9	551,9	575,4
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	919,9	944,6	996,6	1104,3
	Nafarroa	1.074,1	1.215,6	629,5	683,9
	Hego EH	1.965,1	2056,4	1.613,7	1755,1
Nekazaritzako elikagaien sektorearen % esportazio-inportazioen guztizkoetan	EAE	4,3	4,0	6,4	5,9
	Nafarroa	12,4	15,1	13,6	15,4
	Hego EH	6,5	6,8	8,1	7,7

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuen gainean.

Bien arteko aldeak handitu egin dira azken urteetan. Izan ere, EAEren landare- eta animalia-produktuen esportazioak geldialdian daude (elikagaigintzarenak ez ordea), eta egoera horrek Autonomia Erkidegoko merkataritza-balantza okertu du; Nafarroan, berriz, arlo guztiek gora egin dute, batez ere esportazioek, eta merkataritza-balantzak hobera egin du.

Nafarroan, 2017an, gora egin dute lehen sektoreko kanpo-merkataritzan aztertu diren kategoria guztiek. Esportazioek % 57,8 egin dute gora abeltzaintzaren arloan, % 13,2 landareen arloan, eta % 2,1 industrian; guztira, sektoreko esportazioek % 13,2 egin dute gora. Inportazioek, berriz, % 18,5, % 8,1, % 0,2 eta % 8,6 egin dute gora, hurrenez hurren.

Horrenbestez, azken urteetan balantza negatiboa izan duen kategoria bakarrak (hau da, animalia-produkzioak) izan du gorakada handiena. Esportazioak % 15,4 handiagoak izan dira inportazioak baino animalien arloan; % 67,9 landareen arloan; % 137,8 industriaren arloan; eta % 77,7 guztien batura kontuan hartuta. Superabita 444,6 milioi eurokoa izan zen 2016an, eta 531,7 milioi eurokoa izan da 2017an; hau da, % 19,6 handiagoa izan da.

Nafarroan, handia da sektoreak kanpo-merkataritzaren guztizkoan duen ehunekoa, eta azken urteetan erritmo oso irmoan egin du gora; urtetik urterako gorakadari erreparatuta, esportazioen % 12,4 izatetik % 15,1 izatera igaro da, eta inportazioen % 13,6 izatetik % 15,4 izatera. Nafarroaren guztizko kanpo-merkataritzak izan duen superabitaren % 14,6 dagokio sektoreari (3.640,9 milioietatik 531,7 milioi).

Aitzitik, EAEen behera egin dute animalia- eta landare-esportazioek (-% 0,6 eta -% 3,4 hurrenez hurren), industriaren arlokoek gora egin dute (% 4,9), eta sektoreko guztiak, oro har, % 2,7 igo dira. Bien bitartean, inportazioek gora egiten jarraitu dute; zehazki, % 12,9, % 11,9, % 7,2 eta % 10,8 kategoria bakoitzean, hurrenez hurren.

EAEen, nekazaritzako elikagaien esportazioak ekonomiaren guztizko esportazioen % 4 dira, eta inportazioen kasuan, berriz, % 5,9 dira; beraz, Nafarroan dituzten ehunekoen heren bat inguru adierazten dute zenbateko horiek. Horrenbestez, landare- eta animalia-arloen merkataritza-balantzak negatiboak dira (defizita adierazten dute), bai eta sektoreko merkataritza-balantza orokorra ere; elikagaien industriak, berriz, aurrera egin du superabita pixkanaka hobetzeko bidean. Aipatutako defizit orokorra bikoiztu egin da: 76,6 milioi eurotik 159,7 milioi eurora igo da, eta 2011ko zenbatekoaren antzekoa izatera iritsi da berriz ere.

Bi autonomia-erkidegoen balantza bateratua aztertuz gero, aurreko bi urteetako kopuruen oso antzekoa da: 372 milioi euro inguruko superabita. Horrek adierazten du lehen sektorean Hego Euskal Herriaren esportazioak % 20,8 handiagoak direla inportazioak baino.

Biztanleria landuna

Nekazaritzaren egoera orokorra adierazten duen beste adierazle garrantzitsu bat landunen kopurua da. Estatistika ofizialetan, jarduera mota horietan alta emanda dauden pertsonen kopuruan aldaketa handiak izaten dira, bereziki Hego Euskal Herriko lurraldeetan (adibidez, Gipuzkoan, aurreko urteko ekaineko datuaren bikoitza da). Aldaketa horietan hainbat faktorek eragiten dute: nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak urtaroen arabera izatea, lan-txandaketa, enplegua formalizatzeke modalitateak aldatzea, eta abar.

Espainiaren kasuan, azken hamarkadan pixkanaka behera egin ostean, enplegua suspertu egin da, eta 2016an baino % 9,5 langile gehiago aritu dira jardunean. Nafarroan, gorakada hori % 3,1ekoa izan da, ekainetik ekainera; EAEn, oro har, askoz ere nabarmenagoa izan da, % 39,1 igo baita: lehen esan bezala, % 100 Gipuzkoan, % 42,6 Bizkaian eta % 2,7 Araban. Horrenbestez, bai estatuan bai EAEn, 2008ko erdialdean zegoen maila berreskuratu da (krisiaren aurreko maila, alegia) eta beheranzko joera garbia eten da, oraingoz behintzat.

159. koadroa Enplegua lehen sektorean*

(pertsonen kopuruak, milakotan)

Urtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Hego EH	Espainia
2008	1,9	7,5	5,4	14,8	14,0	28,8	830,6
2009	3,1	5,8	3,2	12,1	13,3	25,4	790,8
2010	3,1	4,7	4,7	12,5	11,3	23,8	772,8
2011	2,4	3,9	3,4	9,7	7,1	16,8	735,9
2012	2,2	7,7	2,2	12,1	8,6	20,7	722,3
2013	4,6	7,6	3,2	15,4	15,5	30,9	753,1
2014	3,0	6,2	4,4	13,6	13,4	27,0	739,3
2015	1,8	6,2	2,5	10,5	9,4	19,9	740,4
2016	3,7	5,4	1,9	11,0	9,8	20,8	760,2
2017	3,8	7,7	3,8	15,3	10,1	25,4	832,6


(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaera hobeto adierazten dutelakoan.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

Aipatutako gorabehera handi horien azpian, epe luzeko joera beheranzkoa da Nafarroan eta EAEn, azken bi urteetako goraldiak iraunkorrak direla berresten ez den bitartean. Azken hamarkadako bilakaera, oro har, antzekoa izan da bi autonomia-erkidegoentzat, eta gorabeherak bat datoz; dena dela, EAeko lurralde bakoitzaren bilakaera banan-banan aztertuz gero, antzekotasuna ez da hain garbia. Estatuko guztizkoan duen ehunekoak ere hamarren bat behera egin du Nafarroan (% 1,2ra) eta lau hamarren igo da EAEn (% 1,8ra).

27. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*

(pertsonek kopuruak, milakotan)



(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaera hobeto adierazten dutelakoan.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

2017an, Hego Euskal Herriko nekazaritzako azpisektorearen egoera ez da izan aurreko urteetakoa bezalakoa; izan ere, behera egin du hainbat produkturen ekoizpenak, eta beherakada izan duten produktu horietako batzuk gainera oso garrantzitsuak dira euskal nekazaritzan. Jarraian, prezioei buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Horretarako, EAEko eta Nafarroako datuak bateratuta emango dira, eta Espainiako datuak ere eskainiko dira, erreferentzia gisa. Aztertu diren produktuen balantzeak adierazten du, oro har, prezio askok igoera apal bat izan dutela (ohikoa izan daiteke sektorean). Bestalde, datuei erreparatuta, produktu nabarmen batzuek gorabehera handiak izan dituzte.

160. koadroa Hego Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*

(m Tm)

Produktua	2016	2017**	% Δ 17/16	% Hego Euskal Herria / Espainia 2017
Zerealak				
– Garia	586,9	495,6	-15,6	9,9
– Garagarra	485,4	416,7	-14,2	7,0
– Oloa	94,0	91,1	-3,1	10,4
– Artoa	158,1	147,6	-6,6	3,9
Bazka-laboreak				
– Artoa	209,5	228,7	9,2	5,6
– Alpapa	329,0	344,3	4,6	3,6
Barazkiak				
– Zainzuria	4,6	6,0	29,7	9,0
– Letxuga	26,9	21,1	-21,7	2,4
– Espinaka	20,3	20,9	3,2	23,7
– Tomatea	187,4	155,0	-17,3	3,0
– Piperra	41,0	38,6	-6,0	3,0
– Orburua	16,5	16,5	0,1	7,6
– Azalorea	35,3	28,1	-20,3	18,3
– Brokolia	84,5	77,6	-8,2	14,8
– Tipula	18,6	18,4	-1,4	1,4
– Leka	18,3	17,8	-2,4	10,8
– Ilar berdea	20,6	20,8	1,1	18,3
Fruta-arbolak				
– Sagardo-sagarra	7,7	14,3	86,7	14,6
– Mahai-sagarra	19,5	17,2	-11,6	3,3
– Madaria	20,5	20,3	-1,2	5,7
– Mertxika	10,8	12,6	17,5	1,2
– Arbendola	2,8	3,0	9,3	1,3
Ardoa eta muztioa (m HI)	1.599,7	1.258,6	-21,3	3,5
Patata	65,7	82,4	25,5	3,5
Azukre-erremolatxa	173,3	208,1	20,1	6,6

(*): Zenbatespenak.

(**): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren hileko buletina.

Bi autonomia-erkidegotako produktuen ekoizpenari begiratuta, oro har, behera egin dute zerealen eta ardoen ekoizpenak. Horretaz gainera, barazkien ekoizpenak ere jaitsiera izan du, garrantzi gehien duten produktuak barne. Bestalde, fruta batzuen ekoizpenak gora egin du, eta beste batzuenak, behera. Hala eta guztiz ere, aurtengo salbuespenak, eta beraz, gora egin dutenak, bazka-laboreak, erremolatxa eta patatak dira.

Zereal guztiek behera egin dute. Esate baterako, jaitsiera nabarmenak gariak eta garagarrak izan dituzte (-% 15,6ko eta -% 14,2ko beherakadak, hurrenez hurren); oloak eta artoak, berriz, jaitsiera leunagoa izan dute. Alabaina, adierazi behar da, gorabeherak ohikoak izaten direla talde horretan. Bazka-laboreetan, abeltzaintzarako erabilitako artoak gora egin du, eta gizakiok jateko erabiltzen dugun artoak, berriz, behera egin du.

Horretaz gainera, 5 barazkik beherakadak izan dituzte: -tomateak -% 17,3 egin du behera, piperrak -% 6ko jaitsiera izan du, azaloreak -% 20,3 egin du behera eta letxugak, berriz, -% 21,7. Beraz, letxugak urte ugari daramatza behera egiten; gainerakoek, aldiz, azken urteetan goranzko joera izan ostean, behera egin dute. Gainerako produktuak eta datuak ez dira hain nabarmenak, igoera txikiak izan baitituzte; zainzuriak izan ezik, gorakada handia izan dutela (% 29,7ko igoera). Aipatutako barazkiak, batez ere, Nafarroako hegoaldeko baratzetan lantzen dira. Izan ere, eremu horretan ekoizten da atal honetan aipatutako produktuen tona-kopuru handiena.

Bestalde, gora egin dute erremolatxak (% 20,1ko igoera) eta patatak (% 25,4ko gorakada); eta behera egin du, aldiz, ardoak (-% 21,3ko jaitsiera). Datu horiek azken urteetako gorabeherak mugatzen dituzte, eta aurtengoan aldaketa handiak izan arren, 2017ko datuak normaltzat har daitezke.

Fruta-arbolen artean aipatu behar da madariaren ekoizpena ez dela asko aldatu eta sagarrak behera egin duela hirugarren urtez. Sagardo-sagarrak, berriz, ekoizpen txikiagoa izan arren, 2017ko gorakada handiena izan du fruta-arbolen artean (taula honetan aztertutakoaren arabera, behintzat). Horretaz gainera, mertxikak azken urteetako beherakadak alde batera utzi, eta gora egin du 2017an.

Hego Euskal Herriko ekoizpenak Estatuan duten pisuari eta hazkundeari begiratuta, espinakak, sagardo-sagarrak eta ilar berdeak nabarmendu behar dira; azaloreak lehen postua galdu du; eta brokoliak eutsi egin dio aurreko ekitaldietako ekoizpen handiari. Euskal ekoizpena aztertuta, Nafarroako baratzea da produktu askoren ekoizpen-gune nagusia. Hala ere, egoera kontrakoa da sagardo-sagarraren, erromolatxaren eta patataren kasuan; izan ere, askoz gehiago lantzen dira EAEn. Ardoa eta letxuga dira EAEn eta Nafarroan antzeko proportzioak dituzten produktu bakarrak.

161. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*

(ha)

Produktua	2016	2017**	% Δ 17/16	% Hego Euskal Herria/ Espainia 2017
Zerealak				
– Garia	102.776	97.978	-4,7	4,7
– Garagarra	98.501	100.268	1,8	3,9
– Oloa	17.617	20.759	17,8	3,7
– Artoa	15.045	13.797	-8,3	4,1
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	5.113	5.066	-0,9	4,8
– Alpapa	6.600	6.679	1,2	2,5
Barazkiak				
– Zainzuria	1.463	1.461	-0,1	11,4
– Letxuga	1.093	925	-15,4	2,8
– Espinaka	904	1.019	12,7	20,7
– Tomatea	2.506	2.370	-5,4	3,8
– Piperra	1.336	1.395	4,4	5,9
– Orburua	1.270	1.293	1,8	8,0
– Azalorea	1.576	1.256	-20,3	18,9
– Brokolia	5.725	5.804	1,4	18,3
– Tipula	360	371	3,1	1,5
– Leka	1.218	1.543	26,7	16,8
– Ilar berdea	2.683	2.715	1,2	17,2
Patata	1.886	2.133	13,1	2,9
Azukre-erremolatxa	1.832	2.048	11,8	5,6

(*): Zenbatespenak.

(**): Behin-behineko datuak.

Oharra: Ez dira sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtekoa).

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren hileko buletina.

Landutako azalerari buruzko taula aztertuta, ikusten da ez dagoela besteetan bezalako gorabehera handirik, ohikoa izaten den bezala. Hala eta guztiz ere, azalorak behera egin du nabarmen 2017an, bai eta letxugak ere (azken horrek behera egin du azken urtetan). Hazkunderik handiena lekak izan du; eta azken urteetan produktu horrek egin du gora gehien. Beste produktu batzuk ere izan dute igoera nabarmena (oloa, patata, erremolatxa), baina gorabehera handiak izaten dituzte eta urte batetik bestera datuak orekatu egiten dira.

Alde handiak daude laborantza estentsiboetarako lurren eta labore intentsiboetarako lurren azalaren artean (besteak beste, zerealak labore estentsiboak dira, eta barazkiak, berriz, intentsiboak); hala ere, zenbait labore intentsibok (brokoliak, esaterako) lur-azalera nahiko handiak dituzte.

Hego Euskal Herriak Estatuan duen kuotaren proportzio handiena goranzko joera duten produktuek izan dute, hala nola (lehen aipatu bezala) espinakak, azalorak, brokoliak,

lekak edo ilar berdeak. Hau da, produktu horiek lantzeko erabiltzen den azalera Estatuan produktu horiek ekoizteko erabili den azaleraren % 20 da.

162. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*

(Tm/ha)

Produktua	Hego Euskal Herria		Espainia	
	2016	2017**	2016	2017**
Zerealak				
– Garia	5,7	5,1	3,5	2,4
– Garagarra	4,9	4,2	3,6	2,3
– Oloa	5,3	4,4	2,2	1,6
– Artoa	10,5	10,7	11,3	11,4
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	41,0	45,2	38,9	38,9
– Alpapa	49,9	51,5	41,1	35,6
Barazkiak				
– Zainzuria	3,2	4,1	4,8	5,2
– Letxuga	24,6	22,8	26,1	26,9
– Espinaka	22,4	20,5	17,0	17,9
– Tomatea	74,8	65,4	80,9	84,6
– Piperra	30,7	27,6	60,2	54,1
– Orburua	13,0	12,8	13,7	13,4
– Azalorea	22,4	22,4	23,0	23,2
– Brokolia	14,8	13,4	17,4	16,6
– Tipula	51,7	49,5	55,4	51,3
– Leka	15,0	11,6	19,2	17,9
– Ilar berdea	7,7	7,7	7,5	7,2
Patata	34,8	38,6	31,1	31,9
Azukre-erremolatxa	94,6	90,1	91,7	86,2

(*): Zenbatespenak.

(**): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren hileko buletina.

Orain arte adierazi diren ekoizpenari eta azalerrari buruzko datuetatik errendimenduratioak lortzen dira, eta beraz, posible da konporatzea Hego Euskal Herriko ekoizpena eta Estatuako ekoizpena. Hego Euskal Herrian barazkiek ratio hobea dute zerealek baino. Hektareak kontuan hartuta, Hego Euskal Herriko ekoizpenak etekin hobekak ditu Espainiakoak baino zerealetan eta bazka-laboreetan. Hala eta guztiz ere, espinakaren, ilar berdearen, patataren eta erremolatxaren kasuetan izan ezik, Espainiak etekin hobekak izan ditu.

Oro har, errendimenduen ratioa egonkorra da ia kasu guztietan, eta oso antzekoak dira bi lurraldeetan. Espainian epe luzeko joerak tomateak eta alpapak dituzte; tomateen ekoizpenak gora egin du eta alpaparenak, berriz, behera, nahiz eta aurten apur bat berreskuratu. Beste salbuespen bat piperrarekin gertatzen da. Izan ere, Espainiako piper-ekoizpenak Hego Euskal Herriko ekoizpena bidertzen du; eta horretan eragina izan dezake tomate-mota ugari daudela.

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Azkenik, atal honetan landutako produktuen prezioak aztertuta, ikus daiteke gora egin dutela Estatuan produktu hauen prezioak: gariak eta garagarra (% 9ko igoera), barazkietan, tomateak eta brokoliak (% 38,3ko eta % 46,4ko hazkundeak, hurrenez hurren), eta, baxuago, letxugak (% 23,1eko gorakada). Ardoa ere garestitu egin da, txuria beltza baino gehiago (txuria % 18,7 igo da eta beltza % 10,9). Hala ere, hainbat produktu merketu egin dira. Esate baterako, beheara egin dute zainzuriek (-% 11,1), piperrak (-% 5,3), mertxikak (-% 15,9) eta arbendolak (-% 15,4). Jaitsiera handiena patatak izan du (-% 44ko beherakada), baina ohikoa da tuberkulu horrek gorabeherak izatea. Bestalde, kiloko prezio garestia dute zainzuriek, arbendolak eta lekak.

163. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak⁽¹⁾

Produktua	Nekazariak Jasotako Prezioak;(euro/100 kg)		
	2016	2017	% Δ 17/16
Zerealak			
– Garia	16,98	18,51	9,0
– Garagarra	15,13	16,51	9,1
– Oloa	15,77	14,92	-5,4
– Artoa	16,88	17,18	1,8
Bazka-laboreak			
– Alpapa	13,67	13,50	-1,2
Barazkiak			
– (Buru-)aza	47,14	44,00	-6,7
– Zainzuria	211,42	187,92	-11,1
– Letxuga	32,02	39,43	23,1
– Espinaka	71,95	79,78	10,9
– Tomatea	28,12	38,88	38,3
– Piperra	83,13	78,76	-5,3
– Orburua	66,03	66,71	1,0
– Azalorea	48,60	49,34	1,5
– Brokolia ⁽²⁾	42,85	62,75	46,4
– Tipula	19,40	19,68	1,4
– Leka	136,36	151,24	10,9
– Ilar berdea	49,65	46,46	-6,4
Fruta-arbolak			
– Sagarra	43,02	43,82	1,9
– Madaria	55,43	55,91	0,9
– Mertxika	59,83	50,29	-15,9
– Arbendola	172,82	146,23	-15,4
Ardoa (euro/Hl)			
– Ardo zuri berria	39,85	47,30	18,7
– Ardo beltz berria	49,75	55,15	10,9
Patata	32,01	17,94	-44,0
Azukre-erremolatxa	3,86	4,07	5,4

(1): Zenbatespenak.

(2): Iturri nagusian ez dago estatu-mailako 2017ko daturik; Coyuntura Agraria de Navarra aldizkariak Nafarroari emandako datua adierazi da.

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren hileko buletina.

3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA

3.1 AZIENDA-ERROLDA

2017an, Hego Euskal Herriko azienda-sektoreko espezie nagusiek beren errolda-joerei eutsi diete beste behin ere. Neurketak lurralde bakoitzeko abelburuak hartzen ditu kontuan. Historian ugariena izan den azienak, ardiak, etengabe egin du behera azken hamarkadetan, bai bi autonomia-erkidegoetan, bai Estatuan. Txerri-azienda, berriz, gorantz doa erritmo handian, gorabehera handiagoak dituen arren. Hego Euskal Herrian, Nafarroako txerri-azienda handia denez, ardiak azienda gairidizetik oso hurbil dago txerri-azienda; izan ere, Nafarroan azken 4 urteetan nabarmen handiagoa da txerri-azienda, ardiarena baino. EAEn, ostera, txerri-abeltegiak askoz urriagoak dira eta ez da horrelako goraldirik ikusi.

Estatuan aspaldikoa da egoera hori eta areagotu egin da azken bosturtekoan (txerri-abelburuak ardiak halako bi izango dira laster); izan ere, gero eta handiagoa da, nazioartean, Espainiako kalitate handiko txerriakien eskaera.

Behi-azienak, ordea, oso bilakaera laua izan du hiru esparruetan, joera oso ahulekin: gora egin du Nafarroan, eta behera EAEn eta Estatuan. Ahuntz-azienak oso tamaina txikia du hiru lurraldeetan eta ez du joera nabarmenik.

Hona hemen EAEn urterik urtera izan diren aldakuntzak: % 0,6 (behia), -% 5,7 (ardia), -% 4,5 (ahuntza) eta % 7,9 (txerria). Hona hemen Nafarroako datuak: % 5,7, -% 2, % 0,2 eta % 0,5; hala, Hego Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuta, emaitzak % 2,9, -% 3,2, -% 3 eta % 0,8 dira; eta Espainiari begiratuta, % 3,3, % 0,001, -% 0,9 eta % 2,5.

Hona hemen abelburuen guztizkoan espezie bakoitzak hartzen duen kuotaren ehunekoak, lehengo hurrenkera bera baliatuta: % 31,3, % 54,5, % 6,3 eta % 7,9 EAEn; % 9,5, % 38,8, % 1 eta % 50,7 Nafarroan; % 15,1, % 42,8, % 2,3 eta % 39,8 bi erkidegoak batuta; eta % 11,7, % 28,8, % 5,5 eta % 54 estatu-mailan.

164. koadroa **Azienda-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)**

(abelburuak)

Eremua	Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2012	139.855	294.747	29.806	19.567
	2013	138.245	274.490	28.096	21.761
	2014	141.979	263.796	28.023	24.800
	2015	135.569	259.454	26.410	27.124
	2016	136.510	253.660	28.732	32.348
	2017	137.339	239.265	27.438	34.895
	Nafarroa	2012	110.361	551.753	12.442
2013		110.425	542.319	12.435	447.849
2014		114.030	527.890	12.708	546.356
2015		116.223	516.469	12.968	528.764
2016		115.737	508.138	12.985	647.096
2017		122.293	498.116	13.010	650.250
Hego Euskal Herria		2012	250.216	846.500	42.248
	2013	248.670	816.809	40.531	469.610
	2014	256.009	791.686	40.731	571.156
	2015	259.454	775.923	39.378	516.469
	2016	252.247	761.798	41.717	679.444
	2017	259.632	737.381	40.448	685.145
	Espainia	2012	5.812.606	16.339.373	2.637.336
2013		5.696.907	16.118.586	2.609.989	25.494.715
2014		6.078.733	15.431.804	2.704.229	26.567.578
2015		6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
2016		6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595
2017		6.465.747	15.963.106	3.059.731	29.971.357
EH/Espainia %		2017	4,0	4,6	1,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.

Hauek dira Hego Euskal Herriaren kuotak Espainiaren aldean: % 4 (behia), % 4,6 (ardia), % 1,3 (ahuntza) eta % 2,3 (txerria), eta Nafarroak bakarrik, % 1,9, % 3,1, % 0,4 eta % 2,2. Kuota hauek, oro har, duela hamar urtekoen oso antzekoak dira; batez ere, Nafarroako bilakaerak eragin handia duelako Hego Euskal Herrikoan, eta Nafarroako joera Espainiakoaren berdintsua izan delako.

3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esnearen ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Azpi-sektorea arazo aski ezagunak jasaten ari den arren, abeltzaintza-sektorearen zati handi bat hartzen jarraitzen du esnearen ekoizpenak. EAEko behi-esnearen guztizko balioa, adibidez, animalia beraren okelarena bezain bestekoa da ia; biek ala biek azpi-sektorearen heren bat inguru hartzen baitute.

Bolumenari dagokionez, 2013 eta 2015 bitartean Nafarroako ekoizpenaren hazkunde-erritmoan jauzi nabarmen bat izan zen; eta paraleloan, txikixeagoa den EAEko ekoizpenak, joera aldatu eta gorakako fasean sartu zen epealdi berean. 2017an, Nafarroako ekoizpena, funtsean behi-esnez osatua, maximo batera heldu eta moderatu egin da, eta EAEko ekoizpenak gora egiten jarraitu du, aurreko ekitaldietan izan duen erritmo berdintsuan.

165. koadroa Esnearen ekoizpena

						(m litro)
Urtea	Eremua	Behia	Ardia	Ahuntza	Gutzira	
2015	Araba	48.367	2.574	148	51.089	
	Bizkaia	56.868	1.452	415	58.735	
	Gipuzkoa	72.161	4.404	146	76.711	
	EAE	177.396	8.429	709	186.534	
	Nafarroa	233.074	12.460	348	245.882	
	Hego Euskal Herria	410.470	20.889	1.057	432.416	
2016	Araba	46.367	2.726	139	49.231	
	Bizkaia	58.794	1.622	443	60.859	
	Gipuzkoa	74.065	5.085	199	79.349	
	EAE	179.226	9.432	781	189.439	
	Nafarroa	239.499	15.432	255	255.185	
	Hego Euskal Herria	418.724	24.864	1.036	444.624	
2017	Araba	49.379	3.023	136	52.538	
	Bizkaia	62.063	1.689	423	64.175	
	Gipuzkoa	74.573	5.188	208	79.969	
	EAE	186.014	9.898	769	196.681	
	Nafarroa	238.643	15.043	297	253.984	
	Hego Euskal Herria	424.658	29.942	1.066	424.657	

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiararen Garapen Sailaren Estatistikak eta Sektorekako Analiak Nafarroako Gobernua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Zehazki, 2017an bi erkidegoak batuta % 1,4 hazi da ekoiztako litro-kopurua (+% 3,8 EAEn eta -% 0,5 Nafarroan). Behi-esneak Hego Euskal Herriko ekoizpenaren % 94,2 hartzen duenez, esne-mota hori da, funtsean, aipatutako aldakuntza eragin duena; baina, kasu honetan, ardi-esnearen joera paraleloa izan da (+% 4,9 EAEn, -% 2,5 Nafarroan eta % 0,3 Hego Euskal Herrian). Askoz txikiagoa den ahuntz-esnearen ekoizpenak, ordea,

behera egin du EAEn (-% 1,6) eta gora Nafarroan (% 16,6); beraz, guztira % 1,4 egin du gora Hego Euskal Herrian.

EAEn barruan, Arabak % 28,2 ekoiztu du, Bizkaiak % 34,5 eta Gipuzkoak % 43. Ahuntz-esnearen ekoizpenaren % 55 Bizkaian biltzen da, eta antzeko pisua du Gipuzkoak ardi-esnari dagokionez (% 52,4). Bestalde, Nafarroan ekoiztu da Hego Euskal Herriko esne guztiaren % 56,4.

EAEko estatistikek adierazten dute lurralde horretan ekoizten den esnearen % 91,5ek esne-zentralak dituela jomugatzat, % 2,2 ekoizpen-ustiategietan bertan zuzenean saltzen dela, % 2,6 txahalen hazkuntzara bideratzen dela, eta % 3 gaztak egiteko erabiltzen dela. Gazta egiteko erabiltzen den esne guztia ardiarena da, eta horretako baliatzen da animalia horren esnearen % 58,6. Bestalde, 2017ko gazta-ekoizpena duela 5 urtekoa baino % 53 handiagoa izan da, erabilitako esne-litrotan neurtuta.

166. koadroa EAEn ekoiztutako esnearen helburua

Helmuga	2015	2016	2017	% Δ 17/16
<i>(m litro)</i>				
Behi-esnea	177.396	179.226	186.014	3,8
– Txahalen hazkuntza	5.048	4.970	5.086	2,3
– Pertsona kontsumoa ustiategian	1.515	1.432	1.393	-2,7
– Kontsumitzaileei bideratutako salmenta zuzena	3.116	3.547	3.876	9,3
– Esne-zentraletara salmenta	167.717	169.277	175.659	3,8
Ardi-esnea	8.429	9.432	9.898	4,9
– Gazta	4.306	5.013	5.801	15,7
– Pertsona kontsumoa ustiategian	34	37	42	13,5
– Kontsumitzaileei bideratutako salmenta zuzena	421	454	464	2,2
– Esne-zentraletara salmenta	3.669	3.928	3.591	-8,6
Guztira	185.825	188.658	195.912	3,8
– Txahalen hazkuntza	5.048	4.970	5.086	2,3
– Gazta	4.306	5.013	5.801	15,7
– Pertsona kontsumoa ustiategian	1.549	1.469	1.435	-2,3
– Kontsumitzaileei bideratutako salmenta zuzena	3.537	4.001	4.340	8,5
– Esne-zentraletara salmenta	171.386	173.205	179.251	3,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen Sailaren Estatistikak eta Sektorekako Analiak

Lurralde bakoitzean, zenbait institutu arduratzen dira esne-ustiategiak kontrolatzeaz. Horiek, langinketa-metodologiak eta antzeko adierazleak erabiltzen dituzte erkaketak egiteko. 2017an, lagindutako ustiategien kopuruak behera egin du lurralde guztietan, nahiz eta Nafarroan behi-kopuruak gora egin duen. Nafarroako eta Arabako ustiategiek batez besteko abelburu kopuru handiagoa dute, eta Arabako abeltegiak haien hedaduragatik ere nabarmentzen dira. Bazkatan egindako gastua kontrolatzen da, zeina, adibidez, askoz ere handiagoa den Nafarroan Bizkaian baino; izan ere, bazka ez da aziendarentzako elikagai-mota bakarra (lurralde batzuetan pentsuak edo beste produktu batzuk nagusitu daitezke).

Interes handienekotzat jo daitekeen ratioa behi bakoitzaren ekoizpen-balioa eurotan adierazten duena litzateke. Ildo horretatik, laginek erakutsi dute, EAEn, urtetik urterako hazkundea ez dela % 1era iritsi, eta Nafarroan, aldiz, % 6,4ko igoera izan dela. Ratio horrek, orokorrean, oso balio berdintsuak –eta jarrera berekoak– erakutsi ditu lurralde guztietan, eta bi zifra hauen artean kokatzen dira denak: 2.954 euro behiko eta urteko Bizkaian, eta 3.414 euro Araban. Gainerakoan, ez da aldakuntza handirik izan aurreko urteekin alderatuta.

167. koadroa Esne-ekoizpenerako eliteko behi-ustiategien lagin baten emaitzak

Kontzeptua	Lurgintza (Gipuzkoa)		Lorra (Bizkaia)		Abere (Araba)		INTIA-ITG (Nafarroa)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Datu teknikoak								
– Lagineko ustiategi kop.	36	35	64	61	41	38	51	49
– Behi kop.	1.978	1.954	4.489	4.432	4.412	4.070	5.610	5.763
– Ha. SAU/ustiapena	23,5	24,0	35,3	35,8	73,6	74,8	47,1	46,2
– Behiak/ustiapena	55,0	55,8	70,1	72,7	107,6	111,5	110,0	117,6
– Behiak/ha.	2,3	2,3	2,7	2,1	1,5	1,5	2,3	2,5
– Sort. gastuak eta bazkak (euroak/ha)	307,70	354,42	175,04	214,68	510,90	426,44	664,60	727,60
Prezioak eta etekinak								
– Esnearen prezioa (euroak/1.000 litro)	356,60	355,04	344,65	353,58	336,50	342,38	317,52	336,19
– Esnearen ekoizpena litroak/behi	8.757	8.844	8.522	8.357	10.070	9.972	9.609	9.636

Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazari elkarteen lankidetzaren guneengandik eta Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutuarengandik (INTIA, ITG atala) jasotako estatistikak.

Arabako Abere institutak eta Nafarroako INTIA-ITGk ardi-esnea ustiatzen duten abeltegien inguruko batezbesteko ekonomikoak ere argitaratu dituzte.

Ardi-esnea ekoizten duten Nafarroako 28 ustiategien batezbesteko emaitza aurreko bi urteetakoaren oso antzekoa izan da. Emaitza horren arrazoia da produktu gordina % 15 igo den arren, gastuak (finkoak zein langileengatikoa) % 6,3 soilik igo direla. Ardi-ustiategien kasuan, diru-sarreretan izan den igoera txikiak (% 2,1) gastuen igoera handixeago bat

(% 3,7) izan du aurrez aurre, eta horregatik, marjina gordinaren aurrerapena % 1,8koa izan da azkenean. Bestalde, marjina garbiaren urterik urterako aldakuntza, gastu finakoak kontuan hartu ondoren, negatibo izatera igaro da (-% 1,2).

Araban, produktu gordina pixka bat bakarrik jaitsi den arren, gastu aldagarriek nabarmenago egin dute behera, eta horrek eragina izan du marjina garbian, diru-laguntzen gorakadak gastu finkoena konpentsatu baitu. Hala, marjina garbia % 9,5 hobetu da. Nafarroan gertatu den bezala, Arabako 2017ko datu hauek ere azken hamarkadako onenatarikoak izan dira.

168. koadroa ABEREK eta INTIA-ITGk kudeatutako esne-ardi ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG	
	2016	2017	2016	2017
Datu tekniko-ekonomikoak				
- Ustiategien lagina	26	28	29	28
- Eskulana (GLU) ustiategiko	1,86	1,82	1,71	1,86
- Ardiak ustiategiko	379	359	359	358
- Azalera (ha)	80,6	73,4	23,9	25,0
- Esnearen ekoizpena (litro/ardi)	--	--	147	146
- Esnearen prezioa (euroak/1.000 litro)	--	--	1.537,20	1.579,87
Ekoiz. eta emaitzak (euroak)				
Produktu gordina	116.151	115.340	101.159	103.293
- Gastuak elikagaietan	28.517	25.534	24.012	25.433
- Gastu aldakorrak	14.345	11.731	9.314	8.774
= Marjina gordina	73.289	78.077	67.834	69.086
+ Diru-laguntzak	23.522	30.624	5.737	5.969
- Gastu finakoak eta langileengatikoa	55.822	63.810	34.267	35.909
= Marjina garbia	40.989	44.891	33.567	33.177
Emaitza Unitarioak (euroak)				
- Marjina garbia / ardia	108,15	125,05	93,62	92,61
- Marjina garbia / GLU	22.037	24.666	22.851	20.961

Iturria: Abere eta Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua (INTIA, ITG atala).

Okelaren ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Hego Euskal Herriko okela-ekoizpenari dagokionez, hiltegietan hil duten azidaren kanaleko pisua adierazten dute datuek, tonatan. 2017an gertatu den aldaketa nagusia da garrantziaren arabera bigarren postuan zegoen okela-motak (txerriarena), ekoiztutako tona-kopuru ia osoa galdu duela; izan ere, lan hori egiten zuen hiltegi nagusia -Nafarroan zegoen kokatuta- itxi egin dute, eta horrek betetzen zituen funtzioak modernoagoa den beste lantegi batek betetzen ditu orain, aldaketa batekin: hiltegi berrian alde batera utzi dute txerri-okelaren linea. Txerri-okelaren ekoizpeneko

tonen % 85,8 ezabatzean, hegazti-okelaren pisua are gehiago indartu da ekoizpen osoaren barruan; hala, guztizkoaren % 77,2 hartzen du orain, mendearen hasieran herena soilik hartzen ez bazuen ere. Aipatzekoa da, ekoizpen osoaren barruan indartu den arren, 2010etik lehen aldiz, hegazti-tonen kopurua jaitsi egin dela (-% 3,8).

Honakoak dira gainerako urtetik urterako datuak: -% 1,2 (behia), -% 8,4 (ardia), % 28,4 (ahuntza), % 6,6 (zaldia), -% 0,4 (untxia), eta -% 14,6ko atzerakada guztizko balantzean. Espainian hegazti-okelak % 0,3 egin du gora, txerriarenak % 5,9 eta behiarenak % 1; ardi-okelak -% 1,2ko atzerakada izan duen, ahuntzarenak % 8,9 egin zuen gora eta zaldiarena -% 15,8 jaitsi zen; untxi-okela ere jaitsi egin zen (-% 4), eta hala, guztizko aldakuntza % 3,8koa izan zen, 2016ko datuekin alderatuta.

Hegazti-okelak % 77,2ko kuota du Hego Euskal Herriko guztizkoan, behiarenak % 12,2koa, untxiarenak % 3koa, ardiarenak eta zaldiarenak % 2,6koa, txerriarenak % 2,3koa bakarrik, eta ahuntzarenak % 0,04koa. Lehen aipatutako aldaketaren ondorioz, Espainiako kuoten arteko desberditasunak are nabarmenagoak dira, eta horren erakusgarri dira datuak: % 22,9 hegaztiena, % 9,7 behiarena, % 0,9 untxiarena, % 1,7 ardiarena, % 0,2 zaldiarena, % 64,5 txerriarena (urtez urte etengabe hazten ari den kuota) eta % 0,2 ahuntzarena.

Bestalde, hauek dira Hego Euskal Herriaren kuotak Espainian: % 2,8 (behia); % 3,2 (ardia); % 0,5 (ahuntza); % 0,1 (txerria); % 34,1 (zaldia) –ia pisu hori guztia Nafarroari dagokio–; % 7,3 (hegaztiak); % 7,7 (untxia); eta % 2,2 guztizkoan (ehuneko hori beherantz doa, nabarmen).

Tona-kopuruari dagokionez, Nafarroaren eta EAEn artean dagoen aldea handia da, Nafarroak EAEk halako hiru baino gehiago ekoizten baitu, eta, lehen aipatutako hiltegi-aldaketak txerri-ekoizpena erabat murriztu duen arren, alde hori hadituz doa. Izan ere, hegazti-okelan izandako jaitsiera EAEn jazo da; Nafarroan indartsu aurrera egiten jarraitzen du. EAeko hegazti-ekoizpena mende hasierako maila berdintsuan da eta Nafarrokoa, berriz, epealdi berean ekoizpena hirukoizteko bidean. Behi-okelak emeki behera egiten jarraitzen du bi lurraldeetan, eta garrantzi aldetik hirugarren postua du bietan.

Okelaren ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

169. koadroa Euskal Herriko hiltegieta hildako azientaren kanaleko pisua


Urtea	Behi-okela	Ardi-okela	Ahuntz-okela	Txerri-okela	Zaldi-okela	Hegazti-okela	Untxi-okela	Guztira
2008	28.768	6.213	33	52.327	1.098	73.986	4.051	167.981
2009	28.856	4.659	35	50.123	1.352	89.003	3.719	177.747
2010	26.219	4.372	41	41.577	1.787	77.571	3.978	155.545
2011	25.741	4.339	30	41.043	2.264	88.144	4.207	165.769
2012	21.548	3.806	29	40.856	2.725	97.062	4.418	170.443
2013	21.067	4.217	30	37.607	2.596	102.444	4.323	172.284
2014	19.715	4.093	44	37.706	2.655	103.667	4.423	172.303
2015	18.528	3.902	43	34.833	3.235	103.472	4.612	168.636
2016	18.029	4.071	42	23.379	3.532	116.739	4.440	170.233
2017	17.804	3.731	54	3.319	3.765	112.284	4.423	145.379
EH/Esp. % 2017	2,8	3,2	0,5	0,1	34,1	7,3	7,7	2,2

(Tm)

Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

28. grafikoa Abeltzaintza-ekoizpena Hego Euskal Herrian, espezieen bilakaera

(Indizea: 1990=100)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa. Nafarroako Gobernua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Esne-ustiatuekin egiten duen bezala, Nafarroako INTIA-ITG institutuak behien eta ardien okela-ustiatuegietako kontu ekonomikoak ere biltzen ditu; eta arabako Abere institutuak ere eskura jartzen ditu behi-okelaren inguruan egiten dituen laginketak.

Nafarroako laginketaren kasuan, 2017an oso etekin murrizta lortu da, 2016koa baino diskretuagoa. 2016an balantzea positiboa izan zen bi ekoizpenetan. Okelatarako ardiaren egoera eta esnetarakoarena oso antzekoak diren arren –oso jatsiera apala izan da emaitzetan, eta sarrerak eta kostuak ere maila berdintsuetan mantendu dira–. Behien kasuan, desberdintasun handia dago esne-industriaren eta okela-industriaren artean; izan ere, lehen industrian jarduera eta emaitzak nabarmen handitu dira, eta okelatarakoan, berriz, jarduera jaitsi egin da eta emaitzak hobetu egin dira, gutxi bada ere, eta, marjina txikiarekin izan arren, azken zifra positiboak izan ditu.

170. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden okelatarako behi eta ardiaren ustiategien emaitzak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG			
	Okelatarako behiak		Okelatarako behiak		Okelatarako ardiak	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Datu tekniko-ekonomikoak						
– Ustiategien lagina	75	74	34	28	28	28
– Eskulana (GLU)	0,9	0,9	1,3	1,1	1,2	1,2
– Behiak/Ardiak ustiategiko	57	52	77	71	638	670
– Azalera (ha)	81,5	74,2	40,1	36,5	34,5	39,0
– Txahal/Arkume ekoiz., kg saldu behi/ardiko ⁽¹⁾	--	--	230,3	220,5	20,8	19,7
– Salmenta-prezioa kg behi/ardiko	--	--	3,90	3,99	3,65	3,82
Ekoiz. eta emaitzak (euroak)						
– Produktu gordina	42.532	44.338	79.050	72.327	54.365	55.142
- Gastuak elikagaietan	21.332	17.906	40.396	36.367	28.106	28.597
- Gastu aldakorrak	6.150	7.145	16.047	13.898	7.520	8.368
= Marjina gordina	15.050	19.287	34.679	31.852	29.526	29.008
+ Diru-laguntzak	26.925	22.572	12.072	9.789	10.787	10.831
- Gastu finkoak eta langileengatikoak	27.038	24.517	34.753	31.053	19.198	19.392
= Marjina garbia	14.937	17.341	-74	799	10.329	9.616
Emaitza Unitarioak (euroak)						
– Marjina garbia behia/ardia	213,86	230,60	-0,95	11,23	16,18	14,35
– Marjina garbia / GLU	13.544	13.367	-60	738	9.705	8.548

(1): Okela-kiloak: Behi-okelan, kanaleko kiloak. Ardi-okelan kiloak bizirik.

Iturria: Abere eta Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua (INTIA, ITG atala).

Okelatarako behiaren Arabako laginak Nafarroakoak baino urte hobea izan du, eta % 16,1 hobetu du bere marjina garbia. Hala, 2012tik erregistratu diren ratio onenak izan ditu, bai animaliako bai lan-unitateko. Hobekuntza horren giltza da, ekoizpena handitu den arren (batez ere ekoizpenaren barnean sartzen diren zerbitzu lotuei dagozkien diru-sarrerengatik), elikadura-gastuak eta gastu finkoak erori egin direla; eta horrek, marjina garbia hobetzea ekarri du, diru-laguntzak nabarmen murriztu badira ere. Negozio horretan eta lagin horretan ere azken urteetako balantzea nahiko positiboa izan da.

171. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Esne-txerrien ekoizpena ⁽¹⁾		Ziklo itxia ⁽²⁾	
	2016	2017	2016	2017
Ezaugarri tekniko-ekonomikoak				
– Aztertutako ustiategi kop.	12	10	16	14
– Ustiategiko txerri eme kop.	161,7	172,3	356,1	392,1
– Txerri eme bakoitzeko saldutako esne-txerriak	23,5	21,6	1,0	0,9
– Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,2	0,3	23,6	22,6
– Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri-kopurua	23,8	21,9	23,6	22,6
– Esne-txerriaren salmentaren batez besteko pisua (kg)	18,1	20,8	8,8	14,6
– Gizentzeko aziendaren salmentaren batez besteko pisua (kg)	113,0	110,0	109,4	110,2
– Saldutako esne-txerri kop. + gizentzekoak	3.820	3.772	8.399	8.846
– Esne-txerriaren salmentarako batez besteko prezioa (euroak)	38,07	46,59	25,64	41,01
– Txerriaren kg-ko salmentarako batez besteko prezioa (txerria)	1,06	1,19	1,07	1,19
– GLU guztira	1,0	1,1	2,8	3,2
Emaitza ekonomikoak (euroak)				
– Produktu gordina	158.781,80	196.265,30	970.616,59	1.163.484,78
• Gastu aldakorrak	104.243,62	114.902,31	699.469,85	767.305,91
– Marjina gordina	54.538,18	81.362,99	271.146,74	396.178,88
• Gastu finkoak	38.791,59	45.771,47	196.066,03	222.369,26
– Marjina garbia	15.746,60	35.591,52	75.080,71	173.809,61

(1): 3 ustiategik 27,60 kg-ko esne-txerriak ekoitzi dituzte eta 7k titia kenduta saldu dituzte (6,95 kg/esne-txerri).

(2): Ekoizpenaren % 80 baino gehiago gizendutako txerri gisa saltzen duten ustiategiak.

Iturria: Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA, División ITG).

Okelatarako behien eta ardien emaitzekin konparatuta, eta txerri-hilketen jaitsiera bat-batekoaren aldean, txerri bizien salmentak oso emaitza positiboak izan dira 2017an Nafarroan, behintzak aurreko urtearekin alderatuta. Bi ekoizpen mota daude: esne-txerrien salmentarakoak eta ziklo itxikoak; lehen motan, ekoizpena % 23,6 igo da eta bigarreanean % 19,9. Bestalde, guztizko gastuak askoz gutxiago hazi dira, % 12,3 eta % 10,5, hurrenez hurren, eta ondorioz, marjina garbia % 126 igo da lehen motako ustiategietan eta % 131,5 bigarren motakoetan. Marjina garbia/produktu gordina ratioa % 18,1koa izan da esne-txerrien kasuan eta % 14,9koa ziklo itxikoenean. Batez besteko prezioek zerikusia izan dute aldakuntza horretan, batez ere bigarren motakoetan, % 22,4 eta % 59,9 garestitu baitira.

4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Euskal Autonomia Erkidegoan moztutako egurraren bolumenak % 11,5 gora egin du 2017an, aurreko urtearekin alderatuta. Bi urte iraun duen beheraldia amaitzeaz gainera, 2014ko gailurra gainditu da.

Horrenbestez, basogintzak berriro ekin dio 2009tik 2014ra bitartean bizi izan zuen hazkunde handiari. Goraldiak itzelak izan ziren, bereziki, urte bikoitietan: 2010, 2012 eta 2014. Urte horietan, igoerak nabarmenagoak izan ziren ekoizpen handiena duen lurraldean (Bizkaian) eta bi espezie motetan, hala koniferoetan –nagusiena– nola hostozabaletan. 2017ko igoera, berriz, Gipuzkoako eta Arabako bilakaeren ondorio da, batik bat, eta ez ditu hostozabalak barne hartu; aitzitik, behera egin du hostozabalen ekoizpenak.

Urteko guztizko bolumena 1,84 milioi metro kubiko izan da; hau da, 2008koa halako bi, gutxi gorabehera. 2009an ohiz kanpoko beheraldi bat izan zen, hainbat faktore tartean zirela; alde batetik, krisi ekonomikoari lotutako gorabeherak, krisiak kalte handiak eragin baitzizkien zur-industriaren bezero diren sektoreei, eta bestetik, inguruko klimatologiak eragindako gehiegizko eskaera. Horren ondoren, goraldia hasi zen, eta 2015-2016 arte iraun zuen, eta geldialdi horren ostean berriro egin du gora.

2017an guztira moztutako metro kubikoetatik % 89 koniferoak dira, eta hostozabalak, berriz, % 11. Lehenengo multzoan, ekarpen nagusia intsinis pinuarena da (ekoizpen guztiaren % 81,2 eta koniferoen % 91,3); bigarren multzoan, berriz, eukaliptoia gailendu da (ekoizpen guztiaren % 9,8 eta hostozabalen % 88,8).

172. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(metro kubikotan, azal eta guzti)

Urtea	Eremua	Koniferoak	Hostozabalak	Guztira
2015	Araba	137.221	22.153	159.374
	Bizkaia	851.007	181.280	1.032.287
	Gipuzkoa	569.213	4.840	574.053
	EAE	1.557.441	208.273	1.765.714
2016	Araba	107.583	8.625	116.208
	Bizkaia	749.160	200.089	949.249
	Gipuzkoa	579.877	5.132	585.009
	EAE	1.436.620	213.847	1.650.466
2017	Araba	177.960	10.043	188.003
	Bizkaia	756.657	181.044	937.701
	Gipuzkoa	702.709	11.882	714.591
	EAE	1.637.327	202.968	1.840.295

Iturria: *Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Lurraldeei erreparatuta, Bizkaiaren pisuak behera egin du, % 57,5 izatetik % 51 izatera, eta diferentzia hori beste bi lurraldeen artean banatu da; horrenbestez Araba % 10,2ra iritsi da, eta Gipuzkoa, berriz, % 38,8ra. Koniferoen multzoan, % 46,2, % 10,9 eta % 42,9 hartzen dute hiru lurraldeek, hurrenez hurren, eta hostozabalen multzoan, berriz, Bizkaiaren gailentasuna askoz ere nabarmenagoa da (% 89,2, % 4,9 eta % 5,9 hurrenez hurren).

Intsinis pinuaren bilakaerak agintzen du, praktikan, sektorearen bilakaeran, eta gorabehera handiak izan ditu. Bigarren tokian dagoen espeziea, eukaliptoia, egonkor agertu da azken urteetan moztutako bolumenetan. Gainerako espezieak, berriz, proportzio oso txikia hartzen dute, eta gorabehera gehiago dituzte; izan ere, hain bolumen txikia dutenez, urte batzuetan zenbait espeziek ez dute ekoizpenik izan.

Moztutako bolumenaren igoeran (% 11,5) eragin dute, alde batetik, koniferoen gorakadak (% 14), bereziki intsinis pinuarenak (% 15,8), eta bestetik, hostozabalen % 5eko beherakadak, eukaliptoaren ekoizpena % 9,7 murriztu baita. Guztizko kopuruetan aldaketa horiek gertatu diren bitartean, Bizkaian zertxobait behera egin du guztizko bolumenak (-% 1); izan ere, alde batetik, koniferoek % 1 gora egin dute (% 2 espezie nagusian; intsinis pinuan, alegia), eta bestetik, hostozabalek % 10 egin dute behera (-% 11 espezie nagusian; eukaliptoan, alegia). Araban aldaketa hauek izan dira: % 16, % 65, % 67, % 16 eta -% 11 (guztizko bolumena, koniferoak, intsinis pinua, hostozabalak eta eukaliptoia, hurrenez hurren), eta Gipuzkoan, berriz, % 22, % 20, % 22, -% 29 eta % 1.384.

173. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(metro kubikotan, azal eta guzti)

Espeziea	2016	2017	% Δ 17/16
- Pinu gorria	4.748	1274	-73,2
- Larizio pinua	33.414	39.339	17,7
- Itsas pinua	45.449	23.617	-48,0
- Aleppo pinua	52	0	-100,0
- Intsinis pinua	1.292.377	1.494.273	15,6
- Beste konifero batzuk	60.579	78.825	30,1
Koniferoak, guztira	1.436.620	1.637.327	14,0
- Makala	2.219	3.937	77,4
- Eukaliptoia	199.478	180.227	-9,7
- <i>Quercus</i> (haritza, artea...)	5.329	7.435	39,5
- Beste hostozabal batzuk	6.910	11.369	64,5
Hostozabalak, guztira	213.847	202.968	-5,1
GUZTIRA	1.650.466	1.840.295	11,5

Iturria: Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Euskadiko Egurraren Elkarreak (BaskEgur) emandako datuen arabera, Administrazioak 300 milioitik gora jaso ditu azpisektore honen jardueraren ondorioz. Halaber, adierazi du Euskadiko zur-enpresek zuhaitz-baliabideen iraunkortasuna bermatzen dutela, eta zuhaitzek hartzen dutela EAEko azaleraren erdia baino gehiago. Egiatan, urtean mozten den bolumena urteko hazkunde naturalaren bolumen zenbatetsiaren erdia izaten da, gutxi gorabehera. Iturri horren arabera, 13.000 enplegu zuzen eta 7.000 zeharkako sortzen ditu; hau da, EAEko enplegu guztien % 2.

Eusko Jaurlaritzaren estatistikako nekazaritza-makromagnitudeek adierazitakoari begiratuta, azpisektore honen salmenten bolumen ekonomikoa 44,7 milioi eurotik 50,3 milioi eurora igo da 2017an, merkatu-prezioetan neurtuta. Beraz, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari egiten dion ekarpena % 8tik % 9,2ra igo da. Orobat, balio horren % 80,3 espezie nagusiari dagokio; hau da, intsinis pinuari. Izan ere, nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenak espezieen arabera bereiziz gero, intsinis pinuaren egurra da EAEko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean bolumen ekonomiko handiena duen ekoizpen edo espeziea.

Ekoizpen-adierazleak ematen duen informazioaren arabera (pisuaren arabera neurtuta, ez bolumenaren arabera), sektoreak % 12,7 egin du gora 2017an, eta prezioek zertxobait behera egin dute (-% 1); beraz, % 12,6 igo da, azken balioa kontuan hartuta. Alderaketa egitean, kontuan izan behar da bi neurketa daudela: alde batetik, egurra mozteko lizentzien bolumenak aintzat hartzen dira (koadroetan ageri diren datuak), eta bestetik, benetan moztutako eta saldutako egur tonak, aipatu makromagnitudeetan zenbatzen direnak.

5. ARRANTZA-SEKTOREA

5.1 EGOERA OROKORRA

Arrantza-jarduera gero eta eremu murriztagoa du; izan ere, nazioarteko merkataritza-negozioak distantzia handiagoetara egiten dira, prezioek gero eta gorabehera gehiago izaten dituzte eta langileen kopurua behera egiten ari da, teknologiaren eraginez. Sektore tradizionala eta oso heldua da arrantza, eta orain dela hamarkada batzuetatik kuoten arabera ezartzen da noiz eta zenbat arrantzatu daitekeen espezie bakoitza. Hala eta guztiz ere, sektore horren biziraupena bermatzeko interes handia dago, arrantzak balio soziokultural agerikoa baitu; gainera, jarduera motorra da, gastronomian duen indar gero eta handiagoarengatik eta itsasertzeko herrien kokapen estrategikoarengatik.

2017an, gora egin du itsasontzi-kopuruak, ontzi bat gehiago baitago euskal portuetan; 2016an ere 2 itsasontzi berri gehitu zituen. Beraz, azken 2 urteetan 3 ontzi berri lortu dira guztira; eta horren ondorioz, esan daiteke sektorea berreskuratzen ari dela pixkanaka-pixkanaka. Izan ere, 2014-2015 aldian galera ikaragarria egon zen: ontzidiaz 24 itsasontzi gutxiagorekin geratu zen. Igoera hori baxurako azpisektoreari esker eman da, 4 itsasontzi gehiago lortu baitira. Alturako jardueran, aldiz, 3 itsasontzi gutxiago daude aurten; azken urteetan, 42 itsasontzi erabili izan dira alturako arrantzan eta 2017. urtera arte ez da aldaketarik izan itsasontzi-kopuruan. Azken hamarkadan, behera egin du erritmo biaz baxurako arrantzak (50 itsasontzi galdu ziren 2011. eta 2015. urteen artean, hau da, ontzidiaren laurden bat); baina badirudi jaitsiera hori moteldu egin dela.

174. koadroa EAEko ontzidiaren egitura

Sektorea	Urtea	Unitate-kopurua	CV potentzia	EGT*	Tripulatazaile-kopurua
Altura	2014	42	113.526	41.493	817
	2015	42	108.061	39.373	768
	2016	42	108.060	39.274	763
	2017	39	107.308	36.365	713
Baxura	2014	159	50.388	10.382	1.168
	2015	151	47.351	9.882	1.122
	2016	153	47.837	10.910	1.142
	2017	157	48.772	11.070	1.153
EAE, guztira	2014	201	163.914	51.875	1.985
	2015	193	155.412	49.255	1.890
	2016	195	155.897	50.184	1.905
	2017	196	156.079	47.435	1.866

(*): Erregistro Gordineko Tonak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Baxurako eta alturako arrantzaren tona-kopuruak behera egin du; izan ere, baxurako itsasontziak txikiagoak dira. Bestalde, zenbaki garbietan, 39 enplegu galdu dira guztira; alturako arrantzan 50 enplegu galdu dira, eta baxurako arrantzan, berriz, 11 irabazi

(baxurako arrantzako datuek beherakada leundu dute). 2016ko egoera oso bestelakoa izan zen: taulan aipatzen diren 4 adierazleek gora egin zuten, eta beraz, 15 enplegu sortu ziren, zenbaki garbietan.

Baxurako arrantzak itsasontzi guztien % 80,1 hartzen du, eta enpleguaren % 61,8; hala eta guztiz ere, -alturako ontzi izoztaile handien eraginagatik- potentziaren % 31,2 soilik hartzen du eta tona-kopuruaren % 23,3. Bestalde, baxurako urtetik urterako aldakuntzek gora egin dute lau adierazleetan: itsasontzi-kopuruak % 2,6 egin du gora, enpleguak % 1eko gorakada izan du, potentziak % 2koa, eta % 1,5 igo da tona-kopurua. Alturako arrantzak, aldiz, bilakaera negatiboa izan du: itsasontzi-kopuruak -% 7,1 egin du behera, enplegua -% 6,6 jaitsi da, potentzia -% 0,7, eta -% 7,4 tona-kopurua. Arrantza guztiaren datuak aztertuz gero, hau da, baxurakoak eta alturakoak aldi berean, ikus daiteke emaitzak ez direla oso positiboak: itsasontzi-kopuruak % 0,5 egin du gora, enplegua -% 2 jaitsi da, potentziak % 0,1eko gorakada txikia izan du eta tona-kopuruak -% 5,5 egin du behera.

5.2 BAXURAKO ARRANTZA

Baxurako ontzidia

Gipuzkoakoak dira baxurako lau itsasontzi berriak (3 Hondarribiakoak eta 1 Donostiakoa). Egun, probintzia horretan 87 ontzi daude; eta Bizkaian, berriz, 70; hala eta guztiz ere, alde handiak daude portuen artean; izan ere, gero eta ontzi gehiago hartzen dituzte portu handiek (Bermeo eta Ondarroa), eta portu txiki jakin batzuetan jarduera desagertzeaz dagoela dirudi.

175. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portu bakoitzeko (2017)

Portua	Unitate-kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatazaile-kopurua
- Hondarribia	30	15.039	3.423	370
- Getaria	25	10.771	2.479	256
- Mutriku	4	337	906	9
- Orio	6	4.660	860	93
- Pasaia	17	1.637	264	54
- Donostia	5	513	65	13
GIPUZKOA, GUZTIRA	87	32.957	7.998	795
- Bermeo	30	8.680	1.801	173
- Zierbena	6	901	179	28
- Armintza (Lemoiz)	4	256	36	10
- Lekeitio	9	2.382	488	57
- Mundaka	4	337	906	9
- Ondarroa ^(*)	8	2.304	381	53
- Santurtzi ^(**)	13	1.292	188	37
BIZKAIA, GUZTIRA	70	15.814	3.072	358
EAE, guztira	157	48.772	11.070	1.153

(*): Ontzi bat dago EAETik kanpo, baina Ondarroako ontzien artean sartu da estatistika-sekretua gordetzeko.

(**): Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilboko, Plentziako eta Mundakako ontzien datuak Santurtziko enpleguaren multzoan sartu dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Azken hamarkadan, EAE osoan, Hondarribiak soilik, eta Pasaiak, neurri apalagoan, izan dituzte hobekuntzak baxurako jarduera indartzeko; hala ere, hobekuntza horiek txikiak izan dira. Gainerako euskal portu guztietan, berriz, bilakaera kontrakoa izan da, baliabideei dagokienez behintzat (Ondarroa eta Getaria dira lehenak arrantzatutako tona-kopuruan). 2017an, Hondarribiak lehen aldiz gainditu du Bermeoko portuko baxurako itsasontzi-kopurua; gainerako adierazleak, aldiz, aspaldi gainditu zituen. Horrez gainera, aurten, Bizkaia osoan baino enplegu-kopuru handiagoa iritsi du Hondarribiako portuak baxurako sektorean. Hondarribiak eta Bermeok beren probintzietako % 50 inguru hartzen dute adierazle gehienetan.

Bidasoako portuak EAEko baxurako potentziaren % 30,8 hartzen du, tona-kopuruaren % 30,9, tripulazioaren % 32,1 eta itsasontzien % 19,1. Gipuzkoak, aldiz, beste hauek hartzen ditu: potentziaren % 67,6, tona-kopuruaren % 72,2, tripulazioaren % 69 eta itsasontzi-kopuruaren % 55,4. Bizkaiak, berriz, gainerako % 32,4a, % 27,8a, % 31a eta % 44,6a, hurrenez hurren.

176. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera (2017)

Modalitatea	Unitate-kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatzailer-kopurua
– Inguraketa	37	23.249	5.213	543
– Arte xeheak	26	2.331	1.205	65
– Tretza	6	715	103	15
– Beita bizia	9	5.315	1.243	139
– Xaxiango/kazako aparailuak, artefaktuak eta lerro bertikalak ^(*)	9	1.347	234	33
GIPUZKOA, GUZTIRA	87	32.957	7.998	795
– Inguraketa	11	4.680	1.004	111
– Arte xeheak	39	5.165	960	126
– Tretza	8	2.133	390	48
– Xaxiangoa/kazako aparailuak, artefaktuak eta beita bizia ^(**)	12	3.836	718	73
BIZKAIA, GUZTIRA	70	15.814	3.072	358
EAE, guztira	157	48.771	11.070	1.153

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Gipuzkoan xaxiango/kazako, artefaktuetako eta lerro bertikaleko ontziak sartu dira.*

(**): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Bizkaian artefaktuekin aritzen diren ontziak, xaxiango/kazako eta beita biziko ontziekin sartu dira.*

Iturria: *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Azken hamarkadan, ez dira asko aldatu arrantza-tekniken arteko proportzioak, kasu zehatzen batean izan ezik; adibidez, tretza erdiraino murriztu da denbora horretan. Azken urteetan, inguraketa-teknika izan da gehien erabili den modalitatea Gipuzkoan, eta aurtengoan ere horrela izan da. Bizkaian, aldiz, aniztasuna handiagoa da, eta arte xeheak erabiltzen dira gehien; EAEn bigarrena da teknika hori. Horrela, adibidez, Gipuzkoako inguraketa-teknikak langile gehiago ditu arte xeheek baino (9 bider gehiago),

eta probintzia osoko langile guztien bi heren hartzen ditu. Bizkaian, berriz, arte xeheek langile gehiago dituzte inguruketak baino.

Baxurako ontzidiak lehorreratutako arrantza

Baxurako ontzidiak harrapatutako arrainen pisuaren eta balioaren bilakaera eta banaketa aztertuta, ikus daiteke antzekoak izan direla, 2017an, guztizko balioaren igoera (% 12,8) eta lehorreratutako tona-kopuruaren gorakada (% 11,5). 2016an, aldiz, egoera bestelakoa izan zen: balioaren igoera aurtengoaren antzekoa izan zen (% 16,5), baina lehorreratutako tona-kopurua jaitsi egin zen (-% 0,9). Horrez gainera, kilogramo/euro ratioa % 17,6 igo zen 2016an; eta 2017an, berriz, % 1,2 soilik egin du gora.

Salmentek % 12,8 egin dute gora, eta beraz, 10 milioi euro gehiago lortu dira; guztira, 89,3 milioi euro. Izan ere, antxoaren kanpainan 4 milioi gehiago irabazi dira, berdelarenean 3,8 milioi, eta legatzarenean eta hegaluzearenean 2 milioi inguru bakoitzean; sardinaren kanpainak, aldiz, 2,4 milioiko salmenta-galerak izan ditu. Igoera horien arrazoi nagusia izan da antxoa gehiago eta berdel gehiago harrapatu direla (antxoak % 14,8ko hazkundera izan du, eta berdelak % 26,9ko igoera). Bestalde, prezio batzuek gora egin dute; esate baterako, antxoa % 2,3 igo da, hegaluzea % 4,9, legatza % 6,7 eta berdela % 16,9; beraz, kilogramoko 4, 19, 25 eta 13 zentimo garestitu dira, hurrenez hurren. Dena den, sardina 23 zentimo merketu da, eta kiloa 0,77 €-an saldu da.

177. koadroa Baxurako ontzidiak lehorreratutako arrantza, guztira

Lurraldea	2016		2017		%Δ 17/16	
	Tm	M eurotan	Tm	M eurotan	Tm	M eurotan
Gipuzkoa	25.487	52.348	27.270	55.736	7,0	6,5
Bizkaia	19.966	26.827	23.418	33.590	17,3	25,2
EAE	45.453	79.175	50.688	89.326	11,5	12,8

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Sektorea arrantza-aldi garrantzitsuenen eta baloratuenen menpe dago, neurri handi batean. Geroago aipatuko den bezala, antxoarenak eta hegaluzearenak dira arrantza-aldi nagusiak, eta gainera, azken urteetan emaitza onak izan dituzte; hala eta guztiz ere, antxoaren prezioak apalak izan dira. Beste espezie nagusiek bigarren mailako garrantzia dute eta gorabeherak izaten dituzte sarri; izan ere, antxoaren eta hegaluzearen bilakaerek eragiten diete.

2017an, Bizkaiko portuetako balantza hobea izan da Gipuzkoako portuetakoa baino: Bizkaian tona-kopuruak % 17,3 egin du gora, bolumen ekonomikoa % 25,2 igo da eta

% 6,7ko gorakada izan da batez besteko prezioen ratioan. Gipuzkoan, berriz, % 7 igo da tona-kopurua, balioak % 6,5eko gorakada izan du, eta batez besteko prezioek ez dute aldaketa handirik izan (-% 0,5). Datu horien arabera, Bizkaiko ekoizpena 1,43 €/kg-an saldu da, eta, Gipuzkoakoa, 2,04 €/kg-an. Horren ondorioz, Bizkaiko ratioak 9 zentimo irabazi ditu, eta Gipuzkoakoak, 1 zentimo galdu; beraz, EAEn, kiloko gorakada 2 zentimo eta 1,76 € artekoa izan da.

Komertzializatzeko moduen artean, freskoko salmenta tona-kopuruaren % 70-% 80 artekoa izan da azkenaldian, eta balioetan % 80 ingurukoa. Hain zuzen ere, 2017an, tona-kopuruaren % 75,6 freskoko salmentaren bidez saldu da, hau da, diru-sarreraren % 78,7.

Kontserbek eta izoztuek, berriz, gorabehera handiagoak izan dituzte erabileran: kontserbek bilakaera positiboa izan dute, eta izoztuek, negatiboa. Kilogramo/euro ratio onena kontserbek izan dute (2,22 €/kg). Izoztuen ratioa, aldiz, asko hobetu da 2017an, kiloko 0,67tik 1,02 €-ra pasa da.

Kontserben salmentaren merkatua ez da oso handia, baina Gipuzkoan igoera nabarmena izan du (Gipuzkoan % 15eko igoera eta Bizkaian % 10,8ko gorakada). Bestalde, Bizkaian ratio handiagoa du freskoko salmentak Gipuzkoan baino (Bizkaian % 82,7 eta Gipuzkoan % 76,4).

178. koadroa Baxurako ontzidiak lehorreratutako arrantzaren helmuga, 2017

Lurraldea	Freskoa		Kontserbak		Izoztuak	
	Tm	M eurotan	Tm	M eurotan	Tm	M eurotan
Gipuzkoa	19.255	42.573	3.865	8.369	4.089	4.794
Bizkaia	18.877	27.695	1.534	3.610	2.790	2.201
EAE	38.133	70.268	5.398	11.979	6.879	6.995

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Antxoa eta hegaluzea tamaina ezberdineko arrainak dira, baina, lehen aipatu bezala, bi arrain-mota horiek dituzte kanpaina edo arrantza-aldi garrantzitsuenak. Bilakaera positiboa izan dute bi arrain-mota horiek, baina alde handiak dituzte elkarren artean.

Azken debekualdia amaitu denetik, igo egin da lehorreratutako antxoen tona-kopurua, hala eta guztiz ere, guztizko balio ekonomikoak azken 2 ekitalditan soilik izan du goranzko joera; izan ere, prezioak ez dira aldatu 3 urtez.

Hegaluzearen guztizko tona-kopurua txikiagoa da eta igoerak denbora luzeagoan eman dira (3 urte), baina erritmoa leunagoa izan da. Hala eta guztiz ere, guztizko diru-sarrerak

antxoarenaren antzekoak dira, prezioak askoz altuagoak direlako eta aldaketa gehiago izan dituztelako; igoera txiki horiek 3 urtez eman dira.


179. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017
Antxoa					
– Lehorreratzeak (Tm)	9.283	12.679	11.858	14.597	16.753
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	2,49	1,76	1,69	1,58	1,62
– Balioa (mila euro)	23.116	22.276	20.046	23.036	27.059
Hegaluzea					
– Lehorreratzeak (Tm)	3.578	2.966	5.110	6.106	6.322
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,50	3,38	3,42	3,78	3,97
– Balioa (mila euro)	12.521	10.033	17.471	23.093	25.082

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

29. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak



Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

180. koadroa Baxurako ontzidiek lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera (2017)
(Tm)

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽¹⁾	Sardina	Berdela ⁽²⁾	Beste batzuk
- Hondarribia	8.622	17,0	2.730	2.073	440	5	699	1.861	815
- Pasaia	6.566	13,0	938	83	262	603	1.631	2.067	981
- Getaria	12.079	23,8	4.382	2.856	386	-	1.326	2.381	748
- Mutriku	3	0,01	-	-	0	1	-	0	2
- Ondarroa	18.921	37,3	8.374	603	1.575	138	3.327	3.507	1.397
- Lekeitio	460	0,9	27	2	0	2	10	391	26
- Bermeo	4.025	7,9	303	701	15	61	4	2.794	146
- Armintza (Lemoiz)	5	0,01	-	3	-	2	-	-	0
- Santurtzi	8	0,02	-	0	2	1	-	1	4
GIPUZKOA, GUZTIRA	27.270	53,8	8.049	5.012	1.089	608	3.656	6.310	2.546
BIZKAIA, GUZTIRA	23.419	46,2	8.704	1.310	1.592	204	3.341	6.693	1.573
EAE, GUZTIRA	50.689	100,0	16.753	6.322	2.681	812	6.997	13.003	4.119
<i>% s/ Gipuzkoa</i>			<i>29,5</i>	<i>18,4</i>	<i>4,0</i>	<i>2,2</i>	<i>13,4</i>	<i>23,2</i>	<i>9,3</i>
<i>% s/ Bizkaia</i>			<i>37,2</i>	<i>5,6</i>	<i>6,8</i>	<i>0,9</i>	<i>14,3</i>	<i>28,6</i>	<i>6,7</i>
<i>% s/ EAE</i>			<i>33,1</i>	<i>12,5</i>	<i>5,3</i>	<i>1,6</i>	<i>13,8</i>	<i>25,7</i>	<i>8,1</i>

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza barne.

(2): Berdela eta betaundia barne.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Espezien eta portuen arteko datuak alderatuz gero, sektorea eta 2017ko balantzea beste ikuspuntu batetik aztertu daitezke: EAEn, tona-kopuruak % 11,5eko igoera izan du, hau da, 5.000 tona baino gehiago lortu dira. Hondarribiak eta Ondarroak eragin dute, batez ere, gorakada horretan, bakoitzak 1.500 tona inguru irabazi baititu; Bermeok ere, modu apalagoan, eragina izan du 1.000 tona gehiago lortuta. Bestalde, ontzidiaren datuen arabera (Hondarribiak eta Bermeok dituzte ontzi gehien), Ondarroak lehorreratutako guztizko tona-kopuruaren heren bat baino gehiago hartzen du; bigarrena Getaria da (% 23,8). Tona-kopuruaren eta balioaren datuak aldi berean aztertuta, adierazi behar da igoera izan duela Hondarribiak; berreskuratze-prozesuan daudela Pasaia, Ondarroa eta Bermeo; eta ez duela aldaketa handirik izan Getariak.

Hondarribiak igoera orokorra izan du, espezie denek egin baitute gora. Ondarroan, antxoa eta berdela nagusitu dira, besteen kaltetan. Bestalde, Bermeon hegaluzeaz gain, berdela igo da, batez ere. Antxoaren arrantzuan Ondarroa, eta, batez ere, Getaria dira nagusi; hegaluzea harrapatzen, aldiz, Getaria eta Hondarribia; txitxarroa, berdela eta sardina arrantzatzen Ondarroa; eta legatzaren arrantzuan, berriz, Pasaia.

Espezie bakoitzaren kuota kontuan hartuta, antxoa eta hegaluzea dira gehien arrantzatu diren arrainak, eta aurreko urteko datuei eutsi diete (guztizko balioaren % 30,3 antxoak

eta % 28,1 hegaluzeak). Bestalde, sardina eta berdela ere nahiko arrantzatu dira, baina gorabeherak izaten dituzte eta arrantzatzea zailagoa izaten da; 2016an % 10 inguruko balioa zuten diru-sarreretan, eta aurten % 6koa eta % 13koa, hurrenez hurren. Pisuaren araberako banaketa antzekoa izaten da, hegaluzearen eta berdelaren kasuan izan ezik; hegaluzeak batez besteakoarena baino balio handiagoa du kilogramoka, eta berdelak, txikiagoa. Horregatik, lehorreratutako pisuetan, hegaluzeak % 12,5 hartzen du; berdelak % 25,7; eta antxoak % 33,1.

Diru-sarrerak 10,1 milioi euro igo dira, eta igoera horretan eragin dute, batez ere, Ondarroak (4,4 milioi gehiago), Hondarribiak (3,3 milioi gehiago) eta Bermeok (2,4 milioi gehiago). Bermeoko diru-sarrerak hobetu egin dira (% 57,7), nahiz eta guztizko salmentetan emaitza irregularrak izan dituen. Hondarribiak eta Ondarroak ere datu positiboak izan dituzte (% 23,1 eta % 19,9 hurrenez hurren). Bestalde, gainerako portuetako bariazioak ez dira hain handiak izan, ehunekoetan oso txikiak izan direlako edo jarduera gutxi edo irregularra izan dutelako.

Ondarroan antxoaren aldeko apostua egin dute, diru-sarrerek gorakada handia izan baitute; Hondarribian eta Bermeon, berriz, hegaluzeari eta berdelari esker izan dute igoera. Diru-sarrerei dagokienez, Ondarroak berriz ere lehen postua hartu du, Getaria atzean utzita (hegaluzearen arrantzuan dago oinarrituta Getaria). Bi portu horiek EAEko datu onenak dituzte (Ondarroak % 29,6 eta Getariak % 28,2). Ondoren, Hondarribiak eta Pasaia dute emaitzarik onena (% 19,4 eta % 14,8 hurrenez hurren); eta azkenik, Bermeok (% 7,3).

181. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera (2017)

(M eurotan)

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegalu- zea	Txitxa- rra	Legatza ⁽¹⁾	Sardina	Berdela ⁽²⁾	Beste batzuk
- Hondarribia	17.322	19,4	4.070	8.150	208	23	487	1.578	2.806
- Pasaia	13.230	14,8	1.845	314	393	2.428	1.292	2.130	4.829
- Getaria	25.171	28,2	7.462	11.478	180	-	998	1.985	3.068
- Mutriku	13	0,01	-	-	0	2	-	0	10
- Ondarroa	26.477	29,6	13.017	2.391	1.775	668	2.582	3.349	2.695
- Lekeitio	553	0,6	37	8	0	8	3	325	172
- Bermeo	6.509	7,3	627	2.729	7	176	2	2.273	694
- Armintza (Lemoiz)	22	0,02	-	11	-	6	-	-	4
- Santurtzi	29	0,03	-	1	3	5	-	1	20
GIPUZKOA, GUZTIRA	55.736	62,4	13.377	19.941	781	2.453	2.777	5.694	10.712
BIZKAIA, GUZTIRA	33.590	37,6	13.681	5.141	1.786	863	2.588	5.947	3.585
EAE, GUZTIRA	89.326	100,0	27.059	25.082	2.567	3.316	5.364	11.641	14.297
% s/ Gipuzkoa			24,0	35,8	1,4	4,4	5,0	10,2	19,2
% s/ Bizkaia			40,7	15,3	5,3	2,6	7,7	17,7	10,7
% s/ EAE			30,3	28,1	2,9	3,7	6,0	13,0	16,0

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza barne.

(2): Berdela eta betaundia barne.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Portu gutxi batzuetan egiten da alturako arrantza. EAEn, Bermeo eta Pasaia dira, batez ere, alturako arrantzako ontziak dituzten portuak. Atalaren hasieran adierazi bezala, hainbat urtez 42 itsasontzi egon dira aktibo; 2017an, aldiz, ontzidia 39 itsasontzitarra murriztu da. Galdutako 3 ontzi horiek altura handikoak ziren (egun 31 itsasontzi daude). Bestalde, freskoko alturan azken urteetako 18 ontziek aktibo jarraitzen dute.

Enpleguak behera egin du bai freskoko alturan bai altura handiko arrantzan. Hain zuzen ere, 3 enplegu galdu ditu freskoko alturak (-% 1,3ko jaitsiera izan da); egun 224 enplegu daude. Bestalde, altura handiko arrantzan -% 8,8ko beherakada egon da (2016an, 536 lanpostu zeuden, eta 2017an, 489). Freskoko alturan, enpleguak nabarmen egin zuen behera 2012an; hau da, guztizko enpleguaren laurden bat galdu zen. Une horretatik aurrera, 2012-2017 aldian enpleguaren % 10 soilik galdu da.

Altura handiko arrantza bi zatitan banatu daiteke: alde batetik, 19 atunontzi izoztaile daude (Bermeoko portutik irteten diren tona-kopuru eta potentzia handiko ontziak), eta bestetik, 2 bakailao-ontzi (Pasaiako portukoak dira). Estatistika-sekretuak direla eta, ezin dira eman azken ontzi horien bereizitako datuak.

182. koadroa EAEko alturako ontzidiaren egitura, 2017*

	Unitate-kopurua	CV potentzia	EGT	Tripulatzaile-kopurua
Freskoko altura	18	9.532	3.870	224
Atunera handikoa (atunontzi izoztaileak eta bakailao-ontziak)	21	97.776	32.495	489
Altura, guztira	39	107.308	36.365	713

(*): *Estatistika-sekretua babesteko, ez da datuen berri eman ez elkarteen arabera, ez modalitateen arabera. 2 bakailao-ontzien datuak atunontzi izoztaileekin batera eman dira.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.



| 17

4. ZERBITZUAK

1. IKUSPEGI OROKORRA

Estatuko barne-produktu gordinak hedapena baretu duen bitartean (% 3,3ko igoera izan zuen 2016an, eta % 3,1ekoa izan du 2017an), EAEko ekonomiak antzeko joera izan du (% 3,1etik % 2,9ra) eta Nafarroan indartu egin da (% 2,9eko igoera 2016an, % 3,2koa 2017an).

Zerbitzuen sektorean arreta jarrita, 2017an % 3,1 gora egin du EAEn, % 4,1 Nafarroan eta % 2,6 estatuan. Aurreko urteko emaitzak hobetu dira, bai EAEn bai Nafarroan (% 2,8 eta % 3,6 2016an, hurrenez hurren), ez ordea estatuan (% 3 2016an).

183. koadroa Zerbitzuen sektorearen bilakaera

(aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2015		2016		2017	
	Hego EH	Espainia	Hego EH	Espainia	Hego EH	Espainia
Tren bidezko garraioa (salgaiak)*	-0,3	--	-23,7	--	-7,4	--
Tren bidezko garraioa (bidaiariak)*	-0,2	--	-0,5	--	11,0	--
Errepide bidezko garraioa (salgaiak)	5,8	8,2	1,5	2,8	2,9	9,3
Itsas garraioa (salgaiak)*	6,3	4,1	-3,1	0,6	2,0	6,4
Aireko garraioa (salgaiak)	9,3	4,7	11,9	11,2	13,3	15,4
Aireko garraioa (bidaiariak)	6,9	6,0	8,2	11,0	9,2	8,7

(*): EAEko datuak.

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

Horrenbestez, azpimarratu behar dugu, sektorearen heterogeneotasuna dela-eta, zaila dela sektorearen azterketa agregatua egitea; hala ere, enplegua da adierazlerik egonkorrenetako bat. Horren haritik, adierazi behar da hirugarren sektorean lan egiten duen biztanleriak behera egin duela 2017an, bai EAEn bai Nafarroan (-% 0,4 Hego Euskal Herrian, oro har), estatuan gora egin duen bitartean (% 1,9).

2. HEZKUNTZA

2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

2017/2018 ikasturteko datuen arabera, EAEko unibertsitatetik kanpoko ikasle-kopuruak berriz ere gorakada txiki bat izan du (% 0,8). Guztira, 484.912 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino 4.053 ikasle gehiago, eta azken ikasturtetako joerari eutsi zaio, hau da, ikasleen erroldak gora egin du hezkuntza-maila guztietan, Haur Hezkuntzan izan ezik. Beraz, matrikulazioen gorakada txiki horretan hezkuntza-maila hauek izan dute eragina, ordena honetan: Lanbide Heziketak (% 3,1), DBHk –Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak– (% 2,1) eta Lehen Hezkuntzak eta Batxilergoak (biek % 1,1 handitu dituzte matrikulazio-datuak).

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzari dagokionez, Euskal Herrian 112.684 ikasle matrikulatu dira azken ikasturtean, hau da, pasa den ikasturtean baino 2.004 ikasle gutxiago. Ikastetxeei buruzko informazioa sareen arabera bereizita, ikus daiteke ikastetxe publikoetara joaten dela ikasleen gehiengoa (% 55,3), eta, itunpeko ikastetxeetara, aldiz, gainerako % 44,7a. Ikasleen bilakaera aztertuta, azken ikasturteko datuek adierazi dute bi sareetan gutxitu direla matrikulazioak, eta, gainera, antzeko datuekin: -% 1,6 ikastetxe publikoetan eta -% 1,9 itunpekoetan.

184. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. Haur Hezkuntza

Eremua	2016/2017 ikasturtea			2017/2018 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	9.123	5.708	14.831	8.865	5.710	14.575
Bizkaia	22.086	22.835	44.931	21.509	22.311	43.820
Gipuzkoa	15.911	14.586	30.497	15.547	14.249	29.796
EAE	47.120	43.129	90.249	45.921	42.270	88.191
Nafarroa	16.179	8.260	24.439	16.371	8.122	24.493
Euskal Herria	63.299	51.389	114.688	62.292	50.392	112.684

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Datuak lurraldeen arabera aztertuta eta beherakadak nagusi direla kontuan izanda, Nafarroako Foru Komunitatean soilik igo dira Haur Hezkuntzako matrikulazioak; hala ere, ez oso nabarmen (% 0,2). EAEn, aurreko ikasturtean bezala, hiru lurralde historikoetan egin du behera ikasle-kopuruak. Bizkaian ikasten dute EAEko haurren ia erdiak, eta probintzia horretan % 2,5eko murriztu dira matrikulazioak 2017/2018 ikasturtean. Bi sareetan izan da beherakada, bai publikoan (-% 2,6) bai pribatuan (-% 2,3); gainera,

Bizkaian, ikasleen banaketa paretsua da bi sareetan (publikoan % 49,1, eta itunpekoan gainerako % 50,9a). Gipuzkoan, ikasle gehien dituen bigarren lurraldean (% 26,4), Bizkaiko joera bera errepikatu da (-% 2,3). Matrikulazioen jaitsiera bi sareetan gertatu da, eta antzeko bilakaera izan dute; hala ere, sare pribatuan baino ikasle gehiago dago sare publikoan (% 47,8 eta % 52,2 hurrenez hurren). Araban EAEko ikasleen % 12,9 dago matrikulatuta, eta matrikulazioek bilakaera ezberdina izan dute sare bakoitzean. Sare publikoan ikasle-kopuruak behera egin du (-% 2,8), eta, sare pribatuan, aldiz, mantendu egin da. Edonola ere, Arabako Haur Hezkuntzako eskola-mapan sare publikoa da nagusi: 10 ikasle 6 hartzen ditu. Nahiz eta matrikulazioek, oro har, behera egin duten, Nafarroan igo egin dira, baina ez da igoera handia izan (% 0,2); izan ere, bilakaera positiboa izan da sare batean, eta negatiboa bestean. Nafarroan, sare publikoak du ikasleen gehiagoa (% 66,8), eta matrikulazioak gora egin du sare horretan (% 1,2); aldiz, matrikulazioak behera egin du itunpeko sarean (-% 1,7). Hortaz, EAEn 88.191 ikasle matrikulatu dira guztira Haur Hezkuntzan, aurreko ikasturtean baino 2.058 ikasle gutxiago; bestalde, Nafarroan 24.493 ikasle daude, aurrekoan baino 54 gehiago.

185. koadroa Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza

(%)

Eremua	2016/2017 ikasturtea					2017/2018 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,1	33,5	63,4	0,0	100	3,1	32,2	64,7	0,0	100
Bizkaia	3,6	22,7	72,7	1,0	100	3,4	21,8	73,9	1,0	100
Gipuzkoa	2,3	3,1	94,6	0,0	100	2,3	2,9	94,8	0,0	100
EAE	3,1	17,9	78,6	0,5	100	2,9	17,1	79,4	0,5	100
Nafarroa*	30,8	1,4	27,5	40,3	100	30,5	1,8	27,9	39,8	100
Euskal Herria	9,0	14,4	67,7	9,0	100	8,9	13,8	68,2	9,0	100
Pribatua	7,9	27,9	53,7	10,6	100	7,9	27,1	54,4	10,6	100
Publikoa	9,8	3,4	79,1	7,7	100	9,8	3,0	79,4	7,8	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren arabera, Euskal Herri osoari dagokio.

A: Hezkuntza gaztelaniaz, eta euskara irakasgai.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz, eta gaztelania irakasgai.

X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

(): Nafarroan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza-ereduari ofizialki G eredu esaten zaio.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

Haur Hezkuntzako euskalduntze-mailari begiratuta, lehen datuek adierazi dute D ereduak (euskaraz irakatsi eta gaztelania irakasgai bakan duenak) igotzen jarraitzen duela Haur Hezkuntzako ikasgeletan. Gipuzkoak ditu ikasle gehien D ereduak, eta, pixkanaka-pixkanaka, balio maximoetara gerturatzen ari da (% 94,8). Ikasle gutxi daude gainerako ereduak: ikasleen % 3,2k aukeratzen du A eredu (gaztelaniaz irakatsi eta euskara irakasgai bakan duena) eta % 2,9k B eredu (irakaskuntza elebiduna). Bizkaian ere gora egin du D ereduak, eta ikasleen % 73,9 eredu horretan matrikulatu da; B ereduak

% 21,8, eta A ereduari gainerako % 3,4a. Arabako hizkuntza-mapan, D ereduak (% 64,7) da nagusi, gainera, azken ikasturtean igo egin da ikasle-kopurua (% 1,3). Horren ondorioz, behera egin du B ereduak % 32,2raino, eta A ereduak oso barneratze-tasa txikia du (% 3,1). Nafarroako egoera bestelakoa da; izan ere, ereduaren arteko oreka handiagoa da. X ereduak (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) du barneratze-tasa handiena (% 39,8), eta haren atzetik datoz A ereduak (% 30,5) eta D ereduak (% 27,9). B ereduak, berriz, ikasle gutxi ditu (% 1,8). Hori horrela, euskalduntze-tasa (D ereduak eta B ereduak) % 96,5koa da EAEn, eta % 82koa Hego Euskal Herrian.

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako datuei dagokienez, 2017/2018 ikasturtean 172.724 ikasle matrikulatu dira irakasmaila horretan. Hortaz, aurreko ikasturteko datuekin alderatuta, matrikulak % 1,1 igo dira Hego Euskal Herrian; hau da, 1.923 ikasle gehiago matrikulatu dira. Lurraldeka, matrikulazioak gora egin du Araban eta Nafarroan (% 2,7 eta % 1,1 hurrenez hurren); Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, matrikulazio-datuak ez dute goranzko joera garbirik adierazten (% 0,6 eta % 0,3 hurrenez hurren).

186. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. Lehen Hezkuntza

Eremua	2016/2017 ikasturtea			2017/2018 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	12.257	7.906	20.163	12.639	8.066	20.705
Bizkaia	31.915	32.898	64.813	32.181	33.000	65.181
Gipuzkoa	22.711	21.745	44.456	22.893	21.710	44.603
EAE	66.883	62.549	129.432	67.713	62.776	130.489
Nafarroa	26.257	15.112	41.369	27.045	15.190	42.235
Euskal Herria	93.140	77.661	170.801	94.758	77.966	172.724

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Matrikulazioak sareen arabera aztertuz gero, ikastetxe publikoen bilakaera itunpekoena baino hobea da. Izan ere, Gipuzkoako sare pribatuen soilik jaitsi dira matrikulazioak (-% 0,2); hala eta guztiz ere, adierazi behar da nahiz eta ikastetxe publikoetan ikasleen % 51,3 egon matrikulatuta, % 0,8 soilik igo direla matrikulazioak. Bizkaian, oreka handiagoa dago bai ikasleen banaketan (% 49,4 ikastetxe publikoetan eta gainerako % 50,6a pribatuetan) bai matrikulazioaren bilakaeran (% 0,8 eta % 0,3 hurrenez hurren). Araban, aldiz, sare pribatuak baino ikasle gehiago ditu sare publikoak (% 61 eta % 39, hurrenez hurren), bai eta dinamismo handiagoa ere; ikasleen kopurua % 3,1 igo baita sare publikoan, eta % 2 itunpeko ikastetxeetan. Nafarroako egoerak badu Arabakoaren antzarik: ikastetxe publikoek hartzen dituzte ikasle gehien –ikasleen % 64 dago sare

publikoan matrikulatuta, eta bilakaera hobea izan dute (% 3ko igoera izan da publikoan, eta % 0,5ekoa itunpekoan). Horren ondorioz, Hego Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako ikasleen gehiengoa, hau da, % 54,9, ikastetxe publikoetara joaten da eta pribatuetara gainerako % 45,1a. Bizkaian, ordea, sare publikoan baino ikasle gehiago matrikulatu da sare pribatuan.

187. koadroa Euskalduntze-maila. Lehen Hezkuntza

(%)

Eremua	2016/2017 ikasturtea					2017/2018 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	5,9	39,4	54,7	0,0	100	5,5	37,7	56,9	0,0	100
Bizkaia	5,1	25,3	68,2	1,4	100	4,6	24,9	69,0	1,4	100
Gipuzkoa	2,6	9,5	87,9	0,0	100	2,5	8,2	89,3	0,0	100
EAE	4,3	22,1	72,9	0,7	100	4,0	21,2	74,0	0,7	100
Nafarroa	19,9	0,4	26,7	53,0	100	19,8	0,5	26,3	53,4	100
Euskal Herria	8,1	16,8	61,7	13,4	100	7,9	16,2	62,4	13,6	100
Pribatua	8,5	30,8	46,7	14,0	100	8,1	30,1	47,6	14,2	100
Publikoa	7,8	5,2	74,2	12,8	100	7,7	4,7	74,5	13,1	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren arabera, Hego Euskal Herrian.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduei dagokienez, Haur Hezkuntzan gertatu den bezala, Lehen Hezkuntzako ikasle gehienek D eredia hautatu dute; eta horrez gainera, eredu horrek du EAeko urtetik urterako bilakaera onena. Hain zuzen ere, Gipuzkoan argi eta garbi ikusten da bilakaera hori; matrikulazioen % 89,3k D eredia hautatu du, aurreko ikasturtean baino % 1,4 gehiagok. Horren ondorioz, gainerako ereduak ez dute indar handirik (% 2,5 A ereduak eta % 8,2 B ereduak). Bizkaiko hizkuntza-mapan, D eredia da nagusi, matrikulazioen % 69arekin; atzetik datoz B eredia, (% 24,9); A eredia (% 4,6) eta ia desagertuta dagoen X eredia (% 1,4). Araban, berriz, EAeko beste bi lurraldeetan baino ikasle-ehuneko txikiagoa hartzen du D ereduak, baina, era berean, eredu horrek du ehuneko handiena probintzia horretan (% 56,9), eta, aurreko ikasturtearekin alderatuta, matrikulazioak % 2,2 igo dira. B ereduak % 37,7ko matrikulazioa du, eta A ereduak, aldiz, % 5,5ekoa. Hiru lurralde historikoetan ez bezala, Nafarroan X ereduak du ehunekorik handiena, matrikulazioen % 53,4arekin; atzetik datoz D eredia (% 26,3), A eredia (% 19,8) eta B eredia (% 0,5). Hori horrela, Haur Hezkuntzako euskalduntze-tasa % 95,2raino igo da EAEn eta Nafarroako datuak kontuan hartuta, % 78,6ra jaitsi da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokionez, 2017/2018 ikasturtean 110.184 ikasle matrikulatu ziren Hego Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 2.222 ikasle gehiago. Lau probintzietan izan da hazkundera, eta hazkunde orokorra % 2,1ekoa izan da. Arabak izan du igoera handiena (% 3,6), atzetik Bizkaia eta Gipuzkoa datoz (biek urtetik urterako % 2ko tasarekin), eta, azkenik, Nafarroa (% 1,3).

188. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. DBH

Eremua	2016/2017 ikasturtea			2017/2018 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	5.980	6.286	12.266	6.215	6.496	12.711
Bizkaia	18.381	22.571	40.952	18.669	23.089	41.758
Gipuzkoa	13.438	14.745	28.183	13.701	15.116	28.817
EAE	37.799	43.602	81.401	38.585	44.701	83.286
Nafarroa	15.817	10.744	26.561	15.926	10.972	26.898
Euskal Herria	53.616	54.346	107.962	54.511	55.673	110.184

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Informazioa sareen arabera aztertuta, ikus daiteke hiru lurralde historikoetan sare pribatuan baino ikasle gehiago matrikulatzen dela sare publikoan; eta Nafarroan, aldiz, alderantziz gertatzen dela. Araban, adibidez, matrikulazioen % 51,1 ikastetxe pribatuetan egiten da, eta gainerako % 48,9a zentro publikoetan. Horretaz gainera, bi sareek antzeko bilakaera izan dute (% 3,3 eta % 3,9, hurrenez hurren). Gipuzkoan, ikasleen % 52,5ek itunpeko sarea aukeratu du, eta gainerako % 47,5ek irakaskuntza publikoa. Era berean, bi sareek antzeko bilakaera izan dute (% 2,5 eta % 2 hurrenez hurren). Bizkaian, sareen arteko distantzia-tartea handitu egin da: sare pribatuak ikasleen % 55,3 hartzen du eta urtetik urterako bariazio-tasa altuagoa du (sare pribatuak % 2,3 eta publikoak % 1,6). Nafarroan, aldiz, egoera bestelakoa da: 10 ikasletik 6 (% 59,2) ikastetxe publikora joaten da; hala ere, pribatuek bilakaera hobea izan dute (% 2,1 pribatuek eta % 0,7 publikoek).

189. koadroa Euskalduntze-maila. DBH

(%)


Eremua	2016/2017 ikasturtea					2017/2018 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	17,3	33,4	49,4	0,0	100	15,9	33,6	50,5	0,0	100
Bizkaia	10,2	27,8	60,8	1,3	100	9,1	27,4	62,2	1,3	100
Gipuzkoa	2,7	17,0	80,4	0,0	100	2,6	15,2	82,2	0,0	100
EAE	8,6	24,9	65,9	0,6	100	7,9	24,1	67,3	0,7	100
Nafarroa	9,0	0,2	25,3	65,5	100	8,9	0,2	25,5	65,4	100
Euskal Herria	8,7	18,8	55,9	16,6	100	8,1	18,3	57,1	16,5	100
Pribatua	11,0	32,4	40,9	15,7	100	10,5	31,5	42,3	15,6	100
Publikoa	6,4	5,0	71,1	17,5	100	5,7	4,8	72,2	17,3	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren arabera, Hego Euskal Herri osoan.

Iturria: Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Euskalduntze-mailari dagokionez, orain arte aztertu ditugun irakasmaitan bezala, DBHko hiru lurralde historikoetako ikasle gehienek D eredia aukeratzen dute; Nafarroan, ordea, X eredia da hautatuena. Hain zuzen ere, Gipuzkoako DBHko ikasleen % 82,2 D eredian dago matrikulatuta; Bizkaian % 62,2 eta Araban % 50,5. B ereduak Arabako ikasleen herena hartzen du (% 33,6), bizkaitarren % 27,4 eta gipuzkoarren % 15,2. A ereduak, aldiz, Araban du ikasle gehien (% 15,9), baina ehuneko apalagoak ditu gainerako bi lurraldeetan (% 9,1 Bizkaian eta Gipuzkoan % 2,6). Hizkuntza-mapa guztiz bestelakoa da Nafarroan. X ereduak ditu ikasle gehien (ikasleen % 65,4); atzetik ditu D eredia (% 25,5) eta A eta B ereduak (% 8,9 eta % 0,2 hurrenez hurren). Beraz, EAEn DBHko ikasleen euskalduntze-tasa % 91,4koa da, eta Nafarroako datuak kontuan hartuta, % 75,4koa.

30. grafikoa Ikasleen matrikulazioaren bilakaera Euskal Herrian



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentua.

Erdi-mailako irakaskuntzak

Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.

Oinarrizko Lanbide Heziketa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa, aztertzen hasita, adierazi behar da ikasketa horiek eutsi egiten diotela urtetik urterako matrikulazio-igoerari. Zehazki, % 3,1eko igoera izan du, aurreko ikasturtearekiko. Lanbide Heziketak, guztira, 50.087 ikasle hartu ditu Hego Euskal Herrian (aurreko ikasturtean baino 1.499 ikasle gehiago). Aurreko txostenean adierazi genuen bezala, nabarmendu behar da azken urteetan Eusko Jaurlaritzak hainbat programa abiarazi dituela Lanbide Heziketa hobetzeko. Onartu berria da, esaterako, Lanbide Heziketaren legea, eta lege horren estrategia-helburua da heziketa duala eta irakasteredu elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz irakasten dena) bultzatzea, bai eta ingelesa sustatzea ere.

**190. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera.
Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

Eremua	2016/2017 ikasturtea			2017/2018 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	4.572	2.770	7.342	4.588	2.766	7.354
Bizkaia	9.814	9.752	19.566	9.883	10.060	19.943
Gipuzkoa	8.084	5.634	13.718	8.376	5.803	14.179
EAE	22.470	18.156	40.626	22.847	18.629	41.476
Nafarroa	5.935	2.027	7.962	6.303	2.308	8.611
Euskal Herria	28.405	20.183	48.588	29.150	20.937	50.087

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Datuei begiratuta, matrikulazioen bilakaera ona izan da aztertutako lurralde guztietan, nahiz eta ez den indar berekoa izan leku guztietan. Nafarroan izan du matrikulazioak igoerarik handiena sare publikoan (% 6,2), baina igoera handiagoa izan da sare pribatuan (% 13,9); hala eta guztiz ere, sare pribatuak ez du ikasle asko hartzen (% 26,8). Gipuzkoa da igoera handiena izan duen bigarren probintzia, eta lurralde historiko horretan bi sareek hazkunde bera izan dute (% 3,6 sare publikoak eta % 3,0 eta pribatuak); baina berdintasun hori ez da eman ikasleen banaketan; izan ere, sare publikoan ikasleen % 59,1 matrikulatu da, eta sare pribatuan, gainerako % 40,9a. Bizkaian, ikastetxe pribatuetako ikasle-kopuruak % 3,2 egin du gora, eta publikoetakoak, aldiz, % 0,7 soilik. Lurralde horretan, sare publikoan baino ikasle gehiago dago itunpeko sarean (% 49,6 eta % 50,4 hurrenez hurren). Egoera egonkorra da Araban, eta matrikulazioek ez dute igoera handirik izan (% 0,2). Ikastetxe publikoetan igoera txiki bat izan dute matrikulazioek (% 0,4), baina itunpeko ikastetxeetan jaitsiera apal bat izan da (-% 0,1). Hala ere, sare publikoan ikasten dute ikasle gehienek (% 62,4k).

191. koadroa Euskalduntze-maila.
Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

(%)

Eremua	2016/2017 ikasturtea					2017/2018 ikasturtea				
	A	B ^(*)	D	X	Guztira	A	B ^(*)	D	X	Guztira
Araba	85,9	6,3	7,8	0,0	100	83,3	9,9	6,8	0,0	100
Bizkaia	81,6	6,4	12,0	0,0	100	76,2	12,5	11,3	0,0	100
Gipuzkoa	47,5	12,4	40,1	0,0	100	43,4	17,9	38,7	0,0	100
EAE	70,9	8,4	20,7	0,0	100	66,3	13,9	19,9	0,0	100
Nafarroa	0,0	0,0	3,2	96,8	100	0,0	0,0	4,8	95,2	100
Euskal Herria	59,3	7,0	17,8	15,9	100	54,9	11,5	17,3	16,4	100
Pribatua	72,4	6,7	10,8	10,0	100	66,6	11,8	10,6	11,0	100
Publikoa	49,9	7,2	22,8	20,0	100	46,4	11,3	22,1	20,2	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren arabera, Hego Euskal Herrian.

(): Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako bakarrik daude legez A eta D ereduak, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntzei dagokienez, hizkuntza-maparen osaeran alde handiak daude gainerako irakasmailekiko. EAEko Lanbide Heziketako ikasle gehienek A eredia aukeratu dute, eta X eredia Nafarroako Lanbide Heziketako ia ikasle guztiek. Araban, A eredia da nagusi irakasmilla horretan (% 83,3); eta oso ikasle gutxik aukeratzen dituzte gainerako ereduak: % 9,9k B eredia eta % 6,8k D eredia. Bizkaian ere A eredia gailendu da (ikasleen % 76,2) eta D eta B ereduak osatzen dute eskola-mapa hori, antzeko datuekin biek ere (% 12,5 eta % 11,3 hurrenez hurren). Gipuzkoan, aldiz, egoera apur bat aldatzen da; A eta D ereduak antzeko ikasle-ehunekoa dituzte (% 43,4 eta % 38,7 hurrenez hurren), eta ikasleen % 17,9 dago matrikulatuta B ereduan. Horrela, bada, euskalduntze-maila Hego Euskal Herrian % 28,8koa da, eta % 33,7koa, EAEn.

LOGSE Batxilergoa

2017/2018 ikasturtean, Batxilergoko ikasle-kopuruak % 1,1eko hazkundera izan du; horrela, Euskal Herrian 39.233 ikasle matrikulatu dira guztira. Hazkunde horretan sare pribatuak izan du, batez ere, eragina; izan ere, ikastetxe publikoetako matrikulazioek behera egin dute lurralde guztietan (Bizkaian izan ezik). Era berean, ikastetxeen titulartasuna kontuan hartuta eta dagokien garrantzia aztertuta, EAEn nahiko orekatuta dago ikasleen banaketa, baina ez Nafarroan. Lurralde horretan, Batxilergoko 10 ikasletatik 6 sare publikora joaten dira.

192. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. LOGSE Batxilergoa

Eremua	2016/2017 ikasturtea			2017/2018 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	2.016	2.249	4.265	1.958	2.301	4.259
Bizkaia	7.579	7.899	15.478	7.629	8.154	15.783
Gipuzkoa	5.377	5.128	10.505	5.243	5.289	10.532
EAE	14.972	15.276	30.248	14.830	15.744	30.574
Nafarroa	5.311	3.261	8.572	5.284	3.375	8.659
Euskal Herria	20.283	18.537	38.820	20.114	19.119	39.233

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hortaz, emaitzarik onenak Bizkaian eman dira: 2017/2018 ikasturtean itunpeko ikastetxeetako matrikulazioek % 3,2 egin dute gora, eta sare publikoan, aldiz, mantendu egin da (% 0,7). Horren ondorioz, eskola-maparen osaeran sare pribatuak ikasle gehiago izan ditu (ikasleen % 51,7). Bestalde, Araban ere sare pribatua da nagusi (ikasleen % 54), eta sare bakoitzak bilakaera ezberdina du: sare pribatuetako ikastetxeetan ikasketak egiten dituzten ikasleen kopurua % 2,3 igo da eta sare publikoetakoa, aldiz, murriztu egin da (-% 2,9). Gipuzkoan, Arabako joera errepikatu da, eta, beraz, Batxilergoko ikasleen % 50,2 ikastetxe pribatuetan matrikulatu da eta ikasle-kopurua % 3,1 igo da; sare publikoan, aldiz, behera egin dute (-% 2,5). Nafarroari begiratuta, ikasleen % 61 ikastetxe publikoetan matrikulatu da, eta, gainerako % 39a itunpeko ikastetxeetan. Hala ere, 2017/2018 ikasturtean, sare publikoan baino dinamismo handiagoa egon da sare pribatuan (-% 0,5 eta % 3,5 hurrenez hurren).

193. koadroa Euskalduntze-maila. LOGSE Batxilergoa

Eremua	2016/2017 ikasturtea					2017/2018 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	44,3	2,1	53,7	0,0	100	40,6	5,7	53,8	0,0	100
Bizkaia	39,1	3,5	56,1	1,3	100	37,4	4,1	57,2	1,3	100
Gipuzkoa	20,7	4,9	74,5	0,0	100	20,1	4,5	75,4	0,0	100
EAE	33,4	3,8	62,1	0,7	100	31,9	4,5	63,0	0,7	100
Nafarroa	3,8	0,0	24,5	71,7	100	3,8	0,0	25,2	71,0	100
Euskal Herria	26,9	2,9	53,8	16,3	100	25,7	3,5	54,6	16,2	100
Pribatua	38,0	5,1	40,4	16,5	100	36,0	6,0	41,4	16,6	100
Publikoa	16,7	1,0	66,1	16,2	100	15,9	1,1	67,2	15,8	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren arabera, Hego Euskal Herri osoan.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Euskalduntze-tasari dagokionez, irakasmilla guztietan gertatu den bezala, D eredia da nagusi EAEn (ikasleen % 63 hartu du), eta X eredia Nafarroan (% 71). Araban, D edo A eredia aukeratu du ikasleen gehiengoak (matrikulazioen % 53,8 eta % 40,6 hurrenez hurren), eta ikasle gutxi dituzte gainerako ereduak. Bizkaian, D eredian egiten du

Batxilergoa 10 ikasletik 6k (matrikulazioen % 57,2), ikasleen heren batek A ereduan (% 37,4); eta atzetik datoz, eskola-mapa osatuz, B eredua (% 4,1) eta X eredua (% 1,3). Gipuzkoan, D ereduak izan ditu matrikulazio gehien (% 75,4), eta atzetik datoz A eredua (% 20,1) eta B eredua (% 4,5). Horrekin guztiarekin, irakasmaila honetako euskalduntze-tasa % 58,1ekoa da Hego Euskal Herrian, eta % 67,3koa, hiru lurralde historikoetan.

2.2 UNIBERTSITATE-IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitate-ikasleen bilakaerari dagokionez, 2017/2018 ikasturtean eten egin da azken urteetako joera negatiboa eta % 1,3 igo da Hego Euskal Herriko unibertsitateetako ikasle-kopurua. Hortaz, azken ikasturtean 63.066 ikasle matrikulatu dira Euskal Herriko 5 unibertsitateetan. Pribatuak dira bost unibertsitate horietatik hiru –Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea–; eta publikoak dira gainerako biak –Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa–.

Atal honetan nabarmendu behar da gero eta garrantzi handiagoa duela heziketa dualak bai Nafarroan bai EAEn. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak, aurreikuspenei aurrea hartuta, heziketa duala oinarri izango duten 15 gradu eta 7 master jarriko ditu martxan hurrengo ikasturtean.

Aurtengo matrikulazioen bilakaerari dagokionez, igo egin dira matrikulazioak bost unibertsitate horietatik lautan, baina ez indar berarekin guztietan. EHUUn dago matrikulatuta unibertsitate-ikasleen erdia baino gehiago, eta unibertsitate hori da matrikulazioan atzera egin duen bakarra (-% 0,5). Hala eta guztiz ere, unibertsitateek, oro har, bilakaera ona izan dute eta ikasturtea datu positiboekin amaitzea lortu dute: Deustuko Unibertsitatea (% 4,9), Nafarroako Unibertsitatea (% 4,8), Mondragon Unibertsitatea (% 3,8), eta, atzerago, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (% 0,7).

194. koadroa Ikasle eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko Unibertsitateetan

Unibertsitateak eta lurraldeak	Ikasleak		Irakasleak	
	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ^(*)	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ^(*)
Euskal Herriko Unibertsitatea	35.680	35.499	5.667	5.697
Araba	6.759	6.886	996	999
Bizkaia	20.096	19.823	3.285	3.303
Gipuzkoa	8.825	8.790	1.386	1.395
Nafarroako Unibertsitatea	7.861	8.238	778	795
Nafarroa	6.890	7.244	683	695
Gipuzkoa	971	994	95	100
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	6.910	6.958	885	901
Nafarroa	6.910	6.958	885	901
Deustuko Unibertsitatea	7.899	8.284	1.714	2.238
Bizkaia	6.220	6.543	1.577	1.894
Gipuzkoa	1.679	1.741	137	344
Mondragon Unibertsitatea	3.936	4.087	396	422
Gipuzkoa	3.936	4.087	396	422
Guztira	62.286	63.066	9.440	10.053
Araba	6.759	6.886	996	999
Bizkaia	26.316	26.366	4.862	5.197
Gipuzkoa	15.411	15.612	2.014	2.261
EAE	48.486	48.864	7.872	8.457
Nafarroa	13.800	14.202	1.568	1.596

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.

Ikasleen joera bera izan dute irakasleek ere, % 6,5 egin baitu gora horien kopuruak Hego Euskal Herrian. Ikasturte honetan, guztira 10.053 irakaslek egin dute lan euskal unibertsitateetan, aurreko ikasturtean baino 613 irakaslek gehiagok. Gainera, unibertsitate guztietan egin du gora, gehiago edo gutxiago, irakasle-kopuruak, baina Deustuko Unibertsitatean izandako hazkundera nabarmendu behar da: 1.714 irakasle izatetik 2.238ra igaro baita (317 irakasle gehiago Bilbon eta 207 gehiago Donostian). Mondragon Unibertsitatean % 6,6ko igoera izan da, hau da, 26 irakasle gehiago hasi dira lanean; guztira, 422 irakasle ditu. Nafarroako Unibertsitateak 17 irakasle gehiago hartu ditu, 12 Nafarroan eta 5 Gipuzkoan (% 2,2 gehiago, guztira), eta gaur egun 795 irakasle ditu guztira. Nafarroako Unibertsitate Publikoan % 1,8 igo da irakasle-kopurua: 16 irakasle gehiago ditu, eta 901 guztira. Ikasleen kopuruak behera egin du EHU, baina gora egin du irakasleen kopuruak: 5.667 irakasle izatetik 5.967ra pasa da.

Jarraian Hego Euskal Herriko unibertsitate-ikasleen bilakaeraren daturik esanguratsuenak adieraziko dira, lurralde bakoitzeko unibertsitateak aztertuta.

195. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHU⁽¹⁾

Lurralde historikoa	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ⁽²⁾	%	Δ% aurreko urtea
Araba	6.759	6.886	100,0	1,9
Farmazia F.	1.362	1.364	19,8	0,1
Filologia, Geografia eta Historia F.	2.051	2.110	30,6	2,9
Irakasleen UE	1.029	1.053	15,3	2,3
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	815	845	12,3	3,7
Gizarte Laneko UE	550	577	8,4	4,9
Enpresa Zientzien UE	466	446	6,5	-4,3
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	486	491	7,1	1,0
Bizkaia	20.096	19.823	100,0	-1,4
Zientziak eta Teknologia F.	2.514	2.529	12,8	0,6
Arte Ederren F.	1.223	1.228	6,2	0,4
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	2.559	2.569	13,0	0,4
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	2.407	2.467	12,4	2,5
Medikuntza eta Odontologia F.	2.308	2.235	11,3	-3,2
Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET	1.880	1.812	9,1	-3,6
Enpresa Ikasketen UE	1.001	895	4,5	-10,6
Erizaintzako UE	686	685	3,5	-0,1
Irakasleen UE	1.955	1.957	9,9	0,1
Lan Harremanen E.	549	558	2,8	1,6
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1.756	1.728	8,7	-1,6
Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE	494	425	2,1	-14,0
Nautikako GET	207	201	1,0	-2,9
Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala	557	534	2,7	-4,1
Gipuzkoa	8.825	8.790	100,0	-0,4
Zientzia Kimikoen F.	353	334	3,8	-5,4
Zuzenbide F.	892	854	9,7	-4,3
Informatika F.	522	551	6,3	5,6
Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako F.	945	977	11,1	3,4
Psikologia F.	1.075	1.103	12,5	2,6
Arkitekturako GET	714	659	7,5	-7,7
Enpresa Ikasketen UE	1.102	1.196	13,6	8,5
Irakasleen UE	1.097	1.118	12,7	1,9
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoaren UE	297	289	3,3	-2,7
Donostiako U. Politeknikoa	1.331	1.220	13,9	-8,3
Erizaintzako UE	497	489	5,6	-1,6
Guztira	35.680	35.499	100,0	-0,5

(1): Ez dira kontuan hartzen UPV/EHUri eta campus birtualari atxikitako zentroak.

(2): Behin-behineko datuak.

Iturria: UPV/EHU.

EHU da Euskal Herrian jarduera handiena duen unibertsitatea (% 56,3). 2017/2018 ikasturtean 35.499 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino % 0,5 gutxiago, hau da, 181 ikasle gutxiago, 2016/2017 ikasturtearekin alderatuta. Datuak ikuspegi geografikotik aztertuta, campus bakoitzak bere bilakaera propioa izan du. EHUko ikasleen % 55,8k unibertsitate horren Bizkaiko campusean ikasten du, baina aurreko ikasturtean baino % 1,4 ikasle gutxiago izan ditu ikasturten honetan, aurreko ikasturtean

baino 273 ikasle gutxiago matrikulatu baitira. Gipuzkoako campusak ere antzeko joera izan du: campus horretan ikasi du EHUko ikasleen % 24,8k, eta aurrekoan baino 35 ikasle gutxiago matrikulatu dira ikasturte honetan (-% 0,4). EAEko campus txikienak soilik izan du hazkundera, hau da, Arabako campusak (% 19,4). Campus horretan gora egin dute matrikulazioek (127 ikasle gehiago, % 1,9ko igoera); hala ere, datu horiek ez dira nahikoak gainerakoetan izandako galerak orekatzeko, eta, horren ondorioz, EHU osoan behera egin du ikasle-kopuruak.

Bizkaiko campusa da EHUko handiena, 14 fakultate ditu eta horietatik 8 fakultatetan behera egin dute matrikulazioek. Beherakada handienak bi fakultate hauetan eman dira: Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan (-% 14) eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan (-% 10,6). Bi fakultate horiek nahiko garrantzia dute campusean (% 2,1 eta % 4,5 hurrenez hurren). Horrez gainera, fakultate hauetan ere bilakaera bera izan dute: Zuzenbide Fakultatea (-% 4,1), Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET (-% 3,6) eta Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (-% 3,2). Azken bi fakultate horiek ikasle-kopuru handia dute (% 11,3 eta % 9,1 hurrenez hurren). Bestalde, fakultate hauetan ere behera egin du matrikulazioak: Nautikako GET (-% 2,9, ikasleen % 1,1 hartzen du), Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (-% 1,6, eta ikasleen % 8,7 hartzen du) eta Erizaintzako UE (-% 0,1, eta ikasleen % 3,5 hartzen du). Bestalde, 6 fakultatetan handitu da matrikulazioa; bereziki, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea azpimarratu behar da, fakultate horrek ikasle asko hartzen dituelako (% 12,4) eta urtetik urterako bariazio-tasa onena izan duelako campusean (% 2,5). Lan Harremanen Eskolak ikasleen % 2,8 hartzen ditu, eta % 1,6ko hazkundera izan du. Honako fakultate hauek % 0,5eko bariazio-tasa izan dute urtetik urtera: Arte Ederren Fakultatea (ikasleen % 6,2), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (ikasleen % 13), Zientziak eta Teknologia Fakultatea (ikasleen % 12,8) eta Irakasleen Unibertsitate Eskola (ikasleen % 9,9).

Gipuzkoako campusean matrikulazioek behera egin dute oro har (-% 0,4). Dena den, matrikulazioek bilakaera positiboa izan dute 5 fakultatetan (Gipuzkoako campusak 11 fakultate ditu guztira). Nabarmentzekoa da, hala ere, campusean ikasle gehien hartzen dituzten fakultateak direla bost fakultate horietako 4. Matrikulazioan igoera izan duten bost fakultateen artean, Informatikakoa da ikasle gutxien hartzen dituen Gipuzkoako campusean (ikasleen % 6,3). Matrikulazioan igoera izan duten gainerako lau fakultateek ikasle asko hartzen dituzte; esaterako, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak ikasleen % 13,6 hartzen du, eta % 8,5 handitu du matrikulazioa. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateak, berriz, ikasleen % 11,1 hartzen du, eta % 3,4 handitu du matrikulazioa ikasturte honetan. Joera hori izan dute, era berean, Psikologiako Fakultateak (% 2,6ko hazkundera) eta Irakasleen Unibertsitate Eskolak (% 1,9ko gorakada), ikasleen % 12,5 eta % 12,7 hartuta, hurrenez hurren. Bestalde, matrikulazioek behera egin dute ikasleen % 13,9 biltzen duen Donostiako Unibertsitate Politeknikoan

(-% 8,3), Arkitekturako GETan (-% 7,7), Zientzia Kimikoen Fakultatean (-% 5,4) eta Zuzenbide Fakultatean (-% 4,3); eta beherakada txikiagoa izan da Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoaren Unibertsitate Eskolan (-% 2,7) eta Erizaintzako Unibertsitate Eskolan (-% 1,6).

Azkenik, Arabako campusean, Enpresa Zientzien Unibertsitate Eskolak soilik izan du jaitsiera matrikulazioetan (-% 4,3); gainerakoek handitu egin baitute ikasleen kopurua. Hain zuzen ere, hauek izan dira ikasle-kopuruan gorakadak izan dituztenak: Gizarte Laneko UE (% 4,9), Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (% 3,7), Irakasleen UE (% 2,3), Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea (% 1,0), Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea (% 2,9) eta Farmazia Fakultatea (% 0,1). Azken bi fakultate horietan daude matrikulatuta Araban ikasten duten unibertsitate-ikasleen erdia baino gehiago.

196. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Nafarroa	6.890	7.244	100,0	5,1
Zuzenbidea	511	615	8,5	20,4
Medikuntza	1.249	1.239	17,1	-0,8
Filosofia eta Letrak	342	341	4,7	-0,3
Informazio/Komunikazio Zientziak	712	791	10,9	11,1
Hezkuntza eta Psikologia	521	618	8,5	18,6
Zientziak	606	625	8,6	3,1
Farmazia eta elikadura	673	656	9,1	-2,5
Arkitektura	450	463	6,4	2,9
Teologia	144	150	2,1	4,2
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.024	1.077	14,9	5,2
Idazkaritza eta Administrazioa (ISSA)	157	171	2,4	8,9
Erizaintza	501	498	6,9	-0,6
Gipuzkoa	971	994	100,0	2,4
Industria Ingeniaritza	965	994	100,0	3,0
Idazkaritza eta Administrazioa (ISSA)	6	0	0,0	-100,0
Guztira⁽²⁾	7.861	8.238	100,0	4,8

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Gainera, doktoregoko 993 ikasle eta masterreko 789 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea

2017/2018 ikasturtean, Nafarroako Unibertsitatean 8.000 ikaslek baino gehiagok ikasi dute. 377 ikasle gehiago matrikulatu dira, eta jauzi kuantitatibo horri esker ikasle-kopurua 8.238ra iritsi da. Ikasleen gehiengoa (10 ikasletatik 9) Iruñeako campusean dago matrikulatuta. Beraz, Iruñeako campuseko matrikulazioetan % 5,1eko igoera izan da azken ikasturtean (aurreko ikasturtean baino 354 ikasle gehiago). Igoera izan dute, zehazki, campuseko 12 fakultatetatik 8k; beste hiruk ez dute aldaketarik izan; eta batek atzera egin du. Fakultate hauek izan dituzte datu positiboak: Ekonomia eta Enpresa Zientziak (ikasleen % 14,9 eta % 5,2ko igoera), Informazio Zientziak (% 10,9ko kuota eta

% 11,1eko hazkundea) eta, batez ere, hazkunderik handiena izan dutelako, Hezkuntza eta Psikologia (ikasleen % 8,5 eta % 18,6ko igoera) eta Zuzenbidea (ikasleen % 8,5 eta % 20,4ko hazkundea). Beste fakultate hauek ere joera bera izan dute, baina igoerak txikiagoak izan dira: Idazkaritza eta Administrazioa (% 8,9), Teologia (% 4,2), eta Arkitektura (% 2,9). Bestalde, Medikuntzako fakultateak, ikasle gehien dituenak, behera egin du matrikulazioetan (-% 0,8), bai eta Erizaintzak (ikasleen % 6,9 eta -% 0,6ko jaitsiera) eta Filosofia eta Letrek (ikasleen % 4,7 eta -% 0,3ko beherakada) ere. Hala ere, matrikulazioetan jaitsiera handiena Farmaziako Fakultatean eman da (-% 2,5).

Gipuzkoako campusean, Industria Ingeniaritzako Fakultatea dago soilik –ikasturte honetan ez baita ikaslerik egon Idazkaritza eta Administrazioan–; fakultate horrek % 2,4 matrikulazio gehiago lortu ditu; hau da, 23 ikasle gehiago, guztira.

197. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP)

Fakultateak eta unibertsitate-eskolak	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	501	484	7,0	-3,4
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	1.945	1.919	27,6	-1,3
Osasun Zientzia F.	644	659	9,5	2,3
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1.213	1.210	17,4	-0,2
Giza eta Gizarte Zientzien F.	1.767	1.812	26,0	2,5
Zientzia Juridikoen F.	624	653	9,4	4,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak ⁽²⁾	216	221	3,2	2,3
Guztira⁽³⁾	6.910	6.958	100,0	0,7

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Ez da jaso Doktorego, Master eta Zikloetako ikasleen daturik.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 48 ikasle gehiago izan ditu 2017/2018 ikasturtean; guztira, 6.958 ikasle matrikulatu dira zazpi fakultatetan. Hauek dira ikasle-kopuru eta matrikulazio-igoera handiak izan dituzten fakultateak: Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (ikasleen % 26 eta % 2,5eko hazkundea), Zientzia Juridikoen Fakultatea (ikasleen % 9,4 eta % 4,6ko igoera) eta Osasun Zientzia Fakultatea (ikasleen % 9,5 eta % 2,3ko igoera). Horrez gainera, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak/Zientzia Juridikoak datu positiboak izan ditu: % 3,2ko kuota eta % 2,3ko igoera matrikulazioetan. Bestalde, datu negatiboak izan dituzte honako fakultate hauek: Nekazaritza Ingeniaritzen GET (-% 3,4), Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET (-% 1,3) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 0,2); azken bi fakultateek ikasle-kopuru handia dute (% 27,6 eta % 17,4 hurrenez hurren).

198. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean

Lurralde historikoa	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Bizkaia	6.220	6.543	100,0	5,2
Zuzenbide Fakultatea	862	907	13,9	5,2
Teologia Fakultatea	134	182	2,8	35,8
Ingeniaritza Fakultatea	597	667	10,2	11,7
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.361	1.444	22,1	6,1
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.534	1.650	25,2	7,6
EUMBAM (DUri atxikitako zentroa)	742	725	11,1	-2,3
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	990	968	14,8	-2,2
Gipuzkoa	1.679	1.741	100,0	3,7
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	582	584	33,5	0,3
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	782	815	46,8	4,2
Zuzenbide Fakultatea	58	67	3,8	15,5
Ingeniaritza Fakultatea	1	0	0,0	-100,0
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	256	275	15,8	7,4
Guztira⁽²⁾	7.899	8.284	100,0	4,9

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Gainera, doktoregoko 324 ikasle eta masterreko 1.441 ikasle daude.

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Deustuko Unibertsitateko ikasleei dagokienez, eta azken datuen arabera, 2017/2018 ikasturtean, igoerak nagusitu dira; izan ere, bitan izan ezik, matrikulazioek gora egin dute fakultate guztietan. Bizkaiko campusean ikasten du Deustuko ikasleen % 8k, eta, ikasturte honetan, matrikulazioak % 5,2 igo dira campus horretan. Hala eta guztiz ere, bi fakultatetan jaitsierak izan dira: EUMBAM eskolan (Bizkaiko ikasleen % 11,1 matrikulatuta) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (ikasleen % 14,8) matrikulazioek % 2,3 eta % 2,2 egin dute behera, hurrenez hurren. Bestalde, ikasle gehien Psikologia eta Hezkuntza Fakultateak (% 25,2) eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak dituzte (% 22,1), eta, horietan, matrikulazioek gora egin dute (% 7,6 eta % 6,1 hurrenez hurren). Beste fakultate hauek ere emaitza positiboak izan dituzte: Zuzenbide Fakultateak (ikasleen % 13,9 eta % 5,2ko igoera), Ingeniaritza Fakultateak (% 10,2ko kuota eta % 11,7ko hazkunde nabarmena) eta Teologia Fakultateak (ikasleen % 2,8 soilik, baina % 35,8ko bariazio-tasa urtetik urtera).

Gipuzkoako campusean, 1.741 ikasle matrikulatu dira campus horretako lau fakultateetan; izan ere, aurten ez da ikaslerik egon Ingeniaritza fakultatean. Hortaz, fakultate guztiek bilakaera positiboa izan dute, ordena honetan garrantziaren arabera: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (ikasleen % 46,8 eta % 4,2ko igoera), Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (ikasleen % 33,5 eta % 0,3ko hazkundera), Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (ikasleen % 15,8 eta % 7,4ko hazkundera), eta, azkenik, Zuzenbide Fakultatea (% 3,8 eta % 15,5 hurrenez hurren).

199. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean

Fakultateak eta unibertsitate-eskolak	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Goi Eskola Politeknikoa	1.363	1.410	100,0	3,4
Industria Antolaketako Ing. Gradua	131	137	9,7	4,6
Industria Elektronikako Ing. Gradua	149	151	10,7	1,3
Informatikako Ing. Gradua	106	134	9,5	26,4
Telekomunikazio Sistemen Ing. Gradua	50	41	2,9	-18,0
Ing. Mekanikoko Gradua	371	358	25,4	-3,5
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Gradua	227	232	16,5	2,2
Energiaren Ing.	136	114	8,1	-16,2
Ingeniaritza Mekatronikoa	0	36	2,6	-
Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ing.	52	55	3,9	5,8
Ing. Biomedikoa ⁽²⁾	141	152	10,8	7,8
Giza eta Hezkuntza Zientzietako F.	1.097	1.106	100,0	0,8
Haur Hezkuntzako Gradua	340	350	31,6	2,9
Lehen Hezkuntzako Gradua	559	564	51,0	0,9
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	198	192	17,4	-3,0
Enpresa Zientzien F.	1.062	1.152	100,0	8,5
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua	433	402	34,9	-7,2
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	629	750	65,1	19,2
Gastronomia Zientzien F.	414	419	100,0	1,2
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak	414	419	100,0	1,2
Guztira	3.936	4.087	100,0	3,8

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Gainera, masterreko 577 ikasle daude.

Iturria: Mondragon Unibertsitatea.

Mondragon Unibertsitatean % 3,8 igo da ikasle-kopurua, aurreko ikasturtean baino 151 ikasle gehiago, eta, guztira, 4.087 matrikulazio izan ditu.

Goi Eskola Politeknikoko ikasleen datuak aztertuta, Unibertsitateak eskola horretan eskaintzen dituen hamar graduetatik hirutan soilik egin du behera ikasle-kopuruak. Jaitsiera nabarmenena Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Graduan eman da, % 18 egin baitute behera matrikulek; bestalde, Energiaren Ingeniaritzak antzeko emaitzak izan ditu (-% 16,2); eta azkenik, Ingeniaritza Mekanikoko Graduan % 3,5eko beherakada egon da, ez da jaitsiera handia, baina eragin handia du guztizko zenbatekoetan, matrikulen % 25,4 baitu.

Hainbat fakultatek emaitza positiboarekin amaitu dute ikasturtea; hurrenkeran: Informatikako Ingeniaritza Gradua (% 26,4), Ingeniaritza Biomedikoa (% 7,8), Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza (% 5,8) eta Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua (% 4,6). Igoera apalagoa izan dute Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Graduak (% 2,2) eta Industria Elektronikako Ingeniaritza Graduak (% 1,3). Horrez gainera, azken ikasturte honetan, Mondragon Unibertsitateak Ingeniaritza



Mekatronikako Gradua jarri du abian. Gradu horretan, orain arte bananduta ikasten ziren ezagutzak irakatsiko dira, hala nola makinaren mekanika, elektronika eta informatika.

Giza eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateari dagokionez, gora egin du Haur Hezkuntzako Graduak (% 2,9), bai eta Lehen Hezkuntzako Graduak (% 0,9) ere, baina igoera xumeagoarekin, kontuan izanda fakultate horretako ikasleen % 51k gradu hori ikasten duela. Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua ikasleen % 17,4k ikasten du, eta % 3 egin dute behera matrikulazioek.

Enpresa Zientzien Fakultatean, behera egin dute matrikulazioek Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan (-% 7,2); eta, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan, aldiz, gora (% 19,2).

Azkenik, Gastronomia Zientzien Fakultatean, Gastronomia eta Sukaldaritza Artearen Gradua soilik eskaintzen da, matrikulazioen kopuruak hazkunde txiki bat izan du gradu horretan (% 1,2), eta, guztira, 419 ikasle matrikulatu dira.

3. GARRAIOA

3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Trenbide bidezko garraioa aztertuta, ikusi da gora egin duela nabarmen Hego Euskal Herriko bidaiari-kopuruak 2017an. Hain zuzen ere, EuskoTren eta Renfe zerbitzuetako bidaiari-kopuruak % 11ko gorakada izan du aurreko ekitaldiarekiko; eta guztira, 35.483 mila bidaiarik erabili dituzte bi zerbitzu horiek.

200. koadroa Bidaiarien mugimendua*

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2013	34.273	-5,9
2014	32.186	-6,1
2015	32.118	-0,2
2016	31.959	-0,5
2017	35.483	11,0

(*): RENFEren datuak Bilboko eta Donostiako aldiriko trenetako bidaiariei bakarrik dagozkie.

Iturria: RENFE eta EuskoTren.

Renfe eta EuskoTren konpainietako datuak aztertuta, ikusten da ez dutela bilakaera bera izan 2017ko ekitaldian. Alde batetik, aurreko urteko datuei eutsi die Renferen Bilboko aldiriko trenbideen sareak (-% 0,9ko beherakada izan du soilik); eta behera egin du nabarmen, aldiz, Renferen Donostiako aldiriko trenbideen sareak (-% 4,3ko jaitsiera). Eta bestetik, igoera nabarmena izan du EuskoTreneko bidaiari-kopuruak (% 25,1eko gorakada). Izan ere, hirugarren linea jarri da martxan (3,3 milioi bidaiari gehiago) eta Txorierri linea berriro ireki da. Horrela, bada, EuskoTrenek 19.388 mila bidaiari izan ditu 2017an, hau da, Hego Euskal Herriko tren-bidaiarien % 54,6; Renfek, berriz, 16.095 mila bidaiari izan ditu aurtengoan, hau da, gainerako % 45,4a.

201. koadroa Bidaiarien mugimendua, konpainien arabera

Kontzeptua	2015	2016	2017	%Δ 17/16
Bilboko aldiriko trenbideen sarea	10.183	10.138	10.044	-0,9
Donostiako aldiriko trenbideen sarea	6.152	6.320	6.051	-4,3
EuskoTren	15.783	15.500	19.388	25,1
Guztira	32.118	31.959	35.483	11,0

Iturria: Euskotren eta Renfe.

202. koadroa Bidaiarien garraioaren ondoriozko diru-bilketa

(M eurotan)

Kontzeptua	2015	2016	2017	%Δ 17/16
Renfe*	16.797,8	17.253,7	16.636,1	-3,6
EuskoTren**	25.943,1	25.861,0	28.360,6	9,7
Guztira	42.740,9	43.114,7	44.996,7	4,4

(*): RENFEren datuak aldiriko trenetako bidaiariei bakarrik dagozkie.

(**): Trenaren, tranbien eta autobusen diru-bilketa barne hartzen du.

Iturria: Euskotren eta Renfe

Lehen aipatuko datuei jarraiki, Eusko Trenen guztizko diru-bilketak ere hazkunde nabarmena izan du 2017an (% 9,7ko igoera); eta guztira, 28.360,6 mila euro bildu ditu. Bildutako diru-kantitate horretatik 16.636,1 mila euro tren-jarduerarena da (% 15,6ko igoera); 5.578 mila euro autobus-jarduerarena; 6.326 mila euro tranbia-jarduerarena; eta gainerako 43 mila euroak "bestelakoena". Renferen diru-bilketak, aldiz, behera egin du (-% 3,6ko jaitsiera) eta 2015eko antzeko datuak errepikatu ditu.

203. koadroa Jatorria eta/edo helmuga Hego Euskal Herrian duten salgaien bolumena⁽¹⁾

(m Tm)

Kontzeptua	2015	2016	2017	%Δ 17/16
Renfe	2.459,9	2.399,7	2.235,8	-6,8
Renfe, trenbide metrikoa (Feve)	745,4	e.d. ⁽²⁾	e.d. ⁽²⁾	--
EuskoTren	8,3	51,4	46,7	-9,1
Guztira	3.213,6	2.451,1	2.282,5	-6,9

(1): Edukiontziak ez dira sartzen.

(2): Ez dago daturik.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Jarraian, jatorria eta/edo helmuga Hego Euskal Herrian duten salgaien bolumena aztertuko da. Datuen arabera, salgai horiek antzeko bilakaera izan dute bi konpainietan; baina konpainia bakoitzak garraiatutako salgai-bolumena ez da izan bera: Renfek salgai gehiago garraiatu ditu EuskoTrenek baino. Hain zuzen ere, beherakadak izan dituzte bai Renfek bai EuskoTrenek (-% 6,8 ko eta -% 9,1eko jaitsierak, hurrenez hurren), baina Renfek tona gehiago garraitzen ditu Eusko Trenek baino (Renfek 2.235,8 mila tona eta EuskoTrenek 46,7 mila tona). EuskoTrenek argitaratutako informazioaren arabera, salgai-bolumena jaitsi egin da, aldatu egin baita Galiziatik datorren aluminioaren, eta modu apalagoan, zuraren logistika-fluxua; izan ere, 2017ko bigarren seihilekoan, berrantolatu egin dira Renfe Mercancíasen zabalera metrikoaren ekoizpen-baliabideak.

204. koadroa Trenbide bidezko garraioaren sektoreko langileak

Kontzeptua	2015	2016	2017	%Δ 17/16
Renfe ^(*)	666	650	658	1,2
EuskoTren	920	974	1.073	10,2
Guztira	1.586	1.624	1.731	6,6

(*): 2013tik, RENFEren eta FEVEren enpleguak elkarrekin zenbatzen dira.

Iturria: RENFE eta EuskoTren.

Azkenik, 2017an gora egin du enpleguak bai EuskoTrenen bai Renfen. Dena den, gorakadak ez du indar bera izan bi enpresetan: EuskoTrenak % 10,2ko igoera izan du, eta Renfek, % 1,2koa. Horretaz gainera, lanpostu gehiago sortu ditu EuskoTrenak. Beraz, 2017an 1.073 langile izan ditu EuskoTrenak, aurreko ekitaldian baino 99 pertsona gehiago, eta horrela, 2016an izandako goranzko joerari eutsi zaio. Renfen, aldiz, igoera leunagoa izan du; 8 langile gehiago hartu ditu 2017an; guztira, 658 pertsona.

Bilboko Metroa

2017ko ekitaldian, gora egin du Bilboko Metroko bidaiari-kopuruak; aurreko ekitaldian, berriz, -% 0,5eko beherakada izan zuen. Bilboko Metroak argitaratutako datuen arabera, % 1,2 egin du gora bidaiari-kopuruak 2017an, hau da, aurreko ekitaldian baino 1.066.849 balio gabetze gehiago egin dira; eta guztira, 88.172 mila bidaiarik erabili dute Bilboko Metroa.

205. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2008	86.333	0,6
2009	87.043	0,8
2010	88.556	1,7
2011	89.616	1,2
2012	87.615	-2,2
2013	87.133	-0,6
2014	87.397	0,3
2015	87.536	0,2
2016	87.105	-0,5
2017	88.172	1,2

Iturria: Bilboko Metroa.

Aipatu bezala, Bilboko Metroko bidaiari-kopuruak gora egin du; izan ere, alde batetik, geltoki intermodala eraiki da Zazpikaleak/Casco Viejo geltokian, eta beraz, lotu egin dira hirugarren linea eta geltoki hori. Horren ondorioz, gora egin du bidaiari-kopuruak linea horretan. Eta bestetik, Sopela-Plentzia tartea martxan jarri da, eta Bilboko metropoliaren gero eta ekitaldi gehiago egiten direnez, gora egin du bidaiari-kopuruak. Hori horrela,

gora egin du lanegunetako batez besteko bidaiari-kopuruak 2017an (276.285 bidaia egin ziren 2016an, eta 2017an, berriz, 281.136 egin dira). Bestalde, martxoan izan zituen bidaiari gehien Bilboko Metroak (8,1 milioi bidaiari baino gehiago); urrian eta maiatzean ere gutxi gorabehera 8 milioi bidaiari ibili ziren. Eta, ohikoa den bezala, San Tomas egunean erabiltzen da gehien Bilboko Metroa, 380.180 baliogabetze egin dira egun horretan.

206. koadroa Bilboko Metroko bidaiarien banaketa, geltokien arabera (2017)

Geltokia	%	Geltokia	%
Zazpikaleak/Casco Viejo	7,2	Basauri	1,5
Moyua	7,2	Peñota	1,5
Abando	7,0	Bidezabal	1,5
Indautxu	6,9	Astrabudua	1,5
Santimami/San Mamés	6,8	Etxebarri	1,5
Santutxu	5,0	Ansio	1,4
Deustu	4,6	Leioa	1,2
Barakaldo	4,0	Kabiezés	1,1
Gurutzeta/Cruces	3,9	Gobela	0,9
Areeta	3,7	Abatxolo	0,8
Santurtzi	2,9	Sopela	0,8
Sarriko	2,8	Neguri	0,8
Algorta	2,7	Plentzia	0,5
San Ignazio	2,6	Larrabasterra	0,5
Sestao	2,6	Berango	0,5
Basarrate	2,4	Aiboa	0,5
Portugalete	2,3	Lamiako	0,3
Bagatza	2,2	Lutxana	0,3
Ariz	2,2	Urduliz	0,2
Erandio	1,9	Urbinaga	0,1
Bolueta	1,6		

Iturria: Bilboko Metroa.

Bilboko Metroko sarean 41 geltoki daude; geltoki horietatik bidaiari gehien Zazpikaleak/Casco Viejo geltokiak izan ditu, (6.388.736 baliogabetze). Geltoki horrek % 20,1eko igoera izan du 2017ko ekitaldian, eta San Nikolas sarbidea berriro ireki ostean berreskuratu du lehen postua. Gero, Moyua eta Abando dira bidaiari gehien dituztenak. Moyuak 6.321.198 baliogabetze izan ditu, eta % 0,5 egin du gora. Abandok, berriz, 6.214.693 baliogabetze izan ditu eta -% 1,9 egin du behera. Laugarrena, Indautxu da, 6.105.839 baliogabetze egin dira; eta bosgarrena, Santimami/San Mames, 6.034.855 baliogabetzerekin. Azken bi geltoki horietan (Indautxun eta Santimami/San Mamesen) gora egin du bidaiari-kopuruak, baina ez oso nabarmen (% 0,5eko eta % 0,9ko gorakadak, hurrenez hurren). Hurrengo 5 geltokiek 3 eta 4,5 milioi arteko bidaiari-kopuruak izan dituzte, eta behera egin dute denek. Horietatik beherakada handiena Santutxuk izan du (-% 4,3); eta jaitsiera leunagoak izan dituzte, berriz, Deustuk, Barakaldok, Gurutzetak/Crucesek eta Areetak, (% 1 baino txikiagoko beherakadak). Lehen aipatu bezala, behera egin du bidaiari-kopuruak Santutxuko geltokian, baina baita Basarraten (-% 1,4ko jaitsiera) eta Etxebarrin ere (-% 6,3ko beherakada). Izan ere, eskariaren bilakaera

aldatu egin da, eta beraz, hirugarren lineako geltokiak hasi dira erabiltzen lehen eta bigarren lineako bidaiariak. Dena den, beherakada handienak Sopelako eta Lutxanako geltokiek izan dituzte (-% 33,1eko eta -% 44,7ko jaitsierak, hurrenez hurren). Era berean, behera egin dute, baina ez hain nabarmen, Urbinagak (-% 7,1), Larrabasterrak (-% 6,6), Gobelak (-% 2,9), Bidezabalek (-% 1,3), San Ignaziok (-% 0,6) eta Abatxolok (-% 0,1). Plentzia eta Urduliz geltokiek izan ezik (gora egin dute nabarmen, berriz ere martxan jarri direlako), gainerako geltoki guztiek ez dute aldaketa handirik izan aurreko ekitaldiarekiko.

Abando eta Santutxu arteko ibilbidea da erabiltzaileek gehien egiten dutena (711.031 aldiz); ondoren, Zazpikaleak/Casco Viejo eta Indautxuren arteko ibilbidea da gehien errepikatzen dena (611.941 aldiz); eta azkenik, Zazpikaleak/Casco Viejo eta Santutxu arteko ibilbidea (606.284 aldiz). Enbor komunean, % 2,41 egin dute gora baliogabetzeak; horretaz gainera, lehen eta bigarren linean ere igo egin dira baliogabetzeak, baina modu apalagoan (% 0,27ko eta % 0,95eko gorakadak, hurrenez hurren).

Bilboko Metroko garraio-tituluen erabilerari begiratuta, Creditrans barik da erabiltzaileek gehien aukeratzen duten txartela, hau da, bidaiarien % 52,1ak. Ondoren, aldi baterako tituluak dira bidaiariak gehien erabiltzen dituztenak (% 23,72); horietatik % 13,35ak Gizatrans txartela aukeratzen du, % 5,46ak urteko txartela eta % 2,59ak joanaldikoa. Lehen aipatu bezala, 2017an hainbat gertaera garrantzitsu egon dira Bilboko Metroan. Esanguratsuen Zazpikaleak/Casco Viejo geltokiko San Nikolas sarbidea berriro ireki dela da; izan ere, Euskotrenek hirugarren linea inauguratu du eta Txorierrirekin lotura egiteko geltokia Zazpikaleak/Casco Viejo geltokira eramane da. Horretaz gainera, Sopela eta Plentziaren arteko zerbitzua berriro jarri da martxan eta Urduliz geltokia berriro ireki da, bi urtez obretan egon ostean (geltokia lurperatu dute).

Bestalde, Euskal Y sarea aurrera eramateko, 2017an akordio garrantzitsuak lortu dira; alde batetik, Bergarako korapiloko obra geldi egotearen arrazoiei konponbidea jarri zaie, eta bestetik, Bergarako korapiloko hogeitarte eraiki dira. Beraz, badirudi, beste ezustekorik ez badago behintzat, 2023rako amaituko dela EAeko abiadura handiko trenak.

3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratutako datuen arabera, Espainiako automobil-parkeak 32.929.596 ibilgailu izan ditu 2017an, eta, aurreko ekitaldiarekiko, % 2,6 egin du gora. Bestalde, Hego Euskal Herriako automobil-parkeak ere igoera izan du (% 1,8ko gorakada) eta, guztira, 1.804.251 ibilgailu ditu. Gainera, adierazi behar da lau

lurralde historikoetan egon direla gorakadak. Hain zuzen ere, Nafarroan % 2,4 egin du gora, Gipuzkoan eta Araban % 1,7, eta, azkenik, Bizkaian, % 1,4.

207. koadroa Ibilgailuen parkea
(unitateak)

Eremua	Kamioiak		Autobusak		Turismoak		Motozikletak		Industria-trakt.		Beste batzuk		Guztira	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Araba	29.726	28.639	519	540	152.850	156.781	15.171	15.607	1.196	1.233	7.669	7.852	207.131	210.652
Bizkaia	86.484	84.649	1.859	1.888	504.278	513.167	51.952	53.611	3.483	3.494	18.671	19.125	666.727	675.934
Gipuzkoa	63.101	61.579	907	940	314.015	321.025	56.921	58.637	3.150	3.157	16.295	16.860	454.389	462.198
EAE	179.311	174.867	3.285	3.368	971.143	990.973	124.044	127.855	7.829	7.884	42.635	43.837	1.328.247	1.348.784
Nafarroa	76.886	74.845	825	848	310.846	322.140	33.299	34.327	4.389	4.432	18.364	18.875	444.609	455.467
Hego Euskal Herria	256.197	249.712	4.110	4.216	1.281.989	1.313.113	157.343	162.182	12.218	12.316	60.999	62.712	1.772.856	1.804.251
Espainia	4.880.697	4.801.966	61.841	63.590	22.876.247	23.623.627	3.211.397	3.327.026	207.911	218.119	868.984	895.268	32.107.077	32.929.596
EH/Espainia %	5,2	5,2	6,6	6,6	5,6	5,6	4,9	4,9	5,9	5,6	7,0	7,0	5,5	5,5

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Hego Euskal Herriko automobil-parkeko ibilgailuen % 37,5 Bizkaikoak dira; atzetik daude Gipuzkoa eta Nafarroa antzeko datuekin (% 25,6 eta % 25,2 hurrenez hurren); eta, azkenik, Arabak ditu ibilgailu gutxien (% 11,7). Bestalde, 2017an, Estatuko automobil-parkeko ibilgailuen % 5,5 Hego Euskal Herriko automobilak dira; 2016an, antzeko datuak izan zituen.

Ibilgailu-motak aztertuta, ikus daiteke turismoa dela Estatuko ibilgailu nagusia (% 71,7) eta, aurreko ekitaldiarekiko, % 3,3ko hazkundera izan duela. Bigarren tokia kamioiek hartzen dute (% 14,6), baina aurtengoan -% 1,6 egin dute behera. Gero, motozikletak erabiltzen dira gehien (Espainiako ibilgailu guztien % 10,4 motozikletak dira); eta gora egin dute aurreko ekitaldiarekiko (% 3,6ko igoera). Azkenik, partaidetza txikiena duten ibilgailuak autobusak eta industria-traktoreak dira (% 0,2 eta % 0,7 hurrenez hurren). Dena den, ibilgailu horiek bilakaera positiboa izan dute, eta gainera, traktorea izan da Estatuan gehien igo den ibilgailua 2017an (% 4,9ko hazkundera).

Hego Euskal Herriko datuak aztertuta, ikusten da Bizkaiak dituela euskal lurraldeetako turismo eta kamioi gehien (Hego Euskal Herriko turismoen % 39,1 eta kamioien % 33,9 hurrenez hurren), baina, batez ere, autobusetan dela nagusi probintzia hori (Hego Euskal Herriko autobusen % 44,8). Bestalde, Gipuzkoak ditu motozikleta gehien (Hego Euskal Herriko motozikleten % 36,2) eta Nafarroa liderra da industria-traktoreetan (traktoreen % 36).

208. koadroa Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbia*

(unitateak)

Eremua	Kamioiak eta industria-traktoreak		Autobusak		Guztira	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Araba	-101	-1.050	16	21	-85	-1.029
Bizkaia	-557	-1.824	95	29	-462	-1.795
Gipuzkoa	-842	-1.515	12	33	-830	-1.482
EAE	-1.500	-4.389	123	83	-1.377	-4.306
Nafarroa	-170	-1.998	13	23	-157	-1.975
Hego Euskal Herria	-1.670	-6.387	136	106	-1.534	-6.281
Espainia	41.433	-68.523	1.589	1.749	43.022	-66.774

(*) Parkearen urtetik urterako aldakuntza.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbia aztertuta, ikusten da 2017ko balantzea negatiboa izan dela bai Hego Euskal Herrian bai Estatuan. Dena den, autobusen matrikulazio garbiak bilakaera positiboa izan du. Aurreko urteetan bezala, autobusek matrikulazio garbi gehiago lortu dituzte 2017an: 106 autobus gehiago Hego Euskal Herrian eta 1.749 autobus gehiago Estatuan. Kamioen eta industria-traktoreen atalean, behera egin du matrikulazio garbiak bi eremu geografikoetan (Hego Euskal Herrian 6.387 kamioi eta traktore gutxiago, eta Estatuan, 68.523 gutxiago); 2016an, aldiz, Hego Euskal Herrian soilik egin zuen behera matrikulazioak. Euskal lurraldeei begiratuta, Nafarroa da kamioi, industria-traktore eta autobus gehien galdu dituen lurraldea (1.975 ibilgailu gutxiago); hala ere, gainerako hiru lurraldeek ere galera handiak izan dituzte: Bizkaian 1.795 ibilgailu gutxiago daude, Gipuzkoan 1.482 gutxiago, eta, azkenik, Araban 1.029 gutxiago.

209. koadroa Motorizazio-indizeak

Eremua	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanleak/auto	
	2016	2017	2016	2017
Araba	639	645	2,1	2,1
Bizkaia	581	589	2,3	2,2
Gipuzkoa	633	643	2,3	2,2
EAE	607	615	2,3	2,2
Nafarroa	694	708	2,1	2,0
Hego Euskal Herria	626	636	2,2	2,2
Espainia	690	707	2,0	2,0

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta geuk egina.

Motorizazio-indizeari begiratuta, Arabak du EAEko motorizazio-indize handiena. Hain zuzen ere, Araban 1000 biztanleko 645 ibilgailu daude; Gipuzkoan 643 ibilgailu; eta, azkenik, Bizkaian, 589 ibilgailu. Bestalde, Nafarroako datuak EAEkoak baino hobeak dira

eta Estatuko datuen antzekoak: Nafarroan 1000 biztanleko 708 ibilgailu daude, eta Estatuan 707 ibilgailu.

Bigarren adierazleak esaten du turismo bakoitzeko zenbat biztanle dauden; eta adierazi behar da ez dagoela alde handirik lurraldeen artean, ez eta aurreko ekitaldiarekiko ere. Arabak 2,1 biztanle ditu turismo bakoitzeko; eta Estatuak, berriz, 2,0. Gainerako lurraldeek behera egin dute pixka bat. Hau da, Bizkaiak eta Gipuzkoak turismo bakoitzeko 2,2 biztanle dituzte (2016an 2,3 biztanle zituen), eta Nafarroak 2,0 biztanle ditu (2016an 2,1).

Errepideko Salgaien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren arabera, 2017an gora egin du garraiatutako salgai-kopuruak EAEn eta Estatuan; Nafarroan, aldiz, behera egin du. Beraz, errepide bidez garraiatutako salgaiak % 6,3ko igoera izan du (82.937 mila tona garraiatu dira); 2016an ere gora egin zuen, baina ez indar berarekin (% 1,3ko igoera). Bestalde, Nafarroan -% 4ko jaitsiera izan du jarduerak, eta 37.485 mila tona garraiatu dira. Gauzak horrela, Hego Euskal Herrian –EAEk lurralde horretan duen garrantzia kontuan hartuta–, balantze positiboa izan du garraiatutako salgaiak (120.422 mila tona garraiatu dira), hau da, % 2,9 egin du gora aurreko ekitaldiarekiko. Estatuan hazkundera indartu da, eta urtetik urterako aldakuntza % 9,3koa izan da; eta beraz, mila milioi salgai baino gehiago garraiatu dira.

210. koadroa Garraiatutako salgaiak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa jatorrizko eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera

(mila Tm)

Eremua	EAE		Nafarroa		Hego Euskal Herria		Estateria	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Eskualde barruko garraioa	35.235	36.029	14.739	11.880	49.974	47.909	693.352	761.381
Eskualde arteko garraioa	42.751	46.908	24.299	25.605	67.050	72.513	305.537	330.082
Guztira	77.985	82.937	39.037	37.485	117.023	120.422	998.888	1.091.463

Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Aldizkaria.

Datuak lehen begiratuan aztertuta, eskualde arteko garraioak bilakaera hobea izan du eskualde barruko garraioak baino 2017an; gainera, eskualde arteko garraioaren igoerari esker izan du hain bilakaera ona errepide bidezko garraioak Hego Euskal Herrian. Hain zuzen ere, eskualde barruko garraioak behera egin du Nafarroan (-% 19,4ko jaitsiera); eta EAEn igoera txiki bat izan du (% 2,3ko gorakada). Baina ez da nahikoa izan bilakaera positiboa lortzeko. Horren ondorioz, Hego Euskal Herrian, behera egin du eskualde barruko garraioak (-% 4,1); eta Estatuan, aldiz, gora egin du nabarmen (% 9,8ko hazkundera). Bestalde, eskualde arteko garraioak gora egin du, gehiago edo gutxiago, aztertutako eremu geografiko guztietan. Beraz, EAEn % 9,7 egin du gora, eta Nafarroan

% 5,4 egin du gora; horren ondorioz, alde batetik, 2017ko ekitaldia datu positiboekin itxi da Hego Euskal Herrian (% 8,1), eta bestetik, guztizko trafikoan indar gehiago du (% 60,2). Estatuan, antzeko bilakaera izan dute eskualde barruko garraioak eta eskualde arteko garraioak (% 9,8 eta % 8 hurrenez hurren); hala eta guztiz ere, eskualde arteko garraioak partaidetza txikiagoa du eskualde barrukoak baino (% 69,8 eta % 30,2 hurrenez hurren).

Errepide bidezko garraioaren urtetik urterako bilakaerarekin amaitzeko, hiri-garraioaren datu esanguratsuenak aurkeztuko dira orain. Datu horiek EAeko hiriburuetako konpainiek eskaini dizkigute; zehazki, Bilboko Bilbobus, Donostiako Dbus eta Gasteizko TUVISA zerbitzuek.

Gauzak horrela, Bilbobus garraio-zerbitzuak ez du bilakaera berdina izan adierazle guztietan 2017an. Sareko linea-kopurua ez da aldatu, 43 linea daude, aurreko ekitaldian bezala; baina sarea 34,9 kilometro luzatu da; eta, guztira, 631,5 kilometro ditu. Automobil-parkean unitate bat gutxiago dago, 149 egotetik 148 izatera pasa da; hala eta guztiz ere, langileek gora egin dute (2016an 576 langile, 2017an 611).

Bestalde, aztertutako adierazle guztiek gora egin dute Dbus zerbitzuan. 2017an, lehengo urteko lineak mantendu dira (39); bestalde, bi autobus gehiago dauzkate azken urtean (130tik 132ra). Era berean, 32 pertsona berri hasi dira lanean; guztira, 506 langile daude.

Gasteizko Hiri Garraioak (TUVISA) zerbitzuak mantendu egin ditu aurreko ekitaldiko linea-kopuruak (15 lineak), bai eta luzera ere (203,5 kilometro); autobus-parkeak, aldiz, gora egin du, 6 ibilgailu gehiago daude (81tik 87ra) eta 16 langile gehiago hasi dira lanean; guztira, 331.

21.1. koadroa Hiri-garraioa. Sektoreko oinarrizko datuak

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Sareko lineak (*)	43	43	39	39	15	15
Luzera (km)	596,6	631,5	--	--	203,5	203,5
Autobus-parkea	149	148	130	132	81	87
Langileak	576	611	474	506	315	331

(*): Eguneko eta gaueko lineak barne.

Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.

Jarduera neurtzen duten gainerako adierazleei dagokienez, Bilbobus zerbitzuak datu negatiboekin itxi du 2017ko ekitaldia. Behera egin dute, aurreko ekitaldiarekiko, egindako kilometro-kopuruak (-% 0,2ko jaitsiera), bidaiari-kopuruak (-% 1,8ko beherakada) eta, batez ere, diru-bilketak (-% 5,6ko jaitsiera). Guztira, 6.425 mila kilometro egin dituzte

Bilboko autobusek, 25.458 mila bidaiariri eman zaie zerbitzua eta 11.183 mila euro bildu dira (tarifen kostuak mantenduta).

Analisi hori Donostiako hiri-garraioan eginda, datuen lehen begiratuan ikus daiteke, aurreko ekitaldian bezala, bi bilakaera egon direla. Hau da, alde batetik, gora egin dute Donostiako autobusek egindako kilometro erabilgarriek (% 0,7ko igoera); guztira, 7.058 mila kilometro egin dituzte. Eta beste aldetik, behera egin du bidaiari-kopuruak, baina oso leun (-% 0,3ko jaitsiera); guztira, 28.402 mila pertsonak hartu dute autobusa. Dena den, diru-bilketak % 2,4 egin du gora; eta ustiapen-emaitzak, berriz, datu negatiboak ditu aurtengoan ere, eta 2016ko ekitaldian baino gehiago egin du behera (14.987 mila euro gutxiago).

212. koadroa Hiriko garraioaren bilakaera

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Egindako km. erabilgarriak (m)	6.440	6.425	7.011	7.058	4.473	4.602
Garraiatutako bidaiariak (m)	25.928	25.458	28.500	28.402	14.238	14.532
Bildutako dirua (m euro)	11.844	11.183	19.186	19.639	--	--
Ustiapenaren emaitza (m euro)	--	--	-14.425	-14.987	--	--
Tarifak (euro)	1,25/0,64	1,3/0,65	--	1,75	--	1,4/0,6

(--): Ez geneukan daturik txosten hau egiterakoan.

Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.

Azkenik, ez dago TUVISA konpainiari buruzko informazio askorik, baina eskuragarri ditugun bi adierazleek diote konpainiaren jarduerak gora egin duela. Hain zuzen ere, egindako kilometro erabilgarriak % 3 igo dira, eta bidaiariak, aldiz, % 2,1. Hau da, 4.602 mila kilometro erabilgarri egin dira eta 14.532 bidaiarik erabili dituzte konpainia horretako autobusak, aurreko ekitaldian baino 294 pertsona gehiagok.

3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

Espainiako Ontzi Jabeen Elkarteak (ANAVE) argitaratutako informazioaren arabera, itsaso bidezko munduko merkataritzak gora egin du berriz ere. Guztira, 11.589 milioi tona garraiatu dira 2017an, eta % 4,5eko hazkundera izan du aurreko biurtekoarekin alderatuz.

213. koadroa Itsaso bidezko munduko merkataritza

Salgaiak	2015	2016	2017 ^(*)	(m Tm) % Δ 17/16
Solteko solido nagusiak	2.957	3.023	3.188	5,5
Gordinak eta petrolio-produktuak	2.887	3.016	3.095	2,6
Beste solteko solido batzuk	1.857	1.851	1.911	3,2
Edukiontzietako kargak	1.661	1.721	1.829	6,3
Ohiko karga orokorra	829	844	884	4,7
Gas likidotuak	606	636	682	7,2
Guztira	10.795	11.091	11.589	4,5

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Anave, Clarkson.

Salgai-mota guztiek gora egin dute, baina ez indar berarekin. Hain zuzen ere, solteko solido nagusiek (burdin-minerala, ikatza eta alea) % 5,5 egin dute gora; gainera, itsaso bidez garraiatzen diren salgaien % 27,5 solteko solido nagusiak dira. Bestalde, antzeko bilakaera izan du ohiko karga orokorra, baina itsaso bidez garraitutako salgaien % 7,6 hartzen du soilik. Horretaz gainera, gordinak eta petrolio-produktuak ere asko garraiatzen dira (jarduera osoaren % 26,7, bigarrenak dira sailkapenean); eta % 2,6ko gorakada izan dute. Produktu horien antzeko bilakaera izan dute beste solteko solido batzuek (% 3,2ko gorakada izan dute); eta jarduera osoaren % 16,5 hartzen dute. Azkenik, edukiontzietako kargak (jardueraren % 15,8) eta gas likidotuak (jardueraren % 5,9) izan dituzte urtetik urterako hazkunderik handienak, hau da, % 6,3 eta % 7,2 hurrenez hurren.

214. koadroa Espainiako itsas merkataritza

Kontzeptua	2016	2017	(m Tm) % Δ 17/16
Esportazioak	98.401	104.188	5,9
Inportazioak	195.319	211.009	8,0
Kabotajea	46.418	46.610	0,4
Guztira	340.139	361.807	6,4

Iturria: Anave, Estatuko Portuak.

Munduko itsas merkataritzako datuak aurkeztu ostean, Espainiako itsas merkataritza aztertuko da orain. Datuen arabera, Espainiako itsas merkataritzaren egoera oso ona da, eta guztizko trafikoa 361.807 mila tonakoa izan da. Hain zuzen ere, Espainiako itsas merkataritzak nabarmen egin du gora 2017an; aurten % 6,4ko gorakada izan du, aurreko ekitaldian, berriz, % 0,6 egin zuen gora soilik. Batez ere, inportazioek egin dute gora (% 8ko igoera); eta beraz, 210.000 mila tona inportatu dira. Bestalde, esportazioek ere igoera izan dute, baina lausoagoa (% 5,9ko gorakada); eta guztira, 104.188 mila tonako trafikoa izan du. Azkenik, kabotaje-trafikoak ere hazkundera izan du, baina oso leuna (% 0,4ko igoera); eta 46.610 mila tona garraiatu ditu. Gauzak horrela, Espainiako itsas

merkataritzaren % 58,3 inportazioak dira, % 28,8 esportazioak, eta gainerako % 12,9a kabotajea.

Nazioarteko eta Espainiako egoeraren adierazle nagusiak aztertu ostean, jarraian EAEko bi merkataritza-porturen adierazle nagusien bilakaera adieraziko da: hau da, Bilboko portuarena (Bizkaia) eta Paisaiako portuarena (Gipuzkoa). 2017ko ekitaldian, jarduerak gora egin du Bilboko portuan; eta behera egin du, berriz ere, Paisaiako portuan.

Bilboko portua erreferentziazko portua da; 2017an gora egin du jarduerak (% 7ko igoera), eta guztizko trafikoa 34.307 milioikoa izan da. Beraz, aurreko ekitaldian behera egin ostean (-% 2,5eko jaitsiera), berriz ere lehengo hazkunde-erritmoa berreskuratu du. Batez ere, deskargak egin dute gora (% 9,5eko igoera); gainera, portuko jardueraren % 63,1 deskargak dira. Ondoren, salgaien kargak dute garrantzi handiena (jardueraren % 36,6); gainera, kargak ere gora egin dute, baina ez hainbesteko indarrarekin (% 3,1eko igoera). Hornidurak ere antzeko bilakaera izan du (% 2,4ko igoera), baina partaidetza oso txikia du (% 0,3).

215. koadroa Euskal portu nagusietako trafikoa

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Deskargak	20.464,3	19.766,1	21.637	2.316,1	1.947,6	1.690,2
Kargak	11.935,6	12.182,6	12.558	1.422,4	1.446,2	1.229,5
Hornidura	115,9	109,4	112,0	31,6	33,3	29,1
Tokiko trafikoa	359,0	9,1	0	--	--	--
Arrantza	0	0	0	23,2	27,6	26,0
Guztira	32.874,8	32.067,3	34.306,7	3.793,3	3.454,7	2.975,0

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Bestalde, Paisaiako portuko jarduerak behera egin du (% 13,9ko jaitsiera izan du); eta aurtengoan 2.975,0 mila tona garraiatu dira. Jarduera-motei begiratuta, deskargak jarduera guztien % 55,9 dira eta -% 14,6 egin dute behera. Kargak, berriz, jarduera osoaren % 42,2 dira eta beherakada izan dute (-% 13,2eko jaitsiera). Bestalde, hornidurak (% 1 inguru) eta arrantzak garrantzia eskasa dute; eta gainera, jaitsiera nabarmenak izan dituzte (-% 12,6ko eta -% 5,8ko beherakadak, hurrenez hurren).

216. koadroa Salgaien guztizko trafikoaren osaera

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Petrolio-produktuak	15.319,1	15.614,7	16.236,4	0,08	--	--
Salgai orokorrak	9.671,8	9.499,5	9.868,0	2.044,2	2.294,7	2.085,3
Solteko solidoak	4.528,2	4.362,1	4.543,2	1.694,3	1.099,2	834,4
Beste solteko likido batzuk	2.880,7	2.472,5	3.547,5	--	--	--
Gainerakoak	474,9	118,5	111,7	54,8	60,9	55,1
Guztira	32.874,8	32.067,3	34.306,7	3.793,3	3.454,7	2.975,0

(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko likido batzuen baturari dagokio.

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza.

Bilboko portuko trafikoaren osaeran sakonduta, ikusten da ekitaldia datu positiboekin itxi duela. Partida nagusienak petrolio-produktuak (jardueraren % 47,3) eta salgai orokorrak (jardueraren % 28,8) dira; eta biek hazkundeak izan dituzte (% 4ko eta % 3,9ko igoerak, hurrenez hurren). Horretaz gainera, solteko solidoak eta beste solteko likido batzuk portuko jardueraren % 13,2 eta % 10,3 hartzen dute, hurrenez hurren; eta hazkunde nabarmenak izan dituzte (% 4,2koa eta % 43,5eko hurrenez hurren). Gainerako salgaiak, aldiz, behera egin dute (-% 5,7ko jaitsiera), nahiz eta jarduera oso txikia duten (% 0,3).

Pasaia portuaren egoera oso bestelakoa da; izan ere, jarduerak, oro har, behera egin dute. Hain zuzen ere, 2017an behera egin dute salgai orokorrek (-% 9,1), solteko solidoak (-% 24,1) eta gainerako salgaiak (-% 9,6); hala ere, salgai guztiek ez dute partaidetza bera: guztizko trafikoaren % 70,1 salgai orokorrak dira, % 28 solteko solidoak eta % 1,9 gainerako salgaiak.

Hego Euskal Herriko kanpoko trafikoari eta kabotajeari begiratuta, jarduerak % 5,0 egin du gora; guztira, 37,1 milioi tona garraiatu dira, eta horietatik 34,2 milioi Bilboko portukoak dira. Bi portuetan inportazioek izan dute trafiko handiena; izan ere, % 7,8 egin dute gora eta jarduera guztiaren % 61,4 hartzen dute Hego Euskal Herrian. Esportazioek, berriz, jardueraren % 33,3 hartzen dute eta beherakada txiki bat izan dute (-% 0,9ko jaitsiera). Azkenik, kabotajeak du trafikorik txikiena (jarduera osoaren % 5,3), baina trafiko-mota horrek izan du hazkunderik handiena (% 13,8ko gorakada).

217. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Inportazioak	19.916,7	19.234,1	21.175,3	2.268,6	1.912,2	1.619,6
Esportazioak	10.872,2	11.027,1	11.103,6	1.419,4	1.446,2	1.255,5
Kabotajea	1.611,0	1.687,5	1.916,1	50,5	35,4	44,6
Guztira	32.399,9	31.948,7	34.195,0	3.738,5	3.393,8	2.919,7

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza.

Bilboko portuan hazkunde nabarmena izan dute kanpoko trafikoa eta kabotajeak (% 7ko igoera). Bestalde, inportazioak dira, batez ere, Bilboko portuan gehien egiten direnak (trafikoaren % 61,9), gainera, inportazioek dute bilakaerarik onena (% 10,1ko hazkundea); guztira, 20 milioi tona baino gehiago garraiatu dituzte. Bestalde, esportazioek, % 32,5eko jarduerarekin, % 0,7ko igoera txikia izan dute. Kabotajeak, aldiz, jardueraren % 5,6 hartzen du soilik eta % 13,5eko igoera izan du.

Gipuzkoako portuak datu negatiboekin itxi du 2017ko ekitaldia; izan ere, kanpoko jarduerak eta kabotajeak -% 14,0 egin dute behera. Inportazioek beherakada handia izan dute (-% 15,3ko jaitsiera); hala eta guztiz ere, garrantzia gehien duen jarduera da. Bestalde, esportazioek ere datu negatiboekin amaitu dute ekitaldia; -% 13,2ko jaitsiera izan dute eta jardueraren % 43,0 hartzen dute. Azkenik, kabotajeak indar txikia du (jardueraren % 1,5), baina % 26ko igoera izan du.

218. koadroa Bilboko portuko kanpoko trafikoaren osaera (2017)

(m Tm)

Esportazioak		Inportazioak	
Gasolina	1.266,0	Petrolio gordina	10.272,4
Petrolio-produktuak	898,9	Gas naturala	1.988,7
Gasolioa	886,7	Siderurgia-produktuak	1.981,4
Siderurgia-produktuak	873,9	Gasolioa	1.123,4
Zementua eta clinkerra	802,0	Soja-babak	962,7
Edukiontzien tara	578,4	Edukiontzien tara	486,4
Beste batzuk	5.797,6	Beste batzuk	4.360,3
Guztira	11.103,6	Guztira	21.175,3

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Geuk egina.

Bilboko portuko kanpoko trafikoaren osaera sakonago aztertuta, gora egin dute bai inportazioek bai esportazioek aurreko ekitaldiarekiko, baina ez indar berarekin. Inportazioek % 10,1 egin dute gora, eta 21,2 milioi tona garraiatu dituzte guztira; esportazioek, aldiz, aurreko ekitaldiko datuei eutsi diete (% 0,7ko igoera txikia), eta 11,1 milioi tona garraiatu dituzte.

Esportazioetan, gasolina da nagusi merkataritza-fluxuan (esportazioen % 11,4) eta -% 5,4 egin du behera gasolinak. Petrolio-produktuek, siderurgia-produktuek eta gasolioak % 8 inguruko jarduerak dituzte bakoitzak; lehen biek gora egin dute (% 3,5eko eta % 0,7ko igoerak), eta gasolioak, berriz, behera egin du kanpora egiten diren fluxuan (-% 1,5ko jaitsiera). Horretaz gainera, zementuak eta clinkerrak -% 3,2 jaitsi dira eta % 7,2ko partaidetza dute. Azkenik, edukiontzien tarei esker.

Inportazioei begiratuta, petrolio gordinak jardueraren erdia hartzen du (% 48,5) eta 2017an igoera txiki bat izan du (% 2,8ko gorakada). Gas naturalak eta siderurgia-produktuek antzeko parte-hartzea dute (% 9,4), baina ez dute bilakaera bera izan. Gas naturalak nabarmen egin du gora (% 68,8ko igoera) eta siderurgia-produktuek, aldiz, behera egin dute (-% 2,4ko jaitsiera). Bestalde, gasolioak jarduera txikiagoa du (% 5,3ko partaidetza), baina hazkunde nabarmena izan du (% 48,0ko igoera). Azkenik, soja-babak eta edukiontzien tarek 962,7 mila tona eta 486,4 mila tona garraiatu dituzte, hurrenez hurren.

219. koadroa Pasaiaiko portuko kanpoko trafikoaren osaera (2017)

(m Tm)

Esportazioak		Inportazioak	
Siderurgia-produktuak	719,7	Siderurgia-produktuak	704,4
Autoak eta horien piezak	363,9	Papera eta orea	152,5
Eraikuntzako materialak	73,7	Pentsua eta bazka-landareak	131,3
Beste mineral batzuk	38,3	Zerealak eta horien irinak	130,6
Zementua eta clinkerra	29,1	Ongarri naturala eta artifiziala	109,7
Beste salgai batzuk	30,8	Beste salgai batzuk	391,2
Guztira	1.255,5	Guztira	1.619,6

Iturria: Pasaiaiko Portu Agintaritza. Geuk egina.

Pasaiaiko portuan behera egin du kanpoko trafikoak, eta beraz, jaitsierak izan dituzte bai inportazioek (-% 15,3) bai esportazioek (-% 13,2); eta horren ondorioz, esan daiteke portua egoera konplexuan dagoela. Esportazioek behera egin dute, batez ere, bi partida nagusiek beherakadak izan dituztelako. Hau da, alde batetik, siderurgia-produktuek jardueraren % 57,3 hartzen dute eta -% 12,7 egin dute behera; eta beste aldetik, autoek eta horien piezek jardueraren % 29 hartzen dute eta -% 2 egin dute behera.

Inportazioetan ere, esportazioetan bezala, siderurgia-produktuak dira nagusi (% 43,5), baina kasu honetan ere behera egin dute aurreko ekitaldiarekiko (-% 7,9ko jaitsiera). Bestalde, bilakaera positiboa izan dute paperak eta oreak (% 3,9ko igoera), bai eta pentsuak eta barazki-landareek eta zerealek eta horien irinak ere (% 4,4ko gorakada). Lehen produktuak inportazioen % 9,4 dira, eta bigarrenak, inportazioen % 8,1. Guztira, 109,7 mila tona ongarri natural eta artifizial inportatu dira eta 391,2 mila tona gainerako salgai.

220. koadroa Bilboko portua. Trafikoa herrialdeen arabera (2017)

(m Tm)


Herraldea	Deskargatuak	Kargatuak	Guztira
Erresuma Batua	2.407.143	2.196.806	4.603.949
Mexiko	2.325.651	185.497	2.511.148
Ameriketako Estatu Batuak	663.107	1.707.158	2.370.265
Espainia	461.981	1.453.812	1.915.793
Brasil	1.381.102	485.761	1.866.863
Herbehereak	683.979	946.353	1.630.331
Errusia	1.496.986	125.611	1.622.597
Nigeria	1.443.372	18.950	1.462.322
Peru	1.279.503	45.797	1.325.300
Norvegia	1.205.589	61.180	1.266.769
Irak	832.180	2.130	834.311
Libia	809.372	426	809.799
Txina	625.347	179.764	805.112
Beste batzuk	6.021.985	5.148.441	11.170.424
Guztira	21.637.297	12.557.686	34.194.983

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Geuk egina.

Jarraian, Bilboko portuan zer herrialdek sortzen duten mugimendu gehien aztertuko da, eta ikusiko duzue hainbat gauza aldatu direla aurreko ekitaldiarekiko. 2017an, Erresuma Batua izan da Bilboko portuan parte-hartze handiena izan duena (% 13,5) eta % 16ko igoera izan du. Errusiari kendu dio lehen postua, eta orain zazpigarrena dago. Errusiak trafikoaren % 4,7 hartzen du aurtengoan; aurreko ekitaldian % 12,8.


Karga eta deskarga gehien dituzten beste herrialdeak hauek dira: Mexiko, AEB, Espainia eta Brasil. Brasilek bilakaera bikaina izan du, lau postu irabazi baititu; Nigeriak ere joera horri eutsi dio eta zortzigarren postura igo da. Bestalde, Peruk gora egin du –Brasilekin batera gehien hazi diren herrialdeak dira–, baita Norvegiak, Irakek eta Libiak ere. Lau herrialde horiek Bizkaiako portuarekin dituzten merkataritza-harremanak bultzatu dituzte 2017an.

31. grafikoa Salgaien eta ontzien trafikoa Bilboko portuan



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

32. grafikoa Salgaien eta ontzien trafikoa Pasaiaiko portuan



Iturria: Pasaiaiko Portu Agintaritza.

221. koadroa Pasaiaiko portua. Trafikoa herrialdeen arabera (2017)

(m Tm)

Herrialdea	Deskargatuak	Kargatuak	Guztira
Erresuma Batua	141,0	489,7	630,7
Belgika	234,5	220,8	455,3
Alemania	258,9	22,2	281,2
Suedia	274,4	3,0	277,4
Herbehereak	183,0	56,6	239,7
Finlandia	142,2	3,5	145,7
Irlanda	11,5	112,9	124,4
Aljeria	38,9	39,8	78,7
Ameriketako Estatu Batuak	0,0	67,6	67,6
Kanada	0,0	61,0	61,0
Argentina	0,0	58,8	58,8
Lituania	52,7	4,7	57,4
Polonia	52,0	4,5	56,5
Beste batzuk	275,1	110,3	385,4
Guztira	1.664,2	1.255,5	2.919,7

Iturria: Pasaiaiko Portu Agintaritza. Geuk egina.

Pasaiaiko portuko bazkide komertzial nagusia Erresuma Batua da; eta aurreko ekitaldiko antzeko jarduera errepikatzen du (trafikoaren % 21,6). Bigarrena Belgika da (% 1,8ko igoera) eta hirugarrena Alemania (% 3,1eko gorakada); Suedia eta Herbehereak postuak aldatu dituzte, eta laugarren eta bosgarren dira aurtengoan. Poloniak, bestalde, 4 postu jaitsi ditu. Era berean, beste herrialde batzuk sartu dira sailkapenean, esate baterako, Kanada, Argentina eta Lituania; eta merkataritza-harreman berriak sortu dituzte Pasaiaiko kaiarekin.

Jarraian, Bilboko portuak 2017ko ekitaldian izandako magnitudeak aztertuko dira.

222. koadroa Bilboko portua. Magnitude ekonomikoak

(M eurotan)

Kontzeptua	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Zerbitzu eta kanonengatiko diru-sarrerak	65.207	65.211	68.779	5,5
Gastu arruntak	33.451	34.530	33.446	-3,1
Amortizazioak	28.489	28.467	29.492	3,6
Ustiapenaren irabazia	6.006	5.485	6.124	11,6
Ekitaldiko emaitza	3.467	3.255	5.471	68,1
Cash Flow	37.962	37.207	41.087	10,4
Ibilgetu materiala	501.480	502.731	529.635	5,4

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

Bilboko portuari buruzko magnitude ekonomiko nagusiei dagokienez, 2017ko ekitaldian finantza-egoera onbidean ibili da: negozio-zifrak % 5,5 gora egin du, eta 68,8 milioi euro izatera iritsi da. Ustiapen-mozkina 6.124 mila euro izan da, eta % 11,6 egin du gora; gastu arruntek, berriz, zertxobait behera egin dute (-% 3,1), eta 33,5 milioi inguru izan dira.

Testuinguru horretan, ekitaldiaren emaitza oso onuragarria izan da (% 68,1 gora egin du) eta 5,5 milioi euro izatera iritsi da.

Bestalde, atal hau amaitzeko, Gipuzkoako kaiaren egoera korapilatsua da, batez ere, ohiko merkatuak –txatarra eta ikatza– galdu dituelako, eta produktu siderurgikoen trafikoa hondatu delako, zenbait lantegi (Arcelor-Zumarraga, Corrugados, Iberdrolaren zentral termikoa...) ixtearen ondorioz. Garapen-alternatibei begira, Portu Agintaritzak espero du jarduerak berriro gora egitea, potasa-esportazioei eta edukiontzi bidezko salgai-zerbitzua abian jartzeari esker. Pasaian salgai gehiago mugitzea eragin dezakeen beste ekimen bat Lezoko intermodala da. Plataforma horren bitartez, salgaiak garraiobidez aldatzeko aukera sortuko litzateke, kamioiak, trenak eta itsasontziak baliatuta.

3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

2017an, gora egin du aire bidezko garraioak; izan ere, igoera izan dute aireontzi-kopuruak, bidaiari-fluxuak eta Hego Euskal Herrian garraiatutako salgai-kopuruak. Bilakaera hori 2014an hasi zen, eta aurtengoan ere joera horri eutsi zaio.

223. koadroa Hego Euskal Herriko aireko trafikoa

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Salgaiak		
	Guztira	% Δ	EH/Espainia %	Guztira	% Δ	EH/Espainia %	Guztira	% Δ	EH/Espainia %
2011	66.434	0,2	3,5	4.532,4	1,2	2,2	37.391,7	22,3	5,6
2012	61.775	-7,0	3,7	4.624,6	2,0	2,4	36.958,5	-1,2	5,7
2013	52.014	-15,8	3,3	4.186,4	-9,5	2,2	40.044,1	8,3	6,3
2014	52.779	1,5	3,3	4.359,2	4,1	2,2	45.055,3	12,5	6,6
2015	55.456	5,1	3,3	4.658,9	6,9	2,3	49.255,0	9,3	6,9
2016	64.123	15,6	3,1	5.043,1	8,2	2,2	55.116,9	11,9	6,9
2017*	68.031	6,1	3,1	5.505,4	9,2	2,2	62.451,1	13,3	6,8

(*): 2017rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Hego Euskal Herrian lau aireportu daude: Loiu (Bilbo), Foronda (Gasteiz), Donostia (Hondarribia) eta Noain (Iruñea). Aireportu horien jarduerak osotasunean aztertuta, ikusten da adierazle guztiek datu positiboak izan dituztela 2017ko ekitaldian. Aireontzien trafikoak % 6,1 egin du gora; hala ere, igoera handiagoa izan dute bidaiari-kopuruak eta garraiatutako salgai-kopuruak (% 9,2ko eta % 13,3ko hazkundeak, hurrenez hurren). Gauzak horrela, bidaiari-kopuruak azken hamarkadako igoerarik handiena izan du (5,5 milioi pertsonak baino gehiagok bidaiatu du euskal aireportuetan);

eta salgaiek, berriz, 2017ko igoyerarik handiena izan dute (62.400 tona baino gehiago garraitu dira). Bestalde, aireontziek aurreko ekitaldian baino gorakada txikiagoa izan dute; hala ere, goranzko joera bermatzen dute aurtengo datuek, eta gertu dituzte 70.000 unitateak.

Estatuan, berriz, Hego Euskal Herriko antzeko bilakaera izan dute aireontziek (% 6,3ko gorakada). Era berean, bidaiari-kopuruak gora egin du Espainian, baina euskal lurretan baino gutxiago (Espainian % 8,3ko igoea eta Hego Euskal Herrian % 9,2ko hazkundera). Salgaiek, aldiz, gorakada nabarmenagoa izan dute Espainian (Estatuan % 15,4koa eta Hego Euskal Herrian % 13,3koa).

224. koadroa Aireontzien trafikoa, aireportuaren arabera*

(unitateak)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Hego Euskal Herria		EH/Espainia %	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Trafikoa, guztira	45.105	46.989	5.371	5.683	6.954	6.925	6.693	8.434	64.123	68.031	3,6	3,1
Barrualdekoa	23.219	27.597	4.830	5.137	6.163	6.142	2.905	3.665	37.117	42.541	7,0	4,4
Nazioartekoa	21.886	19.392	541	546	791	783	3.788	4.769	27.006	25.490	2,1	2,3

(*): 2017rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Jarraian, aerodromo bakoitzak zer jarduera egiten duen adieraziko da. Lehen adierazlea aireontzien trafikoa da; eta datu horiek aztertuta, ikusten da aireportu bakoitzak egoera ezberdina duela. Jarduera handiena Loiuko aireportuak du (euskal jarduera osoaren % 69,1), eta gainera, % 4,2 egin du gora aireontzien trafikoa. Bestalde, Noingo aireportuan ere antzeko bilakaera eman da, (% 5,8 igo da trafikoa), nahiz eta aireportuko jarduera askoz txikiagoa izan (jarduera osoaren % 8,4). Horretaz gainera, Hondarribiako (Donostia) eta Gasteizko (Foronda) aireportuek ez dute bilakaera bera izan aireontzien trafikoan. Behera egin du Hondarribiak (-% 0,4ko jaitsiera, eta % 10,2ko jarduera); eta gora egin du, berriz, Gasteizek (% 26,0ko igoea eta % 12,4ko jarduera). Aipatu behar da, aireportu guztietan, Estatu barneko trafikoak bilakaera hobea izan duela nazioarteko trafikoak baino. Egoera hori argi eta garbi ikusten da Bilboko aireportuan: barrualdeko trafikoak % 18,9 egin du gora, eta nazioartekoak, berriz, -% 11,4 egin du behera.

225. koadroa Salgaien trafikoa, aireportuaren arabera*
(Tm)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Hego Euskal Herria		EH/Espainia %	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Trafikoa, guztira	2.974	1.956	2,0	7,3	4,6	3,2	52.135	60.484	55.117	62.451	6,9	6,8
Barrualdekoa	1.677	996	0,8	0,0	4,6	2,8	13.384	15.713	15.067	16.712	12,3	13,0
Nazioartekoa	1.297	960	1,3	7,3	0,0	0,4	38.751	44.771	40.050	45.739	5,9	5,8

()*: 2017rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Salgaien trafikoari begiratuta, salgai gehien Gasteizko aireportuak garraiatzen ditu; gainera, aireportu horren jardueraren % 96,9 salgaien trafikoari dagokio. Aurreko ekitaldiarekiko % 16,0 egin du gora Forondako aireportuak, eta antzeko bilakaera izan dute barne-trafikoak eta nazioarteko trafikoa. Alabaina, Loiuko aireportuko salgaien trafikoa behera egin du 2017an (-% 34,2ko jaitsiera), eta horren ondorioz, aurtengoan murriztu egin da Bilboko aireportuak salgaien trafikoan euskal aireportuekiko duen proportzioa (2017an % 3,1eko jarduera eta 2016an % 5,4koa). Iruñeako eta Donostiako aireportuetan gora egin du nazioarteko salgaien trafikoa; baina behera egin du barne-trafikoak. Horren ondorioz, 2017ko balantzea positiboa izan da Iruñeako aireportuan, eta negatiboa; Hondarribiakoan. Gauzak horrela, azken bi aireportu horiek garraiatutako salgai-kopurua gainerako aireportuetakoa baino txikiagoa da, hau da Iruñeako aireportuak 7,3 tona garraiatu ditu, eta Hondarribiakoak 3,2 tona.

226. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuaren arabera*
(m)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Hego Euskal Herria		EH/Espainia %	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Trafikoa, guztira	4.588	4.974	153	166	264	282	37	84	5.043	5.505	2,2	2,2
Barrualdekoa	2.583	2.839	148	154	262	279	29	42	3.022	3.315	4,5	4,5
Nazioartekoa	2.006	2.135	6	12	2	3	8	42	2.021	2.190	1,2	1,2

()*: 2017rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Hego Euskal Herriko aireportuetako bidaiari-kopurua aztertuta, Bilboko aireportua da bidaiari gehien dituen (% 90,3); guztira, 4.974 bidaiari izan ditu 2017an. Gainera, % 8,4ko hazkundera izan du: barne-trafikoak % 9,9 egin du gora, eta nazioarteko trafikoa, % 6,4. Bestalde, Donostiako aireportuak trafiko txikia du (% 5,1koa), baina bidaiari-kopurua % 6,8 egin du gora; gainera, Estatuko barneko trafikoa % 6,5eko igoera izan du eta nazioartekoak % 50ekoa, nahiz eta azken horrek jarduera txikia duen. Iruñeako aerodromoan antzeko joera eman da; bidaiariek % 8,5eko hazkundera izan dute; izan ere,

nabarmen egin du gora nazioartean (% 83,3ko igoera), eta, modu apalagoan, Estatuan (% 4,1); hala ere, barne-trafikoak du jarduera handiagoa nazioartekoak baino. Azkenik, Gasteizko aireportuak ditu lau aireportuetatik bidaiari gutxien (% 1,5 soilik); baina aurtengoan nabarmen egin du gora bidaiari-kopurua (% 127ko gorakada); batez ere, nazioarteko trafikoak egin du gora (% 425eko igoera); baina bi trafiko-motek antzeko jarduera dute.

227. koadroa Aireportuko trafikoaren gorakada (2017/2016)*

Aireportua	Bidaiariak		Aireontziak		Salgaiak	
	Mila	% Δ	Unitateak	% Δ	Tm	% Δ
Bilbo (Loiu)	386	8,4	1.884	4,2	-1.018	-34,2
Iruñea (Noain)	13	8,5	312	5,8	5,3	265,0
Donostia (Hondarribia)	18	6,8	-25	-0,4	-1,4	-30,4
Vitoria-Gasteiz (Foronda)	47	127,0	1.742	26,0	8.349	16,0
Hego Euskal Herria	462	9,2	3.908	6,1	7.334	13,3

(*): 2017rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Datuak lehen begiratuan aztertuta, ikus daiteke Loiuo aireportuan gora egin duela bidaiari-kopuruak (386 milatik 464 milara igo da). Bestalde, Gasteizko aireportua erreferentziatzeko aireportua bihurtu da salgaien trafikoan.

Atalari amaiera emateko, 2017an euskal aireportuetan egin diren berrikuntzak adieraziko dira. Hondarribiako aireportuak Europako segurtasun-ziurtagiria lortu zuen 2017. urtearen amaieran. Aerodromo horrek argitaratutako informazioaren arabera, EBko 139/2014 araudiak ezarritako segurtasun-irizpide berriak betetzen dituzte aireportuko instalazio, sistema, talde, zerbitzu eta prozedura guztiek. Horretaz gainera, abuztuan Vueling airelineak Airbus 319 hegazkinarekin hegan egiteari utzi eta pistaren zola aldatzeko eskatu zion Aenari, hegazkin-mota hori erabiltzen jarraitzeko. Azkenean, zola konpondu zuten eta 2018ko urtarrilaren 16an berriro hasi zen hegan egiten Airbus 319 hegazkina.

Forondako aireportuan, logistika-operadore berri bat dago (UPS), DHL enpresak instalazioak handitu ditu, eta bidaiari-kopuruak gora egin du. Beraz, etorkizun bikaina du aerodromoak. Horren ondorioz, Arabako Foru Aldundiak eskatu dio AENARI aireportua 24 orduz zabalik egotea, bai eta aire-geltokia birmoldatzea ere, izan ere, jarduerak gora egin du.

Loiuo aireportuan ere gora egin du bidaiari-kopuruak. Horri lotuta, Bilboko aireportuko zuzendaritzak adierazi du "hausnartzen hasi behar dela" aireportuaren handiagotzeari buruz, aireportuaren garapenari mugarik ez jartzeko eta aire-geltokian gertatu daitezkeen pilaketarik ez egoteko.



Bestalde, Iruñeako aireportuan Iruñea-Frankfurt hegaldia jarri zen martxan azaroan (Lufthansa airelineak egiten du bidaia); eta horretaz gainera, aire-geltokiko hegazkinera igotzeko eremua hobetu da. Beraz, Nafarroako aireportuak ohiko loturak ditu Madril eta Frankfurt hiriekin. Gainera, data seinlatuetan hegaldi bereziak eskaintzen dira, eta hegaldi horiek eragin handia dute bidaiari-kopuruan. Hala eta guztiz ere, 2018ko ekitaldiaren amaierara arte itxaron beharko da Lufthansa airelineak aerodromoan zer eragin izan duen ikusteko. Era berean, Alemaniako konpainia horrek iragarri du, lehen hilabetetan izandako emaitza onak ikusita, hegaldiak eskaintzen jarraituko duela Iruñeako aireportuan eta posible dela hobekuntzak egitea bertan. Egoera hori aukera bikaina izan daiteke Nafarroako aireportuarentzat; izan ere, urtean 200.000 bidaiari baino gehiago izatea espero da.



5. FINANTZA SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA


Munduko ekonomiak %3,8ko hazkundera izan du 2017an, eta aurreko bi urteetako datuak gainditu ditu (% 3,1 eta % 3). Datu horiek adierazten dute egoera onean daudela bai ekonomia aurreratuak (% 2,3 AEBn eta Eurogunean) bai garatzeko bidean daudenak (% 4,8), batez ere, Txina (% 6,9) eta India (% 6,7); Errusiako eta Brasilgo ekonomiak, aldiz, moteldu egin dira (% 1,5 eta % 1 hurrenez hurren). Nazioarteko Diru Funtsak antzeko datuak aurreikusi ditu 2018rako eta 2019rako, eta bi urte horietan munduko ekonomia-hazkundera % 3,9koa izatea espero du: ekonomia aurreratueterako % 2,5 eta % 2,2 eta garatze-bidean daudenetarako % 4,9 eta % 5,1.

NDFren arabera, aldeko faktore dira ekonomia-jardueraren, enpleguaren eta munduko merkataritzaren dinamismoa, finantzazioaren aldeko baldintzak izatea eta inflazioaren helburuak betetzea (petrolioaren prezioa igo egin den arren). Eragileak eta merkatuak ari dira, pixkanaka, ekonomiaren alorreko eraginak eta komunikabide-eraginak bereizten, eta zenbait gertaerek ez dute garai batean zuen eragin handia, hala nola Brexitaren negoziazioa, muga-zerga protekzionisten ondoriozko merkataritza-gerrak edo aparteko finantzazio-baldintzen amaieraren berri ematen duten iragarpenen errepikariek. Izan ere, makroekonomia-datuak dira, gaur egun, hurrengo bi urteetarako iragartzen den hazkunderaren oinarri.

Hazkunde-helburua (% 3,1) bete du Espainiako ekonomiak. Helburu hori lortzeko, lagungarri izan du munduan ageri den dinamismo ekonomikoa; batez ere, inguruko ekonomia, eta oso mesedegarri izan zaizkio, era betean, finantza-merkatuen eta enpresen konfiantza eta enpleguaren eta barne-eskariaren berreskuratze progresiboa. Horren ondorioz, kontsumoa dinamizatu da, handitu egin da etxeetako inbertsioa, eta etengabe hazi da enpresa-jarduera. Bestalde, sektore pribatua palanka-efektua leuntzeko prozesuan dago, baina ez dira desagertu defizitaren eta zorpetze publikoaren desorekak dakartzaten arriskuak.

Espainiako ekonomia-hazkunderaren aurreikuspenak positiboak dira; hala eta guztiz ere, hazkundera aurreko urteetako baino txikiagoa izango dela aurreikusten da (% 2,8 eta % 2,2), hedapen-fase hori ahuldu egin baita. Izan ere, Espainiako Bankuak adierazi du -barne-faktoreei begiratuta- erreformak egin behar direla lan-merkatuaren eta zerbitzu-ondasunen merkaturaren jarduerak hobetzeko (eraginkortasun eza zuzentzeko), politika publikoen iraunkortasuna (eta, berariaz, defizitean eta zorrean duten inpaktua) aztertu behar dela, eta aurre egin behar zaiola zahartzeak hazkunde ekonomiko eta sozial endogenoaren gaitasunean duen inpaktuari.

33. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*



(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.


Finantza-bitartekotzaren erreferentziarako bi aldagaien bilakaerak erakusten du Espainiako sektore pribatuak palanka-efektua leuntzeko prozesuarekin jarraitzen duela, behera egin duela kreditu-saldo biziak (-% 1,9) eta Euskadin moteldu egin dela saldo horren berreskuratze-prozesua (2017an -% 1,9 eta 2016an % 0,9). Horrela, amortizatutako bolumen handia nagusitzen da kreditu-saldo biziaren gerakinean, ekitaldi horretako eragiketa berriekiko. Hala eta guztiz ere, eutsi egin zaio inbertsioa berreskuratze joerari; eta, horrez gainera, Espainian eta Euskadin igo egin dira hipoteka-kopurua (% 9,9 eta % 3,5) eta hipoteka horien batez besteko diru-zenbatekoa (% 6,3 eta % 0,1). 2017. urtean, etxebitzitzak erosteko 310.342 hipoteka harpidetu dira Espainian eta 20.255 hipoteka harpidetu dira Euskadin; hau da, 2009. urtean harpidetutakoen erdia (% 48 eta % 58 gutxiago, hurrenez hurren). Hau da, etxebizitza erosteko merkatua, familien inbertsio-erreferente gisa, gorabidean ari da 2013ko balio minimoen ondoren, eta, zentzu horretan, urte positiboa izan da 2017a; hala ere, jarduerabolumenak urrun daude 2010eko datuetatik.

Bestalde, sektore pribatuaren gordailuetako saldoak hazkunde txiki bat izan du Espainian (% 0,5), eta zertxobait handiagoa Euskadin (% 2,2); hala ere, joera ez da asko aldatu 2016. urtetik eta aurrezteko figura tradizional horiek ordainsari apalak ematen jarraitzen dute. Horren ondorioz, indarra hartu dute beste eragiketa batzuek, hala nola inbertsio-funtsek eta, inbertsiogile partikularren artean gutxiago hedatuta dauden arren, balio-merkatuek. Hori horrela, 2017an, sektore pribatuaren gordailuetako saldoa 1,146 eta 0,092 bilioi eurotako izan da Espainian eta Euskadin. Euskadik % 8ko ratioa du

Espainiarekiko, eta ehuneko hori biztanleriari (% 4,7) eta BPGari (% 6,2) dagokiena baino handiagoa da. Horrez gainera, alderdi horien gehiengoa berehalako likideziaren figurei dagozkie (% 71,3, agerikoak eta aurrezkikoak); eta beste aldean, eperakoak (% 23,8) eta beste modalitate batzuetakoak (% 4,9) daude.

Aurrezkiaren zati batek ihes egin du, ziur asko, ordainsari oso apalak dakartzaten figura ez erakargarrietatik, eta, horien orde, erredimendu handiagoa ekar dezaketenak hobetsi ditu, arrisku handiagoa izan dezaketen arren. Hori horrela, handitzen jarraitu du Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IKE) ondareak (% 10 2017an), baina behera egin du erakunde-kopuruzk (-% 9,4). IKEetako ondasunen % 89 inbertsio-funtsei dagokie, eta funts horiek portaera desberdina erakusten dute ondasunaren bolumenean modalitatearen arabera: atzera egin dute errenta finkoko funtsek (-% 2,9), eta igo egin dira errenta aldakorrekoak (% 28,7) eta mistoak eta bestelakoak (% 25,1).

34. grafikoa Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa



Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

Munduko ekonomia hazi egingo dela aurreikusten dute munduko akzio-merkatuek, eta aurreikuspen positiboak daude 2018rako eta 2019rako. Bestalde, bonuen merkatuek ez dute aldaketarik izan, banku zentral nagusien politika monetario murriztaileen zain egon baitira. Azken finean, akzioen eta bonuen merkatuak hegakortasun apala izan dute, eragile nagusien jokabidearen eta agenteen konfiantzaren ondorioz.

Testuinguru horretan, Espainiako Burtsak 2016ko kontratazio-bolumenak mantendu ditu 2017an negoziazio-merkatuetan (-% 0,2). IBEX 35 indizeak bilakaera positiboa izan du urte osoan zehar; maiatzean lortu zuen maximoa (10.880 puntu) eta urtea 10.093 punturekin itxi du, Kataluniako krisiaren eraginpean. IBEX 35 indizearen balio handitzea

(% 7,9) Eurostoxx-50 indizeak (% 7,1) eta FT-SE 100 indizeak (% 6,7) erregistratutakoaren antzekoa da, baina CAC-40 (% 9,8) eta Dax-Xetra (% 13,1) indizeena baino zertxobait baxuagoa, eta batez ere, Dow Jones indizearena (% 25,7) baino askoz baxuagoa; azken indize horri dolar ahulak lagundu dio, eta Ipar Amerikako ekonomiaren hazkunde indartsuak eman dio babesa.

228. koadroa Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Erakunde-kopurua Guztira	314	292	272	262	250	246
Gordailu-erakundeak	258	241	224	217	206	206
Espainiako gordailu-er.	173	155	138	135	124	123
KFC/ECAOL	55	50	47	44	43	39
Enplegatutako pertsonak Guztira	248.093	217.878	208.291	202.954	194.263	192.626
Gordailu-erakundeak	242.726	212.991	203.305	197.825	189.280	187.472
KFC/ECAOL	5.047	4.577	4.665	4.812	4.695	4.830
Kreditu ofiziala	320	310	321	317	308	324

Oharra: Erakunde-kopurua Guztizko kopuruarekiko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1) dagokio.

Iturria: Espainiako Bankua.

Aurrezki- eta kreditu-posizio horien eskaintza kreditu-erakunde¹ bidez egiten da, neurri handi batean. Erakunde horiek berregituratze handia izan dute azken hamarkadan. Gainera, 2017an gordailu-erakunde kopurua mantendu egin da (206); sistemaren zati handiena da (% 83,7) eta horietatik bi heren (% 59,7) Espainiako erakundeak dira. Bestalde, kredituko finantza establezimenduen kopurua murriztu egin da (43tik 39ra). Oro har, 2017an, badirudi sistema finkatu dela eta 2012tik dagoen berregituratze-prozesuari amaiera emango zaiola.

Agerikoak dira berregituratze organikoaren eraginak, eta, horrez gainera, doikuntza handi bat da abian; izan ere, kreditu-erakundetako langileen % 30 galdu da 2008. eta 2016. urteen bitartean (84.038 enplegu; batez beste, 10.504 enplegu urtean). Eutsi egin zaio joera horri 2017an, eta lanaren galera garbia erregistratu da (-1.637 enplegu, -% 0,8); izan ere, kontratazio (berri) gutxiago egin dira, langileen galerarekin alderatuta².

¹ Bankuak, lehengo aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak dira gordailu-erakundeak, eta beste kredituko finantza establezimendu batzuekin kreditu-erakundeak osatzen dituzte.

² Erretiroa eta pizgarridun bajak, batez ere.

229. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego-kopurua

Urtea	EAE	Nafarroa	Espainia
2015	1.522	569	30.921
2016	1.426	531	28.643
2017	1.361	508	27.320

Iturria: Espainiako Bankua.

Gertaera horiek Estatu osoan eman dira¹, eta bulego-sarearen datuak ematen digu, zeharka, bilakaera horren berri. 2008. eta 2016. urteen artean, gordailu-erakundeek 17.019 bulego kendu zituzten Estatuan, eta 2017an joera hori mantendu da, guztira 1.323 bulego gutxiago baitaude. Hori bera gertatu da EAEn eta Nafarroan ere, azken urtean 65 eta 23 bulego gutxiago baitaude, hurrenez hurren. Beste datu argigarri bat ematen digu finantza- eta aseguru-jardueraren taldeak Gizarte Segurantzaren afiliazioan izan duen bilakaerak, talde horren esparru guztietan izan den galerak argi erakusten baitu enpleguan emandako doikuntza. Labur esanda, erakundeak bezeroen beharretara egokitzen ari dira beren sarea eta langileria, beren eguneroko lanaren zati handi bat konexio digital eta ez presentzialaren bidez egiten baitute.

230. koadroa Finantza- eta aseguru-jardueretan afiliatzea

Urtea	EAE	Nafarroa	Espainia
2015	14.997	3.482	317.352
2016	14.307	3.456	314.837
2017	13.733	3.370	313.544

Hileroko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduan. Erregimen orokorra

Iturria: Gizarte Segurantza

2017ko ekitaldia interes-tasa txikiek baldintzatutako emaitzekin itxi dute kreditu-erakundeek, eta horiek estutu egin dute finantza- edo interes-marjina (-% 4,4); hala ere, eutsi egin diote marjina gordinari (% 0,6). Ustiapen-gastuak pixka bat igo dira (% 1) eta langile-gastuak, aldiz, badirudi behera egin dutela eta ia aurreko urteko balioa errepikatu dutela (13.935 milioi euro). Ustiapen-emaitzak beste murrizketa bat izan du (-% 28koa); izan ere, handia izan da zuzkidura garbiaren zenbatekoa (3.597 milioi euro, % 2,9) eta igo egin da galeren partida finantza-aktiboen narriaduraren eraginez. Datu horietatik ondorioztatu daiteke beste aktibo batzuen narriaduraren eraginez galeren egozpen handi bat egon dela (9.276 milioi eurokoa). Horrela, 647 milioi euroko galera izaten dute (zergen aurretikoa); 2016an, aldiz, 6.691 milioi euroko etekinak izan zituzten.

¹ Datuak ez daude bereizita autonomia-erkidegoka.

2. KREDITU-ERAKUNDEAK

2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

Kredituaren bilakaera estatuan

Espainiako kreditu-erakundeek 2,65 bilioi eurotan zenbatetsitako aktiboarekin itxi dute 2017ko ekitaldia, eta balioa errepikatzen dutela esan daiteke, elkarren segidako lau urtetan behera egin eta % 22,7ko galera metatu ondoren. Horrenbestez, 2017an apurtu da aurreko urteetako joera, eta urtetik urterako bilakaera zertxobait gora egiten hasi da (% 0,2), erakunde multzo horren aktiboen zenbatespenari dagokionez.

Aktiboan dauden partiden artean, kreditu-saldo bizia gailendu da (1,77 bilioi euro), eta are eta luzeagoa den beheratze-joera, 2010ean hasia, apurtu du: 2010etik 2016ra bitartean, kreditu-saldo biziaren doitzea ia % 28koa izan zen; alabaina, 2017an joera-aldaketa iragarri da, urtetik urterako igoera % 2,8koa izan baita.

Kreditu-erakundeen inbertsio-erabakiak bideratzen dituzten beste bi partida hauek daude: alde batetik, akzioak eta partaidetzak (beste erakunde eta enpresa batzuetan), eta bestetik, gainerako balio eta tituluak, lehen aipatutako bi mota horietakoak ez direnak. Epigrafe horien batura 0,59 milioi euro da, eta portaera desberdinekin itxi dute 2017ko ekitaldia: urtetik urterako beherakada (-% 9,9) eta gorakada (% 6,5), hurrenez hurren. Orokorrean, aurreko urteetako balioak baino txikiagoak dira.

Horiek horrela, aktiboaren egitura ez da ia aldatu, kreditu bidezko inbertsioa % 66,6 baita; horrenbestez, kreditu-erakundeen aktiboaren guztizkoan duen proportzioa sendotu egin da, eta 2017koa izan da 2011z geroztik egindako ekarpen handiena. Bestalde, baloreetan egindako inbertsioek pisua galdu dute (% 13,8tik % 12,4ra), eta pisu horren zati bat akzio eta partaidetzatan egindako inbertsioen ekarpena hobetzera bideratu da (% 9,2tik % 9,8ra). Azkenik, sektorizatu gabeko eragiketak ere aktiboaren osagai dira, eta zertxobait behera egin dute (% 12tik % 11,2ra).

231. koadroa Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera
(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	3.422.612	3.025.756	2.912.824	2.782.793	2.646.981	2.652.505
Kredituak	2.229.670	1.926.174	1.805.615	1.767.699	1.718.815	1.766.467
Akz. eta part. ez diren baloreak	508.991	492.801	492.346	415.493	365.826	329.512
Akzioak eta partaidetzak	257.501	280.357	261.536	246.274	243.811	259.602
Sektorizatu gabeko aktiboak	426.449	326.424	353.327	353.327	318.529	296.924

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Eragile-segmentuen araberako kredituaren banaketan ikusten denez, 2017an 1,25 bilioi euro bideratu dira beste sektore egoiliar batzuetara, eta urtetik urterako aldaketa-tasa negatiboa izan da (-% 1,7). Beraz, 2017ko ekitaldian berresten da berriz ere enpresetan eta familietan ez dagoela palanka-efekturik, amortizatutako kopurua kreditu berrien zenbatekoa baino handiagoa baita oraingoan ere. Egoera horren ondorioz, kreditu-saldo biziak behera egiten jarraitzen du. Hala izan da 2015ean, 2106an eta 2017an (alegia, ekonomiaren eta enpleguaren susperraldian), eta horrenbestez palanka-efektua alde batera uzteko dinamika sendotu da, sektore pribatuak sustatuta.

Kreditu bidezko inbertsioaren ondorengo xedeek garrantzia erlatibo eta nominal txikiagoa dute, eta ehuneko txikiagoa hartzen dute. Hala, bigarren tokian ageri den partidak kreditu-sistema bera du xede; 0,2 bilioi eurokoa da, eta urtetik urterako igoera handia izan du (% 43,9). Balio horiek 2014tik 2016ra bitartekoak baino askoz ere handiagoak dira, baina 2012-2013 biurtekoan izan zirenen parean daude. Kanpo-sektoreari emandako kredituak 0,2 bilioi euro hartzen ditu. Gora egin du, aurreko urtearekin alderatuta (% 4,5), eta bezero-segmentu horren susperraldia iragarri du; izan ere, 2012az geroztikako balio handien artean bigarren tokian dago 2017koa. Azkenik, administrazio publikoetara bideratutako kredituen zenbatekoa gainerako epigrafeetakoak baino askoz ere txikiagoa da (0,078 bilioi euro), behera egiteko joerari eutsi dio¹ (-% 11,7) eta 2012ko balioaren bi heren izatera iritsi da jada.

2017an honela banatu da kreditu-erakundeen kreditu-saldoa: % 71 beste sektore egoiliar batzuetara edo sektore pribatura bideratu da; % 13,3k kreditu-sistema bera izan du xede; % 11,3 kanpo-sektoreara bideratu da; eta % 4,4, berriz, administrazio publikoetara. Egitura hori aurreko urteetako banaketaren antzekoa da: erakundeen kreditu-arloko jardueraren egituraren "beste sektore egoiliar batzuk" hartzen dituen epigrafea da nagusi, baina haren proportzioak zertxobait behera egin du azken urteetan.

¹ Beste merkatu batzuetan finantzazioa eskuratzeko aukera hobetuekin batera (zor-jaulkipena).

Labur esanda, 2017an kreditu-saldu bizia suspertu egin da, eta urtetik urterako aldaketa positiboa izan du. Horrek esan nahi du bezero-segmentu batzuk hobera egin dutela (kanpo-sektorea, kreditu-erakundeak) eta horiek orekatu dutela sektore pribatuaren palanka-efektu negatiboaren etengabeko joera, beste sektore egoiliar batzuen epigrafeak adierazten duena. Hau da, eragileen funts-eskaria (kreditu berriak) jarduera ekonomikoaren indarberitzearen eta horrek sortutako finantzaketa-beharren ondorioz suspertu arren, amortizatu den bolumena handiagoa izan da; beraz, kreditu-saldo biziak (pribatuak) behera egiten jarraitu du.

232. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua eragileen arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	2.229.670	1.926.174	1.805.615	1.767.591	1.719.085	1.766.467
Kreditu-sistema	278.915	210.536	155.097	164.206	163.053	234.694
Administrazio publikoak	114.275	87.140	101.313	89.972	88.471	78.110
Beste sektore egoiliar batzuk	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944
Beste ez-egoiliar batzuk	231.546	180.254	169.104	186.354	191.151	199.719

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren xedea estatuan

Espainiako Bankuaren datuetan, modalitate hauen arabera bereizita ageri da beste sektore egoiliar batzuetara bideratutako kreditua¹: kreditu komertziala, eperako beste zordun batzuk, eta beste mailegu batzuen atal bat, ageriko zordunak, finantza-errentamendua eta kobrantza zalantzarriko kredituak biltzen dituen.

Aipatutako hiru epigrafe horiek (kreditu komertziala, eperako beste kreditu batzuk eta beste mailegu batzuk) aurreko urteetako bilakaerari jarraitzen diote. Izan ere, "eperako beste zordun batzuk" aintzat hartzen dituen atalak, osagai nagusi denak, azken bost urteetan, gutxienez, behera egin du. Beste mailegu batzuen epigrafeak etengabe behera egin du azken lau urteetan (-% 38,1), eta kreditu komertzialak, berriz, gora egin du beti lau urte horietan (% 41,1).

Beste sektore egoiliar batzuen segmentuko kreditu-saldo biziaren egitura, kredituaren xedearen arabera, ez da aldatu 2017an, eta aurreko urteetako ildoari jarraitu dio. Horrenbestez, "eperako beste zordun batzuk" (% 83,6) partida nagusia izan da, eta nabarmena da kreditu komertzialak gero eta ehuneko handiagoa hartzen duela (% 3,9

¹ Ekitaldi honetatik aurrera, Espainiako Bankuak ez du ematen eperako beste zordun batzuei buruzko informazio bereizirik, berme erreal batean oinarritutako kredituei dagokienez, eta, horien barruan, hipoteken modalitatean sinatutakoei buruz. Aldaketa hori Europar Batasuneko (Europako Banku Zentraleko) sailkapen-ereduaren egokitzapenaren ondorio da.

oraingoan); hala eta guztiz ere, proportzio txikia du oraindik ere, eta, neurri batean, beste mailegu batzuek galdutako ehunekoa (2013an % 17,5 izatetik oraingoan % 12,5 izatera) bereganatu du.

233. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944
Kreditu komertziala	40.523	34.570	36.606	42.640	45.058	48.764
Eperako beste zordun batzuk	1.335.512	1.159.366	1.117.315	1.098.012	1.064.196	1.047.827
Beste mailegu batzuk	228.899	254.308	226.180	186.471	166.886	157.353

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailu-erakundeek emandako kredituaren xedeari erreparatuta, beste sektore egoiliar batzuetarako kredituan kontuan hartzen diren lau epigrafeetako hiruren saldo biziak beherakada ageri da 2017ko ekitaldia ixtean. Hortaz, ekoizpen-jardueretarako kredituaren saldo biziak % 2 egin du behera, zazpi urtez gailendutako joerari eutsiz, eta % 32,7ko beherakada metatu du. Horri erantsi behar zaio etxebizitza-segmentura bideratutako kredituaren beherakada (-% 2,6), zazpigarren urtez; hala eta guztiz ere, 2012az geroztikako beherakada guztien artean, 2017koa da txikiena. Horrenbestez, etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kreditu-saldo biziak % 20,6ko beherakada metatu da 2011tik 2017ra bitartean.

Beste kreditu batzuen atalak ere behera egin du 2017an (-% 5,2), eta, 2008an lortutako balio maximoarekin alderatuta, dagokion saldo biziak % 35,2ko beherakada metatu du. Horrenbestez, kontuan hartutako hiru xede edo bezero-segmentuek (ekoizpen-jarduerak, etxebizitza eta beste kreditu batzuk) % 2,5eko urtetik urterako beherakada izan dute 2017an; eta, kontsumo-ondasun iraunkorren finantzaziorako kredituek nabarmen hobera egin badute ere, hobekuntza hori ez da nahikoa aipatutako beherakada konpentsatzeko.

Kontsumo-ondasun iraunkorren finantzaziorako segmentuari lotutako kreditu-saldoaren gorakada handia izan da (% 26,6), bigarren urtez, eta 2016koarekin batuta (% 18,9), % 50 baino gehiagoko igoera metatu du bi urtetan. Horrez gainera, 2010etik aurrera izan den zenbateko handiena da.

234. koadroa **Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

(M eurotan)


Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	1.537.748	1.392.384	1.328.189	1.274.656	1.222.541	1.199.079
Ekoizpen-jarduerak	788.412	687.736	647.426	619.954	582.060	570.220
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	620.580	592.278	568.212	541.032	524.780	511.355
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	26.038	19.869	21.615	20.576	24.464	30.975
Beste kreditu batzuk	102.718	92.501	90.936	93.094	91.237	86.529

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Azken finean, 2017an gordailu-erakundeek beste sektore egoiliar batzuetako bezero-segmentuari emanak dituzten 1,2 bilioi euroen ia erdia (% 47,6) ekoizpen-jardueretarako da, ia beste hainbeste (% 42,6) etxebizitzak erosi eta birgaitzeko, eta ehuneko txikiagoak kontsumo-ondasun iraunkorretarako (% 2,6) eta beste kreditu batzuetarako (% 7,2).

Banaketa hori aurreko urteetako antzekoa da, eta bi segmentu nagusien konbergentziaren emaitza da; izan ere, 2008an ekoizpen-jarduera nagusitzen zen banaketan (% 54), etxebizitza-segmentuaren gaineratik (% 36), baina beste sektore egoiliar batzuetarako kreditua, guztira, 2017ko bolumena baino % 49 handiagoa zen 2008an. Bestalde, azpimarratzekoa da 2007tik aurrerako zenbatekoak kontuan hartuta, kontsumo-ondasun iraunkorretarako kredituaren kuota handiena 2017koa dela.

35. grafikoa **Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE)**




Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

Hego Euskal Herrian 2017 ixtean 87.384 milioi euroko kreditu-saldo bizia dago. Zenbateko horrek urtetik urterako beherakada txiki bat adierazten du (-% 0,6), 2016ko bilakaera ez bezalakoa, emaitza positiboa izan baitzuen (% 2,6). Portaera horretan erabakigarria da EAEn bilakaera (-% 1), beherakada hori ezin izan baitu konpentsatu Nafarroan egindako gorakadak (% 1,2).

Horrez gainera, EAE osatzen duten lurraldeetan portaera ez da homogenea izan: Arabako eta Bizkaiko beste sektore egoiliar batzuentzako kreditu-saldo biziaren urtetik urterako beherakadak (-% 0,3 eta -% 1,9 hurrenez hurren) ezin izan dira konpentsatu Gipuzkoako goraldiarekin (% 0,8).

36. grafikoa **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera**



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Dena dela, gogoan izan behar da, magnitude horien bilakaeraren azterketa egitean aintzat hartzen den lurraldea txikiagoa denean, urtetik urterako emaitzak aldakorrek direla. Zehazki, 2016ko eta 2017ko urtetik urterako emaitzak elkar konpentsatzen dira. Hortaz, 2016-2017 biurtekoa osorik hartuta, 2017 ixtean dagoen saldo bizia 2015ekoa baino txikiagoa da Araban (-492 milioi euro), Gipuzkoan (-144 milioi euro) eta Nafarroan (-117 milioi euro), ez ordea Bizkaian (2.462 milioi euro), lurralde horretan nabarmena baita jada susperraldia.

2017an Hego Euskal Herrian dagoen kredituaren bilakaera bat dator 2008tik aurrera estatu osoan dagoen palanka-efektu negatiboaren joera orokorrarekin. Hego Euskal Herrian 2017 ixtean dagoen kreditu biziaren datua (87.382 milioi euro) % 27,7 txikiagoa

da 2008an lortutako gehieneko balioa baino -Espainiaren kasuan % 33,2 da- eta zenbatekoa ez da ia aldatu 2014tik aurrera.

Hego Euskal Herrian, aztertutako bi bezero-segmentuen arabera -administrazio publikoak eta beste sektore egoiliar batzuk-, kredituaren bilakaera negatiboa izan da (-% 2,5 eta -% 0,4 hurrenez hurren); eta, zeinuari begiratzuz gero, behintzat, portaera hori estatuko jokabidearen antzekoa da (-% 11,4 eta -% 1,9 hurrenez hurren).

Beste sektore egoiliar batzuen segmentuko kreditu-saldo biziaren bilakaerari erreparatuta, azpimarratu behar da EAEn behera egin duela orokorrean (-% 0,5%); Bizkaian eta Araban behera egin du (-% 1,2 eta -% 1,8 hurrenez hurren) eta Gipuzkoan, berriz, gora (% 1,5). Dena dela, azken bi ekitaldietako urtetik urterako emaitza aldakorak kontuan hartuta, azpimarratu behar da 2017 ixtean beste sektore egoiliar batzuek erabilitako kredituaren kopuruak, 2015eko datuekin alderatuta, behera egin duela Araban (-783 milioi euro), ia zenbateko bera izan duela Gipuzkoan (-41 milioi euro) eta suspertu egin dela Bizkaian (+1.675 milioi euro).

235. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua eragileen eta eremuaren arabera

(M eurotan)

Eremua	Urtea	Admin. publikoak	BSE	GUZTIRA
Araba	2015	2.240	8.794	11.034
	2016	2.416	8.154	10.570
	2017	2.531	8.011	10.542
Bizkaia	2015	3.718	36.176	38.894
	2016	3.875	38.300	42.175
	2017	3.505	37.851	41.356
Gipuzkoa	2015	679	18.430	19.109
	2016	706	18.113	18.819
	2017	576	18.389	18.965
EAE	2015	6.637	63.400	69.037
	2016	6.997	64.567	71.564
	2017	6.612	64.251	70.863
Nafarroa	2015	1.007	15.631	16.638
	2016	1.155	15.172	16.327
	2017	1.338	15.183	16.521
Hego Euskal Herria	2015	7.644	79.031	85.675
	2016	8.152	79.739	87.891
	2017	7.950	79.434	87.384
Espainia	2015	85.708	1.274.523	1.360.361
	2016	83.866	1.222.530	1.306.396
	2017	74.339	1.199.107	1.273.446

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Bilakaera horretan, kreditu-saldo biziaren lurralde-banaketari eutsi zaio, eta gordailu-erakundeek magnitude horren % 58,4 atxiki diote Bizkaiari, % 26,8 Gipuzkoari eta % 14,9 Arabari. Banaketa hori nahiko egonkor dago, eta azpimarratzekoa den alderdi bakarra da

Bizkaia sendotu egin dela. Kontuan izan behar da banaketa horretan Bizkaia gailentzen dela zertxobait¹ eta ehunekoak ez datorrela guztiz bat barne-produktu gordinaren banaketarekin (Eustat), izan ere, 2017an % 16,3, % 50,8 eta % 32,9 izan da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren (Eustat).

Azkenik, 2017an behera egin du administrazio publikoei lotutako kreditu-saldo biziak, bai Hego Euskal Herrian (-% 2,5) bai estatuan (-% 11,4). Portaera hori ageri da Bizkaiko eta Gipuzkoako eragileei lotutako saldoetan (-% 9,5 eta -% 18,4 hurrenez hurren), ez ordea Araban (% 4,8), ezta Nafarroan ere (% 15,8), bi lurralde horietan gora egin baitute.

Administrazio publikoen kreditu-saldo bizia estatuko kredituaren % 5,8 da, eta proportzioak behera egin du azken bi urteetan (2016an % 6,4; 2015ean % 6,3). Hego Euskal Herrian eta EAEn, berriz, administrazio publikoek kreditu-saldo biziaren ehuneko zertxobait handiagoa dute (% 9,1 eta % 9,3), eta behera egiteko joera bera dute (2016an % 9,3 Hego Euskal Herrian eta % 8,9 EAEn; 2015ean % 9,8 Hego Euskal Herrian eta % 9,6 EAEn). Azpimarratzekoa da administrazio publikoek ez dutela kreditu-saldo biziaren ehuneko bera lurralde guztietan; izan ere, EAeko batez besteko ratioarekin (% 9,3) alderatuta, Araban askoz ere ehuneko handiagoa dute (% 24,0), Bizkaian batez bestekoaren antzekoa da (% 8,5) eta Gipuzkoan, berriz, oso txikia (% 3).

Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

Etxebizitza eta automobila erostea eta birgaitzea dira familiek egiten dituzten inbertsioen segmentu nagusiak, eta kreditu bidezko finantzaketa erabili ohi dute. Horregatik, sinatutako hipoteki buruzko informazioa² eta ibilgailu berrien salerosketei buruzkoa kontuan hartu dugu, bi segmentuek estatuan, EAEn eta Nafarroan izan duten bilakaeraren ikuspegia osatze aldera.

2017an 310.342 hipoteka berri sinatu dira estatuan, eta urtetik urterako igoera % 9,9koa izan da. Jarduera horrek laugarren urtez gora egin du, 2013an gutxieneko balioa izan ondoren (199.703) 2009an balioa izanda 650.889. Guztira, 16.239 hipoteka berri sinatu dira EAEn, eta urtetik urterako igoera estatuko igoeraren erdia izan da (% 4,3 EAEn; % 9,9 estatuan). Hirugarren urtez egin du gora, 2014an gutxieneko balioa izan ondoren (11.469). Nafarroan 4.016 hipoteka berri sinatu dira, ia aurreko urteko kopuru bera (% 0,7ko urtetik urterako tasa), eta lau urtez jarraian suspertu egin da. Dena dela, eta sinatutako

¹ Gauza bera gertatzen da gordailuen lurraldeen araberako desagregazioarekin.

² Iturria: EIN. Estatu osoko jabetza-erregistroek emandako informazioa; hemen sartzen dira xede guztietarako hipoteka-kredituak, ez ohikoena bakarrik (etxebizitza hipotekatua erostea). Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera), Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa ez bezala; azken horrek, posizio zordunen stocka jasotzen du.

hipoteken kopuruak azken urteetan gora egin izanaren garrantzia baztertu gabe, kontuan izan behar da 2017an estatuan, EAEn eta Nafarroan sinatutako hipoteken bolumenak 2009an sinatutakoak % 48, % 59 eta % 55 direla, hurrenez hurren. Hau da, krisialdiaren aurreko kopuruetatik urrun daude oraindik ere.

Koadroan ikusten denez, hipoteken kopuruak ez ezik, hipotekatutako balioak ere gora egin du. Hortaz, 2017an 36.228 milioi euroko zenbatekoa sinatu da, guztira, hipoteketan. Zenbateko horrek gaintitzen ditu 2012tik 2016ra bitarteko urte bakoitzeko balioak; baina, hala eta guztiz ere, 2009an eta 2010ean sinatutako batez besteko balioaren (73.859 milioi euro) erdia da. Eraitza da 116.740 euroko batez besteko hipoteka, 2012z geroztik nabarmen gora egin duena, eta 2009ko datutik (117.803 euro) hurbil dagoena jada.

2017an EAEn sinatutako hipotekak 2.117 milioi euroko balioa dute, guztira; % 3,3 egin dute gora urtetik urtera, eta igoera hori txikiagoa da hipoteken kopuruak egindakoa baino (% 4,3). Horrenbestez, hipoteken batez besteko zenbatekoa 130.340 eurokoa da; alegia, zertxobait txikiagoa 2016koa baino (131.590 euro), eta 2009-2010eko batez bestekotik (145.260 euro) urrun dago. Nafarroan sinatutako hipoteken bolumenak ere gora egin du (% 5,2), eta 2017an sinatutako hipotekak 106.060 eurokoak dira, batez beste. Zenbateko hori txikiagoa da EAeko eta estatuko batez besteko balioa baino.

236. koadroa Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Espainia						
Hipoteka kopurua	273.873	199.703	204.302	246.767	282.342	310.342
Zenbateko osoa (milioi €)	28.329	19.973	20.891	26.339	31.037	36.228
<i>Batez besteko zenb. (m €)</i>	<i>103,44</i>	<i>100,01</i>	<i>102,25</i>	<i>106,74</i>	<i>109,78</i>	<i>116,74</i>
EAE						
Hipoteka kopurua	16.920	12.146	11.469	14.283	15.574	16.239
Zenbateko osoa (milioi €)	2.251	1.464	1.380	1.852	2.049	2.117
<i>Batez besteko zenb. (m €)</i>	<i>133,01</i>	<i>120,53</i>	<i>120,29</i>	<i>129,65</i>	<i>131,59</i>	<i>130,34</i>
Nafarroa						
Hipoteka kopurua	4.095	3.170	3.710	3.769	3.990	4.016
Zenbateko osoa (milioi €)	459	345	384	389	405	426
<i>Batez besteko zenb. (m €)</i>	<i>112,00</i>	<i>108,88</i>	<i>103,37</i>	<i>103,11</i>	<i>101,45</i>	<i>106,06</i>

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Azkenik, nabarmendu behar da azken hamarkadan hipoteken merkatuan egin diren doitzte handiak argi eta garbi ikusten direla maileguaren balio-bizitzan egin diren

aldaketetan¹. Ildo horretan, 2009an estatuko hirurehun mila hipoteka baino gehiagotan aldatu ziren baldintzak. Aldaketen kopuruak behera egin du urtero, eta 2017an 56.256 hipoteka aldatu dira. Bilakaera bertsua izan da EAEn eta Nafarroan: 1.108 eta 631 hipoteka aldatu dira, hurrenez hurren. Hau da, familietan palanka-efektuak behera egiteaz gainera, kultura finantzario hobea sustatu da. Horrek aldeen artean adostutako baldintzen doitzea eragin du, eta horrek guztiak, orokorrean, zorra itzultzeko baldintzak hobetu ditu.

237. koadroa Aldaketa notarialak eragindako etxebizitza-hipotekak

Kontzeptua	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Espainia	339.650	271.680	188.991	184.262	154.436	129.109	105.550	87.217	56.256
EAE	3.282	2.751	1.856	2.138	1.925	1.684	1.863	1.520	1.108
Nafarroa	1.314	1.433	902	882	681	583	616	477	361

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Automobil berrien erosketek susperraldian jarraitzen dute, eta aurreko urteetako joerari eutsi diote. EAE, Nafarroa eta estatua bat datoz: 2012koa izan zen inflexio-ekitaldia, orduan egin baitzen eragiketa kopuru txikiena, eta ondorengo bi urteetan susperraldia nabarmena izan zen, aurreko urteetan atzeratutako eragiketen balizko azaleratzea barnean hartuta.

Adierazle horren bizitasuna baretu egin da 2016an eta 2017an: ibilgailu berrien salerosketen urtetik urterako igoera % 7,7koa izan da 2017an, eta proportzio hori txikiagoa da aurreko hiru urteetako baino (% 10,9, % 20,9 eta 18,4). Hala eta guztiz ere, 1,234 milioi ibilgailutik gora dira, eta kopuru horrek ia bikoiztu egiten du 2012koa (0,699 milioi ibilgailu), 2008az geroztik izandako txikiena.

Antzeko ibilbidea egin dute azken lau urteotan –2014tik 2017ra– EAEk (% 2,8, % 2,5, % 16,4 eta % 18,2) eta Nafarroak (% 13,9, % 1,2, % 16,6 eta % 18,5); 2017an 39.622 eta 12.314 ibilgailu matrikulatu dira, hurrenez hurren, eta kopuru horiek ere gainditzen dituzte 2012ko zenbatekoak (25.516 EAEn eta 7.034 Nafarroan).

¹ Zehazki: berritzeak (hipoteka kontratatu ostean egindako edozein aldaketa, aldeek kontratua berriro negoziatzea adostuz gero), hartzekodunaren subrogazioa (bankua aldatzea, eta, horren ondorioz, kontratuaren baldintza berriak) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, eta titular berriak onartzea, kontratuaren baldintzak aldatuta edo aldatu gabe). Aldaketetan kontuan hartzen dira, batez ere, alderdi hauek: epea, zenbatekoa, erreferentziako interes-tasa eta/edo aplikatuko den diferentziala.

238. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak

(Unitate kopurua)

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017
Espainia	722.689	855.308	1.034.232	1.147.007	1.234.931
EAE	27.321	32.300	37.601	38.547	39.622
Nafarroa	7.737	9.170	10.690	10.814	12.314

Iturria: Anfac.

Berankortasunaren bilakaera¹

Berankortasunaren adierazleak jasotzen du erabilitako kreditu bizi osotik zer kuotak duen kobrantza zalantzarria. 2009tik 2013ra bitartean ratio horrek gora egin zuen, % 13,8ra iritsi arte, eta harrezkero murriztu egin da urtero, 2017an % 7,9ra iritsi arte.

239. koadroa Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M eurotan)

Urtea	K. zalantzarriak	Kredituak	(Zalantz./Kredituak) x 100
2012	162.601	1.537.748	10,6
2013	191.748	1.392.384	13,8
2014	167.473	1.328.189	12,6
2015	129.984	1.274.653	10,2
2016	112.275	1.222.511	9,2
2017	94.175	1.199.106	7,9

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Berankortasunaren bilakaerak askotariko bezero-segmentuetan pixkanaka behera egiteko joera orokorra du. Dena dela, azpimarratu behar da, lehenik eta behin, 2017an ekoizpen-jardueri lotutako berankortasun-ratioa % 10,4 dela, eta balio horrek bikoizten duela familien segmentuari dagokion adierazlea (% 5,3). Bigarrenik, ekoizpen-jardueren berankortasun-ratioak jardueren sorta zabal bat hartzen du. Jarduera horiek askotariko joerak dituzte, berankortasunari dagokionez, eta mutur banatan daude industria-segmentua² (% 8,8) eta higiezinaren sustapena³ (% 18,2). Hirugarrenik, ekoizpen-jardueren artean alde handiak egon arren, horietan guztietan berankortasun-ratioak behera egiteko joera du; hau da, segmentu guztietan kobrantza zalantzarriko kredituaren zenbatekoa murriztu egin da. Amaitzeko, familien segmentuan motelago egin du behera berankortasunak, eta % 5 inguruan dago.

¹ Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik ez dugu.

² Sinatutako maileguen batez besteko bolumenagatik, zerbitzuetako edozein jarduerak baino askoz ere handiagoa, jarduera mota eta inbertsio-premiak direla eta.

³ Oso kaltetua krisiaren aurretik kredituak hedatu zirelako eta gero jarduera horrek behera jo zuelako (aktiboen balioa galtzea, salmenten beherakada, enpresen likidazioak eta abar).

240. koadroa Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankotasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zalantzarriak, guztira	10,6	13,8	12,6	10,2	9,2	7,9
Ekoizpen-jarduerak	16,0	20,9	18,9	14,9	13,3	10,4
Nekazaritza eta arrantza	9,1	13,6	12,2	10,2	9,1	7,5
Industria	9,4	13,8	13,3	11,2	9,1	8,8
Eraikuntza	26,6	35,3	33,7	30,9	29,7	24,5
Zerbitzuak	16,3	21,0	18,9	14,4	13,0	9,9
Higiezin-jarduerak	29,1	38,0	36,2	27,4	25,4	18,2
Finantzak (bankuak ez)	2,2	3,3	2,4	2,1	2,1	0,3
Merkataritza eta kon.	10,7	15,2	15,6	12,9	11,5	10,5
Garraioa eta bilteg.	8,6	13,7	17,3	13,1	8,3	6,4
Ostalaritza	16,8	23,2	20,4	17,2	14,6	10,8
Beste zerbitzu batzuk	8,9	13,3	12,2	9,9	8,8	5,3
Beste helburu batzuk / familiak	4,7	6,7	6,6	5,5	5,4	5,3
Etxebizitzak erosi eta birg.	3,8	5,8	5,7	4,7	4,6	4,6
Beste batzuk	9,8	13,5	12,2	10,0	10,0	9,2
Gainerakoak	10,4	12,2	6,3	16,6	7,0	13,2

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

241. koadroa Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarriko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zalantzarriak, guztira	162.601	191.748	167.473	129.984	112.275	94.175
Ekoizpen-jarduerak	126.032	143.511	122.312	92.186	77.335	59.943
Nekazaritza eta arrantza	1.830	2.477	2.145	1.824	1.706	1.506
Industria	11.628	14.846	14.085	11.773	9.407	9.121
Eraikuntza	19.521	20.315	15.961	12.947	11.304	8.053
Zerbitzuak	93.055	105.874	90.120	65.641	54.918	40.813
Higiezin-jarduerak	64.202	66.265	53.732	36.670	30.275	19.759
Finantzak (bankuak ez)	2.005	2.871	2.385	2.067	1.690	274
Merkataritza eta kon.	7.840	10.438	10.467	8.659	7.768	7.506
Garraioa eta bilteg.	3.431	4.761	4.968	3.635	1.690	1.920
Ostalaritza	5.608	7.094	5.686	4.612	3.881	2.889
Beste zerbitzu batzuk	9.969	14.534	12.883	9.981	9.026	8.465
Beste helburu batzuk / familiak	34.544	46.530	44.171	34.736	33.652	32.712
Etxebizitzak erosi eta birg.	23.807	34.080	32.308	25.204	23.930	23.274
Beste batzuk	10.737	12.450	11.863	9.532	9.722	9.438
Gainerakoak	2.025	1.707	990	3.080	1.288	1.970

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Kreditu-erakundeetako gordailuen bolumena¹ 1,866 bilioi eurokoa izan da estatuan 2017an, eta zenbateko hori 2016koaren oso antzekoa da, zertxobait gora egin badu ere (% 0,02). Horrenbestez, 2017 inflexio-puntua izan daiteke magnitude horren bilakaeran, 2008an gehieneko balioa (2,327 bilioi euro) lortu eta gero saldoak bederatzirte jarraian behera egin ondoren.

2017 ixtean, behera egin dute beste sektore egoiliar batzuen gordailuek (-% 3,2) eta kanpo-sektorekoek (-% 2,3); sistema bera eta administrazio publikoak xede dituzten gordailuek, berriz, gora egin dute (% 13,6 eta % 13,5 hurrenez hurren). Azken finean, pasiboen posizio horien egiturari, bi heren beste egoiliar batzuei dagozkie (% 64,4), eta beste herena honako hauen artean banatuta dago: kanpo-sektorea (% 14,7), kreditu-sistema (% 17,5) eta administrazio publikoak (% 3,3). Banaketa horrek ez dakar aldaketa handirik, aurreko urteekin alderatuta.

242. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, eragileen arabera

(Meurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	2.297.865	2.065.401	1.997.363	1.940.297	1.866.552	1.866.973
• Kreditu-sistema	572.928	381.293	311.533	302.810	288.158	327.483
• Administrazio publikoak	69.183	63.485	76.150	77.058	54.371	61.722
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.316.735	1.314.129	1.289.280	1.261.388	1.242.580	1.202.893
• Beste ez-egoiliar batzuk	339.019	306.493	320.400	299.061	281.444	274.874

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Banakapen honetan beste sektore egoiliar batzuen segmentuko gordailuen osaera ageri da, haien epeen arabera: 2017an, sektore pribatuko gordailuen ia hiru laurden (% 71,3) ageriko kontuak edo aurrezki-kontuak dira, ia laurden bat (% 23,8) eperako posizioak dira, eta beste gordailu-formula batzuk, finantza-eragiketa konplexuagoekin lotuta daudenak, askoz ere proportzio txikiagoa dute (% 4,9).

Banaketa hori nabarmen aldatu da aztertutako bosturtekoan; izan ere, 2012an honako hau izan zen: % 36,1, % 52,6 eta % 11,3 hurrenez hurren. Beraz, gordailuen zati handi bat eperako modalitateetatik likideziaz azkarragoko formuletara eraman da. Mugimendu horren erritmoa beti bertsua izan da aipatutako aldirian, eta kontuan hartu diren gordailu-

¹ Kontuan hartu behar da ez dagoela aurrezkiaren neurri osorik pasibo-posizioetan; izan ere, gordailu-figuretain bideratzeaz gainera, baliteke beste inbertsio-xede batzuetara jotzea, esaterako, funtsetara, balioetara edo higiezin jardueretara.

ezartzeengatik ordaindu denaren arabera izan da. Epe luzerako posizioen interesak hutsaren hurrengoak izan direnez, epe laburragoetara jo da, edota eperik gabekoetara, ordainsariak hobetu zain.

243. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk

(M eurotan)


Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	1.316.735	1.314.129	1.289.280	1.261.388	1.242.580	1.202.893
• Agerikoak edo aurrezki-kont.	475.367	500.208	562.629	650.098	753.624	857.135
• Eperakoak	692.808	677.143	597.338	508.753	403.567	286.365
• Beste batzuk	148.560	136.778	129.313	102.537	85.389	59.393

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

Hego Euskal Herrian gordailuen saldoa 96.501 milioi euro izan da 2017an, eta urtetik urterako igoera % 4,6koa izan da. Kasu horretan, emaitzak aise gainditu du estatuko igoera (% 1,1). Horrez gainera, beste sektore egoiliar batzuen gordailuek hazkunde nabarmena izan dute (% 3,8), segmentu horrek estatuan izan duen portaera egonkorrekin alderatuta (% 0,5). Horrenbestez, sektore pribatu horretan EAeko eta Nafarroako gordailuek estatuan duten proportzioa % 8an tinkatu da.

37. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

2017an gordailuei lotutako guztizko saldoak (beste sektore egoiliar batzuk eta administrazio publikoak) gora egin du Nafarroan (% 4,1) eta EAEn (% 4,7). Azken emaitza horretan nabarmen eragin du Arabako portaera positiboak (% 7,7), eta haren ondoren

daude Bizkaia (% 4,5) eta Gipuzkoa (% 3,7). Bizkaian ikusten da, hain zuzen, azken bi urteetako susperraldi handiena.

Zehazki, 2017an beste sektore egoiliar batzuen segmentuko gordailuen bilakaera positibotzat jo daiteke, urtetik urtera gora egin baitu Araban (% 3,9), Bizkaian (% 5) eta Gipuzkoan (% 3,6). Hortaz, EAEko sektore pribatuko gordailuen multzoak, oro har, % 4,4 gora egin du. Nafarroan ere joera berdina izan du, baina bizitasun txikiagoz (% 1,1). Azkenik, adierazi behar da, 2017ko bilakaera guztia kontuan hartuta, beste sektore egoiliar batzuen segmentuari lotutako gordailuetan ez dela aldaketarik egin lurraldeen araberako banaketan: Bizkaiak ehuneko erabakigarria du (% 55,7), haren ondoren dago Gipuzkoa (% 31,3) eta atzetik Araba (% 13,1).

Administrazio publikoei lotutako gordailuen bilakaerari erreparatuta, urtetik urterako portaera aldakorragoa dute eta balizko "egoitza efektu" baten mende daude. Horrenbestez, Bizkaiari dagokio saldo horren erdia eta gehiago (% 58,5), haren ondoren dago Araba (% 28,7), eta atzetik Gipuzkoa (% 12,8). Guztira, Hego Euskal Herriko administrazio publikoen gordailuen % 75,3 dira EAEkoak eta % 24,7 Nafarroakoak. Oro har, estatuko administrazio publikoen gordailu guztien % 7 dira.

244. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak

(Meurotan)

Eremua	Urtea	Admin. publikoak	BSE	GUZTIRA
Araba	2015	326	9.623	9.949
	2016	519	9.600	10.119
	2017	926	9.977	10.903
Bizkaia	2015	2.059	39.586	41.645
	2016	2.004	40.554	42.558
	2017	1.887	42.572	44.459
Gipuzkoa	2015	522	22.561	23.083
	2016	379	23.062	23.441
	2017	414	23.886	24.300
EAE	2015	2.907	71.770	74.677
	2016	2.902	73.216	76.118
	2017	3.227	76.435	79.662
Nafarroa	2015	424	15.144	15.568
	2016	571	15.602	16.173
	2017	1.061	15.778	16.839
Hego Euskal Herria	2015	3.331	86.914	90.245
	2016	3.473	88.818	92.291
	2017	4.288	92.213	96.501
Espainia	2015	76.097	1.135.720	1.211.817
	2016	53.412	1.140.814	1.194.227
	2017	60.910	1.146.917	1.207.827

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aurrezpenaren beste adierazle batzuk

2017an estatuko familien errenta gordin erabilgarriak gora egiten jarraitu du (% 2). Horrenbestez, laugarren urtez, etenik gabe, iraun du susperraldiak. Hala eta guztiz ere, familien aurrezki gordinak behera egin du etengabe 2013az geroztik, eta joera hori nabarmenagoa izan da azken urtean. 2017an familien aurrezki-tasa gordina % 4,9 da, eta gutxieneko balio hori oso urrun dago 2009tik 2013ra bitarteko batez besteko tasatik (% 8-9).

Azpimarratu behar da aurrezki-tasaren murrizketan eragiten duela aurrezki-bolumenaren beherakadak, bai eta errentaren gorakadak ere. Horrekin batera, aurrezkiak gutxi ordaintzen direnez eta egonkortasun sozioekonomikoa handiagoa denez, kontsumoa eta inbertsioa suspertu egin dira enpresa eta familien artean; beraz, funts horiek erabili dira. Azkenik, enpresen arloan, aurrezki-tasa gordinak etengabe egin du gora, eta 2017an % 30,6ra iritsi da. Horrenbestez, bistakoa da enpresen gaitasun finantzarioa suspertu egin dela.

245. koadroa Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Familiak						
• Errenta gordin erabilgarria	787.414	778.824	785.894	805.257	821.962	838.709
• Aurrezki gordina	57.229	63.917	62.058	58.929	53.982	40.927
• Aurrezki-tasa (%)	7,3	8,2	7,9	7,3	6,6	4,9
Soz. ez-finantzarioak						
• Balio erantsi gordina	555.499	542.922	553.516	580.034	605.264	634.502
• Aurrezki gordina	144.764	160.537	158.818	175.385	191.834	194.247
• Aurrezki-tasa (%)	26,1	29,6	28,7	30,2	31,7	30,6


Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

Interes-, kostu- eta ordainsari-tasen bilakaera

Europako Banku Zentralak % 0an eutsi dio erreferentziatzko interes-tasari 2016ko martxoaz geroztik. 2018aren erdialdean banku zentral handiek agian tasak igoko dituztela esaten da, eta AEBko Erreserba Federalak egin ditu jada igoera batzuk.

Tasa orokorren egoera horren ildotik, finantza-erakundeek aplikatutako tasek behera egin dute orokorrean, baina 2017an salbuespen batzuk ikusi dira. Esate baterako, familiantzako maileguetan, etxebizitzak finantzatzeko eragiketetan eta antzekoetan aplikatzen diren tasak behera egiten jarraitzen dute, baina kontsumorako kredituetan ez da hala: tasa altuenak dira, eta hala ere lehengo mailari eutsi diote.

38. grafikoa Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala



Iturria: Europako Banku Zentrala.

246. koadroa Kreditu-erakundeak. Familiei⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioei eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR)

(%)

	2014	2015	2016	2017
FAMILIENTZAKO MAILEGU ETA KREDITUAK⁽²⁾				
– Etxebizitza ⁽¹⁾	2,56	1,98	1,91	1,83
– Kontsumoa ⁽¹⁾⁽³⁾	7,74	7,56	7,12	7,24
– Beste xede batzuk ⁽¹⁾	4,64	3,77	3,62	3,36
SOZIETATE EZ-FINANZARIOENTZAKO MAILEGU ETA KREDITUAK				
– Zorpekoak	3,14	2,34	1,66	1,55
– 250.000 €-ra arteko kredituak ⁽¹⁾	4,18	3,26	2,64	2,33
– 250.000 €-tik 1.000.000 €-ra bitarteko kredituak ⁽¹⁾	2,79	2,05	1,79	1,68
– 1.000.000 €-tik gorako kredituak ⁽¹⁾	1,99	1,96	1,60	1,51
FAMILIEN GORDAILUAK⁽²⁾				
– Agerikoak	0,17	0,12	0,06	0,04
– Eperakoak ⁽¹⁾	0,66	0,39	0,11	0,08
• gehienez urtebeterakoak	0,59	0,35	0,10	0,07
• 2 urtetik gorakoak	0,83	0,24	0,07	0,08
SOZIETATE EZ-FINANZARIOEN GORDAILUAK				
– Agerikoak	0,31	0,24	0,15	0,10
– Eperakoak ⁽¹⁾	0,51	0,31	0,13	0,16
• gehienez urtebeterakoak	0,50	0,29	0,11	0,17
• 2 urtetik gorakoak	0,50	0,66	0,48	0,33

(1): Produktu bakoitzaren batez besteko tasa haztatua, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.

TEDR tasa: Definizio mugatuko interes-tasa efektiboa, UTBtik bereizten dena komisioak barne hartzen ez dituelako.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.



Etxebizitzak erosteko, % 1,83 inguruko tasak aplikatzen dira, eta zenbateko hori azken hamarkadan izan den gehienezko balioaren erdia da (% 3,58 2011n). Enpresen finantzazioari aplikatutako tasen artean, azpimarratu behar da printzipal txikia dutenak gehiago merkatu direla (% 2,79tik % 1,68ra); dena dela, zenbateko handiko eragiketetan tasa txikiagoa aplikatzen da orain ere (% 1,51).

Familien aurrezki-posizioen ordainsariak hutsaren hurrengoak dira aurrezki-modalitate guztietan, eta egoera horrek 2016az geroztik irauten du. Esan daiteke, gehienez ere, sozietate ez-finantzarioen gordailu-posizioen ordainsariak zertxobait handiagoak direla; baina, nolana ere, oso apalak dira, diruaren prezio oso merkearen testuinguruarekin bat datozenak.

3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

2017. urtean, 4.564 inbertsio kolektiboko erakunde (IKE) aritu dira jardunean Espainiako merkatuan, 299.283 milioi euroko ondare globalarekin. Urte horretan, behera egin du, azken urteotako joerari eutsirik, erakunde multzo horren kopuruak (-% 9,4), baina handitu egin da bildu dituzten funtsen bolumena (% 10).

IKEen barruan lau mota nagusi daude; haien artean higigarrietako inbertsio-funtsak (HIF) dira nagusi, guztizko ondarearen % 88,6 baitira, eta 2017an gora egin dute berriro (% 11,5). Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateak (SICAV) bigarren tokian ageri dira (inbertsio kolektiboko erakundeen guztizko ondarearen % 10,5), baina 2017an behera egin dute, bai kopuruan bai ondarean (-% 2,1 eta -% 12,5). Gainerako kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, inbertsio librekoak deritzenek, oso proportzio txikia dute: % 0,7 sinpleek, eta % 0,2 konposatuek.

Ondareak gora egin du, eta tresnen kopuruak behera; horrenbestez, 2017an erakundeen batez besteko ondarea areagotu da (% 21,3) 65,6 milioira iritsi arte. Portaera hori izan dute aztertutako inbertsio kolektiboko erakundeen lau motek. Dena dela, higigarrietako inbertsio-funtsen batez besteko ondarea (158,2 milioi euro) askoz ere handiago da, oraingoan ere, gainerako guztiena baino; izan ere, kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek 11,1 milioi euroko ondarea dute batez beste, inbertsio libreko IKEek 46,6 milioi eurokoa, eta IKEen IKEek 60 milioi eurokoa. IKEen hiru multzo horien batez besteko ondarearen urtetik urterako bilakaera positiboa izan da, baina desberdintasun handiak daude (% 12, % 1,2 eta % 40,6 hurrenez hurren), eta orokorrean urtetik urterako hegakortasun handiagoa dute.

Azkenik, adierazi behar da IKEen ondarearen bilakaera positiboaren alde egin duela ekonomiaren, balore-merkatuen eta inbertsioen suspertze global gero eta handiagoak, bai eta interes-tasa txikiek ere, ohiko aurrezki-gordailuak pizgarririk gabe geratu baitira.

247. koadroa Finantza-arloko inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea eta kopurua

Kontzeptua	Ondarea (M euro)		Erakunde kopurua	
	2016	2017	2016	2017
Inbertsio-funtsak (HIF)	237.862	265.195	1.748	1.676
Inbertsio-sozietateak (SICAV)	32.092	31.425	3.239	2.833
Inbertsio libreko IKEak (ILIKE)	1.889	2.192	41	47
Inbertsio libreko IKEen IKEak	294	472	7	8
Guztira	272.137	299.283	5.035	4.564

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

HIFen eta SICAVen ondare-banaketa

Inbertsio-funtsen ondarea finantza-inbertsioen zorrora bideratu da, batez ere (% 92,2), bai eta altxortegiaren lerrora ere (% 7,5), eta ehuneko oso txiki bat beste zordun eta hartzekodun batzuen saldo garbira. HIFen ondareak 2017an egindako gorakada handia argi eta garbi ikusten da inbertsioetarako zorroaren gorakadan (% 11,8), bai eta altxortegiko posizioen gorakada zertxobait txikiagoan ere (% 8,7).

Inbertsio-posizioen 2017ko bilakaerak adierazten du barneko zorroari esleitutako bolumenak behera egin duela (-% 13,3) eta kanpoko zorroko posizioak nabarmen igo direla (% 31). Beraz, HIFen inbertsio-egituraren bi heren kanpoko zorroari dagozkio (% 60,9) eta heren bat barneko zorroari (% 31,3). Izan ere, 2011tik 2017ra bitartean inbertsio-posizioen berrantolaketak bi zorroen arteko banaketa alderantzikatu du: estatuko inbertsio-tresnetako posizioek behera egin dute pixkanaka, kanpoko merkatuen mesedetan.

Barneko zorroko posizioetako beherakada zorraren balio adierazgarrietan (-% 12,7) eta kreditu-erakundeetako gordailuetan (-% 49,5) nabarmendu da, batez ere, eta ondare-tresnei eta beste IKE batzuei lotutako saldoek gora egin dute (% 27,9 eta % 22,0 hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, barneko zorroari dagokion inbertsioaren bi heren (% 66,7) zor-baloreetan dago (55.389 milioi euro).

2017an, HIFen kanpoko zorroari dagokion kopurua (161.557 milioi euro) barneko posizioen saldoa (83.032 milioi euro) halako bi da, eta zorro horrek urtetik urtera egindako igoera handia nabari da kontuan hartzen dituen posizio gehientsuenetan. Horrenbestez, inbertsioek gora egin dute honako arlo hauetan: zor-baloreak (% 20,4), ondare-tresnak (% 35,2) eta IKEak (% 42,3). Hirurek kanpoko zorroari dagokion inbertsio guztia osatzen dute ia, eta banaketa hori orekatuagoa da barneko zorroarena baino (% 42,0, % 16,8 eta % 40,9 hurrenez hurren).

Azken finean, bi zorroak batera kontuan hartuz gero, 2017ko datuen arabera, HIFen ondarea honela banatuta dago: zorraren balio adierazgarriak (% 46,5), inbertsio kolektiboko erakundeak (% 27,8), ondare-tresnak (% 14,3) eta kreditu-erakundeetako gordailuak (% 3,3).

248. koadroa Higarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtsen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	Inbertsio-funtsak ^(*)			Inbertsio-sozietateak		
	2016	2017	%Δ 17/16	2016	2017	%Δ 17/16
Ondarea	237.862	265.195	11,5	32.092	31.425	-2,1
Finantza-inbertsioen zorroa	219.141	244.598	11,6	28.128	28.805	2,4
Barneko zorroa	95.799	83.032	-13,3	7.707	6.229	-19,2
Zorraren balio adierazgarriak	63.471	55.389	-12,7	2.395	1.654	-31,0
Ondare-tresnak	8.530	10.912	27,9	2.872	2.675	-6,9
Inbertsio kolektiboko erakundeak	6.249	7.626	22,0	1.485	1.626	9,5
Kreditu-erakundeetako gordailuak	17.134	8.657	-49,5	925	236	-74,5
Eratorkiak	406	441	8,8	-5	-6	10,1
Beste batzuk	8	7	-19,4	34	40	15,5
Kanpoko zorroa	123.336	161.557	31,0	20.413	22.566	10,5
Zorraren balio adierazgarriak	56.308	67.794	20,4	4.263	4.397	3,1
Ondare-tresnak	20.035	27.082	35,2	6.466	6.988	8,1
Inbertsio kolektiboko erakundeak	46.435	66.100	42,3	9.653	11.154	15,5
Kreditu-erakundeetako gordailuak	81	75	-7,9	7	0	-100,0
Eratorkiak	474	505	6,4	16	19	23,2
Beste batzuk	2	1	-40,1	8	9	5,3
Zalantzasiko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa	6	9	47,0	8	9	16,9
Diruzaintza	18.393	19.988	8,7	3.792	2.422	-36,1
Gardia zordunak/hartzekodunak	328	608	85,2	172	198	14,7

(*): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

SICAVetako ondarearen bolumenak behera egin du 2017an (-% 2,1); hala eta guztiz ere, erakunde horiek inbertsio-zorroaren bolumenari eutsi diote, zertxobait gora eginez (% 2,4), eta doitze horrek altxortegiaren lerroari eragin dio (-% 36,1). Inbertsioaren osaerak aurreko urteetako joerari eutsi dio: kanpoko zorroa sendotu egin da, posizio horien saldoan urtetik urterako igoera nabarmena izan baita (% 10,5), eta barneko zorroan, berriz, urtetik urterako beherakada handia ageri da (-% 19,2). Horrenbestez, kanpoko posizioak sendotu egin dira, eta SICAVen bidezko inbertsioen hiru laurden (% 71,8) arlo horri dagozkio.

SICAVen barneko zorroan egindako inbertsioei zehatz-mehatz erreparatuta, 2017an nabarmen behera egin dute zorraren balio adierazgarriari esleitutako kopuruak (-% 31) eta kreditu-erakundeetako gordailuenak (-% 74,5), eta HIFen barneko zorroaren kudeaketan joera berberak daude. Bestalde, SICAVen kanpoko zorroko inbertsioetan, gora egin dute, batez ere, IKEei esleitutako posizioek (% 15,5) eta ondare-tresnek (% 8,1). Horrenbestez, bi epigrafe horiek sendotu dute kanpoko zorroari egiten dioten ekarpena (% 49,4 eta % 31 hurrenez hurren), bai eta zorraren balio adierazgarriek ere (% 19,5), azken horiek gorakada neurritsuagoa egin arren (% 3,1).

HIFen tipologia

Taulan ikusten denez, inbertsio-osagai nagusietatik sortutako funtsen tipologia askotarikoa da. Guztira, 15 aldaera daude, bost familia edo multzo handi hauetan banatuta: monetarioak, errenta finkokoak, errenta aldakorrekokoak, beste funts batzuk (inbertsioa berreskuratzeko berme handiagoa edo txikiagoa dutenak) eta funts globalak. 2017an errenta aldakorreko posizioak eta funts globalak sendotu egin dira, biak ere errenta finkoko produktuen eta beste funts batzuen kaltetan, azken horien ehunekoak behera egin baitu, bai partaideak bai ondarea aintzat hartuta.

Hala eta guztiz ere, ez dago ia aldaketarik funts mota bakoitzaren ekarpenean: laurden bat inguru errenta finkokoak dira (% 24,1) eta beste laurden bat inguru errenta aldakorrekokoak (% 28,7), heren bat baino gehiago beste funts batzuk dira (% 39,2), zortziren bat funts globalak (% 12,9), eta ehuneko oso txikia dute funts monetarioek (% 1,6). Banaketa aldatu egin da partaideen kopuruari eta ondareari erreparatuta: monetarioek gora egin dute (% 3,3 eta % 2,7), bai eta errenta finkokoek ere (% 33,8 eta % 40,2), eta beste funts batzuek, berriz, behera (% 21,4 eta % 21,5). Errenta aldakorreko multzoa (% 30,7 eta % 22,2) eta funts globalak (% 10,6 eta % 13,4) tarteko tokian daude, tresna kopuruaren arabera egiten duten ekarpena kontuan hartuta.

249. koadroa Higigarrietako inbertsio-funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduaren 31)

Kontzeptua	Funts kopurua		Partaide kopurua		Ondarea (M €)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Monetarioa	31	27	301.540	342.481	9.722	7.122
Errenta finkoa (euroa)	227	208	1.637.784	1.890.702	54.897	55.907
Errenta finkoa (nazioartekoa)	48	55	408.660	394.364	9.607	7.535
Errenta finko mistoa (euroa)	64	74	366.652	565.190	16.423	20.509
Errenta finko mistoa (nazioartekoa)	84	81	677.146	632.333	23.643	22.898
Errenta aldakor mistoa (euroa)	51	48	100.114	124.671	2.799	3.631
Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa)	117	128	348.377	459.737	13.511	18.756
Errenta aldakorra (euroa)	112	111	395.697	710.928	8.666	12.203
Errenta aldakorra (nazioartekoa)	201	211	1.172.287	1.865.367	17.679	24.065
Kudeaketa pasibokoa	220	202	746.233	638.966	23.602	19.478
Bermatua etekin finkoa	122	79	307.771	190.075	8.680	5.457
Bermatua etekin aldakorra	162	162	513.434	497.846	14.007	14.295
Berme partzialekoa	36	26	39.011	29.687	1.469	1.122
Itzulkin absolutukoa	106	104	565.325	858.170	12.215	16.706
Globalak	203	225	658.722	1.086.937	20.917	35.512
Deirik gabe	21	0	14.858	0	25	0
Guztira HIF	1.805	1.741	8.253.611	0.287.454	237.862	265.195

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

Azkenik, 2017an, eurotan zenbatutako errenta finkoko funtsen ehunekoak handiagoak izan dira (guztizko funts, partaide eta ondarearen % 16,2, % 23,9 eta % 28,8) nazioarteko

beste dibisa batzuetakoak baino (% 7,9, % 9,9 eta % 11,4%); aitzitik, errenta aldakorreko multzoan nazioarteko dibisetako posizioek proportzio handiagoak izan dituzte (% 19,5, % 22,6 eta % 16,2), eurotan zenbatutakoek baino (% 9,2, % 8,1 eta % 6,0). Eta, lerro zehatzei dagokienez, errenta finkoko funtsak eurotan, errenta aldakorrekoak nazioarteko dibisetan eta funts globalak dira garrantzitsuenak. Lehenengo biak, batera, ia bi milioi partaide dituzte, eta hirugarrenak milioi batetik gora. Ondarearen zenbatekoak, berriz, 55.907, 24.065 eta 35.512 milioi euro dira, hurrenez hurren.

4. BURTSA-MERKATUA

2017ko ekitaldia burtsa-jardueraren susperraldi ageriko batekin itxi da. Merkatuek kontuan hartu dituzte funtsezko adierazleek emandako datuak, eta datu horiek jardueraren susperraldia eta finkatzea iragarri dute, finantzazio publikoa eskuratzeko aukera egonkorra lagun. Atzean utzi dute erretorika ezkorra, hala nola gerra komertzialen ondorioen ingurukoa edota Brexitari buruzko negoziazioak ez burutzeak lekarzkeen arriskuei buruzkoa.

Bestalde, diru-agintaritzak normaltasunera itzultzen ari dira pixkanaka. Aipatzekoak dira Erreserba Federalak egin dituen hiru igoerak (ehuneko 0,25 puntu), eta horrenbestez % 1,5eko esku-hartze tasarekin itxi du urtea. Horrez gainera, amaitutako zorraren berrinbertsioa bukatu da. Europako Banku Zentralak, berriz, esku-hartze tasari eutsi dio (% 0), hedapen kuantitatiborako programarekin batera, baina urtearen azken hiruhilekoan iragarri du jada zorraren erosketari murrizteko neurriak hartuko dituela 2018ko urtarrilean.

Azken finean, faktore multzo hori erabakigarria izan da 2017an ekonomiaren egoera aurreko urteetakoa baino egonkorragoa izateko; izan ere, askotan minimo historikoak ezarri dira, hegakortasunari dagokionez. Hori guztia erabakigarria izan da eragileen konfiantza sortzeko eta emaitza positiboak lortzeko, eta akzioen negoziazio-merkatuen errealizazio garrantzitsua ere azpimarratu behar da.

Horren haritik, burtsa-indize nagusien urtetik urterako bilakaeran nabarmenak izan dira, alde batetik, AEBko eta Japoniako gorakada handiak (% 25,7 Dow Jones indizea, % 29,1 Nasdaq indizea, % 19,2 Nikkei indizea), eta euroguneko indize guztien gorakada apalagoak: % 7,9 Madrilgoa, % 9,8 Pariskoa, % 13,1 Frankfurtekoa, % 7,1 Eurostoxx... Kontrako bilakaera izan du Londresko FT-SE 100 indizeak: 2016an euroguneko indizeak baino gehiago egin zuen gora, argi eta garbi, eta 2017an, berriz, haien azpitik ibili da (% 6,7). Labur esanda, 2017ko ekitaldiaren ezaugarri nagusia izan da burtsa guztien errentagarritasunak hobera egin duela, hegakortasun oso txikiko testuinguruan.

250. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite	
2015	9.544,2	4.637,1	10.743,0	6.242,3	17.425,0	19.033,7	3.267,5	5.007,4	
2016	9.352,1	4.862,3	11.481,1	7.142,8	19.764,1	19.114,4	3.290,5	5.383,1	
2017	10.093,1	5.339,4	12.979,9	7.622,9	24.837,5	22.784,5	3.524,3	6.950,2	
<i>Urtetik urterako aldakuntza (%)</i>									
2015	-7,2	8,5		9,6	-4,9	-2,2	9,1	3,8	5,7
2016	-2,0	4,9		6,9	14,4	13,4	0,4	0,7	7,5
2017	7,9	9,8	13,1	6,7	25,7	19,2	7,1	29,1	

Oharra: Abenduaren 31n.

Iturria: Ekonomia-adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Amaitzeko, egoera orokor horren barruan azpimarratu behar da 2018ko urtarrilaren 3an indarrean jarriko direla 2014/65/EB Zuzentaraua, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa (MiFID II), eta 600/2014 Erregelamendua (MiFIR). Horri begira, 2017a merkatuak prestatzeko urtea izan da, eta orokorrean, eragile guztiak prestatzeko urtea. Izan ere, MiFID II zuzentarauak lehendik indarrean dauden zenbait alderdi zabaltzen ditu, eta honako arlo hauetan jartzen du arreta, batez ere: inbertitzaileari babes hobea ematea (informazioa, komunikazioa, ulergarritasuna); Europar Batasuneko arauak beste produktu eta zerbitzu batzuetara hedatzea; enpresa eragileek edo merkatu arautuek bete beharreko baldintzen zabaltzea¹; eta beste herrialde batekoak izanik EBn eragiketarako egiten dituzten enpresen arteko aseguramendua eta datuak babestea. Halaber, gardentasunari eta teknologien erabilerari lotutako jarraipena eta ikuskapena sendotu ditu (algoritmoak, maiztasun handia) prezio eta merkatu egokiak sortzen direla bermatzeko. Aldaketa horrek balore-merkatuen lege berri bat ere ekarriko du, eta dagokion parlamentu-izapidea hasiko da 2018an.

4.1 IKUSPEGI OROKORRA

Lehen mailako edo jaulkipeneko merkatuak

Akzioen segmentuan, jaulkipenak edo salmenta-eskaintza publikoak (SEP) oso behean geratu ziren 2016an (hala eta guztiz ere, positiboan), eta horren ostean 2017ko datuek susperraldia dakarte. Izan ere, akzioen jaulkipen garbiei dagokien saldo garbia 21.664 milioi eurokoa da. Zenbateko hori 2016koaren halako lau da, eta 2015ekoa baino handiagoa. Bestalde, beste balore batzuen segmentuan aldaketa handi bat ageri da: saldo negatiboa izatetik (-35.226 milioi euro) positiboa izatera igaro da (17.332 milioi euro).

¹ Araudiaren aldaketa bereziki garrantzitsuak errenta finkoko merkatuetan, akzioekin parekatzen direlarik, gardentasunaren, egikaritzearen eta babesaren aldetik.

Beraz, merkatuaren bi segmentuak –baloreak eta akzioak– antzeko bilakaera izan dute 2017an, biak suspertu egin baitira, bakoitza bere neurrian, eta ibilbide desberdinak egin ondoren. Susperraldi hori eragileen konfiantzaren, beste finantzazio-modalitate batzuen baldintzen eta ospe-estandarren berreskuratzearen ildo beretik dator.

251. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak

(M eurotan)

Kontzeptua	2015	2016	2017	Urtetik urterako aldakuntza	
				Ald. 16/15	Ald. 17/16
Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balore izendunak	-50.432	-35.226	17.332	15.206	52.558
– Finantza-erakundeak	-99.114	-63.806	-37.871	35.308	25.935
• Finantza-erakunde monetarioak	-31.157	-21.557	8.719	9.600	30.276
• Bestelako finantza-bitartekariak	-67.957	-42.249	-46.590	25.708	-4.341
– Administrazio publikoak	43.383	25.299	46.903	-18.084	21.604
• Administrazio zentrala	50.172	27.847	46.962	-22.325	19.115
• Autonomia-erkidegoak	-6.788	-2.549	106	4.239	2.655
• Toki-korporazioak	0	0	-165	0	-165
– Sozietate ez-finantzarioak	5.298	3.281	8.300	-2.017	5.019
Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak	17.737	5.098	21.664	-12.639	16.566
– Kapital-zabalkuntzak Funtsen ekarpenak	17.737	5.098	21.664	-12.639	16.566
• Finantza-erakundeak	12.271	2.571	8.206	-9.700	5.635
• Sozietate ez-finantzarioak	2.527	2.527	13.458	0	10.931
– Salmenta-eskaintza publikoak (SEP)	0	0	0	0	0
Jaulkipen garbiak eta SEPAk, guztira	-32.695	-30.128	38.996	2.567	69.124

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Akzioak ez diren baloreen saldo garbi positiboan eragin du, batez ere, sektore publikoaren jaulkipen garbien gorakadak (% 85,4), 46.903 milioi euro izatera iritsi baitira. Zenbateko hori administrazio zentralaren bizitasunari zor zaio; izan ere, haren ekarpena izan da ia emaitza guztia, eta autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazioen beharaldia konpentsatu du. Halaber, nabarmendu behar da autonomia-erkidegoetako administrazioen saldoa positiboa izan dela, estreinakoz 2011z geroztik.

Bestalde, finantza-erakundearen segmentuak saldo negatiboa izan du berriro ere, amortizazioak handiagoak izan baitira jaulkitako bolumena baino. Posizioak desagitzen hainbat urte jarraian eman ostean saldo positiboa izan duten finantza-erakunde monetarioak barne hartzen ditu¹ (8.719 milioi euro); hala eta guztiz ere, zenbateko horrek

¹ Eremuan egoitza duten kreditu-erakundeak eta finantza-erakunde guztiak barne hartzen ditu, haien jardura baldin bada inbertsio- eta finantza-merkatuetakoak ez diren gordailuak edo gordailuen antzekoak jasotzea, kredituak ematea edo baloreetan inbertitzea norberaren kontura (termino ekonomikoetan bederen). Azken multzo hori diru-merkatuko funtsek osatzen dute, batez ere.

ez du konpentsatu segmentuko emaitza globala, bestelako finantza-bitartekarien epigrafeak¹ saldo oso negatiboa izan duelako 2017an ere (-46.590 milioi euro).

Azkenik, akzio kotizatuen edo ez-kotizatuen jaulkipenak bultzatutako negozio-segmentuak gora egin du 2017ko ekitaldian (21.664 milioi euro). Gorakada horretan funtsezko eginkizuna izan dute sozietate ez-finantzarioek, haien ekarpena izan baita amaierako saldoaren % 62,1 (13.458 milioi euro). Eta gainerako guztia (% 37,9) sozietate finantzarioen jaulkipen-jarduerari dagokio, azken hiru ekitaldietan balio positiboak izan ondoren.

Bigarren mailako merkatuak: burtsak

Espainiako burtsa-merkatuen bilakaerari dagokionez, esan behar da IBEX indizea² suspertu egin zela 2017ko maiatzera arte, eta orduan izan zuela gehieneko balioa³. Aldi horretan finkatu egin zen, antza, 10.000 puntuko zorua, eta harrezkero hobekuntzaren erritmoa baretu egin da; nolana ere, nahikoa izan da urtearen amaieran muga hori gainditzeko (10.093,1 puntu).

Errenta aldakorraren (akzioak) negoziazioa 650.012 milioi eurokoa izan da. Adierazle horrek zertxobait behera egin du (-% 0,2), baina merkatuek errebalorizazioaren ildoari eutsi diote (% 9,9 2017an, % 6,1 aurreko urtean). Emaitza horiek 2015ean hasitako hobekuntza-prozesua sendotu dute: indizea suspertu da pixkanaka, kontratazioak hobera egin du, eta, batez ere, enpresa kotizatuak errebalorizatu dira. Hain zuzen, 2017ko ekitaldia ixtean, balioa 1,14 bilioikoa izan da (% 65 espainiar enpresena), eta urtetik urterako igoera, berriz, % 9,9koa.

Azkenik, 2017ko bilakaeran bi alderdi azpimarratu behar dira. Alde batetik, burtsaren garrantzia, finantzazio eta inbertsio berria eskuratzeko tresna den aldetik, kapital-zabalkuntzen bitartez, kotizaziorako onarpen berrien bidez, eta saltzeko eta erosteko eskaintza publikoen bitartez (2017an 39.723 milioi euro). Bestetik, merkatuetan egonkortasuna nagusitu da, eta horrek hedapena eta errebalorizazioa bultzatu ditu; horrenbestez, arriskuaren gaineko hegakortasun-indizeak behera egin du oraingoan ere (% 13,38 eta ehuneko -4,65 puntu, 2016koarekin alderatuta).

¹ Batez ere aseguru-konpainiek, pentsio-funtsek edo mutualitateek, higiezinetak inbertsio-sozietateek, inbertsio-funtsek, hipoteka-kredituko sozietateek, leasing erakundeek, factoring erakundeek, diru-merkatuen sozietate bitartekariak eta elkar bermatzeko sozietateek.

² 2017ko urtarrilean 25 urte bete ditu.

³ 11.135,5 puntu maiatzaren 5ean. Balio txikiena, berriz, urtarrilaren 23an izan zuen: 9.304,8 puntu.

252. koadroa Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa

Tituluak	2015	2016	2017	(M eurotan) %Δ 17/16
Funts publikoak	23.523	4.775	265	-94,5
Beste obligazio batzuk	659	659	170	-74,2
• Bankuak	0	0	0	0
• Gainerakoak	0	659	0	-100,0
Obligazioak, guztira	435	5.434	435	-92,0
Akzioak (SIBE, Burtsa art. Lot. Sist.)	960.327	650.908	650.012	-0,2
• Bankuak	337.752	227.957	239.766	5,2
• Elektriakoak	115.751	90.080	79.854	-11,4
• Eraikuntza	44.587	36.789	26.633	-27,6
• Komunikazioa	143.214	66.127	71.265	7,8
• Gainerakoak	319.022	229.956	232.494	1,1
Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.)	480	480	480	0,0
• Madrilgo Burtsa	360	360	360	0,0
• Bartzelonako Burtsa	120	120	120	0,0
• Bilboko Burtsa	0	0	0	0
• Valentziako Burtsa	0	0	0	0
Akzioak, guztira	960.807	651.389	651.244	-1,0

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Urtean zehar egindako bilakaerari erreparatuta, adierazi behar da indizearen bilakaeraren parekoa izan dela neurri handi batean. Horrenbestez, lehen seihilekoan negoziatutako bolumena handiagoa izan zen bigarren seihilekoan negoziatutakoa baino; izan ere, bigarren seihilekoan jarduera moteldu egin da, eta zenbatekoek behera egin dute kotizatutako tituluen kopuruan (% 40), negoziatutako bolumenean (% 44), eragiketetan (% 48) eta aginduetan (% 49). 2018ko lehen zatian 338.767 milioi euroko bolumen kotizatu ageri da, 2017ko lehen zatikoa baino % 7,1 txikiagoa; beraz, urtearen bigarren zatian legokioke jarduera osatzea eta berreskuratzea, 2018ko ekitaldia aurreko urteko balioen antzekoekin ixteko.

Bankuek eta komunikazioek gorakada nabarmenak izan dituzte 2017an (% 5,2 eta % 7,8), aurreko urteko beherakaden ostean; aitzitik, enpresa elektrikoek eta eraikuntzak behera egiteko joerari eutsi diote (-% 11,4 eta -% 27,6). Gainerako sektoreak suspertu egin dira (% 1,1), eta multzo horrek ekitaldiaren azken emaitzan eragin du. Horrenbestez, 2017an negoziatutako bolumenaren bi heren koadroan ageri diren lau sektore nagusien artean banatuta daude: bankuek heren bat baino gehiago dute (% 36,9), eta haien atzetik daude enpresa elektrikoak (% 12,3), komunikazioa (% 11,0) eta eraikuntza (% 4,1), eta gainerako sektoreen artean % 35,8 dute.

Bigarren mailako merkatuak: errenta finkoa

Errenta finkoko merkatuek birmoldaketa handia izan dute 2017an, alde batetik, BMEren ARCO sistema berriko negoziazio-jardueragatik, eta bestetik, arau berriak indarrean jarri direlako, hala nola sistemaren erabiltzaileen artean informazioa mugatzen dutenak, errenta finko korporatiboen salerosketei dagokienez (zor-agiriak, hipoteka-zedulak, enpresa-bonuak eta abar). Zor publikoaren kasuan, Altxorraren adierazleek eguneko eragiketen % 8,5eko batezbestekoa aurreratu zuten 2017an, antzinako sistemak (CADE) eta haren ordezkioak bat egitean. Eguneko batez besteko negoziazio horren % 82,4 legokieke bono eta obligazio konbentzionalei, edo bereizi gabeiei, % 15,6 Altxorraren Letrei, eta % 1,9 balore bereiziei. Multzo horien artean azpimarratu behar da bi joera desberdin daudela: Letren negoziazio-jarduerak behera egin du (-% 14,1), eta bonuen epigrafe nagusiak, berriz, % 12,8 egin du gora.

253. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: estatuaren zorra ⁽¹⁾

(M eurotan)

Kontzeptua	2015	2016	2017	%Δ 17/16
CADE sistema – ARCO sistema ⁽²⁾	48.703	40.824	44.299	8,5
– Bono eta obligazio bereizi gabeak	40.435	32.375	36.516	12,8
– Bono eta obligazio bereiziak	824	382	856	124,1
– Altxorraren Letrak	7.444	8.067	6.927	-14,1

(1): Eragiketa sinpleen eguneko batez besteko negoziazio-zifrak (eskura, epera eta birjartzeak). 2017an, araudi-aldaketaren ondorioz, errenta finko pribatuko merkatuek negoziazioen multzoari buruzko datuak argitaratzeari utzi diote (sistemaren erabiltzaileen arteko zuzeneko salerosketak).

(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistema Espainiako Bursak eta Merkatuak taldearen eskuetara igaro da; hark kudeatzen du, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemaren arabera homologatuta dago.

Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.

BMEk kudeatutako beste merkatu batek –MEFF, produktu deribatuetan espezializatua– zertxobait behera egin du, 2016ko jarduerarekin alderatuta (-% 1,7), pixka bat handiagoa izan da aukeren beherakada (-% 5,8), eta eperakoek, berriz, gora egin dute (% 3,8), kontratu edo eragiketa kopuruaren arabera. Orobat, eperakoen artean behera egin dute IBEX indizeekin lotuta daudenak, eta aukeretan, berriz, banakako akzioekin lotutakoek, eta alderantziz. Bestalde, MEFFen errenta finkoko eperakoak 5 urtez negoziatu ondoren, 2017an berriro desagertu dira egiaz negoziatutako aktiboen artetik.

254. koadroa Espainiako eperako finantzarioen eta aukera finantzarioen merkatua *

(kontratuak, milakotan)

Kontzeptua	2015	2016	2017	%Δ 17/16
- IBEX indizeen gaineko eperakoak	10.599	9.395	7.938	-15,5
- Akzioen gaineko eperakoak	10.348	9.836	12.019	22,2
- Errenta finkoko eperakoak	8	0,4	0	-100,0
- IBEX indizeen gaineko aukerak	5.444	3.222	4.304	33,6
- Akzioen gaineko aukerak	21.421	22.901	20.316	-11,3
Eperako finantzarioak, guztira	20.955	19.231	19.957	3,8
Aukera finantzarioak, guztira	26.865	26.123	24.620	-5,8
MEFF, guztira	47.820	45.354	44.577	-1,7


(*): Egindako eragiketak.

Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak).

4.2 BILBOKO BURTSA

Bilboko Burtsaren indize orokorrak beheraldi txikiak izan zituen 2015ean eta 2016an (-% 5,4 eta -% 5,6 hurrenez hurren); 2017an berriz, aldaketak antzeko kopurua eman du, baina gorantz (% 5,9), aurreko urtearekin alderatuta. 2017an, orokorrean, puntuazioa 2014an eta 2015ean baino txikiagoa izan da, baina 2016an baino handiagoa, eta IBEX-3 indizearen parekoa: 1.479 puntutik 1.749 puntura bitartean ibili da. Goranzko joera izan zuen 2017ko lehen bost hilabeteetan, eta zertxobait behera egin du urtearen gainerako hilabeteetan.

39. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtsa (2017)



Iturria: Bilboko Burtsa.

255. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, gehienekoa eta gutxienekoa

Urtea	Azkena	Gehienekoa	Gutxienekoa
2009	1.921,55	1.936,17	1.149,30
2010	1.615,18	1.975,39	1.398,65
2011	1.366,61	1.808,89	1.210,76
2012	1.331,00	1.443,33	974,81
2013	1.658,57	1.660,80	1.231,66
2014	1.668,99	1.849,71	1.601,52
2015	1.578,45	1.941,39	1.530,92
2016	1.489,50	1.542,97	1.283,77
2017	1.577,50	1.748,99	1.479,05

Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.

Iturria: Bilboko Burtsa. Indizeak. Grafiko historikoak.

Kontratazio-bolumenari dagokionez, 2017an Bilboko merkatuan egindako transakzioak 117.825 milioi eurokoak izan dira, eta % 7,9 egin dute gora, 2016ko datuekin alderatuta. Urte hartako zifrak aurreko urteetakoak baino askoz ere txikiagoak izan ziren (-% 40,2), eta orduko galeraren zati bat berreskuratu da. 2017ko berrikuntza da errenta finkorik ez dela kontratatu, aurreko urtean bizitasun oso handikoa izan eta gero.

256. koadroa Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*

Kontzeptua	(M eurotan)				
	2014	2015	2016	2017	% Δ 17/16
E. aldakorra - (SIBE)⁽²⁾	172.655	180.713	107.132	117.825	10,0
Errenta finkoa	1.989	1.856	2.116	0	-100,0
Eragiketa-aretoan ⁽¹⁾	0	0	0	0	-
Elektronikoa (SEND) ⁽²⁾	61	0	0	0	-
SAC-CL-BVB ⁽³⁾	1.928	1.856	2.116	0	-100,0
Guztira	174.644	182.570	109.248	117.825	7,9

(*): Erosketak + salmentak.

(1): Korroen merkatu tradizionala.

(2): SIBE (Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) etengabeko merkatuak eta SEND (Zorra Negoziatzeko Sistema Elektronikoa), AIAF merkatuarekin loturik eta txikizkariari zuzenduta.

(3): Kontuko Idazpenen eta Bilboko Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzuak (SAC-CL-BVB) EAEko zor publikoa kudeatzen du 1991. urteaz geroztik, eta 1993. urtetik aurrera, Bilboko Burtsaren gainerako balio eskusiboak ere kudeatzen ditu.

Iturria: Bilboko Burtsa.